euskal dunon
Egunkaria
• larunbata • 1999ko maiatzaren 22a -- X. urtea -- 2.623. zenbakia -- Salneurria: 125 pta. 6 libera

liluratura
Urbano Tavares:

«Botere ekonomikoa alde guztietan dago, baita literaturan ere»

• 54

Greba orokorrak ia Hego Euskal Herri osoa gelditu zuen

Patronala lanorduen murriztea negoziatzera behartuko duela diote sindikatuek

■ LANAREN eta aberastasunaren banaketa aldarrikatzeko atzo deitutako greba orokorrak ia Hego Euskal Herri osoa gelditu zuen. ELA, LAB, ESK, EILASek alde batetik, eta CCOOk eta UGTk bestetik, «historikotzat» jo zuten greba. Sindikatuon arabera, Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan, industria sektorean jarraipena %86koa izan zen 50 langiletik gora dituzten enpresetan. Mobilizazioak ere arrakastatsuak izan ziren, Hegoaldeko lau hiriburuetan 45.000 lagun bildu baitziren manifestazioetan. Patronalaren aburuz, ordea, greba deialdiak ez zuen erantzun berdina izan ez lurraldeka ez sektoreka. • 21-30



GARI GARAIALDE

Pasaiako portuan bezala, Hego Euskal Herriko gune industrial gehienetan lanuztea ia erabatekoa izan zen.

gizartea

■ Baionako eta Donostiako ospitaleen arteko harremanak sendotzeko topaketak egin dituzte • 13

europa

■ **Gerra Balkanetan**

Diplomazia saioek ez dute konponbiderako urratsik lortzen • 31

mundua

■ Indonesiako Poliziak tiroka sakabanatu ditu ikasleak • 35

kirola

■ Alavesek gogor egin beharko dio Barcelonari Mendizorrotzan hiru puntuei eutsi ahal izateko • 41

■ Euskal Herriko buruz buruko finala jokatuko dute gaur Arretxek eta Belokik Donostiako Atano III.a pilotalekuan • 44

Mendi Magalean

Euskal Mendi Federakundearen 75. urteurrena

Festa berezia ospatuko dute bihar Elgetan • 46-48

■ **Elkarrizketa** ..... **Carlos Garaikoetxea**



• EAKO LEHENDAKARIA •

«Konplexuak kendu eta gure herria defenditu behar dugu»

«ETAk pentsatu behar du positiboa dela historiara pasatzea herriari hitza emanez» • 6-7

EAJk Mayor Oreja ministroarekin harremanak hautsiko dituela iragarri du Arzalluzek

■ EAJk Jaime Mayor Oreja Espainiako Barne ministroarekin dituen harremanak hautsiko dituela adierazi zuen atzo Xabier Arzalluz alderdiburuak. Madrilgo Gobernuak ministroarekin bat eginez gero harekin ere hauts dezakeela gaineratu zuen. Hausturaren oinarrian Mayor Orejak Madrilgo Oriente plazan Guardia Zibilari «Espainia fronte nazionalistetatik defenditzeko obligazio demokratikoa» eman izana dago. Arzalluzek «antidemokratikoa» iritzi dio horri. • 8-9

iritzia

gaurko...

...elkarrizketa

Marisa Tejedor

IZARO AUTOESKOLAKO IDAZKARIA

«Autosim-i esker ikasleek, denbora eta dirua aurrezteaz gain, gidatzeari beldurra galtzen diote»

Autosim gidatzen ikasteko makina jarri du martxan duela hilabete Bilboko autoeskola horrek.

■ **Zer da autosim?**

Kotxe baten osagai guztiak dauzka. Hainbat pantailatan gidatzean ohikoak diren egoerak itxuratzen dira, eta horietan eman beharreko erantzunak praktika daitezke. Izan ere, ikasleek bolantearen eta enbragearen erabilera, martxa aldaketa eta beste ezagutu eta kontrolatzen ikas dezakete errepidera atera baino lehen. Ondorioz, inoiz kotxearekin ibili ez direnen hasierako beldurra kentzen da.

■ **Orduan, praktika gutxiago egitea dakar?**

Lehenengo lauzpabost klaseetan kotxearen oinarrizko funtzionamendua irakasten zaie ikasleen %90i. Autosimi esker horiek guztiak aurretik ikas daitezke. Beraz, ikasleek praktika gutxiago egin behar izaten dituzte eta, ondorioz, dirua eta denbora aurrezten dute.

■ **Zelako harrera izan du ikasleen artean?**

Pozik daude, praktikak hasten dituztenean, errealitateko egoeretara gutxi gorabehera ohitu direlako, eta ez dira hain inseguruak sentitzen. Gainera, erabilera ezin errazagoa da.

Kristina Martin
BILBO

...esaera *«Umeari lehenengo hortza aurkitzen dionak soineko berria irabazten du»*

...hizpideak

Greba 35 orduko lanastearen alde: elkartasuna aldarrikatzen

■ Hego Euskal Herriko langileek atzo egindako lanuztea «historikotzat» jo dute sindikatuek. Milaka eta milaka lagunek bat egin dute deialdiarekin lanaren eta aberastasunaren banaketa eskatzeko. Espero bezala, maiatzaren 21eko protesta «elkartasun greba» izan da eta haren segimenduak ia Hego Euskal Herri osoa geldiarazi du.

35 orduko lanastea hurrengo mendeko aldarrikapen nagusietakoa izango da gizartean. Neurri hori ez da, noski, egun Mendebaldean lan eskasiari aurre egiteko modurik perfektoena; bai ordea, errealistena. Izan ere, ez dugu txakur ametsik egin behar neurri horrek den-dena kolpetik konponduko duela pentsatuz. Frantzian, esaterako, Aubry Legeak 57.000 lanpostu sortu edo ez desagertzeko balio izan du iazko ekainean onartu zenetik. Arau hori gabe zer izango zen zehatz-mehatz esaterik ez dago, baina lehenago patronalak proposatutakoari erreparatzeak ez du baikorrak izateko aukera handirik ematen.

Aubry Legearen alde positiboena beste bat da baina: araudiak irauli egin ditu eragile ekonomikoen arteko elkarrizketaren kontzeptu zaharkituak, Gobernuak, helburuak eta datak ezarriz, negoziatzera eraman baititu enpresari eta sektore guztiak. Ildo horretan, atzoko grebak gurean ere hausnarketa egiteko balio behar luke: gaian erantzukizuna duten guztiak mahaian eseri eta denon artean etorkizuneko lan merkatua elkartasunez birplanteatzea.

Iritzi publikoaren eragina

■ Armen gaineko kontrola zertxobait areagotuko duen lege bat onartu du EEBBetako Senatuak. Errepublikanoen jarrera aldaketa nabarmentzekoa da, orain arte edozein murrizketaren aurka agertu baita. Baina Columbineko eta tankerako beste zenbait sarraskiren ondoren, armen jabetza mugatzearen alde agertu da EEBBetako iritzi publikoa. Kasu honetan, armen industria boteretsuak baino indar gehiago izan du.

Neurririk gabeko jazarpena

■ Iazko Tourrean *Festina auziak* dopinaren mamua azaleratu zuenetik, ezer ez da berdin txirrindularitzan. Gertaera hark kirol honetan gauza asko zuzendu behar direla agerian utzi zuen: gizakiaren neurrira eginiko txirrindularitza behar dela, ehunka kilometro eta dozenaka mendate eroen abiaduran egiteko espagetiak baino zerbait gehiago behar dela... dopina halabeharrez zabalduta dagoela. Horri konponbidea jartzerakoan, ordea, agintariek ez dute asmatu. Txirrindulariak gaizkiletzat hartzen dituzten legeak jarri dituzte indarrean. Gaur bai eta bihar ere bai, ate joka dituzte goizeko ordu txikietan odol kontrolak egiteko, UCI, Federazioa, NBO edota Polizia den jakin gabe. Kontrolak beharrezkoak dira, baina erakunde bat ardura dadila lan horretaz. Ziklistak aspertuta daude, eta, egoera hau zuzendu ezean, greba orokorra egin dezakete horiek ere.

...pertsonaiak

PAKO IRIONDO • Euskal Mendizale Federakundeko presidenteak Euskal mendizaletasunaren egoera sendoa azpimarratu du Federakundearen 75. urteurrenean.

ANJEL LERTXUNDI •Euskararen inguruko sakralizazioak ekar lezakeen akritizismoaz eta hori gainditu beharraz aritu zen idazle oriotarra Tolosako Galtzaundi Forumean.

URBANO TAVARES•38 urteko ibilbide literarioa duen idazle portugaldar honek gizakiaren sendotzea du helburu nagusi, bere hitzen arabera. Txalaparta argitaletxeak bi liburu kaleratuko dizkio.

...datua

XV. eta XVI. mendeetako musika interpretatuko du Hondarribiko Eskifaia abesbatzak *Joaquin Pildain gogoratuz* programaren barnean.

...adierazpena

«Indonesiako Suharto diktadore ohiaren atxiloketa bultzatuko dugu, genozidioagatik»

•

Jose Ramos-Horta
1996ko Bakearen Nobel Saria

... seiko urrea

IÑAKI IRAZABALBEITIA

Porlan berria

Egun denak ez dira berdin, zioen aspaldiko abesti batek. Izatez, egun guztiak desberdinak dira, baina azken bolada honetakoek badute zerbait komunean: ezohizko egunak bizi ditugu aspalditxo honetan Euskal Herrian. EUSKALDUNON EGUNKARIAk larunbatero eskaintzen didan txoko honetatik begiratuta, ezinbestean, mirestu behar ditut hemendik aurrerako orriak osatu behar dituzten kazetariak. Bi egunez behin edo, urtekarietan agertzeko moduko albisteak gertatzen ari dira geurean eta, bertigoari eustea lortzen dudanean, behintzat, garai historikoan bizi garela ohartzen naiz. Aste honetan bertan, adibidez, egun berean eta ordu berean geure etorkizunarentzat funtsezkoak izango diren —diren, esan beharko nuke— bi gertakari izan dira.

Asteartean PNV-EAJ, EA eta EH alderdiek legealdi honetarako oinarrizko adostasun-testua hitzartu dute, bizi garen garai honetarako zutarri izango den lankidetzagiroa hitzez jasotzen duena. Egun berean, ordu berean, «Bai Euskarari Akordioa» izenpetzen ari ziren Hego Euskal Herriko 647 eragile sozial; euskal gizartearen oinarri-oinarrizko egiturak, beraz, euskararen normalizaziorako urrats ausarta, ilusioz beterikoa egiten ari ziren. Bigarren jazoera hau aurrekoa baino irispide luzeagokoa iruditzen zait, ez baitago unean uneko koiuntura politikoaren menpe eta inguruko baldintza sozio-politikoek eragingo badiote ere, luze irauteko xede garbia adierazten duelako. Alderdi politikoek sinatu dutena ere molde berekoa izatea nahi nuke, noski, baina ez da hori antzematen hain erraza. Tamalez, euskararen aldeko pauso historiko honek ez du dagokion eta zor zaion entzute mediatikoa lortu eta beldur naiz ez ote den ia oharkabean pasatuko.

Halakoxea da gure Euskal Herria, paradoxaz beterikoa. Euskararen aldeko puntuak izenpetu dituzten alderdiek ez dute kontuan izan gizarte-mugimendua azken hilabete hauetan jorratzen ari den prozesua, eta aintzat ez hartze horrek berez dagokion protagonismoa kentzea eragin du. Nire irudiko, gertatu denak kalte handia egin digu gizarteak bere egitura politikoekin, eskuz esku, lan egin behar duela aldarrikatzen dugunoi. Ez al zen hori eraikuntza-lan honetan behar genuen porlan berria?

• MATTIN •

...gure aberria askatu arte

• JOSELU CERECEDA •

[IPARRA HEGOA FUNDAZIOKO KIDEA]

Aspaldi honetan gure errealitatearen parametroak etengabe aldatzen dabiltza, etorkizunarekiko aurrikuspenak hobetzen —ikuspuntu aurrerakoi eta abertzale batetik ikusita, noski—. Aldaketa hau, ezinbestez, kontutan hartu behar dugu gure azterketa politikoak egiteko eta erabakiak hartzeko orduan. Soziopolitika munduan ez dago erabat estatiko denik ezer. Atzo zuria zena gaur gorria izan daiteke.

Joan den maiatzaren 18an EH, EAJ eta EAren artean sinaturiko Ituna beste aldaketa esanguratsu bat izan da, erainkuntza nazionalaren mesederako, batez ere. Itun horrek, euskara eta enpleguaren aldeko borrokak, besteak beste, indartuko ditu, euskal lurraldetasunaren kohesioa landuz beti. Egia esan, benetan pozgarria da zelan doan indartzen Abertzaleon Batasuna ikustea, inolako sektarismo barik, euren onetik erabat aterata dabiltzan PP-k eta PSOE-k kontrakoa esan arren (zelako espektakulu tamalgarria ematen ari diren! Abertzale mundua sendotzen doan heinean, haiek, etsipenak eraginda, euren ezgaitasuna eta demokrazia eta kultura eskasia agerian uzten dituzte.

Bizi dugun garai historiko honetan, gure lan egiteko era —instituzionala barne— aldatu eta areagotu beharrean gaude. Beste metabolismo politiko-kultural batek bizi behar gaitu, baina, esan gabe doa, gure helburu estrategikoak aldatu gabe. Honek hausnarketa sakon bat, hala indibiduala nola kolektiboa eskatzen digu, eta, ondorioz, lan handiagoa arlo guztietan. Ez dakit kontzienteak garen gaur egun guztiok daukagun erantzukizunaz.

Kontraesanak sortu eta sortuko dira, Ezker Abertzalearen, EAJren, EAren eta Lizarra-Garazi Akordioa onartu eta onartuko duten guztien baitan, eta taldeen artean. Lehenengo lana, oztopo hauek gainditzea da eta izango da. Zaila, baina egin beharrekoa, Historiak eskatzen baitigu. Iraganean gure artean sorturiko eztabaida eta istilu ahantzezin batzuk guztiok dauzkagu buruan. Nik ez dut dena ahaztu behar dugula esan nahi, baina *artxibatu* gutxienez, bai. Eta ez dezagun pentsa gu akatsgabekoak, *onenak* izan ginela, pekatari bakarrak *besteak* zirela. Horrela pentsatzea gezur galanta izateaz gain, harrokeria hutsa izango litzateke. Guztiok izan genituen hutsak. Guztiok. Etorkizunak, Historiak, Aberriak, etengabe indarrak metatzea, elkarrekin gogoz lan egitea eskatzen digute eta, ondorioz, gure buruari sekulako astinketa eman behar diogu. Historiara egokitu behar!

Datorren ekainaren 13an Europar Parlamenturako, Nafar Parlamenturako, udaletxerako eta, Euskal Autonomia Erkidegoan, batzar nagusietarako hauteskundeak dauzkagu. Lehengo eta behin, abertzaleok emaitza onak lortzen baditugu —lortuko ditugu— beste aurrerapauso bat emango dugu gure eraikuntza nazionala garatzeko. Baina, garrantzitsuena, geroko lana behar den bezala aurrera eramatea udaletxeetan, batzar nagusietan, Nafar eta Europar Parlamentuetan.

Europan (ze pena elkartuta aurkeztu ez izana!) azalduko dugu Euskal Herrian benetan gertatzen dena, betikoek bidaltzen duten intoxikazioa deuseztatzeko. Bestaldetik, gure pentsakera; Espainiak, Frantziak eta Europar Batasunak ezagutu behar dute Nazio bat garela, autodeterminazio eskubidea dagokigula eta Europan, herri guztiekin lankidetasunaz, Nazio bezala jardutea dugula helburu.

Nafarroan, Nafar Parlamentua eta udaletxeak (baita kontzejuak ere) eratuko dira. Euskal Autonomia Erkidegoan, udaletxeak eta batzar nagusiak. Aukera paregabea, 35 orduko lan astearen, enpleguaren, euskeraren alde eta erromeskeriaren aurka lan sakon eta eraginkorra egiteko. Batzar nagusiak, lurralde bakoitzeko *parlamentua*, foru aldundiak, diputazioak, *gobernuak* ziren bitartean.

Diputazioak eta udaletxeak betidanik elkarri lotuta, oso, egon dira. Gaur egun, diputazioek maneiatzen duten dirutzatik udalatxeek erabiltzen dutena ateratzen da. Esanguratsua. Nafarroan, Foru Hobekuntza dela eta, mota honetako egiturak desberdinak dira, parte hartze instituzionala tradizio handiagokoa izanik.

Udaleko lana aipatzean, ezin dugu ahaztu Udal Ordezkarien Biltzarra (UOB). Lizarra-Garazi Akordioa, euskal gatazka konpontzeko oinarria eta tresna den bitartean, UOB eraikuntza nazionalari dagokio. UOBk izaera nazionala dauka, Euskal Herri osoa ordezkatzen duena, hots, euskal lurraldetasuna bere osotasunean hartuta, sozioekonomia, euskara, hezkuntza... behar den bezala aztertzeko eta lantzeko lanabes paregabea.

Ezin gara egon gatazka noiz konponduko zain gure nazioa eraikitzen hasteko. Gure etorkizunaren jabe bakarrak gu geu gara, beraz, oraindik, lan, lan eta lan, euskararen, enpleguaren, justiziaren, herriaren alde... Gure Aberria erabat askatu arte.

LORE ERRIONDO

Musika

Musikastea dugu aste hau Errenteria/Oreretan. Hamaika urte bada dagoeneko ospatzen hasi zenetik, eta urtero-urtero, bakar batean ere kale egin gabe izaten dugu aukera bertan gure musikaz gozatzeko, bera entzun eta ezagutzeko ere. Musikariak direnak eta ez direnak, musikazaleak, kulturzaleak eta beste edonork ere badu aukera bertaratzeko. Beti egokitzen da obraren baten estreinaldiaren lekuko izateko parada, beti sorkuntza eta musika garaikidea deritzonaren berritasunei erreparatzeko beta, beti-betiko musikaz, abesbatzez blaitzeko aukera eta beti, beti ere euskal eta Euskal Herriko musikagileek beren txokoa.

Izan daiteke herrikoa naizelako edo, atxikimendu berezia izatea, baina ez dut uste. Ez dut askotan izaten bertaratzeko aukerarik, baina, hala ere, zoragarria da bereziki gaiarekin interesaturik daudenez gainera *herritar arruntak* horrelakoetan parte hartzen ikustea; goi-mailakoa izanagatik ere herrikoia baita oso Musikaste. Aurtengoan, Eresbilen hogeita bosgarren urteurrena ere ospatzen denez omenaldia ere jasoko dute egitarauaren baitan bertako parte hartzaileek. Omenaldi biziki merezitakoa. Musikaste sortu eta bi urtera jarri bazen ere martxan Eresbil artxiboa, antolatzaileek dioten modura, «gurasoak baina urrunago egin du hegan haur honek», gehienetan gertatzen den legez. Baina baita isilpeko lana egin ere, bai ezkutuko lana, bai lan eskerga, handikeriarik gabekoa, zalaparta gutxikoa, baina zeinen garrantzitsua gure herriko musika ondarea arakatu, bildu eta berreraikitzea.

Horrelako ekimenetan beti somatzen dut gutxiespen puntu bat, eta hala izan ezean ere zor zaion aitortzarik ez zaiola egiten gutxienik. Ezin uka altxorra dugula bertan, baina ez gorde eta ezkutatzeko altxorra, hedatzekoa eta lau haizetara zabaltzekoa baizik. Ikerlarientzako erreferentzia gune delakoan nago dagoeneko, baina ez dut uste horretara mugatu behar dugunik, hesiak jarri baino halako lana guztion aberastasun kulturalaren ondare izan dadin egin beharko genuke guztiok ahalegin. Hara hor harrobia ikastetxeek, musika-eskolek...

...kornerra

MIKEL ELORZA

Lan eskubidea

■ Iratzargailu lana egiten du grebak. Baina ez naiz ari jendea kalera ateratzeaz; lan egiteko eskubideaz baizik. Urteak egin ditzake, eta egiten ditu, lan eskubideak lotan, konstituzioen eta hauteskundeetako programen altzoan zurrungan. Lege eta deklarazio gorenek babesten duten arren, alferrik hasiko zara zure lan eskubidea gauza dadin eskatzen. Printzipio orokor dela esango dizute, aplikazio zuzena nekez duena... harik eta greba egiten duzun arte. Orduan inongo indarrik bortitzenarekin esnatuko da lan egiteko eskubidea... greba egin ez duenarena, jakina. Lan egiteko eskubidea haizatuko dizute gobernu, ugazaba eta komunikabideek. Piketeen jardun zanpatzaileaz ariko zaizkizu. Koakzioaz. Eta grebaren oihartzun eta balizko arrakasta pixkat nahastu orduko, atzera lotara bidaliko dute. Hurrengo grebara arte.

Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain
zuzendariari@jalgi.com
943 300 228

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

zuzendariari

Nazionalisten desadostasuna Vianan

Lizarra-Garazin sortutako oihartzunak ez dira iritsi Nafarroako mugan dagoen hiri txiki honetara. Bere harresi altuek lurralde osoan zehar zabaltzen ari diren batasun-oihuak entzutea galarazten diete lagun batzuei. Aintzinako garaian Gaztelari aurre egiteko bertokoak batzen zituzten harresi horiek ere ez dute Espainiaren menpe jarraitu nahi duten sikarioei aurre egiteko vianar abertzaleen batasuna lortu. Eta beti bezala ez dugu erruduna kanpoan bilatu behar, gure artean baizik. Ez genituzke hurrengo hauteskundeak irabaziko, ziur aski, baina lortutako zinegotzi-kopuruari esker gure ahotsa ozenago entzungo litzateke udaletxean. Azkenean bi zerrenda abertzale lehian izango dira eta horrexegatik Nafarroako EAJri galdetu nahi diot: Zergatik ez zuen ezer egin bere kideek hautagai-zerrenda batua adostu zezaten?

Vianan izan ezik, leku guztietan bozketa bidez eta batzarrean hartzen dira erabakiak. Herri honetan, aitzitik, EAJren aldeko gehiengoa EHrekin denon zerrenda egiteko prest bazegoen ere, kide bakar batek nahi zuena egin da. Pertsona baten gutizia ulertezina eta alderdiaren pasibitateagatik abertzaleok sekulako aukera galdu dugu Erriberan eta ezingo ditugu gure botoak zerrenda abertzale bakar batean bildu. Beharbada hori zen norbaiten isileko desioa. «*En la lista sólo van los que nosotros digamos y por cojones nos vais a tener que votar, así que...*» argudiatu omen zien EHkoei, hauek beraien baldintza onartezinak onetsiko zituztelakoan. Hala ere, Bianako ezker abertzalearen kandidatura berri bat 5 egunetan osatzeko gaitasunaz ahaztu zen karlista ohi hura. Halaber, gure proposamenek aurrera egitekotan hegoaldeko nafar abertzale guztiok elkarrekin lan egin behar dugula ahaztu zuen.

Azkenik, Vianako EAJko gainontzekoei eta alderdi honen zaleei zera esan nahi nieke: Ez ezazue utzi zuen borondatea itsu politiko baten eskuetan, zeren eta gizartearen eremu guztietan, ikastolan, udalean, zuek kontrolatu eta manipulatu nahi baitzaituzte. Auskalo noren onerako!. **Natxo Antoñana** • Viana (NAFARROA)

DESSIN DE STAVRO / THE DAILY STAR

Kolore biziak gazte(her)rian!!

Jadanik ezaguna da euskal gazteriaren konpromezua Euskal Herriarekiko. Gazte antolakuntza ezberdinen konpremezuz beteriko milaka dinamika eta borroka izan dira Euskal Herria kolore biziz margotu dutenak: irrati libreetan lanean, gaztetxeak sortu eta garatzen, Euskal irakaskuntzaren alde borrokan, Euskal Herria desmilitarizatzen... Belaunaldiz belaunaldi trasmititu eta indartu diren dinamikak izan dira.

Borroka hauek eta gazte mugimenduak berak ere iturburu bera dute: herri kontzientzia batean jaiotako gazteak gara, kontzientzia honetatik jaiotako gazte mugimendua gara eta inposaturiko lurralde zatiketa hori gainditu eta herri bakar bat, gazte(her)ri bakar bat eraikitzea dugu helburu. Ildo honetatik antolatu ditugu *I.go Hirumuga Gazte Topaketak*. Hirumuga mendia Araba, Nafarroa eta Gipuzkoa batzen dituen mendia delako, mugarria baino gehiago.

Topaketa hauetan Sakana, Lautada eta Goierriko Gazte Mugimenduko partaideok gure harremanak sakontzeko parada daukagu Maiatzaren 21, 22 eta 23an Ziordian. Gure dinamikak eta beharrak aztertu eta elkar trukatzeko aukera ezin hobea. Goierri, Sakana eta Lautadako gazteei gonbit egiten dizuegu, Ziordian, Topaketa hauetan parte hartzeko. **Iker Arroniz eta beste bi sinadura** • ZIORDIA (NAFARROA)

galdeiozu...



Roman Sudupe

• GIPUZKOAKO AHALDUN NAGUSIA •

Zer lortu nahi du Espainiako Gobernuak Kontzertu Ekonomikoaren aurkako erasoekin?

Julen Azpeitia [Donostia]

■ **ARGI DAGO** Espainiako eskema autonomikoan Euskadi bezalako herri baten autogobernu nahia ez dela erraz sartzen. «Denontzako kafea» esamoldeaz ezagutu den joera bide politiko eta parlamentarioak erabiliz aurrera ateratzen lortu ez bazuten ere, bide judizialetatik ezartzen ahalegintzen dira orain. Aldi berean, eraso horiek beraiek erakusten dute Kontzertu Ekonomikoak autogobernurako daukan garrantzia, orain arte beste batzuk mespretxuz begiratu badute ere.

Maiatzaren 25etik aurrera
Joseba Tapia • TRIKITILARIA
izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua.
Bidali zure galderak ordurako.

• MONTXO •

astejorran

• IÑIGO URKULLU •
[EAJko LEGEBILTZARKIDEA]

Bada Lehendakariari zer ikasirik

Nik uste dut aste hau, politikoki hitz eginda, interesgarrienetakoa izan dela, 1998ko irailean ETAk bere su-eten mugagabea iragarri zuenetik. Euzko Alderdi Jeltzaleak, Eusko Alkartasunak eta Euskal Herritarrok gobernu-hitzarmen bat izenpetu dugu; bertan, besteak beste, helburu politikoak lortzeko, bide politikoek baino ez dutela balio berretsi da. Eta frogatu dugu, legegintzaldirako ituna ez dela izan hauteskunde helburuek edo etekinek bultzatuta. Ezen hiru aldeok gogobetetzen gintuen akordio batera heldu garenean izenpetu dugu, hauteskunde-kostuei begiratu barik. Egotzi izan digute, botorik ez galtzearren nahita atzeratzen ari ginela hitzarmena izenpetzea. Horra hor egitatea, agerian, argi eta garbi, bozketak baino hilabete lehenago.

> Egotzi izan digute, botorik ez galtzearren nahita atzeratzen ari ginela hitzarmena izenpetzea. Horra hor egitatea, agerian, argi eta garbi

Baina, nirekiko behintzat, Euzko Alderdi Jeltzaleak autonomi hauteskundeak Juan Jose Ibarretxe lehendakaritzarako hautagaiarekin zergatik irabazi zituen erakutsi dugun aste bat ere izan da. Lehendakariak ostegunean Legebiltzarreko Osoko Bilkuran ondo frogatu zuen, Herri honekiko ikuskera politikorik argiena duten pertsonetako bat dela. Euskaldun guztien lehendakaria dela eta, hasi berri dugun normaltze-prozesuari sendotasunetik ekiteko, Herri honek behar duen aitzindaria dela. Joan den ostegunean PP bakar-bakarrik geratu zen Legebiltzarrean. Halako jarrera setati eta numantiarkeriazko bati eutsi guran; euskal gizartea zatitu eta elkarren kontra ipintzeko eginkizun nagusiarekin, ez besterekin, hau da, Estatuko gainerako lekuetan hautesleak erakartzeko helburuarekin. Eta hori herenegun ondo frogatuta geratu zen haien diskurtsoari jarraitu zion edonorentzat; hain zuzen ere, hedabideen laguntzarik gabe diskurtso politikorik ez dutela. Haien mezua, apainduta, asteon zehar Enrique Villar-ek erabili duen bera izan da. Setakeria eta aurkaritza daude haren hitz bakoitzaren atzean. Enrique Villar ez zen okertu, ez, esan nahi zuena esan zuen, ez besterik.

• CARMELO BARRIO •
[EAEko PPko IDAZKARI NAGUSIA]

Gernika

Orain badirudi burukideren batentzat kritikagarria eta aurka egitekoa dela Partidu Popularra bezalako alderdi politiko bat, bere eskubide demokratikoak erabiliz, Gernikara joatea bere hautagaiak aurkeztera, eta, horrela, Autonomia Estatutua sakontzea eta hartaz gogoeta egitea.

Atutxa jaunak irain larria egin dio Partidu Popularrari, eta, argi eta garbi Goebbelsen tankera hartuz, gure adierazpen askatasuna mugatzen ahalegindu da, hala nola galarazten normaltasun demokratikoaren ondorioz logikoena izatea Gernikan askatasunez programa eta planteamendu politikoez hitz egitea.

Atutxa jaunak, on Javierrek, bere adierazpenekin traizioa egin dio Gernikak ordezkatzen duen bake eta askatasun espirituari, eta, oraindik larriago, sinbolo hori Partidu Popularraren aurkako jaurtigai gisa erabiltzen ahalegindu da, gure tradizio eta eskubideen sorleku eta egoitza den hiribilduaren aurkako bonbardaketa izugarriarekin lotu nahi izan duelako gure alderdia. Horri iraina esaten zaio, eta iraina defizit demokratikoa da.

Eta, gainera, gure ustez, burukide bizkaitarrak, bere hitzak ez zuzentzean, bere hitz injustuengatik barkamenik ez eskatzean. nahiko nabarmen utzi ditu bere uste demokratikoak, eta jarrera marjinatzaile eta frontista bat agertu du. Askotan ematen du batzuen ustez beren ildotik ez doazenek aukera eta eskubide gutxiago dituztela. Ez luke beharrezko izan behar, baina Atutxa jaunari gogorarazi nahi diot zer den guretzat Gernika, eta zergatik ematen diogun horrenbesteko garrantzia gure ekitaldiak han egiteari, bai eta bertan egiten ditugun hitzaldien edukiari ere. Foru Hiribildua bake, askatasun eta demokrazia sinboloa da, eta gure forutradizioen gauzatzea. Tradiziook, gure ikuspegi politikotik, erabateko zentzua ematen diote arabarren, gipuzkoarren eta bizkaitarren bizikidetasunari. Gainera, euskal herritarrok elkar ulertu eta mota guztietako garapena lortzeko beharrezko oinarriak jartzeko inoiz izan dugun tresnarik onenak, Gernikako Estatutuak, hain zuzen ere, haren izena du.

Ez bazaio gustatzen Barne ministroa Gernikara edo gure lurraldeko beste edozein lekutara joatea, jarraitu behar badu gu iraintzen akusazio kriminalak eginez, uste badu bestela pentsatzen dugunok baimena eskatu behar dugula herri honetan bizitzeko edo nahi duguna esateko, orduan, Atutxa jaunak ezkutatzen eta justifikatzen duena, hain zuzen ere, euskal demokraziaren espirituaren eta pluraltasun demokratikoaren errespetuaren aurkakoa da, bai eta Gernikak ordezkatzen duen foru-tradizioaren baitan askatasunaz bilduta dagoen kontzeptuaren aurkakoa ere.

• Erredakzioan itzulia

gogoratuz

• JOXAN ELOSEGI •

• Duela 360 urte

Ajorabide bat, mila Ajorabide

1634ko maiatzaren 12an sinatu zuen Felipe IV.a Espainiako errege eta Bizkaiko Jaunak gatzaren errege monopolioa Bizkaiko lurraldean ezartzen zuen agindua, eta biharamunean luzatu zuen 1631ko irailetik aurrera neurri horren kontra borrokatu ziren bizkaitarren aldeko indultua. Ohi bezala, ordea, garratza izan zen erregeren grazia, eta matxinatuen buruzagiak, hamabi guztira, kalitzeko ordena eman zuen aldi berean. 1634ko maiatzaren 24an, atzitu zituzten Ajorabide, Morga, Puente, Larrabazter eta Bizkaigana anaiak eta itzuri egin ahal izan zuten beste seiek. Egun berean urkatu zituzten lehen hirurak, kartzelan; biharamunean izan zen besteen txanda, Bilboko plaza zaharrean, herriak eskarmentua har zezan.

Bi urte luze bazuen Espainiako erregek gatzaren monopolioa eta foruaren kontrako beste neurri batzuk xedatu zituena; haserre bizian zegoen herri xehea eta, historian oso gutxitan lez, Gernikara bildutako Batzarrak ez zituen neurri haiek onartu. Aurrean zituen Espainiako monarkia, haren korrejidorea, haren armada, jauntxo bilbotarrak eta juntero aberats *prakabaltzak*, beren interesak erosoago zaintzearren batzarretan euskaraz jardutea debekatzen zutenak. Bortxazko bidetik jo zuten hauek, eta erantzun egin zuen herriak, Gabriel Arestik gomutaraziko zigun bezala: «Kantatu behar ditiat junta errebelatuak: Hil bitez galtza beltzak! Egizu euskeraz! Hau Bizkaia da, eta ez Belorado!». Estatuaren, bortxaren arrazoia nagusitu zen berriro ere: ordaina behar zuen gatzak, larrutik ordaindu beharrekoa.

«Lastima dik Euskal Herriak mende bakoitzean ez zaizkiola hamar Aiorabide sortzen. Lotsa dik Euskal Herriak urte bakoitzean ehun Aiorabide hiltzen dituela, bizitzearen aitzakiarekin, ogiaren estakuruarekin, etsearen desenkusarekin. Gorroto dik Euskal Herriak Aiorabide bat edo mila Aiorabide ez baitu ezagutu nahi». Bizkaiak Ajorabide bat izan zuela gogorarazi zigun Arestik, Bilboko orduko ordezkarien eta bere garaiko euskaldunen doilorkeria damu; Euskal Herriak Bilbao duela erakutsi zigun Arestik. Lasai, Gabriel. Badute *prakabaltzek* non kezkatua: are jakin gabe ere, egunean baino egunean ajorabidetarragoa da Euskal Herria.

Carlos Garaikoetxea
• EAko LEHENDAKARIA •

«Konplexuak kendu eta gure herria defenditu behar dugu»

■■■Abertzaleak batera jarduteko baldintzak badaudela uste du, eta une hori eraikuntza nazionalerako aprobetxatu behar dela dio. ■■■ Nazioarteko egoerak gehiegi ez duela lagunduko pentsatzen du, baina Estatuen mesederako ere ez dela izango dio. ■■■ Hego Euskal Herria bilduko lukeen eredua konfederala izatea proposatzen du lurraldetasunean aurrera egiteko.



MIREN SAEZ

■ **Legegintzaldirako hitzarmena azken hogei urteotako garrantzitsuena dela esan zenuen. Zergatik?**

Abertzaleok lehen aldiz norabide berean lan egiteko araua jarri dugu, joko araua finkatu dugu, eta hori berez oso garrantzitsua da. Horrek eragin du alderdi espainolisten erantzuna; izan ere, agerian utzi dute aldarrikapen nazionalaren eraginkortasuna inoiz baino indartsuago dagoela. Gainera, esango nuke abertzaleen artean izan den zatiketa gainditzeko oinarria jarri dugula. Orain arte, bestalde, elkarri bizkarra emanda jardun dugu, gizarte abertzalean bi bloke izan dira eta hori konpontzeko unea iritsi da orain. Hala ere, kontuz jardun beharko dugu, konponketa horrek ez dezan beste haustura handiago bat sortu.

■ **Beraz, itunaren garrantzia ez da Jaurlaritzari egonkortasuna ematea, ezta?**

Madrilgo Gobernua

«Gobernuak arazoa konpondu nahi izan du historikoki —Godoytik hasi eta Francoraino— konpondu nahi izan duen bezala. Baina uste dut eskema hori zalantzan jartzen ari direla»

Ez, askoz gehiago da. Orain arte beti aldarrikatu dugu —guk, eta beste alderdiek ere bai—, ideia guztiak defendi daitezkeela hitzekin soilik. Urrats hori egitea lortu dugu. Beraz, nahiz eta lehen fase batean espainolistak noraezean egon jokalekua zailagoa delako, azkenean onartu beharko dute guztiok tresna berdinak ditugula.

■ **Itun honek prozesua azkartzeko balioko duela adierazi duzue. Zergatik?**

Uste dut alderdi guztiek ez dutela berdin hartuko. Haatik, gizartean politikaren kontzepzio demokratikoa sustatzen doan neurrian, orduan eta hobeto onartuko da. Esaterako, Eskoziako partidu nazionalistako kide batek esaten zidan gehiengoa izanda Eskoziaren independentzia aldarrikatuko dutela. Hori hemen oraindik ez lukete onartuko, baina Eskozia bezelako gizarte demokratiko batean naturaltasun osoz hartuko lukete. Hemen konzientzia demokratiko hori falta da. Espainiak onartu du nazioarteko foroetan autodeterminazio eskubidea, demokraziaren eredutzat du bere burua, baina herri batek autodeterminazio eskubidea eztabaidatzea bidezkotzat ez jotzeak, horrek agerian uzten du ez duela jite demokratikorik. Kontzeptu demokratiko horiek errotu behar dira. Pazientzia izan behar dugu.

■ **Marraztu duzun demokrazia hori urrun dago oraindik?**

Gogortasunaren diskurtsoak emaitza onak eman dizkie PPri eta PSOEri, ezin dugu hori ahaztu. Gainera, ikaragarrizko jakobinismoa dago, eta horrek ohiko eskema horietatik ateratzea eragozten du. Gobernuak, bestalde, arazoa konpondu nahi izan du historiroki —Godoytik hasi eta Francoraino— konpondu nahi izan duen bezala. Hala ere, uste dut, gutxienez zalantzaren bat baduela eta uste dut orain eskema hori zalantzan jartzen ari dela. Edonola ere, Gobernuaren ondoan dauden iritzi sortzaile horiek, botere faktikoek, beti garrantzi handia izan dute. Eta orain ere bai.

■ **Irtenbidea oso zaila dela ematen du. Uste duzu Madrilen eta Euskal Herriaren arteko krisia larriagotuko dela?**

Prozesu hauek beti dira zailak. Egoerarik zailena litzateke gatazka odoltsua, eta beste muturrean legoke arazoa bide politikoak erabiliz konpontzea. Halaber, askatasunaren bidea egin nahi duten herriek bere zailtasun propioa izaten dute, eta ez da txikiena izaten. Beraz, uste dut orain bi arazo zailenak konpondu ditugula. Bata litzateke Estatuaren erantzun odoltsuarena, bestea barne arazoarena, estrategia ezberdinena alegia.

■ **Txarrenen arteko jokalekuetan onena geratzen zaigu, borroka politikoarena, alegia. Nazioarteko egoerak mesede egingo digula uste duzu?**

Ez. Batzuk baikor agertzen dira alde horretatik. Esaten dute herrien Europan erraztasun gehiago izango dela gure helburuak lortzeko, baina nik ez dut horrela pentsatzen. Estatuen inertziak eszenatoki hori ez zailtzera darama; ez dituzte mugak aldatu nahi, ezta nazioarteko ordezkaritza nahastu nahi ere. Bestalde, gure inguruetako demokraziak sendoak dira, zibilizatuak erabat, eta hori faktore positiboa da. Jakingo bagenu herri honen borondatea agerian uzten, jokaleku hori lagungarri litzateke, baina ez nazioarteko foro horietan herrien soberaniak onartzeko jarrera dagoelako. Gure alde dago Espainiako eta Frantziako estatu jakobino horiek ezingo dutela nahi dutena egin besteek atzeman gabe.

■ **Etxe barruan gauzak egiteko unea iritsi da, hala ere. Eraikuntza nazionala bizkortu egingo da fase honetan?**

Eraikuntza nazionalean lehentasunak daude. Lurraldetasuna, esaterako, erraza da aldarrikatzea, baina errealitatea zein den jakinda konpondu behar da. Jakin behar da epeak onartzen prozesu horretan, lehentasunak jartzen. Nire ikuspuntutik lurraldetasuna da lehena, prozesu honetan lortzen joan behar dugun soberania mailaren gainetik. Gehien kezka-

Herria

«Herri baten autogobernuak exijitu behar du zenbait baliorekin identifikatzea, zure kultura onartzea. Alde horretatik konplexuak kendu behar ditugu»



MIREN SAEZ

«ETAk pentsatu behar du positiboa dela historiara pasatzea herriari hitza emanez»

tzen nauen arazoa da lurraldearen zatiketa. Horri jarri behar diogu arreta gehien, gainditu behar dugun barne arazo delako.

■ **Autodeterminazioaren aitortza ere hor dago. Nola ikusten duzu prozesu hori?**

Esango nuke ez dugula planteatu behar gaur bertan egin beharko bagenu bezala. Uste dut aldez aurretiko lan bat dagoela. Herritar askok, batez ere Nafarroan eta Iparraldean, euskalduntasunaren kontzeptu berea egin behar dute, Katalunian sozialistek edo Eskozian loboristek bezala. Euskalduntasun hori bazegoen garai batean Nafarroan, Kanpionen garaian esaterako. Orain doilortuta dago, alienazio prozesu bat dago, manipulatuta dago euskalduntasunari dagokion guztia. Orain, biolentziarik gabe, hori guztia berreskuratu behar dugu lehenengo.

■ **Hala eta guztiz ere aurrera egingo ez balu?**

EAEk bakarrik nahiko balu aurrera egin, lurraldetasun printzipioari traizioa egitea litzateke autodeterminazio prozesu bat zabaltzea EAErentzat bakarrik? Beno, bada nik uste dut nola egiten den, horren arabera neurtu beharko genukeela. Uste dut gatazka politikari konponbidea emango liokeen negoziazio horretan gutxienez erreserba bat egin beharko genukeela beste lurralde horiei buruz. Aukera horrek, gainera, betiko izan beharko luke, nahi dutenean Euskal Herriaren prozesu horretan sar daitezen. Izan ere, ezin gara itxaroten eta itxaroten egon guztiok ez gaudelako.

■ **Aldaketa ahalbidetzeko urratsak zehaztuko zenituzke?**

Abertzaletasunak, pentsatzen dut, akats bat zuzendu behar du. Izan ere, ez da kasualitatea bi ente politiko eratu izana Hego Euskal Herrian, Nafarroa eta EAE. Egoera gainditzeko, eredu konfederala baliagarria izan daiteke. Negoziazio prozesu bat badago ados jarri beharko dugu Nafarroako alderdiekin, gure gustuko izan ez arren. Ez dut uste mailari dagokionez parekatu daitezkeenik. Nafarroak, izan ere, historia bat du, eta onartzen dugu hori legitimazio modura edo onartu beharko ditugu Nafarroaren eta EAEren erakundeak antolaketa ia konfederal batera joateko. Hori urrats bat litzateke integrazio nazionalaren bidean.

■ **Hezkuntza, kultura eta hizkuntza bultzatzea ezinbestekoa da herria egiteko. Orain arte egindakoari erreparatuz, uste duzu azkarrago joan behar dela? Egokia iruditzen zaizu hartutako bidea?**

Kontu handiz jokatu behar da gai hauekin. Gogoan dut lehendakari izendatu nindutenean atzerriko kazetariek galdetu zidatela ea funtzionario espainol guztiak kanporatuko genituen eta funtzionario euskaldunak jarriko genituen haien ordez. Naturaltasun osoz galdetu zidaten. Izan ere, Espainiak eta beste herri batzuek kanpotik etorritakoei Konstituzioa sinatzeko eta bertako Legeak errespetatzeko exijitzen diete. Herri baten autogobernuak, jakina, exijitu behar du zenbait baliorekin identifikatzea, zure kultura onartzea. Alde horretatik konplexuak kendu behar ditugu gainetik. Uste dut kasu hauetan zuhurregiak izaten ari garela, gehiegi.

■ **Adibideak jarriko zenituzke?**

Esaterako, Hezkuntza sailburuak gure herria, gure historia edo gure geografia ezagutu beharra azaldu duenean sekulako kritikak izan ditu. Ahotsa altxatu diote, eta ez hemengoek. Leuntasun gehiegirekin aztertzen dira kontu horiek eta horregatik ez gara askotan argiak eta ausartak. Beraz, jakinda herri irekiena garela, konplexuak astindu eta gure herria defenditu behar dugu. Europarrak kexatzen dira EEBBetako inbasio kulturalarengatik, eta babes neurriak hartzen dituzte, kuotak eta abar. Eta hemen daukagu herri bat kultura indartsu batzuez inguratuta, eta zenbait diskriminazio positibo jarri nahi dituenean, eskandalua pizten da. Erabat akonplexatuta gaude gai horiekin.

■ **Aurrera egiteko abiapuntua zein litzateke?**

Bi hitzetan esateko zaila da, baina hizkuntzak alor guztietan egon behar du. Euskarak bizi behar badu, gizarteko arlo guztietara zabaldu behar du. Brusela, esaterako, frantses munduan enklabe flamenkoa da, eta horiek bankuari, adibide bat jartzearren, orriak flamenkoz exijitzen diote. Gainera, hara joaten denak onartu egiten du eta errespetatu egiten du. Horrelako zerbait egin beharko genuke hemen.

Felix Iriarte
GASTEIZ

ETAren su-etena behin-behinekoa dela gogoratu du EAko lehendakariak. Hala ere, uste du aukera paregabea duela estrategia aldatzeko eta hitza behin betiko herriari emateko. «Pentsatu nahi dut ETAk ulertu duela unea iritsi dela politikagintzan murgiltzeko. Egoera konpontzeko urratsa egin du, eta eskatuko nuke inork ez eskatzea egindakoaren gaitzespena. Aurrera begiratu behar da. Estrategia aldaketa espero dut; izan ere, estrategia armatu guztiak baino eraginkorragoa da herri oso baten borondate argia. ETAk aldaketa hau behin betiko egiteko ausardia izan behar du, eta pentsatu behar du historiara igarotzea askoz positiboagoa izango dela horrela eginez, herriari konfiantza emanez».

ETAk urrats hori egin ez dezan «probokazioak» izango direla pentsatzen du, halaber. Probokatzaileak «betiko» jokalekua amesten dutenak lirateke, Espainiako botere faktikoak hain zuzen ere. «Eraikuntza nazionalerako egokiena izanik biolentzia desagertzea, beste batzuek, normala denez, nahiago lukete estrategia aldaketa hori ez egitea. Horiek nahi dute ETA desagertzea, baina hutsune hori alderdi abertzaleen batasunak bete gabe».

Autodeterminazio eskubidea aitortu arte ez dela desegingo jakinarazi du ETAk. Garaikoetxeak, hala ere, ez dio bestelako garrantzirik ematen adierazpen horri. «Egia da nolabait prozesuaren zaintza papera hartu duela beretzat. Baina adierazpen horretan erretorika asko dagoela uste dut. Seguruenik ezin du gauetik egunera aldatu, baina ez litzateke ezer aldatuko zeregin hori gordeko ez balu berarentzat».

EAJk Mayor Orejarekin dituen harremanak hautsiko dituela iragarri du Arzalluzek

Antidemokratikoa deritzo Guardia Zibilak ideia abertzaleen aurka jo behar duela esatea

Iñaki Uriarte / **Bilbo**

EAJk Jaime Mayor Orejarekin hautsi eta Espainiako Gobernuak ministroarekin bat egitekotan harekin ere hauts dezakeela iragarri zuen Xabier Arzalluzek. EAJko lehendakariaren esanetan Mayor Orejak frontismo eta ETArekiko menpekotasuna leporatzen dienean alderdi abertzaleei haren estrategiaren porrota izkutatu besterik ez du nahi.



XOUSE SIMAL

Iñaki Anasagasti eta Xabier Arzalluz atzo Bilbon eskainitako prentsaurrean.

ARZALLUZEK gogor kritikatu zue Mayor Orejak Madrilgo Oriente Plazan «Espainia fronte nazionalistatik defenditzeko obligazio demokratikoa» eman izana Guardia Zibilari. «Guardia Zibilaren armak ez dira ideia ez idazluma; Cetme, pistola eta subfusila dira. Espainia fronte nazionalistatik defenditzeko obligazio demokratikoa ezarri diote, eta logikoki hor gaude gu ere. Ez dago fronterik, baina fronte deitu nahi bazaio hor gaude gu ere».

Mayor Orejaren hitzak, «ideien kontra armak botatzea», antidemokratikoak ezezik «totalitarioak» direla nabarmendu zuen burukide jeltzaleak. Arzalluzen ustez «egiazko mehatxu bat da guretzat». Herri Batasunako Mahai Nazionala espetxeratzeko agindua eman zutenean eginiko kritika oroitu zuen halaber. «Gizartean gauzak dauden moduan, justizia dagoen moduan, egunen batean baita besteok ere -eta gure buruari begiratzen genion- Gobernuari oztopo egiten badiogu hor dago bidea: halako giro bat sortu, argumentoak zorroztu eta azkenean epaileen eskuetan utzi. Gaur Herri Batasunari gertatzen ari zaiona geuri ere gerta dakiguke gauzak horrela badoaz».

Iñaki Anasagastirekin batera eskainitako prentsaurrekoan Mayor Orejaren hitzak bere egiten dituen argi ditzan eskatu zion Aznarren gobernuari. «Hitz hauek Madrilgo Gobernuak bere egingo balitu behartuta egongo ginateke Gobernu horrekin ere geure hartu-emanak etetera, hain zuzen ez litzatekeelako izango benetan gobernu demokratiko bat. PP ez da erdirantz doan alderdi bat, hori kontsumo publikorako izango da, totalitarioa da eta mehatxu erreal bat da», gaineratu zuen.

Arzalluzek oroitarazi zuen ere Mayorrenak bezalako jarrerek Ajuria Eneko Itunaren 8. puntuari muzin egiten diotela. Arzalluzek gogorarazi zuen 8. artikuluan demokratikoki defenditutako ideia guztiei lege araudian sartzeko bidea aitortzen zaiela.

Mayorren estrategiaren porrota

Arzalluzek oroitarazi zuen ministerioan sartu zenean Mayor Orejak entzun nahi izan zuen guztiari azaldu ziola hiru puntuko plana: ETAren buruzagitza atxilotzea, HBren Mahai Nazionala kartzelaratzea eta *Egin* ixtea. «Mahai Nazionala kartzelan sartu zuen, ez zuen lortu ETAren buruzagitza atxilotzea, nahiz eta baten bat atxilotu zuen Frantziako Gobernuari ondo ordainduta. Eta galdetu egin behar zaio ea zer lortu duen. Orain Mahai Nazional berria dago, are agilagoa, egoerari hobe moldatzen zaiona; *Egin* itxi zuen eta orain egunkari berri bat dago *Gara*, agilagoa eta garaiari egokituagoa. Hori da Mayorren politika... gutxiagogatik dimititu egin dute beste batzuk», ondorioztatu zuen.

XABIER ARZALLUZ

Abertzaleen kriminalizazioa

«Gobernuari oztopo egiten dionarentzat hor dago bidea: giroa sortu, argumentoak zorroztu eta azkenean epaileen esku utzi. Gaur HBri gertatzen ari zaiona geuri ere gerta dakiguke gauzak horrela badoaz»

PP alderdia

«PP ez da erdirantz doan alderdi bat, hori kontsumo publikorakoa izango da, totalitarioa da eta mehatxu erreal bat»

Beldurra hemen, botoak Espainian

XABIER ARZALLUZEN ustez partidu espainiarrek beldurrean oinarritutako hauteskunde kanpaina egingo dute ostera ere. Hala ere, beldurraren eragina «gastatuta» dagoela nabarmendu zuen. «Maletak, kale borroka erabili dute, orain separatismoa atera dute, independentziara doaz eta agur», esan zuen Arzalluzek. Argudio horiek erabiliz euskal herritarrak «frogetarako untxi» gisa erabiltzen dituztela esan zuen Arzalluzek. «Era horretan espainoleatzen dutenean tinkotasun itxura emanez Espainiatik joan nahi dutenen aurrean, Ebrotik behera hauteskunde etekinak lortzeko da. Hemen ez dago boto askorik inorentzat, alderdiak lehiatzen dira Andaluzia, Kataluña eta Valentziako boto poltsa eskuratzeko, gu erabiltzen gaituzte hango hauteskundeetarako», gaineratu zuen buruzagi jeltzaleak.

«Ministroa ez dago treguan»

AZAROAREN 10ean hauteskunde autonomikoen eta ETAren su etenaren ostean Espainiako Kongresuan presoak hurbiltzeko tratamendu dinamiko, malgu eta adostua onartu arren, horrelakorik egon eza gaitzetsi zuen Anasagastik. «Aurkitzen dugu Barne ministro bat treguan ez dagoena, gerran dagoena, erasokor dagoena, iraintzen ari dena».

Diputatu jeltzalearen aburuz, «Enrique Villarrek esan duena ez da etxean entzuten duena baino. Enrique Villar ez da akusazioaren alderik ahulena baino. Akusazio hori era askoz finagoan esaten du bere nagusiak, Barne ministroak»

Anasagastiren ustez irudi okerra eman nahi dute. «Esan nahi dute Euskadin egoera ez dela aldatu, egoera biziezina dela eta hemen ez dagoela demokraziarik, egoera justu kontrakoa denean».

Mayorren hitzak Konstituzioak jasotzen eta Gobernuak babesten dituela dio Piquek

PP eta EAJren arteko harreman parlamentarioetan ez duela eragina izango dio

Agentziak / **Madril**

Jaime Mayor Orejak egindako adierazpenek Espainiako Gobernuaren eta Konstituzioaren babesa dutela adierazi zuen atzo Josep Piquek. Espainiako Gobernuko bozeramaileak Xabier Arzalluzen esanei erantzunez baieztatu zuen hori, Ministroen Kontseiluaren osteko prentsaurrekoan. Ildo horretan, EAJko lehendakariaren hitzak «esperpentikoak» zirela adierazi zuen, eta gertatutakoak ez duela eraginik izango EAJ eta PPren arteko harreman parlamentarioan. Piquek esan zuenez, EAJk duela hilabete batzuk utzi zion PPri babesa emateari.

XABIER ARZALLUZEK atzo egindako adierazpenek Espainiako Gobernuaren berehalako erantzuna ekarri zuten. Arzalluzek goizean iragarri zuen EAJk harreman guztiak hausten dituela Jaime Mayor Orejarekin, Barne ministroak Guardi Zibilaren ekitaldi batean egin zituen adierazpenengatik. Ildo horretan, EAJko buruzagiak eskatu zion Espainiako Gobernuari azal zezala ea Mayor Orejaren hitzak bere egiten zituen. Espainiako Gobernuak bere bozeramailearen bidez eman zion erantzuna Arzalluzi: Barne ministroak Gobernuaren babes osoa duela.

Josep Piquek esandakoaren arabera, Mayorren adierazpenek «Espainiako Gobernuaren, zentzu onaren eta Konstituzioan jasotako Espainiako esparru juridiko-politikoaren» babesa dute. Beraz, Madrilgo Gobernuak ez zuen inolako zalantzarik eduki Mayor Orejaren hitzak bere gain hartzeko.

Piquek, bestalde, adierazi zuen ez dituela «ongi ulertzen» Arzalluzen hitzak, «harremanak haustea harreman diplomatikoei edo harreman pertsonalei dagokien esapidea baita». «Eta are gutxiago uler daiteke Arzalluzek esandakoa, Barne ministroak Guardia Zibilaren zereginari buruz adierazitakoa Konstituzioak ezartzen dion zeregina denean», gaineratu zuen.

Jose Maria Pastor / Efe

Manuel Pimentel eta Josep Pique, atzo Ministro Kontseiluaren ostean eskaini prentsaurrekoan.

Ildo horretan, Josep Piquek adierazi zuen Xabier Arzalluzek esandakoa «esperpentikoa» dela. Espainiako Gobernuko bozeramaileak adierazi zuen gertatutakoak PP eta EAJren arteko harreman parlamentarioetan ez duela inolako eraginik izango. «Izan ere, ezin esan daiteke EAJren eta PPren artean elkarlan parlamentarioa dagoenik, hitzaren definizio eta esanahi zehatza kontuan hartuta. Ez dago babes sistematikorik, interesen araberako babes puntual eta eztabaidatuak baizik», gaineratu zuen, aditzera emanez EAJ eta PPren arteko akordioa aspaldian hautsita dagoela.

PP eta EAJren arteko aldentze hori hilabeteetako gauza dela adierazi zuen Piquek, eta EAJk ETAren suetenaz geroztik daraman «estrategia politikoaren» ondorio dela. Esan zuenez, EAJk hilabeteotan PPri babesa eman dionean «egonkortasun politikoaren eta autogobernuaren izugarrizko garapenaren mesedetan baino ez dio eman».

Mayorrek ez omen zuen halakorik esan

Barne Ministeriotik diotenez, Arzalluzek «desitxuratu» egin du Mayor Orejak esandakoa. «Ez da lehen aldia Arzalluzek errealitatea desitxuratu eta Barne ministroari buruz gezurra esaten duela», dio Ministeriotik Efe informazio agentziari bidalitako komunikatuak. Bertan dioenez, Mayor Orejak ez du inoiz esan Guardia Zibilaren zeregina «Espainia euskal fronte abertzaletik babestea» dela.

Herri Batasunako mahaikide guztien argazkiak zeuden CESIDek Gasteizen erabili etxebizitzan

■ *Iruinen aburuz, «baieztatu egiten da kontrol politikoa»*

Agentziak / **Gasteiz**

GASTEIZEN CESIDek ustez entzuketak egiteko etxebizitza ikuskatu zuten ostegunean. Diligentzia judizial horretan izan zen Iñigo Iruin akusazioko abokatua, eta hark azaldu zuenez, etxebizitzan Herri Batasunako Mahai Nazional espetxeratuaren zein haren ordezkoaren kide guztien argazkiak zeuden.

Iñigo Iruin akusazioko abokatuaren ustez, «argi dago kontrola politikoa zela, eta ez Gobernuak eta defentsak zioten bezala antiterrorista». Iñigo Iruinek azaldu zuenez, Herri Batasunako kargu publikoen ekintza politikoaren segimentua egiten ari ziren».

Bestalde ostegunean etxebizitzaren jabeak eta haren semeak ere deklaratu zuten. Biek etxebizitzan egoten zen pertsonetako bat Victor Castaran sarjentua zela esan zuten. Castaran jada inputatuta dago auzi honetan. Halaber, jabearen semeak berretsi zuen etxebizitzara lehen aldiz sartu zenean bertan topatu zituela hainbat argazki, bai eta hegazkin txartel bat ere, beste inputatu baten izenean dagoena.

Diligentzia hauek defentsak egin errekurtsoen ondorio dira. Izan ere, etxebizitzaren ikuspena egin zen jada 1998ko martxoan, baina orduan defentsa eta akusazioak ezin izan ziren bertan egon, kasua sekretupean baitzegoen.

Ekainaren 13ko hauteskundeak

Europako Parlamentua presoez aritzearen kontra agertu da Alain Lamassoure

Espainiaren eta Frantziaren afera soilik dela adierazi du UDFko hautagaiak

Hur Gorostiaga / **Baiona**

Presoek euren familia eta bizilekutik hurbileneko presondegietan egoteko eskubideari buruz «Europar Parlamentuak zer esanik ez» duela adierazi zuen atzo Alain Lamasourek. «Espainiako eta Frantziako gobernuen afera soilik» dela esan zuen UDFko zerrendaren laugarren tokian aurkezten den euskal hautetsiak.

BOB EDME

Gilles de Robien eta Alain Lamassoure, atzo Baionan.

EUROPAKO Parlamentuak behin baino gehiagotan agertu du presoek beren familia eta bizilekutik hurbilen dauden presondegietan egoteko eskubidea dutela. Azken aldiz, Pierre Pradier Miarritzeko europarlamentarioaren ekimenez onartu zuen, joan den abenduan, Askatasun Publikoen batzordearen bitartez. Datu horiek agerturik, Baionan larunbatean izandako manifestaldi jendetsua oroitarazirik, eta UDFko zerrendaren laugarren tokian egonik europar parlamentario izanen delako segurtasunaz, halako gai baten aurrean bere jarrera zein izanen lukeen galdegin zion atzo EGUNKARIAk Alain Lamassoureri. Haren erantzuna, hauxe: «Halako gaietan Europako Parlamentuak ez luke izan behar zer esanik». Lamassoureren erranetan, «ez da Europako Parlamentuaren eskumena, Espainiako Gobernuarena baizik, eta Frantziarena ere bai zenbait presoren kasuan». «Frantziako eta Espainiako gobernuen afera da soilik», erran zuen Angeluko auzapez hautatu berri eta Distrituko buruak.

Atzoko prentsaurrekoan bere kandidatura sustengatzen agertu zen Didier Borotra Miarritzeko auzapez senadoreak presoen hurbilpena eskatu zuela ohartarazirik, eta berak eskaera horrekin bat egiten duen ala ez galdeginik, aldiz, «ez dut deus komentatzekorik» erantzun zion EGUNKARIAri Alain Lamassourek.

Hauteskunde kanpainaren baitan, Gilles de Robien UDFko bozeramailearekin batera, Pirinio Atlantikoetako hainbat enpresa bisitatzen izan zen Lamassoure. Gobernu sozialistak Europako Batasunerako diru zama murrizteko hartu duen erabakia dela eta, azken urteetan Ipar Euskal Herriak Europatik jaso izan duen diru kopururik berriz jasotzerik ez duela izanen salatu zuen Europako Gaietako ministro ohiak. Gisa berean, diru bakarra eratu ondoan, kanpo aferetan eta defentsan Europan politika komunak garatzearen alde agertu zen Lamassoure. Gure eskualdea Europaren garapena hobekien baliatzen ahalko duen eskualdeetarik izanen dela azpimarratu zuen.

Angeluko auzapeza da herenegunez geroztik Alain Lamassoure. Michel Bonneten heriotzaren ondoren, auzapezaren kargua bere esku utzi zuten ostegun arratsean hautetsi angeluarrek.

Alli: «Ez dugu onartuko Nafarroaren nortasuna murriztea»

Edurne Elizondo / **Iruñea**

JUAN CRUZ ALLIK CDNk foru hauteskundeetarako prestatu egitaraua aurkeztu zuen, atzo, Iruñean. Kanpainarako *Etorkizuneko Nafarroa prestatzen* eta *Bizikidetza* leloak aukeratu ditu CDNk; gobernu ekintzarako egitarauari dagokionez, hiru ardatz nagusi dituela azpimarratu zuen Allik: Nafarroa eta bere nortasuna, batetik; bestetik, langabeziaren aurka borrokatzeko egindako ekintza politikoa; eta, hirugarrenik, ongizatearen gizartearen lorpenen defentsa. Eremu instituzionalean, autogobernua garatzearen aldeko apustua egin zuen CDNko buruak.

Nafarroaren nortasunaren alorrean, «Nafarroa erkidego bereizitzat» jotzen du CDNk, eta errealitate hori da, Alliren hitzetan, bere alderdiaren abiapuntua: «Nafarroa eta nafarrak dira gure herrialdearen etorkizuneko protagonista bakarrak», azpimarratu zuen.

«Nafarroa da bere patuaren jabe bakarra, eta, beraz, Nafarroak bakarrik erabaki dezake bere etorkizuna. Hori dela eta, CDNk ez du Nafarroaren nortasuna murriztu dezakeen proiekturik defendatuko», nabarmendu zuen.

Bestalde, PSNk UPNri egindako eskakizunaz aritu zen Alli; PSN Gobernua osatzeko ez dela EHren aldeko botoan edota abstentzioan oinarrituko erran du, eta gauza bera egiteko eskatu dio UPNri. Allik eskakizun hori ez duela ulertzen erran zuen, «esperientziak erakutsi digulako boto gehien lortzen duen zerrendak bi hilabetez edozein alternatiba oztopatu ondoren, sistema automatikoaren bidez Gobernua lortzen duela».

Presoen Euskal Herriratzea eskatu du Isler Beguin Berdeen hautagaiak Donibanen

H.G. / **Donibane-Lohizune**

MARIE-ANNE Isler-Beguin Frantziako Berdeen Europako Hauteskundeetarako zerrendako bigarren hautagaiak euskal presoak Euskal Herriratzea «bake iraunkor bat lortzeko Frantziako Gobernuak egin lezakeen keinu» gisa galdegin zuen atzo Donibane-Lohizunen, lehenago hauteskundeotan Berdeen zerrendaburu Daniel Cohn-Benditek eskatu zuen gisara.

1989. urtetik 1994. urtera bitartean Europako Parlamentuko lehendakariorde izandakoak, Bruselan OIP Nazioarteko Presondegietako Behatokiaren alde egindako lana azpimarratu zuen atzo, eta «berriz ere giza eskubideen errespetuaren alde Europan lan egiteko prest» agertu zen Marie Anne Isler.

Euskal Departamenduari buruz, aldiz, departamenduak «oso gogoko ez» dituela adierazi zuen Islerrek, eta Euskal Herria osotasunean hartuko lukeen euroeskualdea sortzearen alde agertu zen, bitartean *pays* egitura indartzeko xedearekin. «Hala ere Ipar Euskal Herriko gehiengoak euskal departamendua nahi badu eta galdegiten badu, eskaera hori arrunt kontuan hartu beharko litzateke», ohartarazi zuen Berdeen zerrendako bigarren hautagaiak.

Azkenik, Herri eta Populuak Alkarrekin (RPS) federazioarekin izandako harremanak aipatu zituen Islerrek. Frantziako gutiengoetako alderdiez osaturik eta besteak beste Eusko Alkartasunarekin, «RPS federazioak ez du zerrendarik aurkeztuko hauteskundeotan, baina gure aldeko boza galdeginen dute» adierazi zuen. Nahiz eta RPS federazioko kiderik ez izan Berdeen zerrendan, «kanpainan populuen aldeko mezua zabalduko» dutela adierazi zuten. Aurkeztu diren zerrendetan euskal abertzaleek aukera hoberik ez dutela erraz aurkituko adierazi zuen Jean Lissarrek.

HBk politika aldaketa eskatu dio PSEri bi alderdien arteko bileran

HB eta PSEko kideek egoera politikoa aztertu zuten herenegun

PINO / EFE

Nicolas Redondo Terreros eta Jose Maria Benegas, artxiboko argazki batean.

Eider Goenaga / **Donostia**

Jose Maria Benegas, Jesus Egiguren eta Nicolas Redondo Terreros sozialistek eta Ibon Arbulu, Kepa Gordejuela, Joseba Permach eta Pernando Barrena HBko mahaikideek bilera bat egin zuten herenegun Bizkaian. EGUNKARIA-k jakin duenez, bileraren helburua egoera politikoa aztertzea zen. HBko kideek orain arteko jarrera politikoaren inguruko hausnarketa eta aldaketa eskatu zieten sozialistei.

HIRU ideia helarazi zizkieten HBko kideek herenegun buruzagi sozialistei. Horien artean nagusia sozialistei euren jarrera aldatzeko egin eskaera, «Euskal Herrian ireki den prozesu demokratikoari lagundu eta oztopoak ez jartzeko» eskaera.

HBk dio PSEk aukera paregabea galdu duela su-etenaren ondoren izandako jarrerarekin, eta hala adierazi zieten bileran. «Euskal Herrian zabaldutako prozesu berri honetan PSEk ez du eszenatoki politikoa aprobetxatu. Orain arte egindako guztia PPren jarraipen politikoa egitea izan baita», adierazi zieten HBko kideek sozialistei.

Bestalde, inolako bazterketarik ez dutela egin nahi adierazi zieten, Lizarra-Garaziko sinatzaileen asmoa «guztiz irekia eta integratzailea» dela, eta horrela jasotzen duela akordioak berak. Horregatik, jarrera aldaketa eskatu zieten sozialistei. «PSEk posizio politikoak aldatu eta Euskal Herrian zabaldu den prozesu demokratikora hurbildu behar ditu. PSE gonbidatu dugu sakoneko hausnarketa bat egin, bere posizio politikoak aldatu eta beste klabe politiko batzuetan funtzionatzera», esan zuen HBk.

Hirugarren ideia da ireki prozesu demokratikoa euskal herritarrek beren kabuz aurrera eramango dutela, Paris eta Madril kontuan hartu gabe. Hala, prozesuari ez oztopoak jartzeko eskatu diete, zerbait egiteko prozesua laguntzeko. Azken batean, helburua euskal herritarrek erabakitzea eta haien hitza errespetatua izatea baita.

Sozialisten erantzuna horrek guztiak gizartean aurka-ritza eragingo duela izan zen. HBko kideek adierazi zieten hori ez dela errealitatea, politikarien adierazpenek eragindako egoera psikologiko bat baino ez dela.

laburrean

■ Ardanza: «2.000. urtean izango da eztabaida»

JOSE ANTONIO ARDANZA lehendakari ohiak adierazi du Euskal Herriak egin behar duen eztabaida garrantzitsua 2.000. urtean izango dela. Ardanza Catalunya Radio irratian izan zen, eta Jose Maria Aznar Espainiako gobernuburuari zuzenduz, esan zuen euskaldunok legitimitatea dugula geroa erabakitzeko. «Legitimitatea dugu demokratikoki zer nahi dugun erabakitzeko eta hirugarren batzuekin zein harremanak nahi ditugun argitzeko», adierazi zuen. Planteamentu hori erabat demokratikoa dela nabarmendu zuen Ardanzak. «Hori ez da nazionalismo gehiago, askatasun eta demokrazia gehiago baizik».

■ PPri buruz esandakoak zuzentzeko eskatu dio PPk EAJri

JOSEP PIQUE Espainiako Gobernuaren bozeramaileak Javier Atutxak Gernikan egin zituen adierazpenak zuzen ditzala eskatu dio EAJri. Atutxa EAJko kideak esan zuen Gernika bonbardatu zutenen «oinordeko» dela PP. «Espero dut Atutxak zuzentzea, Villarrek egin duen bezala», esan zuen atzo Piquek. Iñaki Anasagasti diputatu jeltzaleak, bestalde, hainbat galdera egin dizkio Jaime Mayor Barne ministroari hark Gernikara egindako bidaiari buruz. EAJko kideak dio Mayorrek ez zituela Ertzaintzaren aholkuak aintzat hartu, eta horregatik sortu zirela istiluak.

■ Pili Aranburu aske, kartzelan 12 urte egin ostean

PILAR ARANBURU euskal presoak Martuteneko espetxea utzi zuen ostegun goizean. AABek jakitera eman dutenez, Aranburuk aske egon behar zuen 1995. urtean, orduan bete zituelako zigorraren hiru laurdenak. Aranburu 1987. urtean atxilotu zuen Poliziak. Zazpi egunez inkomunikaturik egon eta gero Entzutegi Nazionalaren aurrera eraman zuten eta epaileak Carabanchlelgo espetxean sartzeko agindua eman zuen. Aranburuk torturak salatu zituen. Datorren larunbatean, 29an, ongi etorria egingo diote Amara Berrin. Ekitaldia 19:30etan izango da Ferrerias enparantzan.

■ Lau preso ohiri ongi etorriak egingo dizkiete asteburuan

ASTEBURUAN zehar zenbait ongi etorri izango dira Euskal Herriko hainbat tokitan. Portugaleten Karlos Zirianori egingo diote ongi etorria gaur arratsaldeko 19:00etan. Bilboko Alde Zaharrean, berriz, ordubete beranduago hasiko da Juan Alfredo Zapiraini egingo dioten omenaldia. Bihar, berriz, Baiona Ttipiko festen barnean Baiona Errepresioaren Kontra taldeak presoen aldeko egunaren barruan Arantxa Sasian eta Panpi Erramundegi berriki askatutako presoak omenduko ditu 13:00etan. Azkenik, Zeberion Ziortza Rekakoetxeari ostegunean egin zioten ongietorria.

■ Presoen aldeko ekintzak Bilbon eta Azkoitian

JUAN ANTONIO OLAGORTA euskal preso bilbotarraren aldeko plataformak mobilizazioak antolatu ditu Bilbon biharko, maiatzaren 23rako. Plataformak ekitaldi honekin Olagortaren askatasuna aldarrikatu nahi du. Izan ere, euskal presoak zigorraren hiru laurdenak beteak ditu, 1995. urtean hain zuzen ere. Plataformak jada 1.500 atxikimendu baino gehiago jaso ditu San Inazio auzoan, Olagorta bertakoa baita. Azkoitian, bestalde, gaur eta bihar mobilizazioak izango dira euskal presoak Euskal Herriratzeko xedearekin. Herriko zenbait taldek osatu dute plataforma eta jai eguna antolatu dute.

■ Ibarretxek agerraldia egingo du astelehenean prozesuaz mintzatzeko

JUAN JOSE IBARRETXE EAEko lehendakariak agerraldia egingo du astelehenean prozesuaz hitz egiteko. Alderdi politikoetako ordezkariekin eginiko bileren inguruan mintzatuko da lehendakaria, haiekin eginiko bigarren elkarrizketa txanda amaitu berri baitu. Aurrerantzean alderdiekiko harremanak nola gauzatuko dituen azalduko du Ibarretxek asteleheneko agerraldian.

Mondragon eta Gomez presoen kanporatzea atzeratu egin da

Apelazio Auzitegiak ekainaren 4an jakinaraziko du sententzia

Efe / **Paris**

Pilar Mondragon eta Garbiñe Gomez euskal presoak atzo Frantziatik kanporatzeko arriskuan baziren ere, kanporatze hori ez zen gauzatu Parisko Apelazio Auzitegiak haiei buruz atzo eman behar zuen sententzia ekainaren 4a arte atzeratu baitu. Arriskuak, hala ere, jarraitzen du epaia berretsiz gero, Mondragonek eta Gomezek jada beteta baitute Frantziako Justiziak jarritak zigorra.

Josu Etxebarrioste

Senideek eta AABek kanporatzeei buruz aste honetan egin agerraldia.

PARISKO Apelazio Auzitegiak ekainaren 4a arte atzeratu du ETAko kide izateaz eta erakunde armatuari laguntza emateaz akusatuta zeuden 14 lagunen inguruko erabakia. Horien artean dira, Pilar Mondragon, Garbiñe Gomez, Felix Alberto Lopez de la Calle, Jesus Mari Altabe eta Txema Olabarrieta 1994ko azaroan atxilotuak. Auzi horren inguruko epaia 1998ko apirilean jakin zen, baina Auzitegi Korrekzionaleko fiskalak errekurritu egin zuen, eta errekurtso auzia martxoan abiatu zen.

Fiskalak Felix Alberto Lopez de la Calle eta Jesus Maria Altaberen zigorrak handitzeko eskatu zuen, eta Pilar Mondragon, Garbiñe Gomez eta Txema Olabarrietarenak berresteko. Olabarrietari sei urteko zigorra jarri zioten eta Mondragon eta Gomezi bost urtekoa. Apelazio Auzitegiak zigorra berretsi gero, Mondragonek eta Gomezek betea dute Frantziako Justiziak jarri zigorra, eta atzoko jarria zuten aske uzteko eguna. Horrelako kasuetan sarri gertatu ohi den bezala, bi preso horiek kanporatzeko arriskuan daude horrenbestez. Txema Olabarrieta ere egoera berean da, eta haren kanporatzea ere epe laburran gerta daitekeela azaldu zuten aste honetan bertan Senideek eta AABek.

Hain zuzen, kanpora ez dezaten eskatzeko Pilar Mondragonek gose greba abiatu zuen duela 24 egun eta jada 12 kilo baino gehiago galdu ditu.

Bestetik, Serafin Blanco presoa ere epe laburrean Frantziatik kanpora dezaketela salatu zuten aste honetan Senideek eta AABek. Atzo jakin ahal izan zenez, Madrilgo Entzutegi Nazionaleko Fiskaltzak tramiteak hasteko eskatu du Serafin Blancoren estradizio prozesua bideratzeko.

EAJko buruak 20 herrialdetako ordezkariekin mintzatu dira prozesuaz

Europako eta Ameriketako zenbait diplomatiko Sabin Etxean izan ziren atzo

Bilbo / **Europa Press**

EUROPAKO eta Ameriketako zenbait herrialdetako ordezkari diplomatikoak atzo Bilbon izan ziren atzo, Sabin Etxean. Xabier Arzalluz EAJko presidentea, Joseba Egibar EAJko bozeramailea eta Iñaki Anasagasti diputatuarekin batzartu ziren aipatu ordezkariak EAJren egoitza nagusian, Euskal Herrian abiatutako prozesuaz informazioa jaso eta hitz egiteko.

Aipatu bileran gutxienez 20 ordezkari diplomatiko izan ziren, Europako eta Ameriketako beste hainbeste herrialdetatik iritsitakoak. Haiek guztiak, joan den irailean ETAk su-etena aldarrikatu zuenetik Euskal Herrian abiatu den prozesuaren nondik norakoak jakin nahi zituzten zuzenean, Europa Press agentziak azaldu zuenez. Honenbestez elkarrekin egin zuten denboran EAJko buruzagiei gaiari buruz jakin nahi zuten guztia galdetzeko aukera izan zuten gonbidatuek.

Ordezkari diplomatikoekin eginiko bazkari solasaldiak bi ordu baino gehiago iraun zuen. Bertan izan ziren ordezkarien artean ondoko herrialdeeta enbaxadatakoak zeuden besteak beste: Panama, Canada, Venezuela, Polonia, Eslovenia eta Frantzia.

EUSKAL KOSTALDEKO BI ERIETXEEN ARTEKO LANKIDETZA TOPAKETAK IRAGAN DIRA ATZO BAIONAN

Baionako eta Donostiako ospitaleen arteko harremanak sendotzen ari dira

- Bi ospitaleek lankidetza hitzarmena izenpetu zuten joan den ekainean, hainbat alorretan elkarlana abiatzeko
- Atzo, egun osoan, bi erietxeetako profesionalek sei gai jorratu zituzten, ibilmoldeak konparatzeko
- Bi hirien hurbiltasuna dela eta, Baionako eta Donostiako ospitaleak proiektu konkretu bat prestatzen hasi dira

Lutxi Fourcade / **Baiona**

BAIONAKO eta Donostiako ospitaleetako hainbat profesional bildu ziren atzo Baionan. Goiz osoan, bi erietxeen funzionamendua aipatu zuten, lau gai berezi jorratuz: ospitaleen ibilmoldea hondamendi egoeran, hiesaren tratamendua, erizainen arta planifikazioa eta buruhiltzeen laguntza. Arratsaldean, berriz, gai komun bat jorratu zuten elkarrekin: istripu larrien biktimen tratamendua bi eskualdeetan.

«Topaketa hauek dira elkarrekin egin dugun lehen haurra», adierazi zuen Jean Jacques Romatetek, Baionako ospitaleko zuzendariak. Hain zuzen, bi egiturek lankidetza hitzarmena izenpetu zuten joan den ekainean, harremanak sendotzeko. Helburua zen profesionalen trukeak bultzatzea eta eguneroko praktikak elkarrekin aipatzea. «Iruditu zitzaigun ez zela normala auzokide izan eta elkarrekin mintzatu eta lan egin gabe egotea. Akizeko ospitalearekin harreman handiak ditugu, baina Donostiarekin ez zegoen loturarik, eta eskas hori bete nahi izan dugu», gaineratu zuen.

Hitzarmena izenpetu zenetik, hainbat lan bilera egin dituzte bi ospitaleetan. Besteak beste, mugaz bi aldeetako egiturek larrialdietako zerbitzuak konparatu dituzte. «Interesgarria da ikustea auzoa nola ari den lanean, eta beti ikasten da gaixoen arta hobetzeko», azpimarratu zuen Xabier Orbegozok, Donostiako Arantzazuko Ama erietxeko medikuen arduradunak.

Bob Edme

Baionako eta Donostiako medikuak, atzoko topaketan.

Bi haurride hurbiltzeko urratsak

Lehen elkarretaratzea izanez, medikuntza baizik ez zuten aipatu bildutako kideek. Antolatzaileek nahitara baztertu zuten lege ezberdinen aipamena. «Badakigu zaila dela mugaz bestaldeko erietxe batean sartzea, Europako legeak hertsiak dira eta; baina, gure aburuz, egoera hori ez da normala, eta indarrak egiten ditugu gauzak aldatzeko», azpimarratu zuen Jean Jacques Romatetek. Esaterako, bi egiturak proiektu komun bat prestatzen hasi dira, aktibitatea partekatzeko. «Orain arte, Bordelekoarekin egiten gogo genuen, baina Donostiari buruz itzuli gara azken asteotan. Ez dugu baztertzen Bordele, baina ordu erdiko bidea egin edo bi ordukoa egin, alde ederra izanen da senideentzat!».

Bi ospitaleen arteko ondoko topaketek irailean segituko dute, Donostian. Anartean, bi egiturek lanari ekinen diote aztertzeko hondamendi baten tratamendua. «Konkretuki, zerbait gertatzen bada, behar dugu ikusi nolako laguntza ekar diezaiokegun auzoari, erien tratamendua antolatzeko», azpimarratu zuen Jean Jacques Ro- matetek. Praktikan puntu aurreratuena hori dela baieztatu zuen Orbezogok, nahiz eta bi egituren artean ezberdintasun handiak izan. «Medikuek lan berdina egiten dute, baina antolakuntza arrunt ezberdina da mugaz bi aldeetan: Baionako antolakuntza Paristik etorri da eta Donostiakoa Madrildik! Alabaina, poliki-poliki, dena martxan jarriko dela uste dut, urrun ziren haurrideak hurbiltzen diren bezala», azaldu zuen Arantzazuko Ama erietxeko medikuen koordinatzaileak.

Erantzun bera hiesari

«HIES epidemia antzekoa da mugaz bi aldeetan eta erantzun bera eman behar diogu», azpimarratu zuen Jean Jacques Romatet Baionako ospitaleko zuzendariak. Atzo goizean, Iribarren Donostiako medikuak eta Farbos Baionako medikuak mugaz bi aldeetako egoerak aztertu eta puntu komun franko badela azpimarratu zuten. Esaterako, epidemiaren handitzea gelditu da, baina informazio lan handia egin arren, gaixo berriak agertzen dira. Era berean, zailtasun berak daude tratamendu luzeak eta pizuak onartarazteko. «Triterapia agertu denetik, hiesdunek tratamendu handiak dituzte eta zaila da jarraipena lortzea», gaineratu zuen.

«Azken finean, arazo berberak ditugu mugaz bi aldeetan, eta interes handia dugu elkarrekin lanean aritzeko», azaldu zuen Romatetek. Izan ere, truke ugari daude toxikomania alorrean, eta bi ospitaleetako arduradunek funtsezkotzat jo zuten truke horiek bultzatzea epidemiaren aurka borrokatzeko ere. «Molde hoberena hori da eritasuna hobeki tratatzeko eta bere orokortasunean hartzeko», gaineratu zuen.

Alabaina, mugaz bi aldeetako egoeraren puntua egin baino gehiago, Baionako ospitaleko medikuek Donostiakoei elementu berriak eskaintzeko baliatu zituzten topaketak. Izan ere, Frantziako Estatuko Hies eta Pediatria zerbitzuek inkesta berri bat egin dute ama hiesdunen egoera hobeki ezagutzeko. Helburua zen eritasunaren transmisioa ikertzea eta tratamenduen puntua egitea. «Inkesta sakona egin da eta ziur gaude Hego Euskal Herriko lankideek baliatzen ahalko dutela».

Antolatzaileen ustez, gaiari buruzko trukeak antolatzea beharrezkoa izanen da medikuen arteko harremanak sendotzeko. «Geroan, nahi izanez gero, elkarrekin segitzen ahalko dute lanean», azpimarratu zuen Romatetek.

Anjel Lertxundi: «Euskararen diskurtso ofiziala beti bat eta berdina da»

Euskalgintzari buruzko hitzaldia eman zuen Tolosako Galtzaundi Forumean

Imanol Murua Uria / **Tolosa**

Euskararen inguruko sakralizazioak ekar lezakeen akritizismoaz eta hori gainditu beharraz aritu zen, besteak beste, Anjel Lertxundi idazlea herenegun Tolosako Galtzaundi Forumean.

KARLIS

Andoni Egañak aurkeztu zuen Anjel Lertxundi: Zarauzko ikastolan irakasle izan zenean, «Andu maisuak» bi eta bi beti ez direla lau irakatsi ziela gogoratu zuen Egañak.

«ALDARERIK gabeko euskara normalizatu bat helburu», idazle den aldetik «hanpatze eta akritizismo guztien lanbro artean argi egiten saiatzea» dela bere lana adierazi zuen Anjel Lertxundik.

Garenaren neurria. 25 koska, zurubi luzean gora eta behera izenburuko hitzaldian esan zituen hitzok Lertxundik, euskararen sakralizazioaren kalteez ohartarazi ondoren: «Euskararen inguruko sakralizazioak, sakralizazio guztiek bezala, asmoak eta emaitzak batzen ditu, eta ez du lastoa eta garia berezten uzten, eta inork iniziatiba bat edo emaitza bat, kaskarra iruditurik, kritikatu orduko, euskararen etsai bihurtzeko arriskua du». Akritizismoa da arriskua, Lertxundiren hitzetan: «Eta begi-bistakoa da akritizismoa dela proiektu luze eta eraginkor baten bidean har litekeen bide-makulurik baldarrena».

Euskal hiztunen argazkia ez dela bat eta berdina, baina euskararen diskurtso ofiziala «beti bat eta berdina» dela esan zuen. «Badirudi euskararen hautamena egin izanak diskurtso ofizial horren ideologiaren hautamena ere berarekin dakarrela».

«Euskararen hariak mugitzen dituen eta hari horiek mugitzetik bizi den jendemultzoa», euskararen inguruko *inteliguentsia*, kezka iturri duela adierazi zuen Lertxundik. «Horren zilegitasunak baino *inteliguentsia* guztiek bideratzen duten kontrolak kezkatzen nau, baina ez bereziki kontrol horrek bere eskuetan eragin sozial eta politiko handia izateak, aginpide horren bidez gauzatzen ari den hizkuntzari buruzko ikuspegi teknokratak baino».

Esan nahi eta esan ezina

«Esan nahi eta esan ezinaren» kezkatik abiatu zuen hitzaldia Anjel Lertxundik, «horixe baita hiztun batek bizi lezakeen trajediarik handiena». Bere ustez, «begi-bistakoa da euskaldunoi ez zaigula zer eta nolakoak garen esateko gogorik falta, baina behar bezalako zehaztasunez esan eta adierazi ezina da gure mina».

«Ni izateko eta ni nor eta nolakoa naizen adierazteko behar dut hizkuntza», esan zuen Lertxundik. «Deus gutxi balio dit estatistikak gizentzeko. Are gutxiago sinbolo hutserako, dekoraziorako edo denda-errotuluetarako soilik erabiltzen den tresnak. Ez zait eskaparatea interesatzen».

1973an berak idatzitako testu bat ekarri zuen gogora: ikastolako orduko ikasleek «hizkuntzaren tamaina egoki batera» iristeko aukera eskasak zituztela idatzi zuen orduan. Gaur egungo haurren euskara maila eskasagoa dela eman zuen aditzera eta, hala ere, ez duela horri buruzko kezka eta debate handirik nabari. «Etsi dugulakoan nago», esan zuen.

Espainola eta beste hizkuntza handiak nola, euskara halaxe irakasten dela deitoratu zuen Lertxundik. «Hizkuntza guztien izaera, zabalkundea, ezaugarriak, tradizioa eta abar desberdinak badira, estrategia didaktikoek ere desberdinak behar dute izan».

Baina ez da horrela egiten, Anjel Lertxundiren ustez: «Gaztelaniaren errape oparoen mimetismoak bizi gaitu alor guztietan. Gaztelaniak eta gaztelaniaz eraikitako eredu kulturalek bizi gaituzte. Inoiz esana dut euskal hiztun guztiok hala-moduko itzultzaile mental batzuk garela».

Anjel Lertxundiren hitzaldi osoa EGUNKARIAren webgunean (*www.egunkaria.com*) irakur daiteke atzotik.

esaldiak

Kezkak eta koskak

Anjel Lertxundi idazleak Tolosako Galtzaundi Forumean emandako hitzaldiko pasarteak dira ondokoak:

Erreferentzia arrotzak • «Oinarrian, euskara ez den beste hizkuntza bateko erreferentzia kulturalak bizi ditugu, euskara ez den beste hizkuntza batean asetzen baitugu gure egarri kulturalaren zati handi bat».

Komisario linguistikoen ugaritzea • «Beldurtzen hasita nago hizkuntz sortzaile, suspertzaile, zirikatzaile berri bakoitzeko, ez ditugun hamar komisario linguistiko berri erditzen, araua gordetzea garrantzitsuagotzat jorik bizitza baino».

Errejistro urriak • «Esparru jakin baterako sortu zen errejistroetako bat nagusiturik, administrazioko, hedabideetako edo irakaskuntzako esparru guztiek beren burua haren aurrean makurtzea da gerta dakigukeen trajediarik handiena».

Euskaldunon ekarria • «Euskaraz pentsatu, euskara pentsatzeko; eta euskal munduaz pentsatu, euskal mundua pentsatzeko, hori baita euskaldunok egin diezaiokegun ekarri nagusia munduaz pentsatu eta mundua pentsatzeari».

Uniformitatea *versus* unibertsaltasuna • «Unibertsaltasuna *versus* partikulartasunaren aurkako borroka bat jokatzen ari dela uste du hainbatek. Baina ez, ezta inondik ere! Uniformitatea *versus* unibertsaltasuna da jokatzen ari dena, partikularren sintesi gisa ulertu behar baita unibertsaltasunaren kontzeptu eder hori, identitateen suntsiketa moduan uniformitatea».

Gipuzkoako kostako uraren kalitate eskasa dela eta, lau hondartzatan bakarrik da bainatzea libre

Gainontzean, hondartzarik gehienetan «bainua har daiteke» da, baina kontuz ibili behar da

Europa Press / **Donostia**

URTARO honetan ohikoak izaten dira Osakidetzak kosta parteko uraren kalitatea kontrolatzeko egiten dituen ikerketak. Lehenbiziko ikerketaren emaitzen arabera, Gipuzkoan egoera ez da batere ona. Soilsoilik lau hondartzatan da bainua hartzea libre; Getarian, Zumaiko Itzurunen, Mutrikun eta Zarauzko hondartzako zati batean. Gainontzean, Gipuzkoako hondartzarik gehienetan «baina daiteke», Osakidetzaren ikerketaren arabera, baina kontuz ibili behar dela.

Ikerketa horrek berak, zenbait hondartzatan bainua hartzea ez dela komeni esan du. Hain justu, Orioko Oribazar hondartzan eta Mutrikuko Ondarbeltz eta Saturraran hondartzetan uraren kalitatea oso eskasa da.

Hiru laguni isuna jarri die Nafarroako Gobernuak, arauak bete gabe ehizan jarduteagatik

Europa Press / **Iruñea**

NAFARROAKO GOBERNUKO Ingurugiro Departamentuak isuna jarri die hiru laguni, arauak bete gabe ehizan jarduteagatik. Hirurak foru poliziak harrapatu zituen iaz bete beharreko arauei jaramonik egin gabe ehizatzen.

Zigortuak I.A.U, R.G.Z —elkarrekin ari ziren hauek ehizan— eta L.A.I.L dira. Hirurak, gauez ari zirela harrapatu zituzten, eta ehizan jarduteko premiazkoak diren baimen eta agiriak ez zituzten legeak agindu bezala. Lehenengo biek 200.000 pezetako isuna ordaindu beharko dute eta bi urtean galarazita izango dute ehiza egitea. Hirugarren ehiztariak ere antzeko zigorra jasoko du, diru isuna eta aldi baterako galaraztea alegia.

Hizkuntza gutxituen itunak ez ditu haiek bermatzen, aditu batek esan duenez

Oinarriak taldearen jardunaldiak gaur amaituko dira, normalizaziorako txostena aztertuta

Erredakzioa/**Iruñea**

Europako hizkuntza erregional eta gutxituen agiriak ez du bermatzen haien aitzinatzea, batez ere arriskuan daudenean, eta gehienez egungo estatusa mantentzeko balio du, Ciemen ikerketa zentroko kide Nicolau Gonzalezek herenegun adierazi zuenez, Oinarriak taldeak Iruñean antolatutako jardunaldien barruan.

JOXE LACALLE

Nicolau Gonzalez (eskuinean), Nafarroara egindako aurreko bisitaldi batean.

NICOLAU GONZALEZ-EN esanetan, 1992an onartu eta Espainiak eta Frantziak sinatuta bai baina berretsita ez duten agiriak badauzka, eduki ere, hizkuntza gutxituendako neurri bizkortzaileak, baina politikarien borondatearen menpe dago zeharo. Gonzalez Ciemen ikerketa zentroko kidea da, eta hitzaldia eman zuen Oinarriak taldeak Nafarroan euskara normalizatzeko legea aurkezteko antolatutako jardunaldietan. Xabier Mendiguren Kontseiluko ordezkariak ere parte hartu zuen.

Gaur amaituko dira jardunaldiak, Planetarioan, arloz arlo egingo den txostenaren eztabaidarekin.

Hizkuntza gutxituak egun Europan zein egoeratan dauden azaldu zuen Gonzalezek, legeen ikuspegitik. Bera da Ciemeneko ikerketa arloko arduraduna eta Europako Batzordeko hizkuntz eskubideak eta legediaren inguruko Mercator izeneko programaren koordinatzailea. Bere hitzaldian Estrasburgon 1992ko urriaren 2an sinatu zen hizkuntza erregionalen eta gutxituen agiria jorratu zuen batez ere, eta kritiko azaldu zen: «Jada aitzinsolasean azpimarratzen da estatuen integritatea dagoela oinarrian, hizkuntza errebindikatzea estatuaren kontra jotzea balitz bezala».

Bigarren partean hainbat orientazio filosofiko ematen dira txosten horretan, eta hirugarrenean, non muina hor den, arloz arlo jorratzen dira, ehun bat ataletan, hizkuntza gutxituen eskubideak. Ciemeneko kideak kritikatu zuen ehun artikulu horietatik estatu bakoitzak 35 soilik eta, gainera, nahi dituenak aukeratu ahal izatea.

Arloz arlo, irakaskuntza, justizia, administrazioa, komunikabideak, kultura eta bizitza ekonomiko eta soziala lantzen ditu agiriak. Gonzalezen esanetan, berez oinarri onak dituen legea ezerezean gelditzen da gero. «Soilik atzerapena geldiarazteko balio dezake, ez baitie hizkuntzei ofizialtasun estatusik ematen eta, gainera, estatuaren borondatearen menpeko neurriak dira azken finean».

Xabier Mendiguren, Kontseiluaz

Xabier Mendiguren Kontseiluko kideak ere azaldu zituen bere hitzaldian Kontseiluaren sorreraren nondik norakoak, *Bai Euskarari* kanpainaren hasiera eta burutzea eta egun aurrera ateratzen ari diren Egitasmo Estrategikoaren helburuak.

Gaur, goizean goiz, Oinarriak Nafarroan euskara normalizatzeko aurkeztutako txostena eztabaidatuko da Planetarioan.

Gizonezko bat hil da Azagran auto batek harrapatuta

Bizikletan zihoan Tutera-Logroño errepidean, eta auto batek atzetik jo zuen

Europa Press / **Iruñea**

AZAGRAKO bertako gizon bat hil zen atzo Tuteratik Logroñora doan NA-134 errepidean izandako istripuan. Hildakoa Manuel San Marcelino Sobejano da, 67 urtekoa.

Trafikoko Guardia Zibilak jakinarazi zuenez, istripua goizeko bederatziak inguruan gertatu zen Azagrako ikastetxe publikoaren parean. Ez jakin nola, auto batek bizikleta jo zuen eta airean eraman zuen Azagrako gizonezkoa. Autoa Logroñoko gizonezko gazte bat zihoan gidatzen.

Kolpearen ondorioz han bertan hil zen Manuel San Marcelino. Isptripua gertatu eta anbulantziak azkar batean iritsi ziren arren, osasun profesionalek haren heriotza ziurtatu baino ezin izan zuten egin. Epaileak gorpua altxatzeko baimena eman ondoren, agindu zuen Nafarroako Ospitaleko Institutu Anatomiko Forentsera eramateko, gorpuari autopsia egin ziezaioten.

Hainbat taldek egin du bat EUDIMAk deituta gaur Iruñean egingo den manifestazioarekin

Desmilitarizazioaren aldeko protesta 17:30etan hasiko da, Autobus geltokian

MALATXA eta Kakitzat talde antimilitaristek eta Amnistiaren Aldeko Batzordeek bat egin dute, beste askoren artean, Udalerri Intsumituen Mankomunitateak (EUDIMA) deituta gaur Iruñean egingo den manifestazioarekin. Protesta arratsaldeko bostak eta erdietan abiatuko da Autobus Geltokitik, eta Gasteiz hiribidean amaituko da.

Desmilitarizazioaren ordua da! Euskal Herriak nahi duelako, Euskal Herriak behar duelako, armadak kanpora! leloa aukeratu dute antolatzaileek, inhabilitazio zigorren garaia gainditzear dagoela eta hurrengo urratsari ekin behar zaiola aldarrikatzeko: Euskal Herriaren desmilitarizaziori, hain zuzen ere.

Hainbat talde bat agertu dira lelo horrekin manifestazio deialdiari atxikimendua agertzerakoan. Amnistiaren Aldeko Batzordeek, esate baterako, azpimarratu dute gizartearen gehiengoak abiarazi duen prozesu demokratikoak kanpoko esku hartzerik gabeko bilakaera eskatzen duela, eta horregatik bere egiten dutela leloa.

Daukaguna al da behar duguna?

Euskal telebista eredua aztertu dute Edorta Arana, Joserra Garzia eta Elixabete Garmendiak

Gorane Agirre / **Bilbo**

Santutxuko aurtengo Santuskaratxuen barruan antolatutako *Zelako telebista daukagu euskaldunok* mahai-inguruan euskaldunok daukagun telebistaz eta beharko genukeenaz aritu ziren Edorta Arana eta Joxerra Garzia EHUko irakasleak eta Elizabete Garmendia Euskal Telebistako *Bertatik bertara* telebista saioko zuzendaria.

MONIKA DEL VALLE

Edorta Arana, Elixabete Garmendia, Jon Etxabarri (moderatzailea) eta Joserra Garzia, mahai-inguruaren une batean.

MAHAI-INGURUKO izenburuari helduz ETB1eko iazko programazioaren diagnostikoa egin zuen Edorta Aranak, EHUko irakasleak; egun osoko programazioa, *prime time*ko programazioa (20:30etatik 24:00etara bitartekoa) eta albistegien edukia aztertu zituen.

ETB1eko egun osoko programazioan hiru dira pisu gehien duten generoak: haur eta gazteentzako programazioa; aktualitatearekin zerikusia duten saioak, hau da, albistegiak eta kirolak; eta informazio kontestuala eskaintzen duten magazinak edota dokumentalak. Hiru genero horietako bakoitzak emisio orduen laurdena ordezkatzen du.

Euskal Herriarekin zerikusia duten programen presentzia adierazgarria nabarmendu zuen Aranak, % 72k euskal pertsonaiak, tokiak edo gaiak lantzen dituzte. Beste datu bitxi bezala, ETB1eko errepikapen maila altua aipatu zuen: programazio denboraren %40 errepikapenak dira.

EHUko irakasleak eskainitako datuen arabera, *prime time*-ko panorama oso bestelakoa da: kirolak (emisio orduen %35), fikzioak (%22), magazinek (%16,2) eta albistegiek (%11) osatzen dute tarte hori. Urrezko ordutegi horretan, bestalde, ez da saiorik errepikatzen.

Albistegiei dagokienez, «enpresaren ikuspegi eta ideologia hobe islatzen» duten programak direla azpimarratu zuen Aranak. Albistegietan gehien agertzen diren gaiak politika eta gizarteari buruzkoak dira (%80,2), eta atzerago daude kirola, kultura edo eguraldia. Informatibo horietako protagonista nagusiak talde formalak eta instituzionalak dira. Azkenik, zera nabarmendu zuen Aranak: albisteen %52 Hego Euskal Herriari buruzkoak dira, %30 «atzerrikoak», %16 Espainiakoak eta %3 Frantziakoak. «Ipar Euskal Herriak ez du ia tokirik ez pertsonaietan ezta albisteetan», gaineratu zuen Aranak.

EDORTA ARANA

«Ipar Euskal Herriak ez du ia tokirik Euskal Telebistako lehen katean, ez pertsonaietan ezta albisteetan ere»

JOXERRA GARZIA

«Euskaldunok dugun telebista bakarrak denontzat modukoa, lotsagabea, bizigarria, hiztun egokia eta unibertso dena beharko luke»

ELIXABETE GARMENDIA

«ETB1en izaera hizkuntzak justifikatzen duen heinean, euskaraz diharduen komunitate osoarentzat behar du izan»

Telebista bakarra, bizigarria, lotsagabea...

ETB1en eskaintzaren erradiografia zehatzaren ostean, telebista horrek bete beharko lituzkeen ezaugarriak jorratu zituen Joxerra Garziak, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHUko) irakasle eta idazleak. Euskaldunok «nazio mailan euskaraz diharduen telebista bakarra» dugula nabarmendu zuen Garziak; ondorioz, eta tokian tokiko telebistak ahantzi gabe, euskaraz bizitzeko apustua egin duenak aukera bakarra duela nabarmendu zuen.

Euskarazko telebistak, Garziaren ustez, honako ezaugarriok bete beharko lituzke: denontzat modukoa, bizigarria, lotsagabea, hiztun egokia eta unibertso dena izan beharko luke.

Telebista bakar horrek denontzat modukoa, hau da, «euskaleria guztiak gustura ikusteko modukoa» beharko lukeela azaldu zuen. ETB1, ostera, ez da gisa horretakoa Garziaren ustez; besteak beste, bere eskaintza desorekatua da, emakumea diskriminatzen du, eta 12 eta 45 urte bitarteko ikusleriak presentzia gutxi du.

Bizigarria izan zen Garziak aipatu zuen beste ezaugarrietako bat. Hori bainoago «ETB1 partidu bateko jauntxoen telebista da» bere ustez; zentzu horretan, «zentsura barra-barra dabil» gehitu zuen.

Halaber ETB1ek euskararen normalizaziorako balio beharko lukeenez, hiztun egokia beharko lukeela uste du. Bere hitzetan, «ETB1ek obligazioa dauka gizartearen euskara maila hobetzeko eta ereduak emateko».

«Hizkuntza komunitate baten telebista»

ETB1 existitzeko arrazoia, eginkizuna eta motibazioa hizkuntza bera dela adierazi zuen Elizabete Garmendiak, ETBko *Bertatik bertara* saioko zuzendariak. Ildo horretan, «ETB1en izaera hizkuntzak justifikatzen duen heinean, telebista horrek euskaraz diharduen komunitate osoarentzat» izan behar duela nabarmendu zuen.

Hizkuntza komunitate hori eraldatzen, aberasten, handitzen eta anizten doan heinean, horrek telebistan ere isla izan beharko lukeela eta baduela adierazi zuen. Dena dela, ETBk, gehitu zuen, «kontuan hartu behar du bere ikusleak ez dutela izan behar beti ume izatera kondenatuak dauden horiek».

Bestalde, ETB1en nortasun hori edukiz hornitu eta ondo zehaztuz gero, hizkunta komunitate oso horri erantzunez gero, ETB2 katerako erreferentzia puntu bihur litekeela uste du Garmendiak.

Luis Pedro Peña Santiago parketxea Inaugurazioa

Lizarrusti, bizi-berritua

Atzo inauguratu zuten Gipuzkoako Diputazioko eta Jaurlaritzako agintariek Lizarrusti gaineko parketxea

Luis Pedro Peña Santiago izena jarri diote, Gipuzkoako mendizale nekaezin hura gogoan.

Gipuzkoa eta Nafarroa artean dago Lizarrusti mendatea, Ataun eta Etxarri-Aranatz arteko bidean. Bertan atzo goizean Luis Pedro Peña Santiago parketxea inauguratu zuten, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarlanean zaharberritu duten eraikina.

Garai batean, Aldundiaren Hautamen eta Kamino etxea zen eraikin hori. «Oso gaizki zegoen, ordea», azaldu zuen atzo Aralar Parke Naturaleko arduradun Iñaki Aizpuruk. Horregatik, bertan behera utzitako lau horma zahar haiei bizi berria ematea erabaki zuten aipatu erakundeek. «Ehun milioi pezeta erabili dituzte horretarako».

Dirutza horren emaitza atzo begien bistan jarri zuten parketxeko arduradunek Gipuzkoako diputatu nagusi Roman Sudupe, Jaurlaritzako Nekazaritza sailburu Iñaki Gerenabarrena eta Foru Aldundiko nekazaritza diputatu Iñaki Txueka bertan zirela. Irribarrez esku hartu zuten guztiek inaugurazio ekitaldian, eta hitz ederrak izan zituzten ahotan eta gogora ekarri zituzten parketxe honek izango dituen bi helburu nagusiak: ingurugiro naturala zaintzea –Gipuzkoako aldean parke naturala da Aralar– eta bertara hurbiltzen direnei harrera egin eta aterpea eskaintzea.



PABLO S. QUIZA

Lizarrusti gaineko etxe zaharra, txukun txukun zaharberritua. Aterpetxe bihurtu dute.

Atarian, mendizale handi bat

Inaugurazioa egin ondoren, agintari, etxeko arduradun, eta gonbidatuak etxe barrura sartu ziren. Atea zeharkatu orduko, ezker aldean, Luis Pedro Peña Santiagoren argazki bat ikusi zuten guztiek, honako hitz hunkigarriokin hornitua: «Oroimeneko bidezidorretan maiz egiten dugu topo». Etnologo eta mendizale nekaezina izan zen Peña Santiago, hainbat liburu eta ikerlanen egilea. Haren izena jarri diote parketxeari.

Ondoren, bertaratu zirenek parketxea barrutik ondo miatzeko parada izan zuten. Eraikin berriberria da eta 40 lagunek lotarako tokia dute bertan. «Etxe honek mendi-aterpea izan nahi baitu», azaldu zuen Iñaki Azipuruk. Sukaldea eta jantokia ere baditu, hurbiltzen diren guztien gozagarri.

Ildo berean, parketxeak Aralar ezagutaraztea du helburu, eta bertaratzen diren guztiei paraje zoragarri horri buruzko informazioa ematea. Diaporama bat atondu dute propio horretarako, eta foileto piloa ipini dute etxeko atarian, guztien eskuragarri. Ildo berean, ibilbide gidatuak, ikastaroak... orotarikoak antolatuko dituzte. Izan ere, Felipe Uriarte mendizale ezagunaren gidaritzapeko enpresak hartu du parketxea kudeatzeko ardura.

Parketxea zerbitzu horiek guztiak eskaintzen ekain aldera hasiko da. Atzo, atariko urrats gisa, inaugurazioarekin bat, *Parke naturala. Aralar* liburua aurkeztu zuten bertan, Gema Arrugaetaren argazkiz osaturiko liburu zoragarria.

Arantxa Iraola
LIZARRUSTI

Joan-etorrian

Duela hamarkada batzuk 16 familiaren bizilekua zen Lizarrusti, eliza eta eskola propioak zituen mendate bizia. Orain familia bakarra bizi da, eta bertaratuko diren *bizilagun* berriak, joan-etorri lasterrekoak izango dira, Aralar bisitatzera doazen mendizale eta turistak.

Nafarroako Gobernuak baztertuenei etxeak eskuratzen laguntzeko akordioak sinatu ditu

Pobreziaren Kontrako Sarean lanean ari diren hainbat talderekin sinatu ditu akordioak

Europa Press / **Iruñea**

ATZO goizean Nafarroako Gobernuko ordezkari Yolanda Barcinak eta Calixto Ayesak hitzarmenak sinatu zituzten Pobreziaren Kontrako Sarean lanean ari diren hainbat erakundetako ordezkariekin. Horien helburua gizarteko talderik baztertuenei etxebizitzak eskuratzeko bideak erraztea da.

Guztira 400 milioi pezeta erabiliko ditu Nafarroako Gobernuak akordio horietan hitzartutakoa betetzeko. Atzo, hain justu, La Majari, Traperos de Emaus, Santa Lucia-Adsis, Nafarroako Formazio eta Enplegu elkartea eta Andrea erakundeekin sinatu zituzten hitzarmenak, eta urte hasieran beste antzeko bat sinatu zuten Caritasekin.

Modu honetan, atzo aditzera eman zutenez, 117 etxebizitza eskuratzeko bidea erraztuko du Nafarroako Gobernuak. Horiek Bazterketa Sozialaren Aurkako Planean iragarritakoak baina gehiago izango direla adierazi zuten, eta pozgarria dela horrelako ekimenetan esku hartzea.

Kostaldearen betonatzea salatu du Isler-Beguinek Donibane Lohizunen

Berdeen europar ordezkariak urjoko-parke proiektua salatu du

Hur Gorostiaga / **Donibane-Lohizune**

Zenbait urtez kostaldea eraikinez eta betoinez betetzeko joerak pausaldia ukan ondoan, berriz ere «modako fenomeno» bilakatu dela salatu zuten atzo Berdeek Donibane Lohizunen. Marie Anne Isler Beguin Europarlamenturako bigarren hautagaiak, udalak eraiki nahi duen urjoko-parke erraldoia salatu zuen.

BOB EDME

Jean Lissar eta Marie Anne Isler Beguin, atzo Donibane Lohizunen.

EUROPAR HAUTESKUNDEEN kari Marie Anne Isler Beguin Berdeen zerrendako bigarrena Donibane Lohizunen izan zen atzo, Frantziar Estatuan egiten ari den itzuliaren baitan. Larogeita hamar garren hamarkadan kostaldearen betonatzeko sukarra itzali bazen, «egun modara itzuli den fenomenoa» dela salatu zuten. Adibide gisa, Donibane Lohizuneko itsas hegian udalak eraiki nahi duen urjoko-parke erraldoia salatu zuen Isler Beguinek, Christian Sauve Donibaneko hautetsi berdea eta Jean Lissar eskualde kontseilari berdearekin batera.

«Donibane Lohizunen pizinarik ez izanki, azken hogoita hamar urteetako xedea da baten sortzea. Baina udal pizina batek 1,5 milioitik 2 milioi liberako (50 milioi pezeta) urteko kostua duenez -Hendaia eta Miarritze kasu-, Alliot Mariek talde pribatu baten esku utzi nahiko luke. Baina talde pribatuarendako errentagarri izan dadin, itsas batzerrean egun zonalde natural gisa dauden 9 hektarea desklasifikatu eta joko-parke erraldoia eraiki nahi du» salatu zuen Sauvek. Gisa berean, Frantziako beste eskualdeetan halako zentruek porrot egin dutela ikusirik, Donibanekoak porrot eginen duenean «eraikitzeko baimena egonen den lurraldean etxegintza proiekturik ez ote dagoen» egin zuen galde.

Isler-Beguinen erranekin bat eginez euskal berdeek, proiektuak «maskaradaren» segida direla azaldu zuten, emandako ikerketen emaitzak ikerketa agindu zutenei plazer egiteko» direla gaineratzeko. Gisa horretan, «autobidearen egitea oztopatzeko bide oro erabiltzeko prest» agertu ziren Berdeak, baita Dominique Voynet ministroaren eskusartzea ere.

Autobidea zentzugabea

Baionatik Iruñerako autobide proiektua «zentzugabea» dela ohartarazi zuen Isler-Beguinek. «1992 urtean Rion Estatuak kutsadura murrizteko neurriak hartzera engaiatu ziren. Errepide eta autobide gehiago eraikiz, delibero horien kontra doaz zuzen. Somporten bezala, euskal pirinioetan ere trenbide sarea garatu behar baita. Egun egin nahi dena, dementziala da» esan zuen.

laburrean

■ Bizkaiko bikote ezkonberri batzu erreskatatu dituzte Malasian untzi baten izandako istriputik

JOSEBA BERGANZA Ane Agurtzane Viota ezkonberri bizkaitarrak Malasian kruzero untzi baten izandako istriputik erreskatatu zituzten atzo. Bikotea *Sun Vista* izeneko untzian zihoan Sinfapurretik Malasiarako bidea egiten ari zen beste mila bat bidaiarekin batera. Malacako itsastartean untziak sua hartu zuen eta hondoratu egin zen. Ondorioz, bidaiari guztiak erreskatatu egin behar izan zituzten. Atzo goizaldeko ordubiak aldera Josebak etxera deitu zuen Malasiatik gertatutakoa azaldu eta onik zirela jakinarazteko. Bikoteak eztai bidaia amaituta, datorren asteartean zuen Sondikako aireportura itzultzeko asmoa.

■ Zornotzako 60 bat gaztek Goardia Zibilaren koartela zena okupatu dute

ZORNOTZAKO 60en bat gaztek Goardia Zibilaren koartela zena okupatu zuten atzo arratsaldean. Zornotzako Gazte asanbladako ordezkariek azaldu zutenez, "Udalari gazteentzako areto bat eskatzen urteak badaramatzagu ere, ez du gure eskaria aintzat hartzen. Hori dela eta, egun Udalarena izan eta hutsik dagoen koartela izandakoa okupatzea erabaki dugu, bertan guretzako txoko bat egokitu ahal izateko". Gazte Asanbladak herriko hainbat elkarte eta alderdi politikoren babesa dauka bere eskarian.

■ Unai Molinero intsumisoari gerra kontseilua egin diote

MUNGIAKO Soietxeko koartel militarretik alde egin zuen Unai Molinero intsumisoa gerra kontseiluan epaitu zuten joan den ostegunan A Coruñan. Desertzio delitua leporatzen dioten koarteletako intsumiso honi lau urteko kartzela militar zigorra eskatzen dio fiskaltzak. Dagoeneko koarteletako hamalau intsumisori gerra kontseilua egin diete desertzio delituagatik eta epe laburrean beste 30 bat izango dira epaituak. Gaur egun koarteletako bi intsumisok bi urte eta lau hilabeteko kartzela zigorra betetzen dute Alcala de Henareseko espetxe militarrean.

■ Kartzelan sartu dute hamalau eraso sexual egiteaz akusatutako gizonezko bat

JOAN DEN larunbatean Ertzaintzak atxilotu zuen ustezko erasotzaile sexuala Martuteneko kartzelan sartu dute epailearen aginduz. Ustezko erasotzaileak, I.G.T izenekoak 19 urte ditu eta Etxebarriko da, Bizkaikoa. Barne sailak jakinarazi duenez, atxilotutakoari gutxienez 14 eraso sexualen erantzulea izatea leporatzen diote eta beste hainbat lapurreta egitea. Nolanahi ere, Polizia Autonomoak uste du eraso gehiagoren arduradun izan daitekeela, eta beraz, eskatu die balizko biktimei Ertzaintzarengana edo Udaltzaingora jo dezatela. Ustezko erasotzailea atxilotzeko zaintza sistema berezia indarrean zuen aspaldi samarretik Ertzaintzak. Joan den larunbatean emakumezko baten deia jaso zuten eraso egin ziotela esanez, eta hark emandako deskripzioarei esker atxilotu ahal izan zuten.

Egunkaria-n bisitan

Gasteizko Mendebaldea Institutua - DBH-ko 3. maila

35 orduen aldeko greba Hego Euskal Herrian Jarraipena

EUSKO JAURLARITZAK DEKRETUZ AGINDUTAKO GUTXIENEKO ZERBITZUAK BETE EGIN DIRA, GARRAIO ZERBITZUETAN IZAN EZIK

Grebak oso erantzun zabala izan du Hego Euskal Herriko langileen artean

- Deialdiaren jarraipena ia erabatekoa izan da Euskal Autonomia Erkidegoko langileen artean, eta apalagoa Nafarroan
- Sindikatuentzat greba «historikoa» izan da, eta enpresariak lanorduen murriztea negoziatzera behartuko ditu
- Ertzaintzaren eta piketeen artean izandako liskarren ondorioz hamabi lagun atxilotu dituzte, eta zauriturik ere egon da

ELA, LAB, ESK eta EILASek Bilbon antolatutako manifestazioa oso jendetsua izan zen. Orotara, hiriburuetan egindako manifestazioetan 45.000 lagunek parte hartu zuten, antolatzaileen arabera.

XOUSE SIMAL

Joseba Aiartza / **Bilbo**

GREBAREN erantzunaz oso pozik agertu dira euskal sindikatuak. Haien iritziz, 35 lanorduen eta soldata sozialaren aldeko borrokan urrats garrantzitsua egin dutela, langileen eta gizartearen sostengua lortu dutelako. Gauzak horrela, enpresariek eta administrazioek lanorduak negoziatzeko aitzakiarik ez jartzea espero dute.

Enpresariek, ordea, gutxietsi egin dute grebaren jarraipena, eta, lekua zein zen, «erantzun ezberdina» izan zela esan dute. Patronalak eta Eusko Jaurlaritzak piketeen erabilpena aurpegiratu diete sindikatuei, lan egin nahi zuten langileak greba egitera behartzeko.

Liskarrak eta atxilotuak

Piketeen eta Ertzaintzaren artean liskar ugari izan ziren greba egunean, baita barrikadak eta errepide mozketak ere. Liskar horien ondorioz, hamabi lagun atxilotu zituzten Hegoaldeko lau herrialdeetan, baina guztiak aske geratu ziren. Zauriturik ere izan zen, baina larri inor ez.

Gutxieneko zerbitzu gehientsuenak bete egin zirela jakinarazi du Eusko Jaurlaritzako Lan Sailak. Garraio alorrean soilik ez dira guztiak bete, sindikatuek gehiegizkotzat jo baitzituzten Gasteizek ezarritako %20ko zerbitzuak.

Greba deialdia ELA, LAB, ESK eta EILASek egin zuten Hego Euskal Herri osoan, eta UGTk eta CCOOk Euskal Autonomia Erkidegoan.

Sindikatu horietako jarraitzaileek manifestazioak egin zituzten Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan eta hainbat herritan, non milaka lagunek hartu zuten parte. Sindikatu abertzaleek deituriko manifestazioetan soilik 45 bat mila langile elkartu ziren.

Gutxieneko zerbitzuak

Gutxieneko zerbitzu gehienak bete egin zirela jakinarazi zuen Eusko Jaurlaritzak

Kopuru kontrajarriak

Sindikatuak eta elkarte patronalak ez dira ados agertu grebaren jarraipena zehazterakoan. Hala, SEA elkarteak esan duenez, Arabako industri sektorean erantzuna %50era ere ez zen iritsi; CEBEKen arabera, Bizkaian %50 baino pixka bat gehiagokoa izan zen, eta Adegik onartu du Gipuzkoako langile gehientsuenek deialdiarekin bat egin zutela.

ELA, LAB, ESK eta EILAS sindikatuen arabera, berriz, grebaren jarraipena %78,26koa izan zen Araban, %83,40koa Bizkaian eta %94,02koa Gipuzkoan, industria sektorean betiere.

Beste alorrei dagokienez, sindikatuek honako emaitza hauek eman dituzte: administrazio publikoetan, greba erabatekoa izan zen udaletxeetan eta aldundietan, eta %75ekoa Eusko Jaurlaritzan; eraikuntzan grebaren oihartzuna erabatekoa izan zen (lan handietan); finantza entitate gehienek itxi egin zuten, saltoki handiek ere bai; ez, ordea, denda txiki guztiek, eta komunikabideen artean ere jarraipena handia izan zen.

Osasun zerbitzuetan, grebaren erantzuna Arabako %55en eta Gipuzkoako %80en bitartekoa izan zen, eta irakaskuntza zentroetan %70-%85 bitartekoa.

Garraioetan, esan bezala, ez ziren bete Eusko Jaurlaritzak ezarritako gutxieneko zerbitzu guztiak, batez ere hiri barruko autobus garraioetan. Trenbideetan, berriz, EuskoTren, Renfe eta Bilboko metroko langileek greba egin zuten.

Nafarroan, berriz, sindikatu abertzaleek iparraldeko eskualdeetan izandako jarraipena azpimarratu dute: %80koa Sakanan, %95ekoa Baztan, Bidasoa eta Leitzaranen eta %40koa Iruñealdean. Lizarran eta Erriberan, berriz, 35 orduen aldeko lanuztearen jarraipena eskasagoa izan zen.

Jarraipena

Eraikuntza alorrean greba erabatekoa izan zen, banketxe gehienek eta saltoki handi gehienek itxi egin zute

35 orduen aldeko greba Hego Euskal Herrian Mobilizazioak

Protesta oihu goiztiarrak

Grebalariek Ertzaintza eta Polizia aurrez aurre eduki zuten eta hainbat lekutan istiluak izan ziren

Erredakzioa / **Donostia**

Goiztiarrak izan ziren oso atzoko lehen manifestazioak. Sindikatuek eguerdirako deitu zituzten langileak kontzentrazioetara, baina hori baino lehen 35 orduen aldeko oihuak herri askotako kaleetara eta industrialdeetara eraman zituzten langileek. Piketeak nonahi, grebaren aldeko eta aurkakoen arteko istiluak ere sortu ziren han-hemenka. Hamabi lagun atxilotu zituzten Ertzaintzak eta Espainiako Poliziak, eta kargak ere izan ziren Gasteizen eta Bilbon.

GREBA eguna, mobilizazio eguna. Atzoko lanuztea ez zen, sarritan gerta izan den moduan, jai egun bihurtu. Goizetik, Hego Euskal Herriko hainbat herritan 35 orduen alde, ordu estren aurka eta soldata sozialaren aldeko oihuak entzun zitezkeen. Izan ere, piketeetara bildutakoek manifestazioak egin zituzten han-hemenka.

Grebalariak eta dendak, bulegoak edo lantegiak itxi nahi ez zituztenak aurrez aurre egon ziren toki askotan, eta ondorioz istiluak ere sortu ziren.

Besoa apurtuta

Gasteizen, esaterako, UGTko afiliatu bati besoa apurtu zion Ertzaintzak, sindikatuko ordezkariek salatu zutenez. Goizeko bostak aldera, Gasteizko industria poligonoetan bildu ziren UGTko hainbat militante.

«Hantxe, segurtasun indarrekin egin dugu topo, eta besterik gabe oso oldarkor jarri dira gurekin», azaldu zuen Felipe Garcia UGTko ordezkariak. «Inolako probokaziorik gabe, kargak hasi ziren, goma pilotak jaurti zizkiguten eta sindikalistei joka hasi ziren». UGTkoek «Ertzaintzaren jarrera probokatzailea» gogor salatu zuten, eta Barne sailburu Javier Balzak gertakari horien inguruan «hausnarketa egin beharko duela» esan zuten UGTko ordezkariek.

Bilbon ere, Gran Via kalean, banketxeen egoitzen inguruan, piketeen aurkako kargak egon ziren. Iruñean, Alde Zaharrean, istiluak eta enfrentamenduak izan ziren.

Horren guztiaren ondorioz, orotara hamabi lagun atxilotu zituen Ertzaintzak eta Poliziak: Araban, bat; Gipuzkoan, hiru, eta Bizkaian eta Nafarroan launa lagun. Desorden publikoak eta lanean zegoen jendea derrigortzea leporatu zieten segurtasun indarrek, baina atxilotu eta berehala asko utzi zituzten.

Eguerdi aldean hiriburuetan egindako manifestazioak jendetsuak izan ziren oso, eta istiluren bat ere jazo zen. Bilbon, esaterako, RNEko furgoneta bat irauli zuten manifestariek. Atzokoa, beraz, mobilizazio eguna izan zen Euskal Herrian, eta goizean, eguerdien eta arratsaldean 35 orduen eta soldata sozialaren aldeko aldeko oihuez bete zituzten herrietako kaleak.

MIKEL MARTINEZ

Piketeak El Corte Inglesen.
Ertzaintza aurrez aurre eduki zuten piketeek Bilboko El Corte Inglesen.

EDURNE KOCH

Zabor biltzaileak ere 35 orduen alde.
Kale kantoietan pilatutako zaborra ikus zitekeen atzo, zabor biltzaileek ere greba egin baitzuten bezperan.

Eusko Jaurlaritzak dio ez dela «lan egiteko eskubidea errespetatu»

EUSKO JAURLARITZAK piketeen jokaera salatu egin zuen atzo. Lan Saileko arduradunen ustez, «greba eskubidea errespetatzea bezain beharrezkoa eta demokratikoa da lan egitea erabaki dutenen eskubidea errespetatzea». Bereziki «tamalgarria» iruditu zitzaion Jaurlaritzari piketeen jarrera «grebarekin zerikusirik ez duen jendearen bizimoduan eragiten duenean». Horregatik, dei berezia egin zien sindikatu eta langileei «edozein biolentzia adierazpen gatzetsita, eskubide guztiak bateragarriak direla azaltzeko».

Gutxieneko zerbitzuak oro har bete egin zirela egiaztatu zuen Jaurlaritzak. Garraioan izan zen arazo gehien, betiere Gasteizko agintarien ustez, eta dekretuak «agindutako zerbitzuak nahikoa murritzak direnez, horiek osotasunean betebehar direla ohartarazi zuen.

MIKEL MARTINEZ

Lasterka, Gran Vian.
Bilboko Gran Vian istiluak izan ziren piketeen eta Ertzaintzaren artean. Bizkaian lau lagun atxilotu zituzten.

35 orduen aldeko greba Hego Euskal Herrian ◆ Sindikatuen balorazioak

Euskal langile mugimenduak egindako grebarik garrantzitsuena dela adierazi dute sindikatuek

Lanuztea «ia erabatekoa» izan zen Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban, eta Nafarroan «oso handia»

Joseba Aiartza / **Bilbo**

Euskal langileek grebari emandako erantzunak «aurreikuspen guztiak gainditu» dituela azpimarratu dute sindikatuek. Greba «historikoa» izan dela esan dute zalantzarik gabe, «langile mugimenduak inoiz egindako garrantzitsuena» izan delako.

EDURNE KOCH

Kaleak hutsik zeuden atzo goizean Hego Euskal Herriko hainbat lekutan.

SINDIKATUEK, grebak lortutako arrakastan oinarrituta, mezu zuzena igorri diete enpresari elkarteei eta administrazioei: lanorduen gutxitzea negoziatu beste irtenbiderik ez dutela. Horrela ez bada, datorren udazkena «oraindik beroagoa» izango dela hitzeman dute lanuztea bultzatu duten sindikatuetako arduradunek.

CCOO eta UGT alde batetik eta ELA, LAB, ESK eta EILAS bestetik atzoko mobilizazioetan bereizita egon arren, denak bat etorri dira atzoko greba egunaren baloraziоa egitean, eta langileek greba deialdiari emandako erantzun «masiboa» azpimarratu dute.

Sindikatuen ustez, euskal gizarteak dagoeneko barneratuta dauka lana eta aberastasuna guztien artean banatu beharreko ondasunak direla, eta atzoko grebaren jarraipenak errealitate hori erakutsi duela esan dute.

«Atzoko lanuztea egun gogoangarria izango da euskal langileen mugimenduan. Langileek erabateko sustengua eman diete sindikatuen aldarrikapenei, eta oharpen garbi bat Hego Euskal Herriko enpresariei: lanorduak gutxitzearen inguruan duen jarrera intsolidarioa derrigorrez aldatu beharko duela», adierazi dute grebaren baloraziоa egiterakoan.

Erantzunik zabalena industrian

Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban grebaren erantzuna ia erabatekoa izan dela nabarmendu dute, bai industria sektorean (%86,5eko jarraipenarekin), baita administrazio publikoetan, eraikuntzan, garraioan, irakaskuntzan, finantza sektorean eta gainontzeko alorretan ere.

Grebaren erantzun zabalena Gipuzkoan izan da, gero Bizkaian, eta zertxobait apalagoa Araban.

Nafarroan, UGTk eta CCOOk grebarako deirik egin ez arren, grebaren erantzunak gainditu egin du sindikatu abertzaleek lan munduan duten indarra, batez ere iparraldeko eskualdeetan (Sakana, Baztan, Bidasoa eta Leitzaran), garrantzi handia izan du Iruñealdean, eta oihartzun motelagoa lortu du Lizarra aldeko herrietan eta Erriberan.

Eusko Jaurlaritzak eta enpresariek piketeen lana kritikatu badute ere, sindikatuek ere «pikete gisa» jokatzea leporatu diete enpresariei eta erakunde publikoetako —Osakidetza kasu— zuzendariei, lan egonkorra ez duten langileei greba eginez gero kaleratzeko mehatxua egiteagatik.

Era berean, Ertzaintzaren erasoak eta atxiloketak salatu dituzte, eta Polizia Nazionalaren jazarpena. Iruñea «poliziak hartuta» egon zela egun osoan azpimarratu dute sindikatuetako ordezkariek.

Jose Elorrieta • ELA sindikatuko idazkari nagusia

«Orain, patronala mugitu egingo da»

«Greba erabatekoa izan da, Euskal Herrian inoiz egindako greba orokorrik handiena, oso landutakoa, eta langile gehienek erabat bat egin dute helburuarekin. Esku bateko hatzekin zenba daitezke lanuztea egin ez duten industria sektoreko enpresak. Zerbitzuetan ere oso zabala izan da erantzuna, inoiz baino handiagoa, eta kontuan hartuta gutxieneko zerbitzuekin zer gertatu den, oso ona. Trantsizio garaiko greba handiena izan da, eta garaipenaren zaporea dauka. Lanorduen murriztea beharrezkoa eta posible dela, eta orain lortuko dugula esan dezakegu. Patronala mugituko da».

Rafa Diez • LAB sindikatuko koordinatzailea

«Justizia soziala behar dugu herria eraikitzeko»

«Euskal gizarteak deialdiari eman dion babesa ikaragarria izan da. Greba historikoa izan da Euskal Herriarentzat. Patronalak zenbaki gerra bat prest zeukan gaurko, baina ez dago horretarako lekurik. Mobilizazio hauen mezua argia da: lana banatu behar da eta aberastasuna ere bai, eta 35 orduak eta soldata soziala behar ditugu. Administrazioak eta patronalak mezua hartu behar dute: mahai gainean jarri behar dituzte. Gaurtik aurrera gauzak ez dira berdinak izango. Euskal sindikalismoak sekulako urratsa egin du. Euskal Herria eraikitzeko justizia sozialaz osatutako gizartea behar dugu».

Santiago Bengoa • CCOOko EAEko idazkaria

«Egiazko enplegu politika eskatzen dugu»

«Euskal langileok batera eskatu dugu lanordu gutxiago eta enplegu gehiago. Aldarrikapen ozena izan da Euskadiko herri eta eskualdeetan. Confebaskek mezua hartu behar du, langileen erantzuna ezer ez daukatenen aldekoa dela. Euskal ekonomiak milioi asko galduko dituela esaten dute enpresariek, baina gehiago galtzen dugu: lan egin dezaketen eta egiten ez dutenen ekarpena. Jaurlaritzari egiazko enplegu politika eskatzen diogu. Dekretu onartezin baten bidez balio gabe utzi ditu Lan Harremanen Kontseiluko akordioak. Gaurkoa lehenengo urratsa izan da».

Carlos Trevilla • UGTko EAEko idazkaria

«Greba guztion artean irabazi dugu, eta denok gestionatuko dugu»

«Denok irabazi dugu elkartasun greba hau. Ez dugu onartzen ahulenak baztertzen dituen gizarte bat. Confebask patronalari irabazi diogu 35 orduen eta soldata sozialaren aldeko lanuzte hau. Enpresariei ez zaie dirurik kosta, guri baizik. Hemendik aurrera ezer ez da berdina izango, baina guk jarraitu egin behar dugu. Hemen ez dugu eskatzen legez 35 lanorduak, hori beste leku batean eskatuko dugu. Confebaski eskatzen diogu negoziatzeko. Greba guztion artean irabazi dugu, eta guztion artean gestionatu behar dugu».

Piketeen jarrera salatu dute enpresariek

Greba ez dela «orokorra» izan eta «inposatutakoa» izan dela esan dute

Erredakzioa / **Donostia**

Lanaldi laburraren inguruan patronalaren jarrera aldaraztea zen, besteak beste, lanuztearen xedea. Sindikatuak ziur dira hori lortuko dutela. Baina patronalak, oraingoz, bereari eutsi dio. Confebaskek esan duenez, greba ez zen «orokorra» izan eta oso eragin ezberdina izan zuen probintzia bakoitzean. Horrezaz gainera, «piketeen jarrera behartzailea» salatu dute enpresariek. Gauzak horrela, 35 orduko aldarrikapena «ezinezkoa» dela berretsi dute.

JESUS DIGES / EFE

Iruñeko Alde Zaharrean, dendari bat pertsiana jaisten. Atzean, grebalarien manifestazioa.

MIKEL MARTINEZ

Ertzain bat, grebaren aldeko afixak kentzen, Bilbon.

Baltasar Errazti •
CONFEBASKeko presidentea

«Ez da orokorra izan, eta inposatutakoa izan da»

«35 orduen aldeko greba ez da orokorra izan, eragin ezberdina izan du eskualdeen arabera eta inposatutako lanuztea izan da. Bi ezugarri izan ditu grebak: piketeen jarrera masiboa, behartzailea eta hinbat kasutan oldarkorra, eta garraioan gutxieneko zerbitzuak bete ez izana. Normaltasunez hasi da eguna, bai ostalaritzan, bai dendetan eta baita zerbitzuetan ere. Gipuzkoan eta hiriburuetan jarraipena handiagoa izan da. Araban, aldiz, erabateko porrota izan da grebarena, langile gehienek ohi bezala egin baitute lan».

Jesus Mari Korta •
ADEGIko presidentea

«Sindikatuen aldarrikapena ezinezkoa da»

«Goiz-goizetik piketeak grebara behartzen aritzea, garraio publikorik eza eta langile askorengan egindako presioak izan dira Gipuzkoan grebaren ezaugarriak. Enpresa handietan gehienek egin dute bat grebarekin, eta enpresa txikietan eragin txikiagoa izan du. Sindikatuen jarrerak langile askoren independentzia baldintzatu du. Gipuzkoako enpresarien elkarteak be- rresten du sindikatuek aldarrikatzen duten lanaldiaren murrizketa ezinezkoa dela. Enpresariek inoiz ez dugu onartuko enpresen lehiakortasuna eta enplegua aurriskuan jarriko duen neurririk».

Roman Knörr •
SEAko presidentea

«Araban, grebak porrot egin du»

«130 enpresen artean galdeketa egin ondoren, grebak porrot egin duela ikusi dugu. Enpresa handietan jarraipena zabalagoa izan da txikietan baino. Piketeen jarrera ez da soilik informatiboa izan, hainbat kasutan piketeek lan egin nahi zuten langileak behartu egin baitituzte».

Francisco Javier Ansuategi •
Espainiako Gobernuaren ordezkaria Nafarroan

«Grebak porrot egin du»

«Grebak porrot egin du, jarraipena oso eskasa izan da. Grebara deitzeko ekimenari eta grebaren antolatzaileei diedan begirune osoz esan dezaket, grebaren jarraipena oso txikia izan dela, Sakanan izan ezik. Bestalde, ez dut ulertzen manifesatazioetan Estatuko Segurtasun indarren aurka oihu egitea, ez dut ulertzen poliziaren aurkako irain batek eta 35 orduko lan asteak zer-nolako erlazioa duten».

Arnaldo Otegi • EH

«Euskal Herria Europaren buruan»

ELA eta LABek deitutako manifestazioaren haseran

FEBASKeko presidentea

«Ez da orokorra izan, eta inposatutakoa izan da»

«35 orduen aldeko greba ez da orokorra izan, eragin ezberdina izan du eskualdeen arabera eta inposatutako lanuztea izan da. Bi ezugarri izan ditu grebak: piketeen jarrera masiboa, behartzailea eta hinbat kasutan oldarkorra, eta garraioan gutxieneko zerbitzuak bete ez izana. Normaltasunez hasi da eguna, bai ostalaritzan, bai dendetan eta baita zerbitzuetan ere. Gipuzkoan eta hiriburuetan jarraipena handiagoa izan da. Araban, aldiz, erabateko porrota izan da grebarena, langile gehienek ohi bezala egin baitute lan».

Jesus Mari Korta •
ADEGIko presidentea

«Sindikatuen aldarrikapena ezinezkoa da»

«Goiz-goizetik piketeak grebara behartzen aritzea, garraio publikorik eza eta langile askorengan egindako presioak izan dira Gipuzkoan grebaren ezaugarriak. Enpresa handietan gehienek egin dute bat grebarekin, eta enpresa txikietan eragin txikiagoa izan du. Sindikatuen jarrerak langile askoren independentzia baldintzatu du. Gipuzkoako enpresarien elkarteak be- rresten du sindikatuek aldarrikatzen duten lanaldiaren murrizketa ezinezkoa dela. Enpresariek inoiz ez dugu onartuko enpresen lehiakortasuna eta enplegua aurriskuan jarriko duen neurririk».

Roman Knörr •
SEAko presidentea

«Araban, grebak porrot egin du»

«130 enpresen artean galdeketa egin ondoren, grebak porrot egin duela ikusi dugu. Enpresa handietan jarraipena zabalagoa izan da txikietan baino. Piketeen jarrera ez da soilik informatiboa izan, hainbat kasutan piketeek lan egin nahi zuten langileak behartu egin baiti-

35 orduen aldeko greba Hego Euskal Herrian Araba

Arabak ere 'bai' esan zien 35 orduei

Industrian greba ia erabatekoa izan zen sindikatuentzat, %53koa soilik enpresarien arabera

Asier Pz. de Karkamo/Gasteiz

Arrakasta hitzak laburbildu zuen atzoko greba egun Araban. Ia erabatekoa industria, komertzio, eta garraioan, oso handia irakaskuntza eta osasun arloan eta nabarmena administrazioan, halakoa izan zen, sindikatuen arabera. Eskualdeka Araialdeak erabat itxi zuen, eta Gasteiz, Agurain eta Langraizen isla haundia izan zuen. Gainontzeko eskualdetan gutxixeago.

SINDIKATUEK 35 orduko lan astea eta gizarte soldataren aldeko aldarrikapena kalera eraman zuten raban. Industrialdeetan eta Gasteiz eta herri handienetako kaleetan normaltasun eza nagusitu zen. Ertzaintzak hamarnaka ajente kaleratu zituen, baina eskas izan ziren piketetan bildu zen jendetzarako.

Istiluak han-hemenka jazo ziren, nahiz eta oso larriak izan ez. Betoñoko industrialdean bi zauritu egon ziren, ertzainen karga baten ostean. Hango eta Ehariko enpresetan greba ia orokorra izan zen. Laminaciones Arregi, Graficas Santamaria, Sidenor eta Mercedes Benzen ez zuten atzo lanik egin.

El Corte Ingles inguruan ere kargatu zuen Ertzaintzak. Baina arazo handirik ez zen gertatu, ordurako denda gehienak itxita baitziren.

Eragin handia administrazioan

Erakunde publikoetan isla handia izan zuen lanuzteak. Gasteizko ostiraleroko udalbatza atzeratu egin zen, PSE, UA, HB eta IUko zinegotziek grebarekin bat egin zutelako. Udaleko eta Foru Aldundiko langileen erdiak baino gehiagok greba egin zuten, eta Jaurlaritzan hamar langiletik hiruk ez zuten lanik egin.

Osasun Sailaren arabera Osakidetzako ospitaletan greba jarraitu zutenak %14a izan ziren. Sindikatuen esanetan, gutxieneko zerbitzuak soilik bete ziren.

Garraioetan gutxieneko zerbitzuak bete ez zirelako kexu zen Lan Saila. Ez zen autobusik irten Gasteiztik Donostiara, ezta Bilbora ere.

JOSEBA OLALDE

Manifestazio jendetsua Gasteizen. 35 orduko lan astearen eta gizarte soldataren aldeko greba deialdiarekin batera, manifestazioa egin zuten mobilizazioak deitu zituzten sindikatuek. Jende ugari bildu zuten Gasteizko kaleetan barna.

DAVID AGUILAR / EFE

Ertzainak lanean. Piketeen eta grebari muzin eginez lana egin nahi zutenen arteko liskarren beldur, Ertzaintzak kalera atera zituen zenbait ajente. Istilu larrienak Betoñoko industrialdean gertatu ziren, eta Ertzaintzaren kargan bi grebalari zauritu ziren.

Grebaren jarraipena

• Greba nagusi izan zen atzo 50 langiletik gorako enpresa hauetan, sindikatuek emandako datuen arabera.

1. Aceria de Alava (Amurrio)
2. Arabako Foru Aldundia
3. Banco de Vitoria (Gasteiz)
4. BBV (Gasteiz)
5. Cegasa (Gasteiz)
6. Comercial Ufesa (Gasteiz)
7. Condesa (Urbina)
8. Cortabarria (Amurrio)
9. Daewoo (Gasteiz)
10. El Periodico de Alava
11. Eusko Irratia (Gasteiz)
12. Eusko Jaurlaritza (Gasteiz)
13. Explosivos Alaveses (Gasteiz)
14. Ferrocarriles y Equip. (Amurrio)
15. Fibertecnic (Gasteiz)
16. Forondako Aireportua
17. Fournier (Gasteiz)
18. Fuchs Lubricantes (Gasteiz)
19. Fundiciones Ocariz (Agurain)
20. Gamesa Moasa (Legutio)
21. Gamesa Aeronaut. (Arkaia)
22. Gasteizko Udala
23. Hofesa (Gasteiz)
24. Iberdrola (Gasteiz)
25. Inauxa (Amurrio)
26. Intecsa (Gasteiz)
27. Jez Sistemas Ferro. (Laudio)
28. Kemen Comercial (Gasteiz)
29. Kimberly Clark (Arzeniega)
30. Laminac. Arregui (Legutio)
31. Maderas de Llodio (Laudio)
32. Mercedes Berz (Gasteiz)
33. Metal C. Mondragon (Gasteiz)
34. Michelin (Gasteiz)
35. Motot. Elec. Latierro (Gasteiz)
36. Ospitale Psikiatrikoa
37. Pferd-Ruggeberg (Gasteiz)
38. Prosegur
39. Radio Vitoria
40. Saft Iberica (Gasteiz)
41. Sidenor (gasteiz)
42. Tall. Betoño (Gasteiz)
43. Tubacex (Laudio eta Amurrio)
44. Tuboplast Hispania (Gasteiz)
45. Tubos Reunidos (Amurrio)
46. Vinilika Industrial (Gasteiz)
47. Vital Kutxa (Gasteiz)
48. Widia Valenite (Gasteiz)
49. Zayer (Gasteiz)

UGTko bi langile zaurituak Betoñon, ertzainen kargan

UGT sindikatuko delegatu bat besoa hautsita eta beste afiliatu bat sorbalda aterata gertatu ziren goizeko lehen orduetan Betoñoko industrialdean, Ertzaintzak pikete baten kontra kargatu eta gero. Goizaldeko bostetatik aurrera grebalari eta polizien arteko istiluak jazo ziren bertan, baina nabarmenenak zortzirak aldera izan ziren, Alas tailerren parean. Ertzainek hamarnaka lagunek osatu informazio pikete baten aurka kargatu zuten, porrak eta gomazko pilotak erabiliaz.

Ertzainen kargan Kemen lantegiko UGTko ordezkari gazte bati besoa hautsi zioten. Sindikatu bereko beste afiliatu batek ere sendadurak behar izan zituen, sorbalda luxazio bat jasan zuen-eta.

Leku hartatik oso gertu, *scalextric* deritzon gunean, istiluak errepikatu ziren. Ertzaintzak atxiloketa bat egin zuen bertan, piketeko kide batek kotxe baten aurka errodamentuak bota zituelako. Detenitua LAB sindikatuko ordezkaria da.

35 orduen aldeko greba Hego Euskal Herrian Bizkaia

Industriagune handienak lo

Bilboko Gran Viako lan zentro nagusietan erabateko jarraipena izan zuen grebak, eta ez zen lanik egin

I. Olabarri / **Bilbo**

Bilbon eta Bizkaiko Ibar Ezkerrean lantokirik aipagarrienek ateak itxi zituzten edo oso modu apalean egin zuten lan atzo. Denda eta tabernetan denetarik ikus zitekeen; batzuek grebarekin bat egin zuten, eta besteek ez.

EGUNSENTIAREKIN batera ekin zioten piketeek lanari Bilbon. BBV eta BBK banketxeen eta Corte Ingles saltokiaren aurrean bildu ziren jendetsuenak. ELA, LAB, ESK, CCOO eta CNTren pegatinekin zeuden, eta Gran Via moztuta zeukaten BBV parean, greba orokorrera deitzen zuen zintarekin. Moztuta zeukaten Urquijo Zumardia ere, Corte Ingles eta Argentaria parean.

Inguru horretan gertatu ziren tentsio unerik handienak. Hasieran, greba deialdiari entzungor egin eta BBKra eta Argentariara lanera sartu nahi zuten pertsonen eta piketeen arteko liskarrak izan ziren. Gero, kalea moztuta zegoela ohartu ez eta hura zeharkatu nahi izan zuten gidariekin izan ziren gorabeherak.

Goizeko 8:00etan atxilotu zuten lehenengo pertsona Bilbon, Argentariara sartu nahi zuten langileekin tirabirak izan eta gero. Gero ertzainen brigada mugikorrak azaldu ziren, itxita zeuden kaleak zabaltzeko. Lehendabizikoan kaleak zabaldu eta alde egin zuten. Bigarrenean han geratu ziren.

Alde zaharreko denda eta saltokiak, berriz, goizetik itxita egon ziren. Gainerako kaleetan denetarikoak ikus zitezkeen. Bilboko udaletxeko atari nagusia ere grebara deitzeko sindikatu abertzaleek erabilitako zintaz prezintatuta ageri zen.

Bilboko burtsak ohiko legez ireki zituen bere ateak eta goizeko hamarrak aldera jende gutxi zebilen arren, normaltasunez jardun ahal izan zuten. Trafikoan ere nabari zen ez zela egun normala; kotxeak bazebiltzan, baina ez ohiko kopuruetan.

Ibar Ezkerreko herrietan lantegirik gehienetan ez zen ia mugimendurik ikusten. Ez zen kamioirik ikusten haietara sartzen eta barruan lanean zeudenak ere oso gutxi ziren. Taberna eta dendei dagokienean denetarik nabari zitekeen: itxita batzuk, besteak irekita. Sestaon gertakizun bitxia izan zen. Bertako Batzokia ixtera joan zen Langabetuen asanblada eta euren helburua bete ondoren pintxo platerkada bat atera zuten tabernatik.

XOUSE SIMAL

Gran Via moztu zuten grebalariek, errepidean jezarrita. Bilbon ELA, LAB, ESK, EILAS eta CNTko grebalariek piketeak egin zituzten erdiguneko lantegietan greba bultzatzeko, eta errepidea moztu zuten, lurrean jezarrita.

Bizkaia autobusik gabe, eta trenak eta metroa eskas

Agentziak / **Bilbo**

IBILBIDE laburreko garraioek ez zuten gutxieneko zerbitzurik bete Bizkaian. Metroa eta Renfe izan ziren zerbitzuok eskaini zituzten bakarrak. EuskoTrenek, esate baterako, ezin izan zituen gutxieneko zerbitzuak bete, ez autobusei dagokienean, ezta trenei dagokienean ere. Errua piketeei egotzi zien garraio enpresak. Bilbobusek eta Bizkaibusek ez zuten irteterik izan, kasu batzuetan aurreko gauean ezin izan zutelako erregairik hartu, beste batzuetan piketeek haien irteera oztopatu zuelako. Pesak ez zuen atzo zerbitzurik eskaini, grebarekin erabateko adostasuna erakusteko.

Grebaren jarraipena

• Greba nagusi izan zuen atzo 50 langiletik gorako enpresa eta erakunde hauetan, eta baita beste zenbaitetan ere, sindikatuek emandako datuen arabera.

1. Aceralia (Etxebarri)
2. Aceria Compacta (Sestao)
3. Olarra altzairutegia (Loiu)
4. Aireportua (Sondika)
5. Astilleros Españoles (Sestao)
6. Astilleros Zamacona (Santurtzi)
7. Babcock-Wilcox (Trapaga)
8. Babcock Montajes (Erandio)
9. Bridgestone-Firestone (Galdakao)
10. Bridgestone-Firestone (Basauri)
11. Cartonajes Int. (Arrigorriaga)
12. Corte Ingles (Bilbo)
13. DBW Montero (Barakaldo)
14. Degremont M.A. (Bilbo)
15. Dow Chemical Iberica (Erandio)
16. Ediciones Deusto (Bilbo)
17. Elf Atochem España (Alonsotegi)
18. Ericsson Indelec (Zamudio)
19. FEVE (Bilbo)
20. Forjas de Berriz (Berriz)
21. Forjas de Zaldibar (Zaldibar)
22. Gas Euskadi (Bilbo)
23. Ge Power Management (Zamudio)
24. Gea Iberica (Igorre)
25. Geace Ciclos (Abadiño)
26. Hawker Oldham (Zamudio)
27. Herram. de Amorebieta (Zornotza)
28. Iberdrola Termica (Santurtzi)
29. Kaefer Aislamientos (Arrigorriaga)
30. Kimberly Clark (Zalla)
31. Kwarner Bolueta (Bilbo)
32. Laminacion Vizcaya (Basauri)
33. Lince Indust. Cerrajera (Elorrio)
34. Maderas Lequeitio (Iekeitio)
35. Mecanica de la Peña (Urduliz)
36. Nervacero (Trapaga)
37. Ormazabal y CIA (Igorre)
38. Papelera Aranguren
39. Petroleos del Norte (Muskiz)
40. RENFE (Bilbo)
41. Reosol Butano
42. Simago (Bilbo)
43. Sun Chemical (Asua)
44. Ur Partzuergoa (Bilbo)
45. Zardoya Otis (Mungia)

Babcock-Wilcox geldi

Babcock-Wilcoxeko langileek asteazken goizean erabaki zuten greba orokorarrekin bat egitea. Atzo goizean ez zen zalaparta handirik sumatzen enpresaren kanpoaldean. Kamioirik ez martxan eta auto gutxi. Enpresako iturrien arabera, oso langile gutxi joan ziren lanera. Arratsalderako ez zegoen inor enpresan. Antzeko kasua da Asea Brown Boveryrena. Hara ere langile gutxi azaldu ziren.

Itsasontzirik ez portuan

Bilboko Portu Autonomoan, bertako zaintzaz arduratzen direnez aparte, arimarik ez zen ikusten eguerdi aldera. Eguneroko martxa oso bestelakoa izaten dela adierazi zion EGUNKARIari bertako langile batek: kamioiak batetik bestera, itsasontziak aurrera eta atzera, eta langile ugari portuan. Atzo garabiak geldi zeuden eta itsasontzirik ez zen ageri.

Guggenheim museoa, zabaldu eta itxi

Orain zabalik, orain itxita. Halaxe eman zuen goiza Bilboko Guggenheim museoak, piketeen eragina zela eta. Guggenheim museoko zuzendaritzatik agertu zutenez, haien asmoa egun osoz ateak irekita izatea zen. Arte Ederretako museoak, berriz, ateak itxi egin zituen langileen manifestaldia ate aurretik igaro eta gero.

ABLEak jomugan

Greba orokorra zela eta, Bizkaiko hiriburuan dauden zenbait ABLEk kalteak jasan zituzten. Batzuek pintadaz josita ireki beharko dituzte ateak. Beste batzuetan, pintadez gain hondakinak eta bestelako zaborrak ere utzi zizkieten atarian. Euskalduna Jauregiak eragozpenik gabe igaro zuen eguna.

35 orduen aldeko greba Hego Euskal Herrian Gipuzkoa

la erabatekoa

Herrialdeko enpresen %90ek bat egin zuten geldialdiarekin, eta komertzioen %80k itxi zuten

Jon Eskisabel / **Donostia**

Greba orokorreko deialdiak ia erabateko erantzuna izan zuen Gipuzkoan. Industria arloan, herrialdeko enpresen %95 gelditu ziren —berrehundik gora enpresatik hamalauk soilik egin zuten lan, eta beste hamarrek greba partziala egin zuten—. Komertzioetan joera ez zen hain bateratua izan, baina, oro har, erantzun ona izan zen (%80). Zenbait herritan —Lasarte-Oria, Beasain...— dendak zabaltzeko erabakia hartu zuten merkatariek, geroago piketeek itxiarazi bazituzten ere. Donostian erantzuna apalagoa izan zen lehen orduetan, %50 ingurukoa.

EDURNE KOCH

Irungo tren geltokiak ezohiko irudia agertzen zuen atzo goizean, graba deialadiak izan zuen erantzunaren seinale.

DONOSTIAN grebak erantzun ezberdina izan zuen auzoen arabera. Horrela, Antiguan, Alde Zaharrean, Egian eta Grosen, besteak beste, erabatekoa edo ia erabatekoa izan bazen ere, erdiguneko denda askok —arropa eta harribitxi dendak batez ere, baina baita zenbait janari dendak, okindegik eta eguneko menua iragartzen zuten tabernek ere— normaltasunez ireki zituzten ateak goiz-goizetik. Horietako gehienek eguerdian itxi zuten, piketeen eta manifestarien bisita jaso eta gero. Bestetzuetan, piketeak ez ziren hain eraginkorrak izan. Amara Berriko zenbait dendak zabalik jarraitzen baitzuten arratsaldeko ordubietan. Pikete nagusia, bostehun lagun inguruk osatua, bederatzietan abiatu zen erdigunetik, eta Amaran amaitu zuen. UGT eta CCOO sindikatuen arabera, komertzioak grebari emaniko erantzuna %50ekoa izan zen lehen orduetan.

Jaietarako grebarik ez

BERGARA eta Beasainen greba orokorreko deialdiak gainerako herriekiko erantzun ezberdina izan zuen. Izan ere, bi herriotan jaiak ospatzen ari dira, eta grebak festari kalte egin ez ziezaion moduak asmatu zituzten.

Bergaran, esaterako, tabernariek arratsaldeko zortzietan zabaltzea erabaki zuten, azken asteetan sindikatuekin hainbat bilera egin eta gero. Herriko denda gehienek ere zabaldu zuten arratsaldean, goizean ez bezala.

Beasainen bi orduko lanuztea egitea adostu zuten dendariek, piketeek eragotzi bazuten ere. Halaber, tabernariek arratsaldeko zazpietan zabaltzeko asmoa zuten, manifestazioaren ondoren, baina hainbat herritarren kontrako iritzia jaso eta gero, bederatziak arte ez zabaltzea erabaki zuten. Txosnak gauerdian ireki zituzten.

Banketxeetan ere geldialdia izan zen nagusi, baina ez erabatekoa. Batzuk zabalik egon ziren eguerdia arte. Zerbitzu minimoei dagokienez, Renfek jarritako trenek eta Tolosa-Donostia ibilbideko autobusek normaltasunez bete zituzten, baina hiri barneko autobusek arazoak izan zituzten lehen orduetan, eta eguerdia arte ez ziren normaltasunez aritu. Halaber, zabor biltzaileak ez ziren atera bezperan.

Zentro nagusiak itxita

Gipuzkoako zentro komertzial nagusiek ez zuten ireki: MercaOiartzun, Pryca, Alcampo, Garbera eta Txingudi. Zarauzko Maxi Eroskik zabaldu zuen, baina 70 lagunek osaturiko piketeak itxiarazi zuen. Gainerako dendek, bakan batzuek izan ezik, ez zuten ireki Zarautzen. Hori izan zen Gipuzkoako herri gehienetako joera.

Herri batzuetan, ordea, ateak irekitzeko erabakia hartuta zuten dendariek. Lasarte-Oriako kasua da. Aterpe elkarteko dendariek hamarrak arte zabaltzea erabaki zuten, baina batzuk eguerdian oraindik zabalik zeuden. Beasaingo dendariek normaltasunez ireki eta 12:00etatik 13:00etara eta 19:00etatik 20:00etara ixteko akordioa zuten, baina piketeen eraginez itxita egon ziren egun osoan zehar.

Gipuzkoako Merkataritza Federazioak ohar batean azaldu zuenez, «Gipuzkoako dendarien gaurko (atzotik) asmoa izan da ateak irekitzea, baina, piketeen eraginez, gehiengoak itxi egin behar izan du». Lan astearen murrizketaren «erabat aurka» azaldu zen Merkataritza Federazioa, «komertzio txikiari saltegi handien aurrean kalte handia eragingo baitio». Irtenbide «orokorrak» bilatzeko eskatu zuen.

Grebaren jarraipena

• Ondorengo 50 langiletik gorako enpresa eta erakundeetan grebak erabateko jarraipena izan zuen, LAB eta ELA sindikatuek eman zuten informazioaren arabera.

1. Altos hornos de Bergara
2. Altuna y Uria (Azpeitia)
3. Angel Iglesias S.A-Ikusi (Donostia)
4. Astilleros Balenziaga (Zumaia)
5. Astilleros de Pasaia
6. Balenziaga (Eibar)
7. Bellota (Legazpi)
8. Bilore (Zaldibia)
9. CAF (Beasain-Irun)
10. Conostrucciones Moyua (Donostia)
11. Egunkaria (Andoain)
12. Elf Atochem (Hernani)
13. E. Orbegozo (Zumarraga)
14. El Diario Vasco (Donostia)
15. Euskal Telebista (Donostia)
16. Euskotren
17. Fabrica Municipal de Gas (Donostia)
18. Fundiciones del Estanda (Beasain)
19. Gara
20. Gipuzkoako Ospitaleak
21. GSB Aceros (Azkoitia)
22. Guascor Interdiesel (Zumaia)
23. Gupost (Donostia)
24. INQUITEX (Andoain)
25 Ingemar (Usurbil)
26. Jaso Idiazabal
27. Krafft (Andoain)
28. Marcial Ucin (Azpeitia)
29. Moulinex (Urnieta)
30. Michelin (Lasarte-Oria)
31. Obe Hettich (Aizarnazabal)
32. Orbelan plasticos (Andoain)
33. Papelera del Oria (Zizurkil)
34. Papresa (Errenteria)
35. Pryca (Oiartzun)
36. Ramon Vizcaino (Donostia-Oiartzun)
37. Rodisa (Elgoibar)
38. Sapa (Andoain)
39. Union Farmaceutica Guipuzcoana (Donostia)
40. Unipapel (Aduna)
41. Voith Sulzer Paper Tec (Tolosa)

«Mugarri historikoa», eratzaileen ustez

CCOO eta UGT sindikatuen iritziz, aldiz, «porrot handia» izan da greba

Juan Kruz Lakasta / **Iruñea**

Nafarroako langileen %40k bat egin zuten atzo 35 orduko lan astearen eta soldata sozialaren aldeko greba orokorrarekin, antolatzaileek emandako datuen arabera. Grebarako deia egin zuten sindikatuek «mugarri historikotzat» jo zuten atzo jasotako erantzuna. CCOO-UGTren eta Espainiako Gobernuaren ordezkari Francisco Javier Ansuategiren ustez, aldiz, «porrot handia» izan zen atzoko greba eguna.

ELA, LAB, ESK eta EILAS sindikatuek azaldu zutenez, Nafarroan grebari emaniko erantzunak gorabehera handiak izan zituen eskualdez eskualde. Sindikatuok emandako datuen arabera, Baztan-Bidasoan eta Leitzaranen langileen %95ek bat egin zuten grebarekin; Sakanan %80k egin zuten greba, eta Iruñerrian %50ek.

Iturri beren arabera, Lizarraldean «denbora mugatuko lanuzte asko» egin zituzten, eta Erriberan «enpresa garrantzitsuek» berdin egin zuten.

Iruñerriari dagokionez, Alde Zaharreko dendak itxita egon ziren. Auzoetan, ordea, eragina ez zen horren nabaria izan.

Garraio publikoek arazorik gabe funtzionatu zuten Iruñerrian. Goizean grebaren antolatzaileek antolatutako manifestazian milaka lagunek parte hartu zuten; 5.000 inguru bildu ziren, antolatzaileen arabera.

Bestalde, manifestazioan bildu ziren ibili ziren grebalarien atzetik ehunka polizia joan ziren. LABek arratsaldean antolatu protestan ere manifestari zein polizia asko izan ziren. Nolanahi ere, ez zen liskarrik izan.

Nafarroako ELA eta LAB sindikatuetako idazkari nagusiek —Jose Mari Otaegi eta Santi Lorente, hurrenez hurren— grebari jarri traba ugariak salatu zituzten. Besteak beste, Poliziak faxez ohar bat igorri zien Alde Zaharreko hainbat dendariri, LABeko grebalariek eginen zituzten mehatxuen berri emateko eskatuz.

Bestalde, UGT-CCOOk eta Espainiako Gobernuaren ordezkari Francisco Javier Ansuategik greba «porrot handitzat» jo zuten. «Porrotak ez gaitu pozten, baina iruditzen zaigu ELA-LAB-sindikatuek hobeto aztertu beharko luketela gurekin duten jarrera baztertzailea», azaldu zuen CCOOk hedabideetara igorri prentsa oharrean. UGT gogorragoa izan zen: «Porrotak argi utzi du ELA-LABek ezin dutela esan Nafarroako langileen ordezkariak direnik».

JOXE LACALLE

VWn 1.300 grebalari. Landabengo Volkswagenen lantegian 1.300 lagunek egin zuten bat grebarekin. Grebalariak goizeko bostetan elkartu ziren, lankideei grebaren zergatien berri emateko. 07:00etan, argazkian ikus daitekeen bezala, kontzentrazioa egin zuten lantegi aurrean.

AMAIA AMILIBIA

Sakanan, langileen %80 greban. Sakanan oihartzun handia izan zuen greba orokorrerako deialdiak. Magoteaux, Viscofan eta beste enpresa handi gehienek greba egin zuten. LABek deituta, manifestazioak egin zituzten eguerdiko 12:00etan bailarako herri guztietan, Guardia Zibilak trabak jarri bazituen ere. Irudian, Altsasuko protesta.

Grebaren jarraipena

• Nafarroan, eskualdea eta sektorea zein zen, jarraipen desberdina izan zuen grebak. Grebara deitu zuten sindikatuek emandako datuen arabera, enpresa eta erakunde nagusietan agerikoa izan zen lanuztea eta greba deialdiarekiko atxikimendua.

Iparlat (Iruñea) %100
Hiper Eroski (Iruñea) %100
Electroaceros (Iruñea) %100
Volkswagen (Iruñea) %30
Norton (Iruñea) %60
Torfinasa (Iruñea) %40
AP Amortiguadores (Iruñea) %30
Schidler (Iruñea) %50
Torfinasa (Iruñea) %40
Somer (Iruñea) %50
Zucami (Iruñea) %50
Correos (Iruñea) %50
NUP (Iruñea) %80
Lucas Girling (Iruñea) %20
UCAR (Iruñea) %50
Movinord (Iruñea) %35
FCC (Iruñea) %20
Cementos Portland (Olazti) %100
Fiberblade (Olazti) %100
Viscofan (Urdiain) %100
Magoteaux (Urdiain) %100
Mecanizados Alsasua (Altsasu) %100
Canteras Ciordia (Ziordi) %100
Fiberblade (Altsasu)
Sunsundegi (Altsasu) %100
Sarriopapel (Leitza) %100
Argal (Irunberri) %90
Eurovestir (Erriberri) %100
Victoriano Luzuriaga (Tafalla) %100
Jangarria (Tafalla) %100
Mairaga (Tafalla) %100
Txalaparta (Tafalla) %100
Combeton (Tafalla) %100
Graficas Lizarra (Lizarra) %100
BSH (Lizarra) %20
Egatex (Lizarra)
Graficas Estella (Lizarra)
Sarrio (Lizarra)

35 orduen aldeko greba Hego Euskal Herrian ◆ Manifestazioak

«Lortuko dugu!»

«Historikotzat» jo du greba eguna Rafa Diezek, LAB sindikatuko idazkari nagusiak

M.A. / **Bilbo** - J.E. / **Donostia** - A.P.K. / **Gasteiz** - J.K.L / **Iruñea**

ELA, LAB, ESK eta EILAS-ek deitu mobilizazioek 45.000 pertsona bildu zituzten atzo, antolatzaileek esan zutenez. Bilbokoa izan zen jendetsuena, eta bertan izan ziren aipatu sindikatuetako buruak. Halaber, herrietan ere izan ziren mobilizazioak 35 orduko lan astea exijitzeko. Manifestazio horietako asko piketegisa aritu ziren.

XOUSE SIMAL

ELA, LAB, EILAS eta ESK sindikatuek egindako manifestazioan milaka lagun elkartu ziren Bilbon, atzo.

MILAKA lagun bildu ziren atzo Bilbon, ELA, LAB, ESK eta EILAS sindikatuek deitutako manifestaldian. EHNEko kideek hiri erdira ekarritako lau traktorek zabaldu zuten manifestazio jendetsua, eta Arenalean hasi eta Plaza Eliptikoraino iritsi zen.

Manifestazioaren buruan ELAko idazkari Jose Elorrieta, Rafa Diez LABeko burua, EILASeko Belen Arrondo, Angel Abalde ESK-koa, HIRU garraiolarien elkarteko Pedro Martin eta EHNEko arduradun Maite Aristegi zihoazen, *35 ordu + soldata soziala. Lortuko dugu* leloa zuen pankarta eskuetan.

Manifestaldiaren amaieran Rafa Diezek «historikotzat» jo zuen greba, eta «Euskal Herrian errebindikazio garai berria» ireki dela adierazi zuen. Jose Elorrietak, berriz, eskerrak eman zizkien Bilboko manifestaldian bildutakoei, «denon artean lortuko dugulako lana banatzea eta lanpostu gehiago izatea».

15.000 lagun Donostian

Donostian 15.000 lagun bildu ziren antolatzaileek emandako datuen arabera. Aurretik hiru manifestazio abiatu ziren Antigua, Amara eta Gros auzoetatik, eta, Bulebarrean elkartu ondoren, erdiguneko kaleak zeharkatu zituzten. Era berean, manifestariak pikete gisa aritu ziren dendarien aurka.

Ertzaintza hiriko zenbait gunetara zabaldu zen, eta horrek manifestarien erantzuna eragin zuen, eskirol gisa jokatzea leporatu baitzioten polizia autonomikoari. Tentsioaz aparte, ez zen bestelakorik gertatu. Halaber, Hazienda Delegazioaren egoitzari harriz eta zaborreko poltsez eraso zioten manifestari bakan batzuek.

XOUSE SIMAL

2.000 lagun bildu ziren Bilbon UGT-k eta CCOO-k deitu manifestazioan.

UGT eta CCOO patronalaren aurrean

CONFEBASK enpresari elkartearen egoitzaren aurrean hasi eta amaitu zen atzo Bilbon UGT eta CCOO sindikatuek deitutako manifestaldia. Buruan sindikatuotako EAEko arduradun Carlos Trevilla eta Santiago Bengoa joan ziren. Biek azpimarratu zutenez, «bataila irabazi diogu patronalari».

Eguerdian abiatu ziren manifestariak —1.500-2.000 inguru— *Con 35 horas mas y mejor empleo. Enplegua eskubideekin* zioen pankartaren atzetik.

Lanorduen murrizketaren aldeko oihuak izan ziren nagusi manifestaldian zehar. Langileek greba deialdiari eskainitako babesa ikusita, enpresariek eta Eusko Jaurlaritzak, patronala diren heinean, 35 orduko lan astea lortzeko bidean urratsak egin behar dituztela adierazi zuten Trevillak zein Bengoak.

Bilbokoa garrantzitsuena izan bazen ere, Gasteizen eta Donostian ehunka lagun bildu ziren. Gasteizen Posta kaletik irten eta Legebiltzarraren aurrean bukatu zen. Donostian, berriz, Gipuzkoa enparantzatik abiatu zen UGT eta CCOOren manifestazioa.

Iruñean milaka lagun, eta liskarrik ez

Euskal Herriko gehiengo sindikalak deituta, milaka lagunek manifestaldia egin zuten atzo Iruñeko Alde Zaharreko karriketan barna. Protestaldiaren buruan ziren, besteak beste, Nafarroako LAB, ELA, ESK eta EILASeko buruak. Manifestariek Espainiako Polizia Nazionalaren jazarpena pairatu zuten. Ekitaldia Gaztelu Plazan burutu zutelarik, Poliziaren 17 kamioneta elkartu ziren enparantzan. Nolanahi ere, ez zen liskarrik gertatu. Arratsaldean, LAB sindikatuak deitu mobilizazioa izan zen. Polizia nazionalak alboan zituztela egin behar izan zen, baina ez zen istilurik egon.

Gasteizen, ekitaldi historikoa

Andra Zuriaren plazan hasi eta amaitu zen Gasteizko mobilizazioa, eta hiriko kale nagusietatik barna joan zen. Ekitaldi historikoa izan zela esan daiteke, hirian egin diren handienetakoa izan baitzen. Milaka eta milaka lagun elkartu ziren . Adibidez, manifestazioa hasi eta ordu erdira, hasierako pankartak 500 metro inguru eginak zituenean, azken muturra irteteke zen.

35 orduen aldeko greba Hego Euskal Herrian

Manifestazioak

XOUSE SIMAL

Rafa Diezek eta Jose Elorrietak atsedenerako astia izan zuten.
Bilboko manifestazioan, buztana amaierara iritsi bitartean, eserita izan ziren manifestariak.

XOUSE SIMAL

Arnaldo Otegi Bilboko mobilizazioan.
HBko Mahai Nazionaleko kide Arnaldo Otegik sindikatuen deiarekin bat egin zuen.

JOSEBA OLALDE

Milaka lagun Gasteizen.
Arabako hiriburuaren historian sekula izandako manifestaziorik handienetakoa izan zen atzokoa. Horrelakoetan gertatzen den legez, Ama Zuriaren plaza izan zen jendearen bilgune nagusia.

JOXE LACALLE

Polizia Nazionalak inguratuta Iruñean.
Arratsaldean mobilizazio ugari izan ziren; tartean Iruñean LABk deitutakoa.

GARI GARAIALDE

15.000 pertsona izan ziren 35 orduen alde Donostian.
Milaka lagunek zeharkatu zuten atzo Donostiako erdigunea sindikatuek deituta.

35 orduen aldeko greba Hego Euskal Herrian Lekukotasun bat Lasarteko Michelinen

«Langabeek ere badute lanerako eskubidea»

Tentsio uneak izan ziren atzo informazio piketeen eta lan egin nahi zuten langileen artean lantegiaren atarian.

Inoizko grebarik arrakastatsuena gertatu zen, eta 1.600 langileko enpresa zeharo geratuta egon zen, egun osoz.

Euria fin-fin ari zuen Lasarte-Oriako lantegi nagusiaren gainean goizeko lehen orduetan. 05:00ak aldera elkartu ziren lehen pikete informatiboak fabrikaren atarian, eta lehen txandan ari diren langileen zain geratu ziren. 06:00ak hurbildu ahala pixkanaka lanera zihoazen langile multzoak lantegiaren inguruetan bildu ziren, eta tarteka ateraino hurbildu ziren batzuk. Alabaina, denek atzera egiten zuten piketeen aurrera iritsi eta segituan.

Ertzaintza ere agertu zen, eta kanpoan ziren langileei galdetu zien ea barrura sartu nahi zuten, baina haiek ezetz erantzun zuten, atean zirenek alde egiten ez zuten bitartean behinik behin.

Eta, jakina, atekoek ez zuten alde egin. Jakin bazekiten-eta eguneko unerik gogorrenetakoa iristeko zegoela artean. Izan ere, goizeko 08:00etan sartzen dira lanera *enplegatuak* deitzen dituztenak, alegia, produkzio lanarekin zerikusirik ez duten guztiak —bulegoetakoak, teknikoak, sailetako arduradunak...—.

08:00ak aldera hasi ziren iristen *enplegatuak*. Batzuek ezer jakingo ez balute bezala topo egiten zuten ate aurrean zeuden LAB, ELA eta CCOO sindikatuek osatutako pikete informatiboekin.

«Badakizue greba dagoela, ezta?», esaten zieten atarira hurbildu ahala. Batzuek atzera egiten zuten berehala: «Bai, ikustera etorri gara bakarrik», erantzun zien piketeei haietako batek. «Beno, orduan gera zaitezkete», erantzuten zieten piketeek. Segituan buelta eman, eta etxera joaten ziren.

'Nekaezinekin' bueltaka

Alabaina, bazen etsitzeko asmorik ez zuen *enplegatu* talde bat, gero eta handiagoa gainera: *nekaezinak*. Michelingo futbol zelai zaharraren izkina batean elkartzen joan ziren, eta 80 bat laguneko multzoa osatu zuten zenbait unetan.

Haietako batzuek joan-etorri bat baino gehiago egin zuten atariraino, eta eztabaida beroak izan ziren *informatzera* hurbildutakoekin. «Presiona itzazue presionatu behar dituzuenak, benetan izorratzen ari direnak, eta utzi bakean dirua irabaztera etortzen garen gizajook. Guk lan egiteko eskubidea dugu». Pikete batek segituan: «Lan egiteko eskubidea? Zuk bai jakina. Eta langabetuek, ez al dute lanerako eskubiderik? Eta gazteek?». Ez zen konbentzitu ordea: «Horrela defendatzen dituzue zuek langileen eskubideak, kaka zaharra!», oihukatu zuen piketeek emandako orria amorru biziz lurrera botaz.

> Kosta egin zitzaien etsitzea lanera joan zirenei, eta saioak egin zituzten sartzeko. Orduan izan ziren tentsio une nagusiak

«Nagusien aurrean ondo geratzeko egiten dute gogorrarena gurekin, puntuak irabazteko», esan zigun piketean zebilen batek *nekaezinei* buruz, eta Michelinen oso ohiko jarrera dela ziurtatu.

Kosta egin zitzaien etsitzea lanera joan zirenei, eta saio batzuk egin zituzten sartzeko, denek batera horietako batean. Orduan sortu ziren tentsio une nagusiak, tarteka EGUNKARIAko kazetariarekin. Azkenik, ordea, atzera egin zuten, eta Michelin geldirik izan zen atzo egun osoz, «aspaldi ez bezala gainera», ziurtatu ziguten sindikatuetako ordezkariek.

Iñaki Petxarroman
LASARTE-ORIA

GARI GARAIALDE

Pikete informatzaileak —atearen ondoan—, barrura sartu nahi zuten bi langilerekin hitz egiten.

GARI GARAIALDE

Zenbait unetan tentsio uneak gertatu ziren, langile multzo handiak hurbildu zirelako atera, sartzeko asmoz.

Lan hitzarmenarekin arazoak

AURTEN berriz ere arazoak izaten ari dira Lasarte-Oriako Michelin enpresan lan hitzarmena dela eta. Mikel Munduate eta Jose Mari Gonzalez LABeko kideek azaldu dutenez, hitzarmenaren inguruan egiten ari diren borrokaren egutegiaren barruan kokatu dute atzoko greba sindikatuek.

Enpresak egiten duen proposamena ez dute ontzat jo sindikatuek —UGTk izan ezik—, eta proposamen alternatibo bat landu dute.

«Ez dugu ulertzen enpresak hartu duen jarrera. Inoizko etekinik handienak izaten ari den garaian, langileentzako onurarik ez dakarren hitzarmen bat ezarri nahi dute», esan du Jose Mari Gonzalezek.

Michelinek 30.000 milioi pezeta —1.200 milioi libera— irabazi ditu azken bi urteotan LABeko ordezkariek diotenez, %40ko hazkundearekin. Zazpi puntuko proposamena egin zioten LABek, ELAk eta CCOOk enpresari, langileen batzarrak onartu ondoren. Horietan, besteak beste, eskatzen zuten Lasartek hitzarmen berezkoa izatea, soldatak %2,5 handitzea —enpresak %2,2 proposatzen du—, soldaten bermea %0,5 izatea —enpresak %0,4 proposatzen du—, lanaldia langile guztiei murriztea...

Enpresak muzin egin zien langileen eskaerei, eta hori ikusita mobilizazio egutegi bat adostu zuten. Horrela, maiatzaren 13an bi orduko geldialdia egin zuten, eta heldu den 27an berriro egingo dute.

Gasteizko Michelingo lantegian hitzarmena onartu egin dute langileek.

TALBOTT NEGOZIATZAILE ESTATU BATUARRA ETA AHTISAARI EUROPARRA DATORREN ASTEAN ITZULIKO DIRA MOSKURA

Negoziazio diplomatiko ugari egon arren, bakoitzak bereari eusten dio

- Albrightek esan du desadostasunak gutxitzen ari direla, baina Moskuk erantzun dio berdin jarraitzen duela
- Jomugen aukeraketa berrikus dezan eskatu dio Fischerrek NATOri, azken egunotan hainbat enbaxada kaltetu ondoren
- Serbiako herritarren haserrea handitzen ari dela eta manifestazio gehiago daudela ziurtatu du NATOk

Erredakzioa / **Donostia**

AZKEN egunotako eginahal diplomatikoek ez dute emaitzarik eman. Ostegunetik ostirala arteko gauean bilera luzea egin zuten Moskun hiru negoziatzaile nagusiek: Errusiako Viktor Txernomirdinek, Estatu Batuetako Strobe Talbottek eta, Europako Batasunaren izenean, Marti Ahtisaari Finlandiako presidenteak. Elkarrizketa amaitzean, «oso konstruktiboa» izan zela azpimarratu zuten guztiek, baina zehaztapenik gabe. Gauza bakarra aurreratu zuten, hots, datorren asteazkenean Talbott eta Ahtisaari Moskura itzuliko direla negoziazioetan jarraitzeko.

Baikor azaldu zen Madeleine Albright EEBBtako Estatu idazkaria, bere iritziz, Mendebaldekoen eta errusiarren arteko desadostasunak «arindu» zirelako. Moskutik, ostera, ezer gutxi aurreratu zutela argi utzi zuen Igor Ivanov Errusiako Atzerri ministroak. «Desadostasunek bere horretan diraute. Batik bat ez gara ados jartzen Kosovon sartu beharreko nazioarteko indarrari buruz eta indar serbiarren erretiratzeari buruz», esan zuen.

Ivanovek baieztu zuenez, bakoitzak bereari eusten dio: Mendebaldeak eskatzen du Kosovon sartuko litzatekeen indar militarrean NATO nagusi izatea eta Errusiak, berriz, Nazio Batuen erabateko kontrola nahi du. Erretiratzeari buruz, berriz, NATOk polizia eta miliar serbiar guztiek Kosovotik alde egitea nahi du eta Errusiak negoziatutako erretiratze txikiago bat.

Bi hilabete

Bihar beteko dira bi hilabete NATOren aire erasoak hasi zirenetik. Milaka bonbek ez dute oraindik Jugoslaviako Gobernuaren erresistentzia ezabatu eta gero eta argiago dago Aliantzaren barruan estrategia aldatu nahi dutenak badirela. Atzo, Alemaniako Atzerri ministro Joschka Fischerrek «jomugen beste aukera bat» egin dadin eskatu zuen, azken egunotako misil batzuek Belgradeko hainbat enbaxada kaltetu baitituzte. NATOko bozeramaileak, ordea, eskaerarik jaso ez zuela aldarrikatu zuen.



ERIC FEFERBERG / EPA

UÇK Kosovoren Askapenerako Armadako bi kide, beren kontrolpean duten Koshare herrian.

Serbiarren artean, ordea, NATOk ikusten ditu desadostasunak. Jamie Shea bozeramailearen arabera, Krajevo, Nis eta Novi Sad hirietako alkateek jarrera malgutzeko eskatu diote Milosevic presidenteari. Ostegunean, gerra geratzeko neurriak hartzeko eskatu zioten Milosevici Cacak-eko herritar batzuek. Cacakeko alkateak Montenegrora egin du ihes.

Hiru estrategia ageri dira NATOren barruan

NATOk dio bere kideen artean ez dagoela desadostasunik eta denek eusten diotela estrategi ofizialari, baina, benetan, gutxienez hiru estrategia antzeman dira.

Italia • Massimo D'Alema Italiako lehen ministroa Bruselan izan zen herenegun, NATOren egoitzan. Han berriro azaldu zuen Jugoslavian eta Kosovon bakea lortzeko bere plana: NATOk bonbardaketak etetea borondate oneko keinu gisa eta Errusiarekin batera ahalegin diplomatikoak egitea Milosevicek G-8aren bake plana onartzeko. D'Alema oso presionatuta dago, Italiako alderdi nagusiak su-etenaren aldekoak baitira. Holandak ere eskatu du su-etena. Alemania, hein batean behintzat, neurri horren aldekoa da. Berdeek argi eskatu dute.

Erresuma Batua • Robin Cook Erresuma Batuko Atzerri ministroak behin baino gehiagotan eskatu du lur tropak bidaltzea Kosovora, bere ustez, Jugoslaviako Armada ez baitago NATOkoei aurre egiteko moduan. Pentagonoak ere esan du lur soldadurik gabe oso zaila izango dela Milosevic garaitzea, ia bi hilabeteko aire erasoek ez baitute egin. Bill Clinton Estatu Batuetako presidentea zuhurragoa da, baina aukerarik baztertzen ez duela esan du.

Jarrera ofiziala • Egunero, arratsalde hasieran, Jamie Shea NATOko bozeramaile zibilak gezurtatu egiten du desadostasunak daudela estrategiari buruz eta jarrera ofiziala azaltzen du: bonbardaketekin jarraituko dute Milosevicek amore eman eta NATOren bost baldintzak ontzat hartu arte. Lur erasoari buruz, berriz, aipamenik ez. Hala ere, NATOko buruzagi militar Wesley Clarkek eskatu zuen atzo lur indar bat eratzea, «serbiarrei presio egiteko».

Kosovo Gerra Balkanetan

Istokeko espetxeari erasotzean NATOk 19 lagun hil dituela esan du Belgradek

Serbiarren arabera, 10 zauritu egon dira eta hiruzpalau presok ihes egin dute

Erredakzioa / **Baiona**

NATOk Istokeko espetxeari (Kosovo) eraso egin ostean, 19 hildako eta 10 zauritu egon direla iragarri dute bertako agintariek. UÇKko gudukari andana giltzapetuta dauden kartzelako zuzendaritzak ziurtatu du hiru edo lau presok ihes egitea lortu dutela bonbardaketaren ondorioz. Aliantza militarrak erasoak mugatu behar izan zituen ostegun gauean, eguraldi txarragatik.



NIKOLAOS GIAKOUMIDIS / AP

Serbiako polizia bat, NATOren misilen ondorioz hildako preso baten gorpuaren ondoan, atzo Istoken.

ALEKSANDER RAKOZEVIC Istokeko espetxeko zuzendariak emandako argibideen arabera, NATOk atzo goizean egindako bonbardaketaren ondorioz, 19 hil eta 10 zauritu egon dira kartzela zaindari eta beste langileen zein ere presoen artean. Espetxeko zuzendariorde Nedzmedin Kalicani bera ere hildakoen artean dela zehaztu zuen kartzelako buruzagiak.

Hildako eta zaurituez gain, NATOren eraso honen ondorioz, hiru edo lau presok ihes egitea lortu dutela gaineratu zuen Rakozevicek. Honek ez zuen zehaztu, ordea, itzuri egin zuten preso hauek UÇKko kide ziren ala detenitu arruntak zirenez. Izan ere, Pristinatik 70 kilometro mendebaldera kokatua den espetxe honetan giltzapetuta dauden 1.000tik gora lagunen artean UÇK Kosovoren Askapenerako Armadako gudukari asko bada.

Hain zuzen, Tanjug berri agentzia ofizialari egindako adierazpenetan, serbiar agintari batek NATO akusatu zuen, eraso hauekin, UÇKko presoak askatzen laguntzeko asmoa zuela. Izan ere, aste honetan bertan, bigarren aldia zen Istokeko presondegia aliantza atlantikoko misilen jomuga zela, zeren eta joan den asteazkenean lehen bonbardaketa bat jasan baitzuen kartzela honek, bi preso eta bi kartzela zaindarien heriotza eraginda. Atzoko erasoa bi alditan gertatu zen. Lehenengoan, NATOko gerra hegazkinek hamabost bat misil jaurti zituzten eraikuntzaren aurka eta bigarrenean, berriz, bospasei. Lehen erasoaldiaren ondorioz ziren gertatu heriotz eta zauritze gehienak zein ere presoen ihes egiteak.

India eta Suitzako enbaxadoreen egoitzak kaltetuak

Ostegun gauean, berriz, Aliantza Atlantikoak Jugoslaviaren aurka egindako aire erasoen kopurua azken egunotako gutxinezkoena izan zen. NATOk emandako datuen arabera, bere gerra hegazkinek 40 irtenaldi egin zituzten. Ukitutako jomugen artean, erregai gordetegi batzuk egon ziren Belgrad, Sombor eta Smederovon, lurretik airerako misil jaurtileku bat Belgraden baita ere, eta munizio gordelekuak Vrdnik eta Sremska Mitrovican.

Erasoen jomuga ez baziren ere, India zein Suitzako enbaxadoreen egoitzak kaltetu egin zituzten bonbardaketa hauek. Izan ere, enbaxadoreen egoitza hauetatik gehienak Belgradeko Dedinje, Senjak eta Topcider auzunetan banatuta daude eta han kokatuak dira, halaber, Armadako zenbait kuartel erregai gordetegi batzuk eta NATOren jomuga izan daitezken beste eraikinik ere.

Presoak

■■■ Istokeko espetxean UÇK taldeko gerrillari asko zegoen preso

Azken egunotan, Espainia, Hungaria, Israel, Italia, Norvegia, Pakistan eta Suediako enbaxada edo enbaxadoreen egoitzak andeatuak izan ziren NATOko misilen leherketek eragindako ufakoen ondorioz.

Hala ere, gertakari hauek ez zuten Txinako enbaxadaren aurka, iragan maiatzaren 8a, izandako hutsegitezko erasoaren antzeko ondorio larririk eragin, egun hartan NATOren misilek egoitza hura txikitu baitzuten eta hiru lagunen heriotza eragin.

Kosovon gertatutako izugarrikeriez 1.400 testigantza bildu ditu OSCEk

Europako Segurtasun eta Kooperaziorako erakundeak (OSCE) datorren uztailaren amaieran plazaratzeko asmoa duen ikerketa txosten batean, Jugoslaviako armadak eta serbiar paramilitarrek Kosovon egindako giza-eskubideen zangopilatzeez 1.400 lekukotasun inguru agerian ezarriko dira. Hala iragarri zuen atzo, Vienatik (Austria), Melissa Fleming OSCEko eledunak.

NATOk Jugoslaviaren aurka erasoak hasi aurretik —martxoaren 24ean— Kosovotik alde egiterat behartua izan ondoren, OSCEk 75 ikertzaile inguru banatu zituen Albanian eta beste horrenbeste Mazedonian. Hauen lana da bi herri hauetara iristen diren Kosovoko albaniar errefuxiatuen artean berrogeitamar bat galdeketatzea eta beraiek jasan edo ikusi dituztenez testigantzak biltzea.

Frogen desagertzea

OSCEko begirariek ziurtzat ematen dute Jugoslaviako armadako soldaduek eta serbiar paramilitarrek giza-eskubideen zangopilatze ugari egin dituztela, modu jarraikian, Kosovotik ihes egiten zuten edo indarrez kanporatuak ziren albaniar jatorrikoen aurka. Giza-eskubideen bortxaketa hauek mota ezberdinekoak izan direla argituko du OSCEren ikerketa txostenak eta izugarrikeria handienak ere gertatu direla emanen du jakiterat, hala nola banakazko hilketak eta multzokako sarraskiak, emakume bortxatzeak edota jipoitze gogorrak.

Lazgarrikeria hauez gain, iheslariei mehatxuak etengabe egitea, hauen etxeak erretzea, euren dirua eta ondasunak lapurtzea gertatu dira eta gertatzen ari dira beti. Skpojen (Mazedonia) OSCEren arduradun Sandy Blythek gehitu zuenez, NATOren bitartez, badauzkate ere frogak serbiarrak saiatu direla euren egitate izugarrien aztarnak desagertarazten.

Bernard Bonnet galdekatu dute Aiacciuko epaileek

DNATeko poliziek zazpi korsikar nazionalista atxilotu dituzte

Allande Sokarros / **Baiona**

Bernard Bonnet Korsikako prefet ohiak deklaratu zuen atzo instruzkio-epaileen aurrean Parisko auzitegian. Ez zen jakiterik izan, haatik, bezperan, prentsa bidez, iragarri zituen salaketen berri eman zuenetz. Zenbait ordu lehenago, Poliziak zazpi lagun atxilotu zituen Korsikan. Bezperan, Jean-Louis Bruguiere epaileak Mathieu Filidori nazionalista historikoa giltzapean jarri zuen, Claude Erignacen erailketan laguntza emateaz akusatuta.

REMY DE LA MAUVINIERE / AP

Bernard Bonnet prefet ohia Parisko Justizia Auzitegira zeraman autoa.

PARISTIK joandako dibisio antiterroristako (DNATeko) eta Aiacciuko polizia judizialeko kideek zazpi lagun atxilotu zituzten atzo goizean Aiacciun eta inguruetan. Ezagutzerat emandako datu bakanen arabera, Bruguiere epailearen aginduz arrastatutakoak nazionalista munduko lau gizonezko eta hauetarik hiruren emazteak ziren, eta lerro hauek idazteko orduan itaunduta zirauten. Atxiloketa hauek Mathieu Filidori nazionalista ezagunaren arrastatze, auzipetze eta giltzapean ezartzearen biharamunean gertatu ziren.

Ezen, laborantza munduan jarduten duen 51 urteko historiko hori asteazken eguerdi aldean atxilotua izan zen Ghisonnaccian, eta Pariserat ereman zuten berehala. Bruguierek «erailketa batean laguntzaile» akusazioarekin auzipetu ondoren, Fresnesko espetxean gilzapetu zuten ostegunean. Hortaz, Filidori da Claude Erignac prefetaren erailketaren auzi-ikerketan berez auzipetutako lehena. Ghisonacciako nekazari honi leporatzen diotena da Erignacen hilketa errebindikatu zuen agiriaren eta 1975. urtean argitara eman zen *Herri baten auzia* liburuan berak idatzitako testu baten esaldien artean antzekotasun handiak egotea.

Bi ministro ohi akusaturik

Filidoriren giltzapetzea eta atzoko atxikoketak Bonnet prefet ohia Camberou, Gary eta Latil Aiacciuko epaileen aurrean deklaratzera deituta izatea baino zenbait ordu lehenago gertatzea ez da, ziur aski, kasualitea izan. Izan ere, *Le Midi Libre* egunkariak ostegunean agerrarazitako eskutitz labur batean, Bonnetek iragarri zuen gauza batzuk jakinaraziko zituela eta, besteak beste, «bi ministro ohiren jokaeraren berri emanen» zuela. Bi ministro horiek, antza, Jose Rosi eta François Leotard dira, Balladurren gobernuko kide izandakoak (1993-1995).

Istiluak Portadownen

Lau nazionalista zauritu dira Belfasteko pub batean

Erredakzioa / **Donostia**

ORANGEKO ORDENAREN jarraitzaileen eta RUC Poliziaren artean liskarrak gertatu ziren herenegun gauean Portadown herrian, Ipar Irlanda hego-ekialdean. Istiluen ondorioz zortzi orangista atxilotu zituen Poliziak, eta RUCeko bederatzi polizia zauritu. Iaztik, giro nahasia dago Portadownen, orangistek auzo katolikotik barrena igaro nahi dutelako.

Bestalde, bonba batek eztanda egin zuen atzo goizaldean, Belfasteko Falls Road auzo katolikoko pub batean. Zauri arinak izan zituzten lau lagunek. Inork ez zuen atentatua bere gain hartu, baina bi erakunde paramilitar loialistaren susmoa dago: Esku Gorriaren Defenditzaileak eta Orangeko Boluntarioak.

Londresen, auzitegi batek 25 eta 22 urte arteko zigorrak ezarri zizkien atzo Benetako IRAko hiru ustezko kideri. Joan den udan bake prozesuaren aurkako zenbait atentatu egin nahi izan zituzten Londresen.

Italiako Brigada Gorriak taldeak atentatu gehiago egingo dituela iragarri du

Adituen arabera, une esanguratsua aukeratu du 11 urte geroago lehen hilketa egiteko

Erredakzioa / **Donostia**

Brigada Gorriak talde ezkertiarra berriro agertu da azken hilketa egin eta 11 urte geroago. Italiako arlo politikoa aztoratu du agerpenak: Massimo D'Antona Lan Ministerioko kontseilariaren hilketa. Taldeak ekintza gehiago egingo dituen beldur dira agintariak; izan ere, horixe jakinarazi du atentatua egin ondoren kaleratu duen mezuan. Massimo D'Alema lehen ministroa, ordea, ez da beldur, bere ustez behin irabazi zitzaiolako, eta berriro ere gauza bera egingo delako. Italiako Ministro Kontseiluak onartu egin du D'Antonak landutako enplegu lana.

ITALIAKO GOBERNUAK gordelekutik atera ditu 70eko hamarkadan erabili zituen tresnak eta estrategiak Brigada Gorriei aurre egiteko. Iraganeko pasadizoa eta oroitzapena ziren Brigada Gorriak herenegun arte, Massimo D'Antona Lan Ministerioko kontseilaria hil arte. Kontseilaria gazte batek hil zuen tiroka Erroman.

«Estatuak ez du beldurrik, behin garaitu genituen eta berriro egingo dugu», adierazi zuen atzo Massimo D'Alema lehen ministroak. Carlo Azeglio Ciampi lehendakaria «atsekabetuta eta minduta» mintzatu zen, eta agintaldia horrela hasiko zuenik ez zuela pentsatu ere egin gaineratu: «Egoera mingarri eta larri honetan, ezinbestekoa da gogoraraztea herritarrek segurtasunerako duten eskubidea, eta estatuak duen betebeharra legea betetzen dela ziurtatzeko».

Hilketa eta atentatu gehiago egingo ditu Brigada Gorriak taldeak ziurrenik. Horren beldur dira agintariak; izan ere, taldeak berak hala azaldu zuen *Il Messaggero* eta *Corriere della sera* egungarietara igorritako mezuan. «Oreka politiko menderatzailea» gaitzetsi zuten Brigada Gorriek hor, eta ekintza gehiago egingo dituztela nabarmendu.

70eko hamarkadatik gaur arteko egoera politikoaren analisia egin zuen taldeak 28 orriko mezuan, eta helburua azaldu: «Erakunde komunista borrokalaria eratu nahi dugu inperialismo amerikarraren aurka egiteko, Italiako balio ezkertiar tradizionalak alboratu egin baitira».

Ordena Publiko eta Segurtasunerako Batzordeak larrialdiko bilera egin zuen, eta neurriak hartu zituen ustez atentatua jasan ditzaketenak babesteko: bizkarzainak gehitu eta segurtasun indar guztien eta inteligentzia zerbitzuen arteko elkarlana sendotu.

CORRADO GIAMBALVO / AP

Erromako banku batean *Terrorea Italian* idatzita, atzo goizean.

Enplegu plana onartua

Berezia da atentatua egiteko aukeratutako unea, adituen arabera. D'Antonak berak landu zuen enplegu plana onartu zuen atzo Italiako Ministro Kontseiluak. Gainera, Gobernuaren aurkako protestak gehitu egin dituzte ezkerreko sektoreek, Kosovoko gerra dela eta. Horri gehitu behar zaio Ciampik aste honetan heldu diola lehendakari karguari.

Nabarmentzekoa da, baita ere, Brigada Gorriek itzultzeko aukeratutako biktima. D'Antona uurista eta sindikalista zela, DS Ezker Demokratikoa alderdiko kide, eta azken hamarkadako Italiako lan erreformaren funtsezko pertsona.

DSko buruzagi Walter Veltronik esan zuen «erreformismoa» duela helburu Brigada Gorriak taldeak. «Horrela soilik uler daiteke D'Antonaren hilketa, horrek ez baitzuen ardura zuzenik, nahiz eta politikoki oso garrantzitsua izan, erreformismoan egin zuen lanagatik».

Italiako 'berunezko urteetako' protagonista

BRIGADA GORRIAK 1968ko gertakarien ondoren sortu ziren. Urte nahasiak ziren haiek Italian, ezker muturra eta langile mugimenduak aktiboak zirelako, eta talde faxistek atentatu odoltsuak egiten zituztelako, Milango Fontanakoa esaterako (16 hil).

Renato Curzio soziologoa zen bere sortzaile eta lider famatuena. Curzio 1976an atxilotu zuten, eta odol deliturik ez zuen arren, 1993ra arte ez zen kartzelatik atera erregimen irekian.

1972an egin zuen bere lehen ekintza bortitza: Italiako Siemenseko ordezkaria bahitu zuten, eta egun gutxi barru askatu zuten.

Errepresio gogorra jaso zuten, eta Curzio eta burukide gehienak espetxeratu zituzten. Belaunaldi gazteago eta erradikalago batek ordezkatu zuen. 1978ko martxoan, brigadistek Aldo Moro bahitu zuten, Kristau Demokrazia alderdi boteretsuko buruzagia. 55 eguneko bahiketaren ondoren hil zuten. Garai hartan 500 kide inguru zeuden Brigada Gorrietan. 1980ko otsailetik ekaina arte, borroka armatua gori-gorian zegoen Italian: 859 atentatu, 15 hildako eta 83 zauritu.

Hurrengo urteetan indarkeria gutxitu egin zen, eta brigadista gehienak atxilotu zituzten edo Frantziara ihes egin zuten. Azken hilketa 1988an egin zuten Brigadek: Roberto Ruffili buruzagi kristau-demokrata. 1993ko maiatzean gertatu zen Brigada Gorriek beren gain hartutako azken atentatua. Avianoko base militarrera lehergailu bat bota zuten, baina ez zuen biktimarik eragin.

Alemaniaren esku utzi dute Normandian atxilotutako RAFeko kide ohia

Agentziak / **Frankfurt**

ALEMANIAKO Justiziaren esku dago Hans Joachim Klein, Armada Gorriaren Frakzioko (RAF) kide ohia. Ostegun iluntzean eraman zuten Frantziako espetxe batetik Weiterstadt-ekora.

Klein joan den irailean atxilotu zuten Normandian, Sainte Honorine la Guillaume herrixkan. Kleinek bost urte zeramatzan herri hartan, eta ez zuen inoiz arazorik izan justiziarekin, bere egonaldia guztiz sekretua ez zen arren.

Kleini hilketa bat eta bahiketa bat leporatzen dio Frankfurteko fiskaltzak. RAFeko kide ohiak parte hartu zuen, gainera, 1975ean Ilich Ramirez Sanchez *Carlos*-en taldeak egin OPEPeko ministroen bahiketan, Vienako aireportuan. Bahiketa horretan hiru lagun hil ziren eta Klein bera larri zauritu zen. Komandokideekin batera Aljerrera ihes egin ahal izan zuen, eta gero Libian hartu zuen aterbe.



EPA

Hans Joachim Klein.

Borroka armatua utzi zuen 1978an

1978an, Kleinek jendaurrean esan zuen borroka armatua utzi egin zuela. *Der Spiegel* astekariari igorritako gutunean, Carlosen izaera jasangaitza zitzaiola jakinarazi zuen eta haren taldeak egin nahi zituen zenbait atentaturen berri eman zuen.

Orduz gero, Alemaniako Justiziatik ez ezik, bere taldekide izandakoengandik ere ezkutatu zen. Normandiara jo aurretik, Italian eta Beneluxko herrialdeetan ere aurkitu zuten bere aztarna. Daniel Cohn-Benditen laguntza jaso zuen Frantzian bizi zenean.

SUHARTOK AGINTEA UTZI ZUENEKO LEHEN URTEURRENA OSPATZEN ARI ZIREN ATZO IKASLEAK JAKARTAN

Indonesiako Poliziak tiroka sakabanatu du ikasleen manifestazio bat

- Poliziek airera egin zuten tiro, iturri ofizialen arabera, eta ez zen argitu balak egiazkoak zirenentz
- Habibie lehendakariaren etxeraino heltzea eragotzi zion Poliziak beste ikasle talde bati
- Suhartok orain urtebete utzi zuen agintea, herritarrek protesta ugari egin ondoren

Erredakzioa / **Donostia**

POLIZIAK tiroka sakabanatu zituen atzo ikasleak Legebiltzarraren ataritik, Jakarta hiriburuan. Airera egin zuten tiro, iturri ofizialek esan zutenez, eta ez zegoen argi benetako balak erabili zituzten.

Lehenago, ikasleek harriak jaurti zizkieten poliziei, lekukoek adierazi zutenez.

Suharto lehendakari ohiak kargua utzi zueneko urteurrena ospatzeko bildu ziren ikasleak Legebiltzarrean. Ikasleen beste talde bat, berriz, Jusuf Habibie presidentearen etxebizitzarantz abiatu zen, baina Poliziak eragotzi egin zion.

Iazko maiatzaren 21ean utzi zuen boterea Suhartok, eta Habibie izendatu zuen kargurako. 32 urtez agindu zuen Suhartok. Jaun eta jabe izan zen denbora tarte horretan, oposiziorik gabe agindu baitzuen.

Legebiltzarrak Suharto aukeratu zuen beste bost urtez agintzeko, iazko otsailean. Eta orduan hasi ziren liskarrak Indonesian. Ikasleek eta herritarrek manifestazioak egin zituzten Suhartok kargua utz zezala exijitzeko, eta istilu larriak gertatu ziren segurtasun indarrekin izandako borroketan. 1.200 herritarrek galdu zuten bizia. Azkenean, Suhartok amore eman zuen nazioarteak egin zion presioagatik.

JONATHAN PERUGIA / AP

Ikasleen eta segurtasun indarren arteko liskarrak atzo Jakartan.

Ustelkeriagatik Suharto epaitzeko eskatu dute herritarrek harrezkero. Fiskaltza nagusiak, ordea, ez du frogarik «aurkitu» Suharto auzipetzeko.

Time aldizkariak aste honetako alean kaleratu du Suhartori buruzko erreportaia bat. Hor azpimarratzen du 15.000 milioi dolarretik gorako dirutza duela Suharto klanak.

Munduko Bankuaren laguntza

Zorrez leporaino utzi zuen Indonesia Suhartok. Ekonomiaren egoera oso larria da, horregatik Munduko Bankuak 1.100 milioi dolarretako diru laguntza emango dio. Bankuak atzo hartu zuen erabakia, Indonesiak banku sisteman aldaketak egin ditzan eta gizartea babesteko neurriak har ditzan.

Tankerako laguntza jaso zuen Indonesiak iazko uztailean. Mundu Bankuak 1.000 milioi dolar eman zizkion orduan.

Timorko erreferenduma egun bat aurreratu du Jakartak

Agentziak / **Jakarta**

INDONESIAKO Gobernuak Ekialdeko Timorren autonomiari buruzko erreferenduma egun bat aurreratzea erabaki du.

Muladi Justizia ministroak atzo azaldu zuenez, abuztuaren 8aren ordez 7an egingo da, azkenean, autonomiari buruzko bozketa. Justizia ministroak azaldu zuen abuztuaren 8a igandea dela, hots, katolikoen jaieguna, eta Timorren gehiengoa katolikoa delako erabaki zutela erreferenduma aurreratzea.

Nolanahi ere, Indonesiaren erabaki hori ez du batere ondo hartu Portugalek. Autonomiari buruzko erreferendumaren egunа bien artean adostu zuten, eta ondorioz, Lisboako Gobernuaren iduriko ez da zilegi Indonesiak bere kabuz aldatzea. Jaime Gama Portugalgo Atzerri ministroak nabarmendu zuen Timorko autonomia planaren inguruan nazioarteko akordio bat izan zela, eta beraz, Indonesiak errespetatu egin behar duela.

Ekilaldeko Timor Portugalen kolonia izan zen urte askoz, harik eta 1975ean independentzia lortu zuen arte. Orduan, ordea, Indonesiak inbaditu zuen, eta haren menpe dago harrezkero. Orain, Timorri autonomia eskaini dio Indonesiak, eta onartzen ez badu independentzia emateko ere prest agertu da.

laburrean

R U A N D A

■ Kartzela zigorra ezarri zaie bi akusaturi 1994ko genozidioagatik

ARUSHAKO Nazioarteko Auzitegiak bizi arteko kartzela zigorra jarri zion atzo Clement Kayishema medikuari eta 25 urteko zigorra Obeb Ruzindama enpresarioari. Hutu etniakoak dira biak, eta tutsien aurka 1994an gertatu zen genozidioan parte hartu zuten. Epaiak badu berezitasun bat: lehen aldia da auzitegi horrek epai bateratua ematen duena. Auzitegia 1997an sortu zen Ruandako genozidioko arduradunak epaitzeko. Hiru hilabete inguru iraun zuen genozidio hartan 500.000 bat lagun hil ziren. Gehienak tutsi etniako herritarrak izan ziren, baina, baita ere, hutu moderatuak.

I R A K

■ Gobernuak tropak igorri ditu Irango mugara, egunkari baten arabera

SADAM HUSSEINEN aurkako taldeen sarrera eragozteko, Irakeko Gobernuak tropak igorri ditu Irango mugara. *Al Haiat* nazioarteko egunkari arabiarraren arabera, Bagdad beldur da Iranek bultzatuta, oposizioko taldeak Irakera sartu eta Husseinen aurkako ekintzak bultzatuko dituztela. Oposizioa kanpaina bat prestatzen ari da Hussein agintetik botatzeko, egunkariak kaleratu duenez. Gainera, kanpaina horretan EEBBen eta Erresuma Batuaren babesa duela esan zuen *Al Haiatek*. EEBBek aurrekontuaren 97 milioi dolar bideratu zituen iaz Irakeko oposizioari laguntzeko.

T U R K I A

■ Agintariak neurriak zorrozten ari dira Ocalanen epaiketa laster hasiko delako

ABDULLAH OCALAN PKK Kurdistango Langileen Alderdiko buruzagiaren aurkako epaiketa hasiko da hilaren 31n, Imrali uhartean preso dagoen kartzelan. Horregatik, agintariek segurtasun neurriak zorroztu dituzte. Epaiketan izango diren guztiei segurtasun ikerketa egingo zaie, eta horren ondoren jasoko dute identifikazio txartel bat. Epaiketak 15 egun iraungo ditu, eta hamar sesio egingo dira. Astebukaera batean soilik egingo da atsendena. Behin 15 egun igarota epaiketa amaitu ez bada, luzatu egingo da. Etenaldirik gabe egingo da saio berria.

L I B A N O

■ Al Fatako arduradun bat larri zauritu dute atentatuan

KHAMAL ABU DIB Al Fata erakunde palestinarreko buruzagia larri zauritu zuten atzo Libanoko Sidon herrian, lehergaiekin egin zioten atentatuan. Poliziak azaldu zuenez, Abu Dib autoaren atea irekitzen hasi zenean eztanda egin zuen bonbak. PAE Palestinaren Askapenerako Erakundeko talde nagusia da Al Fata, eta liskar ugari gertatzen ari dira Jasser Arafat lehendakari palestinarraren aldekoen eta aurkakoen artean. Bestalde, Hezbola talde xiiak bere gain hartu du Libano Hegoaldeko Armadari egindako erasoa. Armadako soldaduek Israelen aliatuak dira. Frantzia, berriz, prest dago laguntza emateko Israelek Libano eta Siriarekin hasi behar dituen bake negoziaketetan. Frantziaren arabera, Israelgo soldaduek Libano hegoaldetik alde egin behar dute lehenik.

Armen kontrolerako neurri berriak onartu dituzte EEBBetan

Aurreneko aldiz, lege murriztaileen alde bozkatu du Senatuak

Agentziak / **Washington**

Armen salmenta eta jabetza murrizteko urrats batzuk egin berri ditu EEBBetako Senatuak, arlo horretako kontrola areagotuko duten bi lege onartu baitzituen atzo.

Orain arte oso bestelako jarrera agertu izan du beti erakunde horrek, armen gaineko kontrola areagotzearen aurka azaldu baita —errepublikanoen botoei esker beti—. Dena dela, etorkizunean ere erraza izango da armak eskuratzea.

OSTEGUNEAN armen salmenta eta jabetza kontrolatzeko proposamenak eztabaidatu zituzten EEBBetako Senatuan, bigarren aldiz hamabost egunean, eta neurri murriztaileak indarrean jartzearen alde bozkatu zuen gehiengoak. Hain zuzen ere, 73 senadore agertu ziren neurri murriztaileen alde eta 25 kontra.

Bi dira Senatuak onartu berri duen legearen ardatzak: batetik, segurtasuna bermatzeko sistema berri eta seguruagoak izango dituzte armek, batik bat, umeek disparatzea eragozteko. Bestetik, erosleen nortasunaren eta aurrekari penalen kontrola areagotuko dute. Ildo horretatik, inoiz delituren bat egin duten pertsonei ez diete aurrerantzean armarik saldu ko.

Lehenago ere hartzen ziren tankera horretako neurriak, baina arma saltoki ofizialetan bakarrik. Saltoki horietatik aparte, arma azoka ugari egiten da EEBBetan, eta gune horietan ez zen kontrol neurririk hartzen. Etorkizunean armen azoketan ere erosleen historial penalaren azterketa egingo dute.

Aurrez esan bezala, hamabost egunetan bi aldiz bozkatu dute proposamen bera EEBBetako Senatuan. Aurrenekoan atzera bota zuten boto alde eskasaz. Izan ere, aurreneko bozketa hartan armen kontrola areagotzearen aurka bozkatu zuten Alderdi Errepublikanoko ia senadore guztiek, arlo horretako ohiko jarrerari eutsiz. Erriflearen Elkarte Nazionala (EEN) EEBBetako elkarte garrantzitsuenetako bat da, eta armen salmenta eta jabetza librea aldarrikatzen ditu. Alderdi Errepublikanoko buruzagi asko elkarte horretakoak dira, eta gainera, EENk eragin handia du errepublikanoen aldeko botoa erabakitzerakoan. Era berean, arma ekoizleak presio talde gogorra dira.

Azkenaldiko sarraskien ondotik, ordea, iritzi publikoaren ikuspegia aldatzen ari da, eta ondorioz, errepublikanoak mugitzen hasi dira.

J. Scott Applewhite

Bill Clinton EEBBetako lehendakaria, bere emazte Hillary besarkatzen, herenegun Littletonen, sarraskia gertatu zen eskolan.

Herritarrak ohartu dira kontrol beharraz

ESTATU BATUARREK armen inguruko pentsaera aldatu egin dute azken aldian. Milioika dira uste dutenak etxe gehiegitan daudela armak —34 milioi—, eta ikastetxe gehiegitan ari dela hiltzen jendea.

Herenegun bertan gertatu zen tiroketa bat Atlantako bigarren hezkuntza ikastetxe batean. 15 urteko mutiko batek sei ikaskide zauritu zituen Conyers herrian. Hori da azkena. Baina orain hilabete 12 ikaskide eta irakasle bat hil zituzten 17 eta 18 urteko bi gaztek Coloradon.

Bill Clinton lehendakariak hitzaldi bat egin zuen atzo azken ikastetxe horretan, eta esan zuen armei buruz iritziz aldatu dutela herritarrek.

Ikastetxeetan gertatzen ari dena filmetako bortizkeriari leporatu diote guraso, hezitzaile eta psikologoek; eta, baita ere, guraso askok behar besteko harreta jarri ez izanari seme-alabengan eta ikastetxe batzuetako bigilantzia eskasari. Guztiek argi dute, ordea, armetan dagoela errua.

Kontua da armak oso errotuta daudela EEBBetako zenbait estatutako herritarren bizimoduan. Gurasoengandik seme-alabetara igarotzen den ohitura da kalibre handiko erriflekin egiten den ehiza.

Ohitura horrek maiz hondamendiak eragin ditu: armak gordeta dauden bitrinak giltzekin ixtea gurasoei ahaztu, haurrek armak hartu eta nahigabe tiro egitean.

• Pilota

Manomanista: Ruben Belokik eta Fernando Arretxek jokatuko dute manomanistako finala gaur Atano III.ean → **44-45**

• Txirrindularitza

Midi Libre: Euskalteleko Alberto Martinezek lider jarraitzen du, gaurko eta biharko etapa menditsuen faltan → **40**

Alaves ◆ Azken-azkena arte itxarongo du Manek hasierako hamaikakoa zehazteko

Festa zapuzteko asmoz

Barcelona gaur bertan txapeldun ez izatea du xede Alavesek

Ivan Santamaria / **Gasteiz**

OSPAKIZUN GUZTIAK jada prest ditu Barcelonak. Kataluniarrak izango dira 98-99 denboraldiko Liga txapeldunak, eta gaur dute titulua ziurtatzeko lehen aukera.

Alavesi, berriz, jaiko gonbidatuaren papera egokitu zaio, baina Jose Manuel Esnal Maneren taldea ez dago opari handirik egiteko moduan: Extremadura hiru puntura dago, eta porrota oztopo bat litzateke salbazioaren bidean, taldea etxetik kanpo nola dagoen ikusita. Itxaropenerako parada badute Alavesekoek, bigarren itzulian ez baita inor Gasteizen irabazteko gai izan. Are gehiago, gasteiztarrak primeran moldatu dira goi mailako aurkarien kontra. Baina gaur aurrean Barcelona izango dute. Ligako onena izan da, eta horren adibide Villarreal lekin etxean galdu zuenetik daraman ibilbidea: azken 60 puntuetatik 51 irabazi ditu.



Hamaikakoa gaur erabakiko da

Astean probak egin izan ditu Manek, baina azken erabakia gaur bertan hartuko du. Ziurra da Gerard hamaikakora itzuliko dela, zigorra bete eta gero. Aurrealdean, ordea, zalantza gehiago ditu entrenatzaileak. Pablo *Vitamina* Sanchez ondo dagoela esan dute sendagileek, eta lesioa ondo osatu bazaio titular izan daiteke; bestela Magno ariko da haren ordez. Aurrelari zein jardungo den ere ezbaian dago, baina zurrenik Julio Salinas izango da hasieratik jokatuko duena.

Barcelonari dagokionez, Van Gaal-ek ez du partidua irabazitzat jotzen, eta hasierako hamaikakoan Barcelonak dituen jokalaririk onenak zelairatzeko asmoa du.

Gerard Lopez • ALAVESEKO JOKALARIA •

«Erakusleiho ezin hobea da»


MIKEL UHARTE

■ **Guardiolak esan du Alaves dela izan zezaketen aurkaririk zailena, ados zaude?**

Etxean, baliteke. Bigarren itzuliko talde onena gara etxean, eta Bartzelonan horri buruz hitz egiteak motabagarria da guretzat. Espero dut gaurkoa ez izatea Barcelonaren festa soilik, gure festa ere izatea.

■ **Zein izan daiteke Barcelonari aurre egiteko gakoa?**

Zaila da. Garrantzitsua litzateke Guardiola zaintzea. Barcelonaren joko gehiena Guardiolaren hanketatik pasatzen da, eta bera eroso ez badago aurrealdekoek baloi gutxiago jasoko dituzte. Hala ere, Barcelona da, eta oso zaila izango da geldi tzea.

■ **Jokalarientzat ere partidu polita da, mundu osorako erakusleihoa.**

Bai, hala da. Arreta gehien izango dugun partidua izan behar du. Barcelonak asko du jokoan, eta munduko telebista ugari Gasteizen izango dira. Denboraldia amaitzen ari da, eta Alaveseko jokalariontzat erakusleiho ezin hobea da; baina garrantzitsuena partiduan zentraturik egotea da, eta norgehiagokaren inguruko presiotik isolatu ahal izatea.

■ **Guardiolarekin alderatu zaituzte beti, eta gaur aurrez aurre izango zarete.**

Joan den urtean Valencian nintzenean ere aurkari izan ginen, eta horrek ez nau gehiegi arduratzen. Jokalari nahiz pertsona moduan miresten dut, eta neuretzat eta Barcelonako harrobian izandako gazte guztientzat eredu izan da beti. Nire iritziko, toki horretan aritzen diren bi edo hiru jokalari onenen artean dago, Redondorekin batera. Hala ere, jokalari ezberdinak garela uste dut.

Ikuskizunik handiena

■

Ivan Santamaria

Ezohiko eguna biziko du gaur Mendizorrotzak. Liga txapelketa bat bere zelaian jokoan izatea ez da egunero gertatzen den zerbait. Baina egutegiak agintzen du, eta Alaves eta Gasteiz munduko futbolaren erreferentzia bilakatuko dira gaur: 200 kazetari baino gehiago, munduko 16 telebista kate.

Hala ere, horrelako ikuskizun erraldoiak gainezkatu egin du Alaves, egitura aldetik oraindik egokitzen ari den taldea baita.

Zoritxarrez, egindako ahalegin guztiek ezin izango dituzte Mendizorrotzako miseriak ezkutatu. Gasteizera gerturatzen den Barcelonaren ordezkaritza modu egokian hartzeko palkorik ez dago; eta ikusi egin beharko da etorriko den komunikabide andana arazorik gabe hartzeko gai diren kabina eraiki berriak.

Aste honetan Cuerda alkateak eta Anton presidenteak izandako bileran mintzagai izango zen gaia. Eta baliteke obrak arintzeko akuilua izatea. Ongi etorri, Barcelona.

Reala ◆ Errendimendua nahi duela esan zuen Kraussek Cvitanovici buruz, eta ez hitzak

«Taldean sartzeko modua gehiago entrenatzea da»

Valentzia etxetik kanpo «talde indartsuena» dela uste du alemaniarrak

Asier Errasti / **Donostia**

IGOR CVITANOVICEK herenegun egindako adierazpenak —Reala utzi nahi duela eta aukerarik izan ez duela esan zuen, besteak beste— hizpide izan zituen atzo Zubietan Bernd Kraussek. Izan ere, «gai garrantzitsuei» buruz hitz egitea atsegin duen arren, Cvitanovicen inguruko hainbat gauza argitu nahi izan zituen alemaniarrak. Hala, mezua bat bidali zion Kraussek kroaziarrari: «Taldean sartzeko modua ez da hitz egitea, gehiago entrenatzea baizik. Nik emaitzak nahi ditut, hau da, errendimendua, eta ez hitzak».

Era berean, jokalari guztiak «bere aldagelako ateak zabalik» dituzten arren, «bat edo batek lehendakariarekin eta komunikabideekin hitz egitea nahigo» duela esan zuen Kraussek Cvitanovicen inguruan. Kraussek «bere lanean ez sartzeko» ere aholkatu zion kroaziarrari, Cvitanovicek, aulkian egotekotan, deialdian ez izatea nahiago duela esan baitzuen herenegun.

Kroaziarra fitxatzearen erantzukizunaz ere hitz egin zuen Kraussek. Izan ere, Realean horrelako erabakiak «guztion artean» hartzen direla nabarmendu nahi izan zuen alemaniarrak. Azkenik, Realak Cvitanovicengandik eskaintzarik jaso ez duela argitu zuen Kraussek.



ANDER GILLENEA

Bernd Krauss alemaniarra, Zubietako entrenamendu batean.

Rekarteren itzulera

Igandeko partiduaren inguruan, Lopez Rekarte, partidu bateko zigorra bete ostean, eskuin lateralera itzuliko dela aurreratu zuen Kraussek. Era berean, gainerakoan aldaketarik ez dela izango adierazi zuen alemaniarrak, «taldea ongi ari denean ez baitago aldaketak egiteko arrazoirik».

Valentziaren inguruan etxetik kanpo «talde indartsuena» dela esan zuen Kraussek. Valentzia ez dela «Claudio Lopez bakarrik» ere nabarmendu nahi izan zuen alemaniarrak. Hori bai, horrelako jokalari bat geratzea «oso zaila» dela eta horretarako «bere inguruan espazioak ixten» saiatuko direla ere gehitu zuen. Azkenik, Valentzia talde indartsua izan arren, Realak «azken partiduetako maila ematen badu», garaipena eskuratuko dutela esan zuen Bernd Kraussek.

Athletic ◆

Ateak itxita entrenatuko dira gaur zuri-gorriak San Mamesen

Urzaiz eta Imaz dira jokatu ezinda dauden jokalari bakarrak

Ramon Basaldua / **Bilbo**

ATHLETICEKO jokalariak ez ziren entrenatu atzo eta gaur egingo dute asteko azken saioa. Luis Fernandezek ondo prestatu nahi du Valladoliden aurkako partidua, eta San Mames aukeratu du gaurko saioa egiteko. Gainera, entrenatzaileak lasaitasuna nahi du eta entrenamendua ateak itxita izango dela iragarri du.

Luis Fernandezek plantillako gizon guztiak ditu prest biharko partidurako, Ismael Urzaiz eta Andoni Imaz izan ezik. Billabonako erdilaria buru-belarri sartuta dago belauna osatzeko prozesuan, eta aurrelari nafarrak partidu bateko zigorra bete beharko du aurreko igandean denboraldiko bosgarren txartel horia ikusi ondoren. Gauzak horrela, litekeena da Fernandezek erabakita izatea Valladoliden zelairatuko duen hamaikakoa. Imanol Etxeberria izango da atean, Lacruz eta Felipe hegaletan, Alkorta, Jose Mari eta Ferreira atzealdean, Urrutia eta Alkiza euskarri lanetan, Guerrero aurrerago eta Etxeberria eta Ezquerro aurrealdean. Baliteke Iñigo Larrainzarrek hamaikakoan sartzeko aukeraren bat izatea.

Zuri-gorriek irabazi egin behar dute Zorrillan Europan sartzeko aukerei eusteko. Horretarako, apurtu egin beharko dute azken denboraldietako bolada txarra. Azpimarratzekoa da Athleticek bi garaipen baino ez duela lortu Valladoliden jokatu dituen azken hemezortzi partiduetan. Gainera, zuri-gorriek sei gol baino ez dituzte sartu. Julen Guerrerok sartu ditu Athleticek Jose Zorrillan sartu dituen azken hiru golak. Azken garaipena 94-95 denboraldian erdietsi zuten.

Eibar-Osasuna derbia ◆ Eibarrek zulotik atera nahi du, eta Osasunak igo

Derbi ezberdina

18:00

EIBAR-OSASUNA

Barasoain	Martin
13 Jon Ander	1 L. Vallejo
22 Iturrino	30 Descarga
4 Arce	4 Mateo
18 Matxon	3 Iban
2 Goio	31 Conget
20 Ocio	8 Palacios
10 Bixente	6 Alfredo
11 Arenaza	22 Goikoetxea
19 Aitor Agirre	10 Tiko
15 Cuellar	17 Trzeciak
9 Kiko	24 Marcelino

Epailea • Rubio Iniesta

Zelaia • Ipurua

Erredakzioaa / **Iruñea**

EIBARREK eta Osasunak Bigarren mailako derbia jokatuko dute gaur Ipuruan (18:00, ETB1). Partidua irabaztea oso garrantzitsua da bi taldeentzat, nahiz eta nafarren eta gipuzkoarren egoera oso ezberdina izan: Osasunak goiko aldean sartzeko borrokatuko da, eta Eibar, berriz, beheko aldetik ateratzeko.

Nafarrei dagokienez, Eduardo Conget bigarren taldeko gaztea izanen da gaurko aldaketa nagusia. Enrique Martinek Eduardo Perez zelairatzeko asmoa zuen Markovicen ordez, baina jokalaria zuzendaritzaren jokabidearekin kexu agertu zen —jokatutako partiduak kontuan hartu gabe kontratua luzatzeko jokalariak abenduan egindako eskaintzari ez dio erantzun Osasunak—, eta, hori dela eta, atzo, entrenamendua hasita zegoela, Conget deitzea erabaki zuen entrenatzaileak. «Ilusioa duten jokalariak nahi ditut», erran zuen Martinek, bere erabakia azaltzeko. Congetekin batera, Marcelino aurrelariak ere hasieratik jokatuko du, Zigandaren ordez, zigortuta baitago nafarra.

Eibarri dagokionez, Iturrino eta Ocio Osasunaren aurka aritzeko prest izanen dira: Iturrinori zuntz haustura osatu egin zaio, eta Ociok, berriz, bete du partidu bateko zigorra. Gipuzkoarrak azkenaurrekoak dira Bigarren mailako sailkapenean, eta, hori dela eta, funtsezkoa da haientzat Ipuruan hiru puntuak eskuratzea, zulotik behingoz ateratzeko.

Txirrindularitza 1999ko Italiako Giroa

Blijlevens da azkarrena

Egun lasaia izan zen atzokoa, gaurko mendiaren eta biharko erlojupekoaren atarian

Gorka Zabaleta / **Donostia**

JEROEN BLIJLEVENS holandarrak bigarren etapa garaipena lortu zuen atzo Lancianoko helmugan. TVMkoa esprintetako erregea da aurtengo Giroan, Mario Cipolliniren gainetik. Atzo, Roman Vainsteins eta Fabrizzio Guidi izan zituen aurkari, eta aise hartu zituen mendean. Mario Cipollini ez zen esprintean sartu, eta hurrengo aukerari itxaron beharko dio.

Bestela, etapak ez zuen aparteko lehiarik izan. Txirrindulariek etapa hasieran egindako protestaldiaren ondoren —dopin kontrolak direla eta—, lehen bi orduetan 63 kilometro baino ez zituzten egin. Gero, 70.ean Bianchik (Riso Scotti) eta Ongaratok (Liquigas) ihes egin zuten. Bi italiarrek lau minututik gorako abantaila izan zuten, baina helmugarako hamar kilometro falta zirela irentsi zituen tropelak. Gero, aurrera egiteko hamaika saio, azkenean esprinta, eta azkarrena Blijlenvens.

Gaur mendiko lehen etapa garrantzitsua jokatuko da: 253 kilometro, hiru mendate, azkena Gran Sasso d'Italia. Mendate hori hamar kilometroko igoera da, %6ko desnibelarekin batez beste. Faboritoak izango dira aurrean.

MONDELO

Jeroen Blijlevensek (TVM) bigarren garaipena lortu zuen atzo, Lacianoko helmugako esprintean.

sailkapenak

Zazpigarren etapa

1. J. Blijlevens (TVM)	4:12:06
2. R. Vainsteins (Vin)	d.b.
3. F. Guidi (Pol)	d.b.
4. P. Bettini (Map)	d.b.
5. M. Piccoli (Lam)	d.b.
6. A. Petacchi (Nav)	d.b.
7. G. Balducci (Nav)	d.b.
8. G. Misaglia (Lam)	d.b.
9. A. Edo (Kel)	d.b.
10. G. Fagnini (Sae)	d.b.
11. A. Turicchia (Ris)	d.b.
12. D. Pieri (Nav)	d.b.
13. G. Glomser (Nav)	d.b.
14. M. Gili (Ami)	d.b.
15. S. Ivanov (TVM)	d.b.
16. M. Gentili (Can)	d.b.
17. P. Savoldelli (Sae)	d.b.

Nagusia

1. L. Jalabert (ONCE)	31:34:07
2. D. Di Luca (Can)	7ra
3. P. Savoldelli (Sae)	16ra
4. D. Rebellin (Pol)	20ra
5. M. Pantani (Mer)	22ra
6. D. Frigo (Sae)	d.b.
7. I. Gotti (Pol)	d.b.
8. G. Simoni (Bal)	25era
9. S. Ivanov (TVM)	31ra
10. O. Camenzind (Lam)	32ra
11. N. Axelsson (Nav)	d.b.
12. A. Noe (Map)	33ra
13. E. Zaina (Mer)	d.b.
14. D. Clavero (Vit)	d.b.
15. J. M. Jimenez (Ban)	d.b.
16. G. Stangelj (Mob)	d.b.
17. S. Blanco (Vit)	d.b.
18. M. Velo (Mer)	44ra

«Hurrengoan etxera goaz»

Erredakzioa / **Donostia**

TXIRRINDULARIEK ez dute bakerik dopinarekin. Galdeketak, atxilotekak eta auzipetzeak ez direnean, ustekabeko kontrolak dira, atzo goizaldean gertatu bezala. Italiako Batzorde Olinpikoak Ballan, Vini Caldirola eta Mobilvetta taldeko txirrindulariei odol probak egin zizkien, aurrez iragarri gabe, eta horrek tropelaren haserrea eragin du. Atzo goizean, gertatutakoaren berri izan zutenean, Marco Pantani, Mario Cipollini eta Laurent Jalabert egoera aztertzeko bildu ziren. Ondoren emandako prentsaurrekoan horrelako beste kontrolik ez dutela onartuko adierazi zuten, «hurrengoan etxera» joango direla. Izan ere, Pantanik esandakoaren arabera, UCIk eta federazioek egiten dituzten kontrolak nahikoa direla uste dute txirrindulariek, eta ez dute ulertzen beste erakunde batzuk kontrolak egiten hastea. «Beste kirolari batzuek ez dituzte kontrol hauek onartu, eta guk eskubide berberak eskatzen ditugu. Giroa jarraitzeko lasaitasuna behar dugu, atseden hartu eta kontzentraturik egoteko, bestela bagoaz», esan zuen Pantanik. Laurent Jalabert atzerriko txirrindularien izenean mintzatu zen, eta jazarpenari amaiera jartzeko eskatu zuen: «Ezin dugu jarzapen hau onartu. Onegiak gara. Nola edo hala egoera honi amaiera jarri behar diogu». «Profesionalak gara, eta korritzea dugu gustuko, baina ezin dugu hau onartu. Araudiak bateratu egin behar dira. Batzuek egoera honi etekina atera nahi diote, eta txirrindulariok ez gara ezer. Bi egun daramatzat lider, baina gaur gertatu denak garrantzi handiagoa du», esan zuen.

Txirrindulariek etapa jokatzea erabaki zuten, «jarraitzaileei eta Giroari zor zaien errespetuagatik», baina kontrol hauekin jarraituz gero, lasterketa bertan behera uztea aztertuko dute.

Txirrindularitza ◆ Alberto Martinezek ongi eutsi zion atzo lidergoari; Benoit Salmonek (Casino) irabazi zuen etapa

Zailena geratzen zaio

Bi minutu eta erdiko aldea du, baina gaurko eta biharko etapak menditsuak dira



AP

Alberto Martinezek (Euskaltel Euskadi) lider jarraitzen du Midi Libren.

Gorka Zabaleta / **Donostia**

ALBERTO MARTINEZ bikain eusten ari zaio Midi Libreko lidergoari. Euskaltel Euskadi taldeko txirrindulariak 2:25eko aldea du oraindik sailkapen nagusian, eta bi egun baino ez dira falta Frantziako proba amaitzeko. Hala ere, oraindik ez dago ospatzen hasterik, itzuliko etaparik gogorrenak baitira gaurkoa eta biharkoa. Ibilbide malkartsu horretan, Albertok eta bere taldeak erasoei aurre egin beharko diete, eta ez da batere erraza izango.

Baina Euskaltel Euskadi sasoi betean dago. Izugarrizko maila ematen ari dira azken asteotan, eta Frantzian orain arte inork ez du erakutsi haiek baino gehiago denik.

Bi etapa hauetan, izenez, Laurent Dufaux izan daiteke gizon arriskutsuena. Hala ere, 3:23ra dago, eta suitzarra ez dago oraindik bere sasoi onenean, maiatzaren 1ean hasi baitzen korritzen, zazpi hilabeteko zigorra bete ondoren. Bigarren eta hirugarren postuetan Casinokoak daude: Alexandre Vinokourov eta Benont Salmon.

Salmonek irabazi, Bellik galdu

Casino taldeko Benont Salmonek irabazi zuen atzoko etapa, Thuir-Beziers. Eguneko galtzaileak, berriz, Festina taldeko txirrindulariak izan ziren, Wladimir Belli batez ere. Quiribus mendateko gainean tropela zatitu egin zen, eta Belli atzean gelditu zen, Christophe Moreau taldekidearekin.

20 txirrindulariz osaturiko taldetxo batek aurrera egin zuen. Tartean ziren Alberto Martinez, Salmon, Heulot, Dufaux, Vinokourov, Meier eta Vasseur, besteak beste.

Helmugatik 40 kilometrora, Benont Salmonen eraso gogorra jo eta aurrera egin zuen. Laster lortu zuen bretoiak minutu bateko aldea, eta atzekoei ezinezkoa egin zitzaien harrapatzea. Bigarren Alexandre Vinokourov izan zen —Casinokoa bera ere—, eta hirugarren Stephane Heulot.

Gaur Saint Clair mendatean amaitu da etapa, Midi Libreko gogorrena.

sailkapenak

Laugarren etapa

1. Benont Salmon	4:30:02
2. Alexandre Vinokourov	56ra
3. Stephane Heulot	d.b.
4. Francois Simon	d.b.
5. Michael Kyneb	57ra
6. Michael Blaudzun	d.b.
7. Cedric Vasseur	1:11ra
8. Armin Meier	d.b.
9. Gilles Bouvard	d.b.
10. Rene Joergensen	d.b.

Nagusia

1. Alberto Martinez	13:20:28
2. Alexandre Vinokourov	2:25era
3. Benont Salmon	2:31era
4. Mikael Kyneb	2:40ra
5. Michael Blaudzun	2:50era
6. Laurent Dufaux	3:23ra
7. Cedric Vasseur	3:30era
8. Simon Francois	3:47ra
9. Geor Totsching	4:06ra
10. David Moncoutti	4:12ra

Errugbia ◆ Getxo Arteak Oviedo hartuko du bihar; eta biak maila galtzeko arriskuan daude

Galtzea, arrisku larria

Joanekoan Oviedo gailendu zen, baina Getxo mentalizatuta dago

Koldo Alduntzin / **Donostia**

EGOERA gaiztoan murgilduta dihardu Getxo Arteak. Sailkapeneko azken postuan da, eta maila galtzeko arrisku bizian. Bi aukera izango ditu egoera pozoitu horretatik irteteko, biharkoa Oviedoren kontrakoa eta heldu den larunbatekoa, Generaliferen kontra, Granadan. Nolanahi ere, bi partidak irabazi behar ditu. Gogoratu behar da azken hiru sailkatuek galduko dutela maila, heldu den denboraldian 10 talde ariko baitira lehian.

Getxotarrak egoera larrian badira, Oviedokoak ez daude askoz lasaiago, soilik puntu bat gehiago dutela. Hala ere, asturiarrek 30-34 irabazi zioten Universidad de Sevillari, igandean eta Getxok galdu egin zuen 27-30 El Monteren kontra. Horrez gain, jaisteko arriskuan dauden beste lau taldeek ere elkarren arteko dema izango dute: Montjuic-Liceo Frances (gaur) eta Valencia-Universidad de Sevilla. Hori gutxi balitz bezala, azken jardunaldian Montjuic-Univ. de Sevilla eta Valencia-Oviedo jokatuko dira.

Beraz, bakoitzak bere kontuak atera beharko ditu, baina bistan da ezin izango duela azken jardunaldiaren zain egon, eta 21. jardunaldi honetan atera beharko dituela kontuak.

MONIKA DEL VALLE

Getxoko Etxebarria eta David Hernandez, El Monteren kontra uztartze bilduan, hirugarren lerroko irteera egiten.

Solano ez da ariko oviedorekin

Denboraldiaren hasieran Aitor Etxebarria, Oscar Solano eta Mikel Rodriguez getxotarrak fitxatu zituen. Rodriguezek eta Solanok taldea utzi egin zuten orain dela aste batzuk, eta Etxebarriak jarraitzen du. Plentziarra ligako zazpigarren tantogilerik onena da. Solanoz gain, aurrean Martinez eta Fuentes ez dira ariko Oviedon; baja garrantzitsuak.

Getxon, aldiz, Azkargorta eta De Lazaro jokatzeko moduan dira. Partidari dagokionez, Jose Luis Martinez *Karra* entrenatzaileak dio: «Gure kontrario nagusia urduritasuna eta gehiegizko ardura izan daitezke. Horregatik, lasai jokatzea ezinbestekoa izango da. Zigor kolpe inozoak ekidin behar ditugu, eta gure zelaitik at jokatu eskura, batez ere derentsan».

Joanekoan Oviedo gailendu zen 29-18. Erasoan zerbait hobeto ari bada Getxo, defentsan Oviedori baino 150 tanto gehiago egin dizkiote.

Azken Sailkapena

	Pt.	I	B	G
1. Quesos E.	35	17	1	2
2. El Monte	31	15	1	4
3. Santboiana	30	15	0	5
4. Canoe	26	13	0	7
5. Dulciora	22	11	0	9
6. Generalife	19	9	1	10
7. Liceo F.	16	8	0	12
8. Oviedo	13	6	1	13
9. U. de Sevilla	12	6	0	14
10. Valencia	12	5	2	13
11. Montjuic	12	6	0	14
12. Getxo Artea	12	6	0	14

Aratz Gallastegi. GETXOKO JOKALARIA •

«Atzean ez dira onak; han irabazi behar diegu»

AZKEN bi partidetan atzeko jokalari izan da Aratz Gallastegi, eta uztartze erdia Javi Diaz. Aratz ez da gustura ari atzeko postuan, baina prest egon beharko du azken txanpa gogor honi heltzeko. Bere esanetan, taldea motibaturik dago.

■ **Bitxia da Aratz atzean ikustea; zer gertatu da?**

Zehazki ez dakit zergatik izan den, baina uste dut *Karrak* nahiago duela Javichinek jokatzea. Nolanahi ere, uste dut arazoa ez dela soilik uztartze erdiarena, aurrelariena ere badela, eta horretaz javichin ere hasia da ohartzen. Gehiago jokatzen saiatu naiz, baina haiek ez badute aurrera egiten, zuk baloiak zabaltzeari ekin behar diozu. Partida gehienetan mugatuta sentitu naiz horregatik. Bestetik, atzean ez naiz moldatzen, kokapena falta zaidalako eta korrikaldi motzekoa naizelako.

■ **Zer sentitzen da azken postuan egotean.**

Beste gauza batzuk ikusten dira. Tentsioa areagotu egin da, eta zure eguneroko bizitzan ari zarela, gogora etortzen zaizu egoera. Nolanahi ere, denetarik probatu behar da, esperientzia ere hartu behar baita.

■ **Joaneko partida duzue errefentzi; zertan aldatuko da?**

Aurrean ongi moldatzen dira, baina ez Quesos batean parean. Atzean ez dira onak, eta horregatik, atzean oinarrizkoa egiten badugu menderatuko ditugu. Aurrean nahastu eta lekutik atera behar ditugu. arinago jokatuta. Uztartze irekiak eragin eta sarrera gogorrak egin baloia zabaltzeko; alegia, baloiari erritmoa eman. Hori



MONIKA DEL VALLE

ere kosta izan zaigu aurten; baloiak erraz erori zaizkigu. Nabari zaie esperientzia eta automatismoa falta dutla.

dropak

Hernanik gaur lor dezake Lehen Mailara igotzea

Hernani (Gipuzkoa) Espainiako Lehen Mailara igotzeko Bigarren kanporaketa ari da jokatzen Zaragozako Fenix taldearen kontra. Joaneko partidan 55-0 irabazita, gaur oker larria gertatu beharko luke La Isla zelaian (16:00), gipuzkoarrek gora ez egiteko. Aspaldiko ametsa dute hernaniarrek maila horretara igotzea, eta zaila izango da aukera galtzea. Gogoratu behar da Euskal Ligako txapeldunak izan zirela.

Tolosa-Bourgoin eta Montferrand-Grenoble, Frantzian

Gaur jokatuko dira Frantziako finalerdiak. Partidarik sutsuena Tolosak eta Bourgoinek jokatuko dute, Montpellierren (16:45, Fr 2). Tolosak Stade txapelduna kanporatu zuen (51-19), eta Bourgoinek Begles utzi zuen bazterrean (14-8). Beste finalerdian, Montferrand eta Grenoble ariko dira, Lyonen (C+ fr., 14:15). Montferrand taldeak Castres kanporatu zuen (36-31), eta sasoi amaiera ona egin du. Grenoblek ezustean menderatu zuen Colomiers (28-26).

Canterburyk finalerako txartela du jokoan

Hego Hemisferioko Super 12 Txapelketako finalerdiak ere gaur jokatuko dira. Zeelanda Berriko Canterbury da txapelduna, eta gaur Australiako Queenslanden kontra ariko da Brisbanen (Australia). Queenslandek lehen postuan amaitu zuen. Beste finalerdian, Hego Afrikako Western Stormers eta Zeelanda Berriko Otako ariko dira lehian,

Salva Mujikari omenaldia

Donostiako Kultur eta Turismo Ekintzetxeak Salva Mujikari omenaldia egingo dio maiatzaren 29an, bere gizaki alde on eta kirolean egin duen lan nabarmenagatik. Mujika, Donostiako Athletiko taldeko jokalari eta entrenatzailea, Euskadiko hautatzailea, eta beste hainbat gauza izana da. Egun ere lanean dihardu.

Arraunketa ◆ Bizkaia eta Gipuzkoako txapelketak asteburuan

Trainerilen ordua

Mundaka eta Donibaneko dira faboritoak

Ramon Basaldua / **Bilbo**

GIPUZKOA eta Bizkaiko txapelketak jokatuko dira bihar eta etzi Getarian eta Plentzian, eta hurrengo asteburuan Euskadikoa jokatuko da, Algortan.

Gipuzkoako txapelketan hamabost ontzi izango dira aurrez aurre gaur arratsaldean jokatuko den sailkatzeko estropadan. Donosti-Arraun, Itsaso eta Getaria taldeak ariko dira lehenengo txandan; Hibaika, San Pedro, Donibaneko eta Trintxerpe bigarrengoan; Hondarribia, Fortuna, Koxtape eta Ur Kirolak hirugarrenean eta Zarautz, Santiagotarrak, Orio eta Zumaia laugarrengoan. Gaurko estro- padetan lehenengo zortziek eskuratuko dute biharko finalerako txartela. Gainera, zortziek izango dute txapela eskuratzeko aukera.

Donibaneko Arraunlariak taldearen ontzia da faborito nagusia urrezko domina irabazteko. Izan ere, Pasai Donibanekoek nagusitasun handia erakutsi baitute ligaxkako estropadetan. Orio, Koxtape eta Trintxerpe ere hautagai dira.

Bizkaiko txapelketari dagokionez, hamalau ontzi ariko dira nor baino nor gaur arratsaldean Plentziako badian. Ondarroa, Raspas, Zierbena eta Arkote izango dira lehenengo txandan; Kaiku, Lutxana, Santurtzi, Algorta eta Portugalete bigarrengoan eta Bermeo, Isuntza, Mundaka, Deustu eta Elantxobe hirugarrengoan. Bost onenak izango dira aurrez aurre bihar eguerdiko finalean. Faborito nagusia Mundaka bada ere, Kaiku, Isuntza, Arkote, Ondarroa eta Bermeo ezustekoa ematen saiatuko dira.



ARTXIBOKOA

Getarian eta Plentzian jokatuko dira Gipuzkoa eta Bizakaiko txapelketak.

laburrean

SASKIBALOIA

■ Portland Trail Blazersek irabazi egin du Utah Jazzen etxean, eta batean berdindu du kanporaketa

PORTLAND TRAIL BLAZERS taldeak garaipen handia lortu du Utah-en bertako Jazz taldearen aurka. Oregongo taldeak 81-84 irabazi zuen, eta batean berdindu du Mendebaldeko Konferentziako finalerdietako kanporaketa. Isiah Rider, Portland taldeko hegalekoa izan zen partiduko jokalari onena. Bestalde, New Yorkeko Knicks taldeak 70-77 irabazi zion Atlantako Hawksi, Georgia Domen jokatutako Ekialdeko final erdietako kanporaketako bigarren partiduan. New York 2-0 aurreratu da, eta bi garaipenak kanpoan erdietsi ditu.

■ Real Madridek Scariolo fitxatu nahi du eta Taurekin negoziaketetan hasi da

BESTE denboraldi baterako kontratua du Taurekin Sergio Scariolok, baina klausula bat ere bai, kontratu hori indemnizazio baten ordainetan eten daitekela dioena. Horren jakitun, Taurekin negoziaketetan hasi da Real Madrid. Real Madrideko arduradun Lorenzo Sanz Duranek eta Tauko lehendakari Josean Kerejetak, egin dute lehenengo bilera.

MOTOZIKLISMOA

■ Tetsuya Haradak egin du denborarik onena Frantziako Sari Nagusiko lehenengo entrenamendu saioetan

TETSUYA HARADA Aprilia taldeko gidariak egin zuen denborarik onena atzo Frantziako Sari Nagusiko lehenengo entrenamendu saioetan. Japoniarrak ezustekoa eman zuen Paul Ricard zirkuituan, inork ez baitzuen espero denbora onena egingo zuela. Haradak zilindro biko motorra erabili zuen, eta gainerako faboritoek lau zilindrokoak erabili zituzten. Ustez, Paul Ricard zirkuitua aproposagoa da potentzia handiko motorrentzako. Alex Criville izan zen bigarrena eta Kenny Roberts hirugarrena, Luca Cadalora eta John Kocinskiren aurretik.

TENISA

■ Australiako taldeak Munduko Kopako finalerako txartela lortu du Estatu Batuetako taldeari irabazita

AUSTRALIAK eta Suediak jokatuko dute taldekako Munduko Kopako finala. Australiarrek espero baino arazo gutxiago izan zuten Estatu Batuetako taldeari irabazteko atzo jokatutako finalerdietan. Mark Philippoussis australiarrak 6-4, 6-7 eta 7-5 irabazi zion Richey Reneberg estatu batuarrari. Bigarren partiduan Patrick Rafter erraz gailendu zitzaion Pete Sampras faboritoari. Australiarra bi setetan nagusitu zen, 6-3 eta 7-5,

MENDIA

■ Poloniako eta Belgikako bi mendizale hil dira Everesten: bata erorita eta bestea izoztuta

BI mendizalek bizia galdu dute Everesteko gailurretik jaisten ari zirela. Tadeusz Kudelski poloniarra labaindu egin zen eta 8.600 metroko altueratik behera erori zen. Taldeko beste mendizale bat, belgikarra berau, izoztuta hil zen, 8.200 metrotan zegoen kanpamentuan. Mendizale belgikarra gailurrera iritsi ziren hiru mendizaleen zain zegoela hil zen.

Sokatira ◆ Nuarbe Suitzako Stans herrian da, maila handia duen nazioarteko torneo batean esku hartzeko

Nazioarteko lehia, maila neurtzeko

Iaz Nuarbek irabazi egin zion Stans-i 600etan, eta bigarren izan zen 640etan

Koldo Alduntzin / **Donostia**

NUARBEK berriro Suitzara jo du, Stans-eko Nazioarteko Torneoa jokatzeko. Iaz 20. urteurrena ospatu zuten nuarbetarrek, eta hori zela eta, suitzarren gonbita jaso zuten. Gipuzkoarrek oso jardun eta emaitza onak lortu zituzten iaz, eta horregatik, aurten ere gonbita egin diete. Nolanahi ere, Nuarbek ederki erakutsia du lehen ere nolako taldea den. Stans eta Felton (Ing.) urtarrilean izan ziren Beasainen, eta Nuarbek irabazi egin zien. Gero, Euskadiko Sei Orduetan berriro irabazi zion Nuarbek Feltoni.

Euskal Herriko bigarren taderik arituena da Nuarbe, Mutrikuren ostean. Stans hala ere, Nuarbe baino bost urte helduagoa da. Gipuzkoarrek orain dela 16 urte bisitatu zuten Stans lehenengoz, eta esperientzia gogorra ukan zuten, batez ere eskuekin, hasiberriak baitziren. Herenegun gauean irten ziren nuarbetarrak autobusez, eta mila kilometro egin ondoren atzo eguerdian iritsi ziren.

Gaur 600 kiloetako lehia izango da, eta astelehenean —han jaieguna— 640 kiloetakoa. Iaz 25 talde aritu ziren pisurik arinenean, eta Nuarbek irabazi zuen, finalean Stans menderatuta. 640etan 33 talde lehiatu ziren, eta gipuzkoarrek bigarren postua eskuratu zuen. Finalean Holandako Bisonek irabazi zion kitarakoa jokatuta.

Iazko Munduko Txapelketan urrezko domina kolkoratu zuen Nuarbek 560 kiloetan eta 4. izan zen 640etan. Alemania, Ingalaterra, Lituania, Holanda, Kanada, Suedia, Suitza, Italia eta Irlandako taldeak izango ditu kontrario Nuarbek Stans-en.

Gaztedi ez da ariko Euskal Herrikoan

Aurtengo Euskal Herriko Txapelketa larunbatean hasiko da Nuarben. Soilik gizonezkoen txapelketa jokatuko da, eta horretan ere, talde garrantzitsu bat faltako da: Laukizko Gaztedi. Beraz, Getxok, Mutrikuk, Nuarbek eta Goiherrik jardungo dute.



PABLO S. QUIZA

Nuarbek Euskadiko Sei Orduetan egin zuen azken agerraldia, eta garaipena lortu zuen Ingalaterraren kontra.

Aizkora ◆ Urrezko Aizkoran, 3. posturako lehia

Mindegia eta Nazabal aurrez aurre berriro

Koldo Alduntzin / **Donostia**

FINAL handiaren atarikoa egingo dute Miel Mindegiak eta Floren Nazabalek bihar, Mendatan (Bizkaia). Urrezko Aizkoraren hirugarren postua lortzeko neurketa izango dute (12:30). Nazabal Larretxearen ordez ariko da, Arantzakoak eskuko hatz txikiko tendoiak hautsi baitzituen belarra ebakitzen ari zela.

Hain zuzen ere, Mindegiak azken kanporaketan kanporatu zuen Nazabal, 55 segundoko aldea aterata. Proba osoan aritu zen Mindegia aurretik. Orduan bezala, 10 enbor ebaki beharko dituzte, baina lau kanaerdikoen ordez bi izango dituzte, eta 60 ontzako lau —orduan bi izan zituzten—. Horiez gain, 45 ontzako bi eta kanaerdiko bi. Mindegiak 45 ontzakoak eta 60koak plazaratuko ditu. Hain zuzen, elkarren kontrako kanporaketan Nazabal hobeto moldatu zen 60 ontzakoetan. Egurrei buruz, Mindegiak zioen: «Floren oso ongi moldatzen da egur gozoetan».

Ezkurrakoak fibretako arazoak ditu zangoan, eta horrek gerrian eragin omen zion . «Halere, 3. postua nahi dut, saria ere erakargarria baita». Garaileak 300.000 pezeta jasoko ditu eta galtzaileak 200.000 pezeta.

Nazabalek lau kanporaketa jokatu zituen —Mindegiaren kontra apirilaren 25ean jokatu zuen— eta aski erakutsi du nolako aizkolaria den eta nola prestatuta dagoen. Ikusi beharko da motibazioz nola heldu den; saria bederen, ongi aritzeko modukoa da.

Euskal Herriko buruz buruko finala Atano III.ean gaur (17:45)

Bi dituenak, hiru nahi

Gaur apurtuko da Beloki eta Arretxeren arteko berdinketa: bi txapel ditu bakoitzak

Enekoitz Telleria / **Donostia**

EZ da lepo beteko, baina sarrera ona espero da gaur Donostiako Atano III.ean. 17:45ak inguruan hasiko da (Tele 5) Ruben Beloki eta Fernando Arretxeren arteko lehen Euskal Herriko buruz buruko txapelketako finala. Gaur irabazten duenak, bi finalisten arteko bina txapeleko berdinketa apurtzeaz gain, Euskal Herriko buruz buruko lehenengo txapela jantziko du, eta palmaresa estreinatuko du.

95ean Inaxio Errandoneari eta iaz Patxi Eugiri irabazi zion buruz buruko finala Ruben Belokik. 94an Errandoneari eta 97an Aitor Elkorori Fernando Arretxek. Bi final jokatu eta biak irabazi ditu Burlatakoak, eta hiru final jokatu eta bi irabazi —Eugirekin galdu zuen 96an— Luzaidekoak. Aurtengo txapelketan, finalerdietan sartu ziren biak lehian, eta Armendariz eta Nagore utzi zituzten kanpora, hurrenez hurren.

Ruben Beloki da gaurkoa irabazteko faborito nagusia. Uneotan, beste guztiak baino maila bat gorago dago. Arretxe, ordea, zauritutako piztia lez irtengo da kantxara. Txapela janzteko bere azken aukeretako bat da gaurkoa.

22:45etan Bergaran, Armendarizek eta Nagorek hirugarren eta laugarren postua izango dituzte jokoan.



GARI GARAIALDE

Ruben Beloki eta Fernando Arretxe elkarrekin, joan den asteazkenean Atano III.ean egindako pilota aukeraketan.



Beloki-Arretxe norgehiagokak buruz burukoan

Lau aldiz jokatu dute elkarren kontra buruz buru Ruben Belokik eta Fernando Arretxek. Bi partidu ofizialak Belokik irabazi ditu, eta errebantxako beste biak Arretxek. Laurak emaitza berberarekin amaitu dira: 22-12

.

1995-IV-25 Ogetan: 12-22 Belokik • Ahoa bete hortz utzi zituen Ruben Belokik Ogetara hurbildutakoak. Aurreko urteko txapelduna 12 tantotan utzi zuen estutasun handirik gabe. Finalerdietako partidua zen. Txapela jantzi zuen Belokik urte horretan bertan —15 tantotan utzi zuen Inaxio Errandonea finalean—. Historiako txapeldun gazteena zen, 20 urterekin.

1995-VIII-8, Ogetan: 12-22 Arretxek • Errebantxako partidua antolatu zuten Andre Mari Zuriaren jaietan. Urtebetetze egun mikatza izan zuen Belokik. 12-7 hasi zen irabazten, eta 22-12 galdu zuen. Ez zuen bere maila eman Belokik.

1998-5-17,Atano III.ean: 22-12 Belokik • Asegarce enpresaren adarreko finala jokatu zuten biek. Ez zen batere partidu txukuna irten. Sakez eta dejadaz atera zuen aurrera partidua Belokik. Hiru urte geroago —hainbat atsekaberen ostean— finalean sartzea lortu zuen berriro Ruben Belokik. Maitzaren 31n jokatu beharreko finala, azaroaren 22an jokatu zuten Belokik eta Eugik —Aspeko txapeldunak—. Burlatakoak jantzi zuen txapela iaz.

1998-VII-11, Labriten: 12-22 Arretxek • San Fermin jaietarako antolatu zuten errebantxa. Nagusitasun osoz, aise irabazi zuen Arretxek. 20-5 ere joan zen aurretik irabazlea, baina azken txanpan txukundu zuen partidua Belokik.

Iazkoaren berdintsua izango da

iritzia

MIKEL UNANUE • Belokiren botileroa

Arretxe manomanista da, defentsan ikusgarri aritzen da bi eskuekin eta postura guztiak menperatzen ditu. Eraso ere azkar egiten du, pilotari abiadura ematen dio eta dejadak ere ongi botatzen ditu. Ruben ez da Arretxe bezala moldatzen defentsan, baina kolpe handiagoa dauka. Eraso hobea. Hori ikusita, aurtengoa iazko finalaren berdintsua izango dela iruditzen zait. Belokik eramango du partiduaren erritmoa, bera izango da dominatuko duena. Arretxe, defendatzen saiatuko da eta, ahal duenean, Beloki zirikatuko du. Belokik duen arriskua normalean baino presionatuago irtetea da. Presionatuta irten eta Arretxek aurrea hartzen badu markagailuan, litekeena da Rubenek tokia galdu eta dakiena ez jokatzea. Hori da daukagun beldurra. Jendeak ziurtzat ematen du Belokiren garaipena eta Arretxek 10 edo 12 egingo ote dituen ari da eztabaidatzen. Partidu bakarrera, edozer gauza gertatu liteke.

Hasierak garrantzi handia izango du

iritzia

MARTIN ALUSTIZA • Arretxeren botileroa

Beloki uneotan dagoen pilotari indartsuena da eta horretan oinarritzen du bere jokoa, indarrean eta sakean. Defentsa ikusgarririk ez dauka, baina ongi moldatzen da, airez batik bat. Fernandok ez dauka Rubenen kolpea, baina beste errekurtso batzuk ditu. Ez naiz ausartzen defentsa onena daukala esaten, bain hor nonbait ibiliko da. Onena, hala ere, partidu handietan hazi egiten dela da. Hori ikusita, Rubenek dominatu beharko luke piloteoan, baina Fernandok hasieran asmatu eta Ruben urduri samar jarriko balitz, gauzak alda daitezke. Ez da erraza. Buruz buru jokatzen duzunean, zeure burua ongi ikusi behar duzu, hasierako pilotazoak jo eta gozatzea gauza ederra izaten da. Zeure burua ondo ikusita, errazago botatzen dituzu dejadak eta gainerakoak. Beloki danba eta danba hasten bada, goiko losa jo eta jo hasten bada, oso zaila izango da hari irabaztea.

Euskal Herriko buruz buruko finala Atano III.ean gaur (17:45)

Ruben Beloki Iribarren

«Arretxe bezalakoak, arriskutsuak dira partidu bakarrera»

Nongoa: Burlata (Nafarroa)
24 urte
80 kilo
1,85 metro
Atzelaria
Zinema eta mendia
1992ko abuztuaren 21ean
Donostiako Anoetan
Asegarce
Reur
Mikel Unanue

Palmaresa:

- Buruz buruko txapelduna (95 eta 98)
- Espainiako eskuz binakako txapelduna (96)
- Bigarren mailako buruz buruko txapelduna (93)
- Euskadiko eskuz binakako txapelduna (95)
- Espainiako eskuz binakako txapeldunordea (94)
- Txapeldun Olinpikoa (92)

burukoan palmaresa estreinatzeko faboritoa da gaur, Ruben Beloki. Ongi ezagutzen du Arretxe, ordea, eta badaki azeri zaharra dela.

■ **Buruz buru lau aldiz jokatu duzue elkarren kontra eta binaka auskalo zenbaitetan. Ez dago sekretu handirik zu eta Arretxeren artean.**

Egia da. Hor goian txaperrean hazi egiten da, eta kontuan hartu behar da. Arretxe bezalako jendea oso arriskutsua da partidu bakarrera.

■ **Ez duzu, beraz, dioten bezain baxu ikusten.**

Ez, ez. Txapelketa hasieran, gainera, berarekin entrenatu nintzen, eta Fernando ondo dago.

■ **Nolakoak dira zuen arteko partiduak?**

Oso azkarrak dira Arretxeren jokoa hori delako, eta niri gustatu egiten zaidalako haren jokoan sartzea.

■ **Arretxek ezker esku hori bete-betean ez izateak asko baldintzatuko du partidua?**

Irtetea erabaki badu, ziur nago baldintza onetan dagoelako egin duela. Profesional peto-petoa da Arretxe, eta berak nahi adina entrenatzeko aukerarik izan ez duen arren, bete-betean egongo da finalean.

■ **Euskal Herriko txapela dago jokoan, baina Asegarce-Altiko pilotarion artean soilik.**

Niri jokatzen uzten didaten txapelketa bakarra da, eta niretzat garrantzitsuena. Euskal Herriko txapelketa honetan, buruz buruko bi txapeldunek jokatuko dugu finala, eta hori txapelketari maila handia ematea da. Txapelketa hau, gainera, ofiziala da begiratzen zaion lekutik begiratuta ere. Asperena, aldiz, enpresako txapelketa bat da.

«Belo… beh…

…do Arretxe …ondo

…: Luzaide (Nafarroa)
… 37 urte
…a: 80 kilo
…aiera: 1,80 metro
…ostua: Atzelaria
…Afizioak: Ehiza
… Debuta: 1981eko urriaren 22an Iruñeko Labriten
… Egungo enpresa: Asegarce
…Aurrekoa: Reur
…otilleroa: Martin Alustiza

…sa:

- …xapelduna (94 eta 97)
- …uz binakako txapelduna (90, 91 eta 94)
- …pelduna (96)
- …ko buruz buruko txapelduna (86)
- Buruz buruko txapeldunordea (96)
- Espainiako eskuz binakako txapeldunordea (89, 93 eta 96)
- Euskadiko eskuz binakako txapeldunordea (96)

EZ da erraza i… astean zehar a… inguruan izand… eta buruhauste… bete-betean pa… nahi du Arretxe…

■ **Zenbaiti txap… tekabe nagu… ruan galde… erantzuten… nando Arret… xu ikustea».**

Bai, litekeen… maila apala iza… guztiz ere, Nag… tan gelditu zen… Urtero esaten d… bera. Ariznaba… tra, Armendar… beste urteetan … partidu onak eg… ten, baina 8 edo 9 tantotan gelditzen dira. Ez da beraz partidu handirik ikusten, baina tanto gutxi egin izan dizkidate.

■ **Zuk zeuk ongi ikusi ze…** jartzea baino gehiago. Abiadura handia ematea gustatzen zaigu, eta orduan iristen da norbaiten hutsa.

■ **Beloki nahasten saiatu beharko duzu.**

Egia da zenbait partidutan halako bolada ikaragarri batzuk izaten dituela eta, hurrena, berriz, bolada txarrak. Bolada txar hori behartu beharko dut nik.

Mendi magalean

Kirola, natura eta abertzaletasunaren ospakizun festa bihar Elgetan

Euskal Mendi Federakundeak 75 urte bete ditu; igandean festa egun berezia egingo da Euskal Herri osoko mendizaleentzat

Andoni Urbistondo / **Donostia**

EUSKAL MENDIZALE FEDERAKUNDEAK (EMF) 75 urte bete ditu. 1920ko hamarkadan ernaldu eta 1924an sortu zen Elgetan (Gipuzkoa). Euskal Herriko federakunde zaharrena da EMF, mendizaletasunaren praktikak gure artean duen garrantziaren isla.

Une ezin hobean dator Elgetako festa hau. Juanito Oiarzabalen lorpenaren oihartzuna bete-betean hedatzen ari denean, Euskal Herri osoko mendizaleen batasuna eta elkartasuna inoiz baino sendoagoa den unean.

«Goazen mendirik mendi» ekimenaren bukaera

75 urte historian aukera bakarrean betetzen dira, eta data berezi hori duela hilabete batzuk sortu eta abiatuko ekimen batekin hasiko da Asentzio ermitan, Elgetatik hurbil: «Goazen mendirik mendi» ekimenarekin.

Iruñeko Oberena mendi taldeko kideek proposatu zuten ideia Nafarroako taldeen bilera batean. Makila batzuen trukaketaren bitartez (mendizalearen lagun mina), Euskal Herriko mendi elkarteen arteko harremana sendotzea zen xedea. Prozesua erraza izan da. Mendi talde bi gailur batean bildu eta makila eskuz aldatu dute igandeetan, senide arteko giro atseginean.

Frankotan jai giro alaian amaitu da trukaketa hau, tartean bazkari legea eginda, nola ez. Makila jaso duen taldeak astebetean gorde du, zazpi egunen buruan beste mendi talde bati emateko.

Makilak (hurritz makilak) taila alegoriko bereziekin hornitu ditu Mikel San Roman eskultore nafarrak, herrialde bakoitzaren ezaugarri ezagun batekin. Nafarroako makilan kateak jarri ditu, esaterako.

Iazko abenduaren 20an elkartu ziren, bost makilen lehen errelebua egiteko, bost mendi taldetako ordezkariak, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Iparraldeko Mendizale Federakundeetako arduradunekin batera. Aralarko San Migel santutegian elkartu ziren. Neguak ez zien ongietorri samurra egin ilusioz bertaratutakoei. Elurra, bisutsa, aterpetik askorik ez urruntzeko moduko eguraldi traketsa, alegia.

> Abenduaren 20an, makilen lehen errelebua egiteko, 5 mendi talde elkartu ziren Aralarko San Migel santutegian

Santutegiko kaperau Don Inozentziok bedeinkatu zuen bost makilen ibilera, «bidaia ona egin» hitzekin. Elurra zapalduz egin zituzten lehen metroak, bost hilabete beranduago bost makilak berriro Elgetako egun handian elkartzeko xedearekin.

Urtarrilaren 24an egin zen lehenengo makila aldaketa. Oberenak eta Gipuzkoako Uzturrek Nafarroan zuten hitzordua, Bardeetan. Eibarko Deportibo taldeak Iparraldeko Seaskarekin Uzturren (Gipuzkoa); Uztaritzeko Xogorrik eta Irrintzi nafarrak Mondarrain gailurrean (Lapurdi); Peña Karriak (Gasteiz) Makusi taldeari Euskal Herriko hegoaldeko muturrean, Nafarroan, Ioar

1924ko maiatzak 18: biharko eguna duela 75 urte Elgetako plazan

1924KO maiatzak 18, Elgetako plaza: Euskal Mendi Federakundea jaio zen eguna. Euskal Herriko hainbat herritan ekintza historiko horren berri ematen zuten oharrak jarri ziren, jendea Elgetara biltzeko eskaerarekin: «Elgetara, Elgetara. Oinez, trenean, edo ahal den moduan», zioten ohar horiek.

Goizeko lehen orduetatik jendea pilatzen hasi zen *Mendizaleen enparantzan*. Bizkaikoak Elorriotik, Gipuzkoakoak Ubera auzoko aldatsetan gora, arabarrak Aramaio eta Leintzetik...

Batzuk oinez, asko bizikletan, besteak Elgetako aldatsak igotzean ezinean gelditutako motorrari bultzaka eta beste batzuk trenean. Bilbotik Elorrioraino bi tren berezi antolatu zituzten. Orotara 4.000 mendizale.

Gehientsuenak txapel eta traje ilunarekin, alkandora txuri dotorea jantzita azpitik. Elgetako Udaleko Batzarren gelan bilduak ziren Federakundea sortzeko ardura zutenak. Bilkura amaituta, Antxon Bandresek udaletxeko leihoak ireki eta bere aurrean zituenei EMFren sorreraren berri eman zien.

1926ko maiatzaren 30ean berriro elkartu zen EMF. 69 taldek osatzen zuten ordurako erakundea, eta 1.935 lagun ziren federatuak. Elkartasun giroa aparta zen, garaiko kroniketan jasotzen denez.

Elkartasun giro hori, ostera, guztiz zapuztu zen 1937 urtean, Espainiako Gerra Zibilean Elgetako Mendizaleen plazari *Espainiako plaza* izena jarri baitzioten.

1978ko abuztuaren 1ean berreskuratu zuen Elgetako plazak bere jatorrizko izena. Egun hiru plaka ikus daitezke enparantza horretan: bere izena daramana, urrezko ezteiak gogoratzen dituena, eta 1924an erakundea sortu zelako berri ematen duena.

Argazki handian, 1974an. Eserita, I

Mendi magalean

en

ANTXON ITURRIZA / EMF

Argazki handian, makilen lehen errelebua, San Migel santutegian. Argazki txikian, EMFren urrezko ezteiak 1974an. Eserita, Ferrer. Shebe Peña, Acito Lopez. Zutik, J. A. Odriozola, Espainiako Federakundeko presidentea.

Asteburuko egitaraua

Larunbata, 22:

15:00etatik 19:00etara: Eskalada praktika irekia haur, gazte eta helduentzat, Euskal Mendizale Federakuntzako monitoreen laguntzaz. Udal pilotalekuko rokodromoan (kanpoko horman).

22:30etan: *Euskal Mendizale Federakuntzaren historia* bideoaren emanaldia, Cristobal Burgosen eskutik. herriko udal pilotalekuan.

23:00etan: Oskorri and the Pub Ibiltaria kontzertua, udal pilotalekuan.

Erakusketa: Argazkiak, bideoak eta mendi materiala herri eskolan. Larunbatean, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Igandean, egun osoa zabalik.

Igandea 23:

11:30etan: Asentzioko ermitan, Meza eta mendizale zutabeen elkartzea.

12:15etan: Asentzioko ermitatik Elgetaraino jaitsiera, trikitilarien laguntzarekin.

13:00etan: Ekitaldi ofiziala Mendizaleen Plazan. Plaka oroigarriaren inaugurazioa. Dantzariak (Elgoibarko Haritz eta Elgetako musika taldeak), txistulariak (Elgoibarko Udalako txistulari taldea), bertsolariak (Sebastian Lizaso, A. Egaña eta A. Agirreazaldegi), abesbatza (Elgetako Ozkarbi) eta trikitilariak (Ermu eta Mallabiko Oihane eta Eneritz).

14:30:etan: Bazkaria, udal pilotalekuan.

17:00etatik 20:00etara: Maixa eta Ixiar taldearen kontzertua, Mendizaleen Plazan.

22:00etan, Gaztetxeak antolatuta, Ines eta Naihara bikotearen kontzertua, Gaztetxean bertan.

Egun osoan, kale animazioa, Elgetako trikitilariekin, Ermuko txistulariekin eta Arrasateko gaiteroekin.

erpin arkaiztsuan eguraldi traketsa gaindituz...

EMFk 75 urte betetzen dituela-eta, «goazen mendirik mendi» ekimena beste hainbeste gailurretan egin da, Euskal Herriko 75 mendi ezagunenetan.

Lau mendizale zutabe Asentzio ermitarantz

Elgetako Asentzio ermitan dute hitzordua azken bost makilak eramango dituzten ordezkariek. 11:30etan iritsiko dira, bata bestearen atzetik, 75. urteurreneko une hunkigarrienetakoa bizitzeko. Arabako zutabea Kanpazar mendatetik abiatuko da. Arabako Gurutz Urdina eta Arrasateko Besaide mendi taldekoek egingo dituzte azken kilometroak. Iparraldeko eta Nafarroako zutabea Bergaratik abiatuko da, Oberena, Xogorri eta Pol-Pol mendi taldeetako kideekin. Gipuzkoarren zutabea Eibartik irtengo da, Urkizu parketik. Zutabe honen gidariak, nola ez, Eibarko Deportibo taldeko mendizaleak. Azken zutabea, bizkaitarrena, Elorriotik aterako da. Bilboko Alpino eta Elorrioko Erdella mendi taldeek eramango dute Bizkaiko makila. Guztiak elkartu ostean, Elgetara jaitsiko dira, euskal mendizaletasunaren sustraiak errotu ziren herriko plazara.

> Mendizaleen arteko harremana, naturarekiko errespetua eta abertzaletasuna elkartuko dira bihar Elgetako festan

Bost hilabeteko bidaian, mendizaleen arteko harremana sendotzeaz gain, mendizaletasunaren naturarekiko errespetua eta aberriarekiko lotura trinkoa gogoratuko dira.

Euskal Mendi Federakundean lanean jardundakoek 75 urte hauetako historiaren pasadizo esanguratsuenak gogoratuko dituzte, labur. Haien artean, Angel Sopeña bilbotarrak Fraidearen ertzera egin eskalada, Euskal Herrian egin zen lehena, EMF sortu baino bi hilabete eskas lehenago. Edo 1926an EMFko Antxon Bandres presidenteak, Enrike Uriarte eta Adolfo Salcedorekin, Mont Blanc igo zueneko eguna.

40 urte geroago (1967) Andeetako lehen gailurrak; 79an Himalayako lehen zortzimilakoa (Dhaulagiri). Handik urtebetera Everest erraldoia, duela aste batzuk Juanito Oiarzabalen 14 zortzimilakoak. Joan den astean Josune Bereziartuaren bigarren *8c* bidea... Balentria anitz tarte txikian.

Pako Iriondo

• EUSKAL MENDIZALE FEDERAKUNTZAKO PRESIDENTEA •

«Mendizaletasuna eta abertzaletasuna eskutik doaz Euskal Herrian»

■■■ Pako Iriondo pozik da, igandean Euskal Herri osoko mendizaleak Elgetan egongo direlako. ■■■ Azken 25 urteetan, euskal mendizaletasuna *mapatik kanpo* egotetik mundu osoan ezaguna izatera aldatu dela diosku. ■■■ Euskal mendizaletasunaren egoera, «sendoa da, 19.000 federatu gara». ■■■ Hala ere, etorkizunari begira gazteenen artean «galdu den mendizaletasunaren ilusioa berreskuratzeko» lan gogorra egin behar dela dio.

JAGOBA MANTEROLA

17 URTE egin ditu Pako Iriondok Euskal Mendizale Federakuntzaren gidaritzan. Erakunde horren 50. urteurrena gogoratzen jardun du egunotan, baina ilusio handiagoarekin dago igandeko ospakizuna heldu zain.

■ Urtebetetze garrantzitsua da igandekoa.

Bai, noski. 75. urtebetetzea garrantzitsua da, are gehiago euskal mendizaletasunak egun duen egoera aintzat hartuta. Juanito Oiarzabalen lorpenarekin hasita, eskaladan, Alpeetan, Andeetan edota Pirinioetan gure mendizaletasunaren maila altua da, abanikoa handia da.

Igandeko ospakizuna prestatzeko lan handia egin dugu. Izan ere, herriari merezi duena ematea izan da gure asmoa Elgetako festari begira, egun historikoa izango dela pentsatzen dugulako.

■ «Goazen mendirik mendi» ekimenaren amaierarekin hasiko da ospakizuna. Euskal Herri osoko mendizaleak elkartzen diren unea hunkigarria izango da oso.

Oso polita izango da. Ni asko pozten naiz, batik bat Iparraldeko jendea ere Elgetan egongo delako. Ahalegin handia egin dugu haiek etortzeko. Haiekin dugun harremana, dena den, ona da. Iparraldeko ordezkari bat gure direktiban dago, eta EMFko hurrengo orientazio ikastaroa eurek antolatuko dute.

75. urteurrena

«Arreta handiarekin prestatu dugu igandeko festa. Herriari merezi duena ematea izan da gure asmoa, Elgetakoa egun historikoa izango dela pentsatzen dugulako»

■ Mendizaletasuna eta abertzaletasuna elkartuko dira igandean.

Hala izan da beti. Mendizaletasuna abertzale mailako aktibitatea da Euskal Herrian. Ni gaztea nintzenean hala zen eta egun ere hala da.

■ 1974an, EMFak urrezko ezteiak ospatu zituen, Elgetan baita ere, zu presidente zinela. Zertan aldatu da 25 urteotan Euskal Herriko mendizaletasuna?

Izugarri. Duela 25 urte, euskal mendizaletasuna arras ezezaguna zen gure mugetatik haratago. *Tximist 74* espedizioa egin zenean, inork ez gintuen ezagutzen, *mapatik kanpo* ginen. Gaur, ostera, euskal mendizaletasuna ezaguna da munduan, komunikabideetan isla handia dauka, eta errespetu handia digute. Hori esanguratsua da, bai mendizalearentzat, bai EMFrentzat, baita Euskal Herri guztiarentzat.

Bestalde, material mailan, prestakuntzan, aklimatazioan eta beste hainbat alorretan aldaketa itzela da.

■ 75 urte betetzeak euskal mendizaletasuna oso sendoa dela erakusten du.

Bai, zalantzarik ez. Espainian gu gara federatu gehien duena (19.000 inguru), alde handiarekin; euskal txartelaren sendotzea gero eta nabariagoa da (%50ek dute gutxi gorabehera). Urteak aurrera egin ahala, gainera, kopuru hori gero eta handiagoa izango dela uste dut. Horrezaz gain, gero eta aterpe gehiago dira beherapena egiten dutenak, eta gu Frantziako Mendi Federakuntzak euskal txartela onartzeko gestioak egiten ari gara.

Mendiko aldizkari onenetako bat ere (*Pyrenaica*) Euskal Herrian egiten dugu, mendi talde gehienak Euskal Herrian daude. Izan ditugun arazo txikiak elkarrizketaren bitartez konpontzea lortu dugu...Zer gehiago eska daiteke?

■ Zein dira EMFren erronkak etorkizunerako?

Umeekin, gazteenekin lan egitea. Hori da gure arazoa. Gatzetxoenen artean mendizaletasunaren mailak behera egin du, dezente gainera. Mendi taldeek mendizaletasuna gustuko duten gazteak bilatzeko arazoak dituzte, eta gu hutsune hau konpontzeko asmoz ikerketa batzuk egiten aritu gara azken urteetan. 14 eta 20 urte arteko gazteekin Pirinioetara txangoak eta antolatzen hasi ginen, eta hor jende gehiena joan-etorria doan zelako joaten zela ikusi genuen.

Ondorioz, 8-10 mutileko taldeak bekekin laguntzen hasi gara. 15-21 urte arteko gazteak dira, eta mendiko heziketa ematea da gure xedea, eliteko mendizaleak sortzeko, alegia. Ezin da dirua inbertitu mendizaletasuna ez duenarekin. Jendeari mendiarekin gozatu behar duela irakatsi nahi izan diogu ekimen honekin.

Bestalde, Euskal Herriko mendiak gehiago bisitatzeko eskaera ere egingo nuke, mendi ederrak baitaude hemen. Pirinioetara, Alpeetara eta Andeetara joateko joera nabariegia da.

Andoni Urbistondo
DONOSTIA

Mendi magalean

bidaide, gogaide



Sakanako *meietzak*

Hiruhaitz, bere izenak adierazten duen bezala, hiru haitz elkartzen diren lekua da. Urbasako mendilerroaren ipar-gailurrerian daude. Bakaiku herri politaren gain-gainean hain zuzen ere

Meietzak direlakoak bai Bakaikun bai Etxarri-Aranatzen jartzen dituzte, eta larrea mendilerroko goiko aldera iristea sinbolizatzen dute. Urtero, maiatzaren lean, bi herriotako gazteek beren *meietza* jartzen dute. Inguruetako pago garaienetako bat izan behar du, eta jarri ondoren, tradizioaren arabera, maiatzeko azken egunean ebaki behar da.

Bakaiku Urbasako mendilerroko ipar-gailurreriaren azpian dago, eta Sakanako ibarreko herrietako bat da.

0,0 or. **(510 metro)** - *Plaza.* Herriko plazan, ezkerreko kaletik jarraituko dugu (iturriaren aurreaurrean), hegoaldeko norabidean, herriaren kanpoalderantz. Gutxira iturri-garbitegi polit eta ondo zaindutako baten ondotik igaroko gara. Kaletik jarraituta, ezkerrera, hartxintxarrezko pista batekin elkartzen da.

(7') bidegurutze bat topatuko dugu; eskuineko pistatik jarraituko dugu hegoaldeko norabidean. Aurrean Bakaikuko *meietza* eta Hiruaitzeko haitzak ikusten hasiko gara.

10' **(570 metro)** *Burdinazko portalanga* - Bordak - Bidegurutzea. Eskuinetik jarraituko dugu borda baten ondotik igarotzeko. Beste bidegurutze batera iritsiko gara, eta kasu honetan goiko bidetik jarraituko dugu (ezk.). Hortik ezin hobeto ikusten dira *meietza* eta Hiruaitz.

(18') Ezkerretik bide bat hartuko dugu, eta burdinazko portalanga bat igaro ondoren, **pagadi** batean sartu.

MIKEL NAZABAL

Bakaiku meietza. Azpian, Sakanako herriak.

26' **(735 metro)** *Bidegurutzea.* Aurrerantz igotzen jarraituko dugu. Bi minutu geroago ezkerretik beste bide bat hartuko dugu. Aldapa handia da, baina merezi du, *meietza* eta Hiruaitz oso ondo eta gertutik ikusiko ditugulako. Ordeka txiki batera iritsiko gara, eta xenda batetik jarraituko dugu mendebaldeko norabidean. Hala, berriz ere hurbilduko gara pistara *(36')*.

Pista handik gutxira xenda bihurtzen da. Lau minutu geroago, burdinazko portalanga zahar batera iritsiko gara. Aurrerantzean, gailurreriara iritsi arte, xenda alanbrezko itxitura baten ondotik doa aurrera (esk.).

56' **(1.070 m.)** *Oineta - Gailurreria.* Alanbrezko itxituraren beste aldera igaroko gara; xendatik (ezk.) jarraituko dugu, zuhaiztirantz. Zuhaiztitik atera bezain laster, Bakaikuko *meietza* izango dugu aurrez aurre. Gailurrerantz jarraituko dugu, han baitago kokatuta *(1 or. 10')*.

Gailurreriatik ibiltzen jarraituko dugu ekialderantz, belar freskoko inguru batetik. Erraz asko antzematen da ganaduak Idoitxar eta Maizakobaltzako putzu hurbiletara egiten dituen joan-etorrietan utzitako arrastoa. Bidexka horretatik poliki-poliki igotzen joango gara *(1 or. 18')*. **(1.183 metro)**. **Maiza** *(erpin geodesikoa).*

Urbasako mendilerroko ipar-gailurreriako lekurik garaienean gaude. Ikuspegiak, zer esanik ez, oso ederra izaten jarraitzen du. Gailurreriatik jaisten jarraituko dugu ekialdeko norabidean alanbrezko itxituraren ondotik (ezk.), eta horrela Artzabalera iritsiko gara *(1 or. 30')*. Etxarri-Aranazkoek leku horretan jartzen dute *meietza.* Garaia eta soila da eta, nola ez, ikurrina jarrita izaten du.

Betiere ekialdeko norabidean, eta jaitsi ahala, bi trikuharri aurkituko ditugu: Etxarriko Portugainekoa aurrena, eta Etxarriko Portugain Sortaldekoa ondoren.

1 or. 41' **(1.030 metro)** - *Etxarriko Portugain.* Burdinazko portalanga gurutzatuko dugu, eta gurdibide eder batetik jarraitu.

(1 or. 50') Bi bide aurkituko ditugu, bata bestearen atzetik (esk.); biak ere Etxarrira doaz. Guk aurrera jarraituko dugu, Bakaikura iristeko.

Bidea oraindik ere zuhaizti batetik iragaten da (pagoak), eta, gure kasuan, halako batean eroritako zuhaitz baten gainetik salto egin behar izan dugu; ziur aski, negu honetako haizeek edo elurte ugariek bota dute.

2 or. 11' **(680 metro)** - *Alanbrezko itxitura - Bidegurutzea.* Alanbrezko itxitura gurutzatu ondoren, eta ezkerreko bideari kasurik egin gabe, aurretik jaisten jarraituko dugu hartxintxarrezko pista on batetik. Pista horrek Bakaikura hurbilduko gaitu. Horregatik, berriz ere *meietza* eta Hiruaitz ikusten hasiko gara. Buelta osoa eman diogu. Burdinazko portalanga bat igaroko dugu *(2 or. 39')*.

2 or. 24' **(570 metro)** - *Burdinazko portalanga* igaroko dugu.

2 or. 32' **(510 metro)** - *Iturria.* Herri txiki honetan amaiera emango diogu ibilbide eder honi. *Meietza*ren aspaldiko tradizioa eta, urtez urte, iraunarazten duten guztiak gogorarazi nahi ditugu bereziki azken lerro honekin.

Mikel Nazabal

zangoak txango

ibilaldiak ▸ maiatzak 22-23

Gasteiz *(Geu Gasteiz)* • Aumategi (1.191 m.), Mugarriluze (1.109 m.). Informazioa: 945 28 23 16.
Lizarra *(Lizarra MT)* • Aneto-Posets.
Arrasate *(Besaide MT)* • EMFren 75. urteurren festaren barne, Kanpazar-Intxorta-Elgeta.
Gasteiz *(Manuel Iradier)* • Mairulegorreta lezeta eta Cordel mendizerra (Kantabria).
Gasteiz *(Goiena MT)* • Sobron, Mota, Cueto (1.345 m.).
Iruñea *(Nafarroa ME* • Urkiola-Anboto eta EMFren urteurren festa Elgetan.
Galdakao *(Ganguren MT)* • Turtzioz Ampuero.
Antigua-Donostia *(Antiguako ME)* • Kanpezu, Kostalera, Kanpezu.
Baztan *(Baztango MT)* • Dolmenen ibilaldia.
Ermua *(Artarrai MT)* • Anboto.
Bilbo *(Egunsentia MT)* • Intxorta, EMFren urteurrena.
Gasteiz *(Peña Karria MT)* • Gasteiz Kripan.
Maule *(Bortükariak MT)* • Larunbatean Txindoki. Igandean, EMFren urteurren festa.
Ibarra *(Hauspoa)* • Izaskun auzoa.
Azpeitia *(Lagun-Onak MB)* • Txalintxo.
Basauri *(Baskonia)* • Ireber (1.202 m.) Arrarats.

ibilaldiak ▸ maiatzak 29-30

Bilbo *(AEK)* • Otsagira zeharkaldia. Oinez edo mendi bizikletaz. 94 415 24 24.
Uribe-Kosta *(AEK)* • *Mendian Gora Euskaraz* ekimenearen barne, Txindokira irteera.
Iruñea *(Nafarroa KE)* • IV. Haur Ibilaldia Urbasara. Legunbe gailurra (1.127 metro).
Azpeitia *(Lagun-Onak MB)* • Xoxoteko eguna. Irteera 9tan. 12:00tan Meza Nagusia. Egun guztian erromeria.
Donostia *(Mendiak eta herriak)* • Mendiko eskia Balaitousen, Neous glaziarrean barrena.
Zarautz *(Pagoeta ME)* • Izarraitz.
Donostia *(CVC)* • Pikatua, Abodi (1.537 m.), Muskilda, Otsagi zeharkaldia.
Billabona *(Aizkardi)* • Orhi (2.017 m.).
Bilbo *(Egunsentia)* • Elorritxugana (721 m.).
Hernani *(Mendiriz mendi)* • Pala de Ip (2.783 m.).
Urretxu *(Goierri KE)* • Sierra de la Demanda.
Galdakao *(Ganguren MT)* • Hiru Gurutzeetako ibilaldia.
Tolosa *(Alpino Uzturre)* • Lezeko kobazuloa Araia zeharkaldia, Olano eta Aratz gailurrak (1.442 metro.) igota.

ikastaroak ▸ maiatzak 22-23

Gasteiz *(Arabako Goi Mendi eskola)* • Haitz Eskalada Ikastaroa. Izen ematea Europa Gizarte Etxean.

maiatzak 21-22-23

Donostia *(Mendiak eta herriak)* • Igoera eta Segurtasuna eskaladan. Hobekuntza. Taillongo Ipar Horman eta Gabietous-ko Mendebaldeko Horman.

maiatzak 29-30

Donostia *(Mendiak eta herriak)* • Eskalada klasiko baterako prestaketak. Igoera eta Ziurtasuna. *Couloir Swan.* Informazioa: 948 51 32 33.

ekainak 5-6

Donostia *(Gipuzkoako Goi-Mendi Eskola)* • Hastapena eta Segurtasuna Haitz alpinismoan. Midi D'Ossau mendian. Informazioa: 943 46 14 40.

emanaldiak ▸ maiatzak 29-30

Azpeitia *(Lagun-Onak MB)* • Mendi Astearen barnean, 3 emanaldi. Maiatzak 26, asteazkena, 20:30etan, *Dhaulagiri,* Manuel Peñalvarekin. Ostegunean, ordu berean, Paineko Dorreak, Antxon eta Gaizka bidea Antxon Areizagarekin. Bi emanaldiok Antxieta etxean. Maiatzak 28 ostiralean, *Agur Everest* emanaldia. Lehen euskal espedizioa Everestera Azpeitiko zine klub taldearekin. Soreasu zineman arratseko 9tan. Ondoren, solasaldia.

DONOSTIAKO ARKITEKTURA ESKOLAKO IKASLEAK EHUN ERAIKIN IKERTZEN ARI DIRA

Baserrien arkitektura sakonki aztertzeko ikerketa bat hasi dute

- Azterketa Europan aitzindaria da, ez baita inoiz egin mota horretako etxebizitzen inguruan
- Alberto Santana UNEDeko irakasle eta euskal baserriaren historian aditua da gidaria
- Besteak beste, ikasleentzat prestakuntza areagotzea eta datu basea sortzea dira ikerketaren xedeak

Garbiñe Olaizola / **Donostia**

EUSKAL HERRIAN barrena hedaturik dauden baserrien arkitektura ezezaguna bezain aberatsa da. Guztia egiaztatzeko Donostiako Arkitektura Eskolako irakasle eta ikasleak orain arte inoiz egin ez den ikerketa sakona egiten ari dira.

Euskal Herriko ehun baserri inguru aztertzen ari dira Donostiako Arkitektura Eskolako ikasleak eta irakasleak, arkitektura alorrean inoiz egin ez den ikerketa sakona, hain zuzen. Alberto Santana da ikerketaren gidaria, UNEDeko irakasle eta euskal baserriaren historian aditua bera; eta haren ondoan Jose Luis Loinaz, Alberto Zulueta, Juan Angel Larrañaga eta Javier Zernikazelaia, Donostiako Arkitektura Eskolako irakasleak ari dira lanean.

Azterketa aitzindaria da Europan, ez baita inoiz mota honetako etxebizitzen ikerketarik egin. Egin dira, hala ere, baserrien bestelako azterketak, baina folkloreare n eta etnografiaren ikuspuntutik gehienbat. Oraingoan, ordea, Alberto Santana historialariak egindako ikerlanaren osagarri bezala, analisi zientifikoa egin nahi dute.

Santanak hamar urtetan baserriari buruz egindako lanetan oinarritu dira, eta une honetan laugarren mailako ehun bat ikasle, taldetan banaturik, baserrietan datuak jasotzen ari dira. Aurretik ikerketako kideek ikastaroak egin dituzte. Datuak jaso ahala bakoitzak fitxak eta planoak egingo ditu. Dokumentazio grafikoa ere erantsiko zaio proiektuari.

Euskal Gobernuaren dirulaguntza jaso duen ikerketa honek, eta xedea da ikasleentzat prestakuntza areagotzea eta datu basea sortzea, besteak beste. «Bi erabilpen nabarmen izango dituzte jasotako datuek. Batetik, ikasteko dokumentu erabilgarria izango da, eta bestetik, herrietan eskuratu ahal izango dute», adierazi du Alberto Santanak. Etorkizunari begira, baliteke liburu bat argitaratzea edota erakusketa bat antolatzea ere.

Zehazki, Euskal Herriaren eremu atlantikoa biltzen du, Zuberoan ez baitago baserririk; «herrialde horretan Pirineoko kutsua duten etxe motak daude», argitu du.

ENRIQUE TRUCHUELO

Ezkio-Itsasoko Igartubeiti baserriaren arkitektura ere ikertuko dute.

Etxebizitza mota nagusia

Modu horretan, bailara guztietako baserriak bisitatzen ari dira leku bakoitzeko mota eta ezaugarriak jasotzeko; izan ere, erabilpen aldetik baserri guztiak ez dira berdinak. «Besteak beste, Bizkaian mendiarekin lotzen dira, Goierrikoak sagardoarekin eta Deba Goienekoak harrobiekin», esan du arkitektoak adibide gisa. Badituzte, halaber, aldaera historikoak.

Santanak azpimarratu duenez, baserria Euskal Herriko etxe mota nagusia da, baina baditu bere aldaerak. «Euskal Herria atlantikoa identifikatzen du. Euskal etxebizitzen familia handia dela esan genezake, baina ez bakarra», gaineratu du.

Azken bost mendeetan baserria izan da euskaldunen bizileku, eta lan ugari egiteko erabili izan da. «Etxebizitzaz gain, biltegia, ukuilua eta lantegia ere biltzen zituen bere barnean baserriak, eta, horregatik, desberdina da Europako beste etxee aldean», argitu du ikerketaren buruak.

Halaber, Santanaren ustez, herriko arkitekturaren muina da; izan ere, 42.000 baserri daude, eta beste eraikin mota batzuk askoz gutxiago daude: hiru mila eliz eta bostehun dorretxe, adibidez. Gainera, baserrien %90ek ehun urte baino gehiago dituzte. Altxor preziatuak badira ere, jabeek, arrazoi ugari direla medio, ez dituzte behar bezala zaindu.

Ikerlariek datuen bilketa urtea amaitu baino lehen bukatzea espero dute, eta ondoren informatizazio prozesuari ekingo diote.

Euskal Herriko «haranetako erregea»

ALBERTO SANTANA arkitektoak esan du baserria Euskal Herriko «haranetako erregea» dela. Duela 500 urte sortu ziren lehenengoak, aurretik ez baitzegoen mota horretako eraikinik. Beraz, baserriek laurehun urteko iraupena dute. Indarrarekin sortu ziren, eta arkitektura mota heldua eta kalitate handikoa dela esan daiteke, Europa osoan ezagutzen ez zena, alegia.

Ikerketaren lehenego atalean jasotako datuek argitzen dutenez, ez da bere kasa sortutako eraikina, ondo ikasitakoa baizik, hau da, herriko profesionalek egina izaten zen, teknika aurreratuak jartzen zituztenak, hain zuzen ere.

Azken mendetik hona ez da baserririk eraiki, antzeko eraikinak bai, baina baserrirk ez. «Mende honetan baserriak berregin dira edota granja industrialak eraiki dira, hau da, neo-baserriak egin dira», azaldu du Santanak.

Bitxikeria modura, esan daiteke baserriak, inon ezagutzen ez den modura, bakoitzak bere izena duela, eta horrek ikerketa erraztu egin du, baserriaren biografia jarraitzea uzten baitu.

Hala ere, oso azkar galtzen ari den «altxorra» da. Ideia bat egiteko, Gipuzkoan urtean hamar baserri galtzen dira arrazoi naturalengatik. Beste kasu batzuetan, obrak direla- eta pixkanaka deuseztatzen dira. Santanak baserriak hirietako etxebizitzak baino etorkizun handiago duela uste du, «baina bere izaera propioarekin tratatu behar da».

«Sortzaile anonimoak edozein arlotan badirela gogorarazi nahi dugu»

Eskifaia abesbatzak Joaquin Pildainen omenezko programa emango du gaur

Joxi Ubeda / **Donostia**

Eskifaia abesbatzak, Migel Zeberiok zuzenduta, *Joaquin Pildain gogoratuz* kontzertua emango du gaur goizeko 11:00etan Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren egoitzan, Miramongo Eguarteak egitarauaren barruan. Antton Valverde eta Imanol Lartzabal kantariak ariko dira saioko hirugarren zatian.

GARI GARAIALDE

Eskifaia abesbatzako kideak, Migel Zeberioren zuzendaritzapean, gaurko kontzertua prestatzeko entsegu batean.

HONDARRIBIKO Eskifaia abesbatzak *Joaquin Pildain gogoratuz* programa emango du gaur, hiru zatitan banatuta. Lehenengo zatian, XV. eta XVI. mendeetako musika interpretatuko dute: Joaquin Pildainen lagun Samuel Rubio musikologo madrildarrak transkribatutako hainbat pieza.

Bigarren zatian, berriz, Pildainen solfeo metodoko hainbat pieza entzun ahal izango dira. «Lezio batzuk egingo ditugu abesbatzarekin, eta hori ezohizkoa da kontzertu batean. Pieza horiek izugarri politak dira, goi mailako kalitatea dute, eta, melodiak sinpleak izan arren, akonpainamenduak aberatsak dira», Migel Zeberio zuzendariaren esanetan.

Joaquin Pildain gogoratuz egitarauko hirugarren zatian, Xabier Lizardi, Antonio Machado, Juan Ramon Jimenez eta beste hainbaten poematan oinarritutako piezak entzungo dira, Pildainek erabili zituen hainbat testu, hain zuzen, eta Antton Valverdek eta Imanol Lartzabalek errezitatu eta kantatuko dituzte haietako poema batzuk.

Eragina kulturan

Joaquin Pildain konpositorea 1927an jaio zen, Tolosan (Gipuzkoa), eta 1996an zendu zen. Madrilgo Kontserbatorioko katedratikoa izan zen. «Sorreratik erabat inplikatu zen Tolosako Lehiaketan. Talde antolatzaileko kide izateaz gain, bere inguruko konpositoreak saltsan jarri zituen». Esaterako, programako azkeneko pieza, *Arrats gorri*, Angel Oliver madrildar konpositoreak osatu zuen Lizardiren hitzen gainean.

«Gauzak oraindik egiteko zeudela, Pildainek eta beste hainbatek eragin handia izan dute kulturan, beren konpromisoarengatik», Migel Zeberiok EGUNKARIAri esan dionez. «Gogoratu nahi dugu edozein arlotan badirela sortzaile anonimoak; jende piloa dago sortu eta sortu ari dena, isilpean, eta kontzertua haien aldarrikapena izatea nahi dugu».

laburrean

Z I N E M A

■ James Bond Bardeetan ariko da egunotan

PIERCE BROSNAN aktore irlandarra Bardeetara ailegatuko da gaur, *The world is not enough* James Bond agente famatuari buruzko pelikula berriko hainbat eszena filmatzera. Hilabete darama filmeko lan talde batek Nafarroan lanean, gaur, bihar eta etzi grabatu beharreko eszenetarako muntaia prestatzen. Tuterako 150 estrak parte hartuko dute.

■ Lynch-ek Cannesen aurkeztu duen filmean erabateko aldaketa nabari da

DAVID LYNCH zuzendari estatu batuarrak *The straight story* filma aurkeztu zuen atzo Cannesko sail ofizialean. Lanak ezustean harrapatu zuen kritika, ez duelako inolako zerikusirik aurreko lanekin. Istorio zuzena da, Lynchen ohiko giro narratsetik eta amets arraroetatik at. Manoel de Oliveira portugaldarraren *La lettre* ere eman zuten atzo sail ofizialean.

M U S I K A

■ Ondarraren 'Te Deum' obrak emango dio amaiera gaur Musikasteri

EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOAK eta Andra Mari abesbatzak egingo duten kontzertuak emango dio amaiera Musikasteri, gaur arratsaldeko 20:30etan, Errenteriako kaputxinoen elizan. Lorenzo Ondarraren *Te Deum* obra estreinatuko dute musikariek, Vicente Egeak zuzenduta, eta Victor Zubizarretaren *Fantasía vasca* eta Carmelo Bernaolaren *Sinfonía en Do* obrak ere joko dituzte.

A R T E A

■ Nafarroako Arte Plastikoen Biurtekoa hasiko da gaur

NAFARROAKO eta Nafarroa Behereko 23 artista plastiko bilduko dira asteburu osoan Donibane- Garazin. Garazikus elkartea da antolatzailea, eta proiektuaren helburua da Euskal Herriko artista profesionalak ezagutzea eta ezagutaraztea. Besteak beste, izanen dira margoak, zizelketa, bernuzadura, tapiza moldatzea eta sorkuntza elektronikoa.

Atxagaren gidoia eta narrazioa dituen bertso trama egingo da gaur Gasteizen

Jon Maia, Igor Elortza, Andoni Egaña eta Jon Sarasua ariko dira, musika eta guzti

Luis Karlos Garcia / **Gasteiz**

Bertso trama berezia egingo da gaur Gasteizen: Jon Maiak, Igor Elortzak, Andoni Egañak eta Jon Sarasuak kantatuko dute; Bernardo Atxaga ariko da gidoigile eta narratzaile; eta gainera, Josu Zabalak, Bingen Mendizabalek, Naiara Eizagirrek eta Alex Ruiz de Azuak musika jarriko dute.

JAGOBA MANTEROLA

Bernardo Atxagak gidoigile eta narratzaile lanak egingo ditu saioan.

GASTEIZKO Principal antzokian da hitzordua, gaueko 20:30etan. *Zer da emakumeek gehien maite dutena?* izenburuko saioa ikus-entzuteko abagunea izango da. Araba Euskarazen aldeko ekitaldietako bat da, eta antolatzaileen iritziz, nagusietako bat ere bai: «Bertso tramak egin ohi dira azkenaldion, baina maila honekin egiten den lehenengoa da».

Bertso traman narratzaile batek istorioaren haria darama eta bertsolarietako bakoitzak bere rola egiten du bertsoez baliatuta.

Atxagaren partaidetzaz aparte, Gasteizko zenbait musikarik jotzen dute. Atxagak Euskal Herriko sorkuntza prozesuetan «herriko kulturatik abiatuta» gertatzen ari diren «berritze proposamenen» garrantzia nabarmendu zuen. Atxagak Erdi-Aroko poeta anglosaxoniar baten obra hartu du oinarritzat gaurko istorioaren funtsa zehaztean. «Kontalari ariko naiz bertsolariei halako hari orokorra emateko bi gai nagusiren inguruan: maitasuna eta emakumea», esan zuen.

Jexuxmai & Noizbehinka taldeak azken lana aurkeztuko du Pagoarten

- *Mikel Markezen kolaborazioa izan dute*

Erredakzioa / **Donostia**

JEXUXMAI & NOIZBEHINKA taldeak bere azken lana aurkeztuko du gaur Oiartzungo Pagoarte aretoan arratsaldeko 20:00etatik aurrera. Taldeak Mikel Markezen kolaborazioa izan du *Ez diren gauzak* diska honetan eta kontzertuan izango da abeslari bera ere.

Jexuxmai Lopetegi zarauztarraren hirugarren diskak bederatzi kanta biltzen ditu. Aurretik *Jexuxmai & Noizbehinka* eta *Denboratik at* argitaratu zituen.

Letra gehienak Joseba Sarrionaindiarenak izan arren, Andoni Egaña, Koldo Izagirre, Mikel Markez eta Unai Iturriagarenak ere erabili dituzte Jexuxmai Lopetegik eta bere taldeak.

Liluratura ◆ Argitaletxetako zuzentzaileak hizkuntzaz eta estiloaz arduratzen dira. ◆ Irakurlearen hitza: Jorge Luis Borgesen *Ipuin hautatuak*. ◆ Pako Aristiren *zazpi liburu eta aipu bat*

Urbano Tavares

• IDAZLE PORTUGALDARRA •

■■■Portugaleko hegoaldean kokatzen den Alentejo eskualdean jaiotako idazle honek 38 urteko ibilbide literarioa egin du. ■■■ Faxismoaren aurka aritu beharrak eraman zuen Tavares idazten hastera. ■■■ Aurki bi liburu kaleratuko ditu Euskal Herrian gaztelerara itzulita.

Helburuak

«Ardura estetiko asko dituen idazlea naiz, eta helburu nagusi bezala gizakiaren sendotzea daukat, barnean daukanarekin hasiz»

«Botere ekonomikoa alde guztietan dago, baita literaturan ere»

ARTXIBOKOA

■ Zer esanahi dauka Alentejok zure bizitzan?

Zoriona, ilargia eta erreka. Nere gurasoek zeukaten etxe batetan bizi nintzen, animaliz inguratua, landareak dastatuz. Hala ere, era berean, nekazariek bizi zuten miseria sakonki ezagutu nuen eta horrek eragin handia izan du nigan.

■ Nondik dator idaztearen beharra?

Lisboako unibertsitatean aritu nintzen filosofia ikasten, baina ordurako kazetari bezela nenbilen lanean. Sei urtez aritu nintzen Frantziako unibertsitateetan irakasle gisa, hala ere Portugalera itzultzeko desioa izan eta nik ikasitako zentruan lanean hasteko gonbidapena onartu nuen. Garai hartan Delgado jeneralaren kanpaina izan zen, nik bertan parte hartu eta ondorioz Portugalen irakastea debekatu zidaten; horrek esan nahi du kazetari bezela jarraitu nuela, baina interesgarriagoa iruditu zitzaidan bizitzaren berri ematea, faxismoaren aurkako salaketa egitearen beharra nuen, beraz lehen lanak idazten eta argitaratzen hasi nintzen.

■ Nola jokatu zuen diktadurak zure idatziekin?

Espero zitekeen bezala, hainbat liburu zentsuratuz. Hiru, hain zuzen, ezin izan nituen salmentan ipini. Orduko gobernua ene aurka zegoen, Akzio Monarkikoaren Batzordeko partaide nintzen eta 1963 eta 1968an atxilotu egin ninduten. Talde armatu bat zegoen baita ere, baina helburua ez zen odola isuritzea, barku, hegazkin eta beste hainbat oinarrien aurka sabotaia egitea baizik. Baina esan dezaket zorte txarra izan zutela. Polizia politiko teknikoaren eskolan lehergailu bat jarri eta bertatik igaro zen 17 urteko mutiko batek paketea eskuetan hartzearen ondorioz hil egin zen. Helburua lortu zuten, eskola hondatua geratu zen, mutikoa, aldiz, hilda zegoen.

Iraultza

«Handitasun handiko ekintza iruditu zitzaidan, izan ere iraultzaileek aurkako bandoa erretiratzea lortu izan ez balute ez genuke inolaz ere irabaziko.»

Nik talde armatua izandako aurrekariekin bat egin nuen, gauza gutxi egiten genuen, izkutuko bilerak, Portugaletik ihes egin behar zutenentzat agiriak lortu ... Diktadura oso gogor aritu zen gure aurka.

■ 25 urte igaro diren honetan, zer oroitzapen dakarkizu krabelinen iraultzak?

Egun guztia kazetari lana egiten ibili nintzen; momentu esanguratsuenetan egoteko aukera izan nuen, ofizialen arteko eztabaidak ... Handitasun handiko ekintza iruditu zitzaidan, izan ere iraultzaileek aurkako bandoa erretiratzea lortu izan ez balute ez genuke inolaz ere irabaziko. Gu baino indartsuagoak ziren. Hanka sartze sinple bat eta hura ikaragarria izan zitekeen.

■ Portugalen Salazarrek bultzaturiko diktadura Euskal Herriak Francoren eskutik bizitako egoerarekin parekatu al daiteke?

Berdina da. Batak bestearen laguntza zeukan. Faxismoa bide beretik eramana izan zen hipokresiaz blaituriko esparru batean, moralitate faltsua zuen zapi batez estalia. Hala ere, azken gertaeretara itzuliaz, lotsagarria iruditzen zait Euskal Herriarekin egiten ari direna. PPren portavera umekeria hutsa da, errepresio gogorra burutzen ari da. Badaki zein eratara egin dezakeen min, Herri Batasunako mahaikideen atxiloketa horren adierazle da. Ni epaiketan egon nintzen eta lotsa sentitu nuen sententziarekin.

■ Gaur egun idazteak behar bat izaten jarraitzen du?

Dudarik gabe. Ohituegia nago bapatean guztiarekin amaitzeko. Orain nolabaiteko askatasunarekin bizi gara, baina miseria ez da amaitu Portugalen. Europako konstituzio demokratikoena daukagu, iraultza konstituzio oso aurreratu batekin egin zelako. Errealitatea beste bat da; enpresa edo lantegietan jendea beldur da, lana galtzearen mehatxuaren beldur. Botere ekonomikoa bide guztietan dago, baita prentsa edo literaturan eta horrek ixilik mantentzen ditu.

■ Zein da zure lanaren gai nagusia?

Ardura estetiko asko dituen idazlea naiz, eta helburu nagusi bezala gizakiaren sendotzea daukat, barnean daukadanarekin hasiz. Zati desberdinak izan ditu ene jarduerak, erresistentziaren literatura deritzona, faxismoaren aurkako jokaera barneratzen zen, eta apirilak 25 ondoren iraultzaren poztasuna bezala defini daitekeena; hala ere, hasiera oinarrietara itzuli naiz beti, guztiz subjetiboa dena, maitasuna, heriotza eta, dudarik gabe, erotismoa. Emakumeak gizonak baino eginbehar nagusiagoa dauka, mundua ez litzateke ezer bera gabe.

Orain, Txalapartan *Bastandos do sol* liburuaren itzulpen berri bat aterako da, eta ekainean Irunen *Tiempo de cenizas* kaleratu behar dute; lan bikaina burutu dute iraultzaileek.

■ Literaturario dagokionean zein iturritatik edan duzu?

Frantziar literaturari oso lotua nago. Portuges idazleentzat eragin nabarmena izan du Lorcak; ni Andaluzia eta Estremaduratik oso gertu bizi izan naiz eta horrek eragina izan du, ene laguntzaile trinkoena bilakatu da. Euskal Herriko idazle asko ez ditut ezagutzen baina Sarrionandia oso gustokoa dut.

■Zein da kulturaren egoera Portugalen?

Momentu honetan saiakera handi bat dago, intelektualen harreta eskuratzea lortzen ari dira; baina tamalez, kulturako lehendakariak kalitate handiko politika jorratzen badu ere, guztiz elitista da. Betikoak, betiko lekuan, beti.

Araiz Padron
LISBOA

Euskara zuzentzaileen ezkutuko lana

Literatur lanak hizkuntza aldetik orrazten dira, aholku artistikoa emateaz gain

Ezaguna da argitaratzailearen lana zertan datzan. Liburuaren lehenenego kopia irakurri ohi du, eta inprentara bidali aurretik orraztu beharreko zatiak jakinarazten dizkio idazleari. Baina badago beste alderdi bat ere. Gaur egun euskaraz argitara ematen den gehiena zuzentzailearen galbahetik pasatu ohi da. Bai irakurtzen ari zaren testu hau, bai literatur lanak.

Urtzi Urrutikoetxea / **Bilbo**

IDAZLE guztiekin ez dago lan bera jakina. Euskara lan tresna dutenek —kazetariek, teknikariek....— hurbilagotik jarraitu ohi dituzte Euskaltzaindiaren azken arauak, baina beste batzuek behinola ikasitakoari eusten diote. «*Batetan, batzu* eta antzeko deklinabidea aldatu zela badira sei-zazpi urte, baina batzuek eskola dute ikasteko garai, eta behin utzita ez dira arduratzen arauak aldatu ote diren», dio Xabier Mendigurenek, Elkarlanean argitaletxeko editore eta zuzentzaileak.

Batzuetan editoreak egiten ditu lan biak, Mendigurene kasuan bezala. «Aholku literarioa eta hizkuntzazkoa batera ematen ditut, eta erdian biak batzen dituen alde estilistikoa dago». Beste argitaletxe batzuetan ardurak banatu egiten dira, eta idazle batzuek beren beregi eskatzen diote lagunen bati hizkuntz analisia egiteko.



MANU MUJIKA

Xabier Mendigurenek egiten ditu editore eta zuzentzaile lanak.

XABIER MENDIGUREN

«Aholku literarioa eta hizkuntzazkoa batera ematen ditut, eta erdian biak batzen dituen alde estilistikoa dago»

MIKEL ELORZA

«Oreka izan behar da, batzuetan sokatira da, zuzentzaileak batera eta idazleak bestera, baina argi dago azken hitza sortzaileak izan behar duela beti»

Zuzenketen onarpena

Susa argitaletxean Mikel Elorzak orraztu ohi ditu idazleak editorearen aholkuak aintzat hartu ostean egindako azken lanak. «Oreka izan behar da, batzuetan sokatira da, zuzentzaileak batera eta idazleak bestera, baina argi dago azken hitza sortzaileak izan behar duela beti».

«Hasierako jarrera haserrea da idazlearen aldetik», dio Gorka Arrese Susako editoreak. «Arau batzuk askotxo aldatu dira azkenaldian, eta batzuk erre egiten dira idazlana zuzenketak seinalatuta itzultzerakoan. Hori bai, liburua argitara eman ostean batek baino gehiagok eskertzen duela iruditzen zait, baina tzen zen *ohizko* beharrean *ohiko* izan behar zuela, eta halaxe esan izan diegu liburuen egileei. Orain, berriz, biak onartu dira, eta batzuk lehen eta orain berriz erretzen dira horrelakoekin».

Baina, oro har, editore eta zuzentzaile guztiek argi daukate azken erabakia idazlearena dela. «Nahikoa lan egiten du diru apurra ateratzeko, eta badira arrazoi bat edo bestegatik bereziki maite dituzten hitzak», dio Xabier Mendigurenek, galbahearen estuaz hitz egitean; «intsumisiorako tarte hori utzi behar da». Arresek eta Elorzak ere bide horretatik jotzen dute. «Bere inguruan horrela erabiltzen delako, fonetikoki atseginago zaiolako... Inoiz tematu egiten da idazlea hitz batekin, eta begirunez ez ezik, hizkuntza estandar burutu gabea idazleak ere egiten duelako errespetatu behar zaio hautua».

Frantzian batek baino gehiagok egin dio muzin azentu marka berriei azken hamabost urteetan. Gurean Joseba Sarrionandiaren ortografia urrundu ohi da Euskaltzaindiak araututakotik. «Egoera berezia dela eta, ez dago berarekin eztabaida izaterik, hortaz errespetatu edo ez da gakoa, eta aukeran berak idatzitakoa, horrela uzten da», azaldu digu Xabier Mendigurenek.

Hiztegia eta mekanismo sintaktikoak

ERA profesionalean egin duenik ez badu uste ere, lagun bati baino gehiagori miatu dio testua Juan Garziak. Distantzia hartzearen garrantzia azpimarratzen du Garziak. «Idazlea askotan itsutu egiten da idazkuntza lanean, aurretik ikusi gabea du, eta eskertzen du gutxieneko urruntasun hori». Euskararen egoeran arauen aldekoa da Garzia. «Inoiz erabat onartu ez arren, beharrezkoak direla uste dut», baina bi zuzentzaile mota daudela dio, «araudiaz estu-estu arduratzen direnak, beraz, gauza formala dena, eta harago joatea ere badago, hau da, testuaren funtzionamendua ikusi, bestelako ordenamendu eta mekanismo sintaktikoak nola erabiltzen diren. Zuzenketa kontu globala da».

Alberdania argitaletxeko lan batzuekin lan egin izan du Juan Garziak, eta beste idazle batzuek ere beragan jarri dute konfiantza. Era horretan, berak emandako aholkuak zabal onartu ohi dizkiotela dio Garziak. «Uste dut denek eskertzen dutela irakurlearen ikuspuntu hori aurretiaz izatea», esan du, baina beretzat ere zuzentzailea nahiko lukeela dio. «Azkenean zuzentzaile eta idazle garenok gelditu ohi gara lana zuzenduko digun pertsonarik gabe».

Itzultzaileekin izan ohi da berezia zuzentzaile lana. Izan ere, beste testu batekiko fidelta-sunak dakartzan mugak eragina dauka testuaren funtzionamenduan.

ertzetik

Manu Lopez Gaseni

Teknologia berriak

Teknologia berrien eta zaharren arteko etengabeko erronka bizirik egon da betidanik (*Video killed the radio star*), eta erraz irudika daitezke amanuenseek Gutemberg-en asmakizun berriaren aurka burututako manifestazioak. Antzeko arazoa oraingoa, konputagailu gero eta pertsonalagoek (liburu elektronikoek barne) ohiko euskarriei egiten dieten konkurrentzia bidegabearekin. Baina, azken batean, zaharrak berri: idazketa alfabetikoak bere horretan dirau, milurteen iraganaren brisara leunari jaramonik egin gabe.

Aurreko batean ni ere teknologia berrien gurdira (berritu beharko litzatekeen metafora paradoxikoa da hauxe) igo nintzen eta, suediar teknologiako telefono mugikor bat eskuratu nuen (berriro ere hegoaldearekiko —italiarrekiko— errezeloa). Bertako funtziorik interesgarriena, munduko azken muturrean eskurik gabe hitz egiteko aukera bera baino areago, testumezuak jaso eta igortzeko posibilitatea da. Berehala aktibatu nuen, noski; baina orduan konturatu nintzen bertan sar daitekeen digito kopurua mugatua dela; alegia, bertan ezin daitekeela euskarak aspalditik behar zuen Nobela idatzi. Alabaina, ezin aproposagoa zen ipuin zibermotzak edo G. Markuletaren bertsioaren arabera, «ipuin hiperlaburrak» lantzeko. Denborarik galdu gabe (baina tarifa murritzeko ordutegian), ekin nion lanari. «Ez dut etortzen ikusi —aitortu zion epaileari aire istripuan eulia hiltzeaz akusaturiko kristalak—», bidali nion urruneko lagun bati. Handik gutxira, erantzuna iritsi zitzaidan: «klarionak bere testamentua idatzi zuen arbelean azken ha(u)tsa bota baino lehen», erantzun zidan Izaskun lagunak. Hurrena, igarkizun matematiko bat proposatu nion, baina, erantzuna eman beharrean, mezu kriptiko hau bidali zidan: «Bata, bia, hirua eta bosta dotore-dotore jarri ziren lehengusuen afarira joateko». Txundigarriak dira katxarrpo hauek, aizu!

Liluratura

irakurlearen hitza

Unibertso borgestarraren isla

AURTEN betetzen dira 100 urte Jorge Luis Borges idazle argentinarra jaio zela. Bada, data horren harian Ibaizabal argitaletxeko Literatura Unibertsala sailean egile berberaren *Ipuin hautatuak* liburua agertu da. Juan Garzia Garmendiak itzulita. Liburuak Juan Garziak berak eta Gerardo Markuletak hautaturiko narrazioak biltzen ditu, kronologikoki sailkatuak, eta haien bidez Borgesen hitz lauzko lanen erakuspen edo muestra bat daukagu.

> Borgesen unibertsoa berezia da, propiala, beste egile edo korronteren batekin loturarik ez duena

Jorge Luis Borges XX. gizaldiko literaturen izen handienetako bat dugu. Hitza lehengai harturik, hitzekin jolastuz, sormenezko ariketa berdingabeak osatu zituen. Eta hizkuntza aldetik ere, idazle hegoamerikarrak idazkera propial bat landu zuen.

Istorioak irakurri ahala, apurka-apurka, Borgesen fikziozko eraikuntza ezagutuz goaz eta haren unibertsoan barneratuz goaz. Unibertso berezia da, propiala, beste egile edo korronteren batekin loturarik ez daukana. Baina unibertso horren ezaugarria zenbaitetan konplexutasuna da. Horrela, badira istorio batzuk irakurleari nahikoa zailak egiten zaizkionak. Esaterako, liburua kontakizun metaliterario batez hasten da, *Irakurlearen etika sineskeriaz betea*, literatur testuaz eta baita ere irakurlearen jarreraz jarduten duena. Hurrengoak ere, *Pierre Menard Kixotearen egile*, literatura hartzen du gaitzat, eta gerta liteke ez bat egitea hartzailearekin, urruna, distantziaduna, interesgabea egin dakiokeelako. *Loteria Babilonian*, aldiz, irakurlearentzat gustagarriagoa da, istorio bereganagarriagoa delako, aurreko bien aldean. Fantasia konbentzionalagoa ageri da, irudimenak gidatzen du narrazioa hasieratik bukaeraraino eta idazle argentinarraren etorriaren isla argia da. *Babelgo liburutegia* beste istorio orijinal bat da, zeinean unibertsoa liburutegi batekin parekatzen den eta gero horri tira eginez errelatoa burutzen den.



Izenburua: Ipuin hautatuak
Egilea: Jorge Luis Borges
Itzultzailea: Juan Garzia
Argitaratzailea: Ibaizabal, 1999
248 orr.

Jorge Luis Borgesek hitzekin jolas egiten du eta horiekin asmaketa ezberdinak gauzatzen ditu. Erudizioa ezin zaio ukatu, edonondik ateratzen du kontakizun bat. Horrela, denetariko narrazioak aurkitzen ditugu. Zenbaitetan, hori bai, haien izaera anbiguoak irakurlea apur bat aztoratuta uzten du. Baditugu halaber, ipuin ale laburrak, aski bikainak: *Elkarrizketa bati buruzko elkarrizketa*, *Argumentum ornithologi- cum*, *Borges eta ni*...

> Juan Garziaren lana aparta da, Borges, zaila izanik ere, era erraz batean euskarara hurbiltzegatik

Liburua erreferentzia literarioz, filosofikoz eta abarrez jantzirik dago, irakurri ahala jasotzen goazenak. Horren atzean egilearen literaturzaletasun, kulturzaletasun mugagabea suma daiteke. Halaber, errelatoetan zehar garai, leku, aldi historiko ezberdinak eta anitzak azaltzen dira, era horretan liburua egilearen kosmopolitismoaren, bere kulturekiko maitasunaren agerpena da.

Banatuz doazen bidexken jardina istorioan idazle hegoamerikarraren narraziorako abilezia agertzen da, tamainako itzulpenari esker geureganatzen duguna. Azpimarratzekoa baita ere Juan Garzia itzultzaileak egin duen lan aparta. Eskertzekoa da haren ahalegina eta esfortzua Jorge Luis Borges bezalako idazle zail bat era erraz batean euskarara hurbildu eta ekartzeagatik.

Jon Eugi

irakurtzekoak

Izenburua: Hogeigarren mendeko gertaera nagusiak
Egilea: askoren artean
Argitaratzailea: Gaiak, 1999, 187 orr.

•XX. mendearen errepasoa: Gaiak argitaletxeak, ohi duenez, beste liburu interesgarri bat kaleratu du bere Oinarrizko Liburutegia bilduman. Data, mapa, grafiko eta argazki ugarirekin lagundurik, amaitzear dugun mendeari gainbegirada bat ematen dion liburu honek gertaera nagusiak modu argigarri eta didaktikoan eskaintzen ditu.



Izenburua: Izar baten gainean
Egilea: Antton Kazabon
Marrazkilaria: Javier Erostarbe
Argitaratzailea: Desclee de Brouwer, 1999, 44 orr.

Aitaren heriotzaren ondoren: Antton Kazabonek beste ipuin bat plazaratu du hamar urtetik beherakoentzat. Oraingo honetan Ines izeneko neskatila hartu du protagonistatzat. Aitaren heriotzak utzi hutsune ilunetik ezin irtenik dabilen neskatila da Ines. Ipuin sentibera, oso hunkigarria, eta amaiera benetan ederra bezain atipikoa duena.

Izenburua: Usoa, hegan etorritako neskatoa
Egilea: Patxi Zubizarreta
Marrazkilaria: Asun Balzola
Argitaratzailea: Erein, 1999, 32 orr.

• Haur afrikar bat gure artean: Patxi Zubizarretak Afrikatik gurera, mendebalde aberatsera, etorritako haur afrikar baten gogoetak azaltzen dizkigu, gure artean ezagun den kukuaren inguruko istorio bat dela medio. Aurrejuzku faltsuak eta hainbat esaera edo mitok ematen duten irakurketa interesatu eta gezurtia dira ageri diren gaiak.

Pako Aristiren

zazpi liburu...

Cien años de soledad
Gabriel Garcia Marquez
• Gure aitonaren mundu magikoarekin lotu ninduen liburua, ezinbestekoa bizitza ulertzeko.

Siddharta
Hermann Hesse
• Geure kabuz ibili, bizi, maitatu eta sofritu behar dugula erakutsi zidan liburua.

Odol hotzean
Truman Capote
• Kazetari mozorroa jantzirik bizitzaren ikara eta larritasuna adierazi zituen idazle handi baten liburua.

On the road
Jack Kerouack
•Bidaiatzearen xarma jantzirik bizitzaren ikara eta larritasuna adierazi zituen idazle handi baten liburua.

Hacia la boda
John Berger
•Hiesaren gaia tremendismorik eta mojakeriarik gabe lantzen duen kontaketa samur eta zoragarria.

Víctor Jara, un canto truncado
Joan Jara
• Herri baten amets erailak, kantari maitekor eta maitatu baten bizitza oso ondo idazten duen bere alargunak modu zirraragarrian kontatua.

Urregilearen orduak
Pako Aristi
• Hainbat urtez nire bizitza orri horietan galdurik eduki ondoren, nahi nuena nahi nuen moduan kontatzeko lorpenaren atzetik, azkenean irabazi egin dudalako.

eta aipu bat...

«Alabaina, perfekzioa mozkorturik gaudenean soilik aurkitzen dugu, eta esnatzerakoan desagertu egiten da»

Li Po (705-762)

MUSIKA

ABADIÑO

- **Jasokunde, Laino Eresi eta Munarri abesbatzak.** San Trokaz elizan, 19:30etan.
- **Zabaleta Band.** Zeletabe plazan erromeria, 23:00etatik aurrera.

ALONSOTEGI

- **Alaitz eta Maider.** Plazan, 23:00etan.

ANOETA

- **Trikitilari gazteen txapelketa.** Arratsaldeko 17:30etan.

ARRIGORRIAGA

- **Abesbatzen lehiaketa.** Madalen Andra Mari parrokian, 19:30etan.

AZKOITIA

- **La venganza de la abuela.** Plazan, 23:00etan.

BAIONA

- **Iparhop 99: O´Tentik, Lunion, Ygriega, Mr. R.** Lauga aretoan, 21:00etan.

BARAKALDO

- **Mala Imagen, Cantaro o garrafa.** Mellid tabernan, 20:00etan.

BEASAIN

- **Topolino Radio Orkesta.** Loinazko San Martin plazan, 23:30etan.
- **Spullium Nacren, Discipulos de Dionisos, Sevicio.** Txosnetan, 22:30etan.

BERGARA

- **Tev Falco & The Panther Bums, Meows, Red Shifts, Frenopatics.** Bideberriko txosnetan, 22:00etan.
- **Basakabi.** San Martin plazan dantzaldia, 20:30etan eta 23:30etatik aurrera.
- **Whitesnakekin gau bat.** Jam aretoan, gau osoan.

BERMEO

- **Ke No Falte.** Erriberako plazan.

BILBO

- **Disturbio 77, Eskacha, Des Kontrol.** Bilborocken, 20:00etan.
- **Orkesta Continente.** Levante plazan (San Ignazio) 18:30etatik 21:30etara.

DONOSTIA

- **DJ Zulle, DJ Prest.** Etxekalten.
- **La Donostiarra banda.** Antiguan, 20:00etan.
- **Euskadiko Orkesta Sinfonikoa.** Miramongo eguarteak, 11:00etan.
- **Denboraldiko azkeneko kontzertu didaktikoa.** Antzoki Zaharrean, 11:00etan.
- **Buffaloko ganbara abesbatza eta San Ignazio korala.** San Vicente elizan, 20:30etan.

ELGETA

- **Oskorri & The Pub Ibiltaria.** Kultur etxean, gaueko 22:30etan.

ERRENTERIA

- **Musikaste.** Andra Mari abesbatza eta Euskadiko Orkesta Sinfonikoa, Kaputxinoen Elizan, 20:30etan.

GASTEIZ

- **King Mafrundi.** Gaztetxean, 22:00etan.
- **Kalejira & Triki.** Parral tabernan, 13:00etan.

GERNIKA

- **Benito Lertxundi.** Santanape pilotalekuan, 22:00etan.
- **Haur kantarien lehiaketa.** gernikako zineman, 18:00etan.

IBARRA

- **Bide Ertzean.** Sugei elkartean, eguerdiko 12:30etan.

IRUN

- **Narco, Bort.** Tunk! aretoan, 23:00etan.
- **Kontserbatorioko ikasleen orkesta.** Amaia KZn, 20:00etan.
- **Skunk, Inadaptats, Lif, Cops.** Landetxan, 22:00etan.

IZABA

- **Sakatrik.** Herriko plazan, 19:30etan. Euskararen eguna.
- **Drindots.** Herriko plazan, dantzaldia, gaueko 12etan.

LASARTE

- **The Brontes.** Zulo aretoan, 23:00etan.
- **Zero Sette akordeoi orkestra.** Okendo plazan, 12:30etan.

LEKEITIO

- **Betagarri, Joxe Ripiau.** Oleta auzoan, 23:00etan.

OIARTZUN

- **Jexuxmai & Noizbehinka.** Pagoarten, 20:00etan.

SANTURTZI

- **Musikaldi 99.** 27 musika eskoletako 2.500 ikasle bilduko dira.

SOPUERTA

- **Lirain abesbatza.** Elizan.

TOLOSA

- **Artizar orkestra eta Julio Bravo.** Jesusen Alabak ikastetxean, 20:00etan.

URTUELLA

- **Etsaiak.** Otxartaga parkean, 00:00etan. Jaiak.

ZALDIBAR

- **Hipercore, Segismundo Toxicomano, Kloakao, Louco.** Gaztetxean, 21:00etan.

ZALLA

- **Euskadiko Musika Banden VIII. lehiaketa.** Udal kiroldegian, 18:00etan.

ZAMUDIO

- **EH Sukarra.** 23:00etan.

ZIORDIA

- **Geroh, Behin Betiko.** Jarrairen gazte topagunean.

ZORNOTZA

- **XX. BBK abesbatzen kontzertuak: Inmakulada, Alaiak eta Zornoza abesbatzak.** Zornotza aretoan, 20:00etan.

ZUMAIA

- **Udal Txistulari Banda.** Kofradiako plazan, 19:00etan.
- **Barañaingo abesbatza.** Parrokian, 20:00etan.

MUSIKA

ADOLFO LAKUNTZA

Skalariak eta Koma-ren kontzertua Burlatan

Bi talde nafarrek beren azken diskoak aurkeztuko dituzte gaur gauean Burlatako Institutuan. Koma taldeak *El catador de vinagre* diskoko abestiak eskainiko ditu, eta Skalariak taldeak *Klub Ska* lanaren doinuak joko ditu. Burlatako Maiatza Rockaren barneko kontzertu *kañeroa* izango da gaurkoa.

ANTZERKIA

AIZARNA

- ***Behartsuak gara, ez lapurrak.*** Zuri Zuria eskolume taldea, Goiko Eskola Antzokian, 18:00etan.

BARAKALDO

- ***Dakota.*** Tanttaka antzerki taldearen eskutik, Barakaldo Antzokian, 20:30etan.

BEASAIN

- ***Marikomik.*** Hortzmuga taldearen ikuskizuna, kale nagusian, 23:00etan.

BILBO

- ***¡Son para verte mejor!.*** Catapult taldearen eskutik, Mina Espazioan, 20:00etan.

DONOSTIA

- ***Txanogorritxo.*** Gorakada taldearen eskutik, 18:00etan.
- ***Visto y no visto.*** Kale-antzerkia Trapu Zaharra taldearen eskutik. Harri Berri plazan, 18:30etan.

GETXO

- ***Alo, Europa?.*** Markeliñe taldearen eskutik, San Nikolas plazan, 22:30etan.

USURBIL

- ***Euskal Herriko itsasoa.*** Antzezkizuna taldearen txontxongilo emanaldia. Aginagako Antzokian, 17:00etan.

ZINEMA-BIDEOA

BILBO

- ***Regarde les hommes tomber.*** Ayala Antzokian, 17:00etan eta 19:30etan.

KANPEZU

- ***Mendiko filmeen emanaldia.*** Kultur etxean, 20:00etan.

MAÑARIA

- ***Amazonia.*** Jon Arretxeren proiekzioa, Kirikiño kultur etxean, 19:00etan.

HITZALDIA

DONOSTIA

- ***Que hacer ante la tenaz promoción de drogas legales.*** Xabier Aranaren eskutik, Casares kultur etxean, 19:30etan.

BERTSOLARITZA

BILBO

- **Udaberriko bertso saioak: Bizkaiko finalistak.** Bidebarrieta kulturgunean, 12:30etan.

GASTEIZ

- **S. Lizaso, A. Otamendi, A. Iriondo, E. Arozena.** Bertsobazkaria, Landatxo polikiroldegian, 14:30etan.
- **Bertso-trama: Jon Maia, Andoni Egaña, Jon Sarasua, Igor Elortza. Narratzaile: Bernardo Atxaga.** Principal Antzokian.

DANTZA

ARRASATE

- **Ballet Biarritz.** Amaian, 20:00etan. Maiatza Dantzan.

AZKOITIA

- ***Stress.*** Blanca Li konpainiaren eskutik, Baztartxon, 22:30etan.

DONOSTIA

- ***A fuego lento.*** Quat´Zarts taldearen eskutik, Victoria Eugenian, 21:00etan.

EIBAR

- **Kezka dantza taldearen emanaldia.** Untzaga plazan, 19:30etan.

ERRENTERIA

- **Gazte mailako XIII. Gipuzkoako aurreskulari txapelketa.** Udal pilotalekuan, 17:30etan. Landare elkarteak antolatuta.

BESTELAKOAK

BILBO

- **Atzoko jokoak eta gaurko umeak.** Umeen jolasak, Mamurrak taldearekin. Santutxuko Karmelon, eguerdian.

EIBAR

- **Artiasu eta baserritarren azoka.** Toribio Etxeberria kalean, 10:00etatik 14:00etara.

PASAIA

- **VI. Sagardo Jaia.** Biteri plazan, 18:00etan.

zinema

ARABA

GASTEIZ

AZUL. **Mi gran amigo Joe:** 17:30. **Shakespeare in love:** 20:00 - 22:30. **Bichos:** 17:00. **Ni en tu casa ni en la mia:** 18:45 - 20:30. **Asesinato en 8 mm.:** 22:30.

GURIDI. **La trampa:** 17:30 - 20:00 - 22:30 - 01:00. **Entre ladrones:** 17:30 - 20:00 - 22:30 - 01:00. **El super chef:** 17:30 - 20:00 - 22:30 - 01:00. **Me llamo Sara:** 17:30 - 20:00 - 22:30 - 01:00. **Ejecución inminente:** 17:00 - 19:45 - 22:30 - 01:00. **Lo opuesto al sexo:** 17:30 - 20:00 - 22:30 - 01:00. **Arlington Road:** 17:00 - 19:45 - 22:30 - 01:00.

MIKELDI. **El guru:** 17:30 - 20:00 - 22:30.

MIKELDI ZINEMAK. **Las fuerzas de la naturaleza:** 16:15 - 18:15 - 20:30 - 22:45 - 01:00. **Aprendiendo a vivir:** 17:30 - 20:00 - 22:45 - 01:00. **La trampa:** 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45 - 01:00. **Todo sobre mi madre:** 16:15 - 18:15 - 20:30 - 22:45 - 01:00.

SAMANIEGO. **Mama es boba:** 17:30 - 20:00 - 22:30. **La vida es bella:** 20:00. **Comportamiento perturbado:** 17:30 - 22:30. **Aun se lo que hicisteis el ultimo verano:** 17:30 - 20:00. **Solas:** 22:30. **Todo sobre mi madre:** 17:30 - 20:00 - 22:30.

BIZKAIA

BILBO

ASTORIA. **De todo corazon:** 17:30 - 19:30 - 22:00.

AVENIDA. **Tienes un e-mail:** 11:00 - 17:00 - 19:30 - 22:00. **Todo sobre mi madre:** 11:00 - 17:00 - 19:30 - 22:00. **Plunkett y MacLeane:** 11:00 - 17:00 - 19:30 - 22:00. **De todo corazon:** 11:00 - 17:00 - 19:30 - 22:00. **La novia de Chucky:** 11:00 - 17:00 - 19:30 - 22:00. **West Beirut (J.B.A):** 11:00 - 17:00 - 19:30 - 22:00.

CAPITOL. **La trampa:** 17:00 - 19:45 - 22:30. **Todo sobre mi madre:** 17:15 - 20:00 - 22:30. **Las fuerzas de la naturaleza:** 17:15 - 20:00 - 22:30. **Arlington Road:** 17:00 - 19:45 - 22:30.

COLISEO ALBIA. **Idiotas:** 17:30 - 19:45 - 22:00.

IDEALES. **Arlington Road:** 17:00 - 19:45 - 22:30. **Aprendiendo a vivir:** 17:00 - 19:45 - 22:30. **Aun se lo que hicisteis el último verano:** 17:30 - 22:30. **La vida es bella:** 19:45. **El super chef:** 17:30 - 20:00 - 22:30. **El guru:** 17:15 - 20:00 - 22:30. **Me llamo Sara:** 17:15 - 20:00 - 22:30. **Entre ladrones:** 17:30 - 20:00 - 22:30. **Comportamiento perturbado:** 17:30 - 20:00. **La vida es bella:** 22:30.

MIKELDI. **Las fuerzas de la naturaleza:** 17:30 - 20:00 - 22:45. **Ejecucion inminente:** 17:15 - 20:00 - 22:30. **La trampa:** 17:15 - 20:00 - 22:45. **Aprendiendo a vivir:** 17:00 - 19:45 - 22:45.

MULTI. **Cuento de otoño (J.B.A.):** 17:30 - 19:45 - 22:30. **Iluminata:** 17:15- 19:45 - 22:15. **Asediada:** 17:30 - 19:45 - 22:30. **Mama es boba:** 17:30 - 20:00 - 22:30. **Asesinato en 8 mm.:** 17:15 - 19:45 - 22:15. **Arlintong Road:** 17:30 - 20:00 - 22:30. **Solas:** 17:30 - 19:45 - 22:30. **La trampa:** 17:15 - 19:45 - 22:15.

BARAKALDO

MAX CENTER. **Arlington Road:** 16:45 - 19:45 - 22:30 - 01:00. **El super chef:** 16:30 - 18:30 - 20:30 - 22:30 - 01:00. **La trampa:** 16:45 - 19:45 - 22:30 - 01:00. **Aun se lo que hicisteis el último verano:** 16:30 - 18:30 - 20:30 - 01:00. **La trampa:** 22:30. **Entre ladrones:** 16:30 - 18:30 - 20:30 - 22:30 - 01:00. **El guru:** 16:45- 19:45 - 22:30 - 01:00. **La vida es bella:** 16:45 - 19:45 - 22:30 - 01:00. **Aprendiendo a vivir:** 16:45 - 19:45 - 22:30 - 01:00. **Las fuerzas de la naturaleza:** 17:00 - 20:00 - 22:30 - 01:00. **Phoenix:** 17:00 - 20:00 - 22:30 - 01:00. **Ejecucion inminente:** 16:45 - 22:30 - 01:00. **Comportamiento perturbado:** 20:00. **Comportamiento perturbado:** 17:15. **Asesinato en 8 mm.:** 19:30 - 22:30 - 01:00.

BASAURI

BILBONDO. **Arlington Road:** 17:00 - 19:45 - 22:30. **El Guru:** 17:00 - 20:00 - 22:30. **Aun se lo que hicisteis el ultimo verano:** 17:30 - 20:00. **Ejecucion inminente:** 22:30. **La vida es bella:** 17:00 - 19:45 - 22:30. **El super chef:** 17:30 - 20:00 - 22:30. **Todo sobre mi madre:** 17:15 - 20:00 - 22:30. **Las fuerzas de la naturaleza:** 17:15 - 20:00 - 22:30. **La trampa:** 17:00 - 19:45 - 22:30.

SOCIAL ANTZOKIA. **Shakespeare in love:** 17:00 - 20:00 - 22:30.

KULTUR ARETOA. **Star Trek: Insurreccion:** 17:00. **Pecata minuta:** 20:00.

DURANGO

ZUGAZA. **American History X:** 19:00 - 22:00.

ELORRIO

ARRIOLA. **Muertos de risa:** 22:30.

ERMUA

ERMUA ZINEMA. **Muertos de risa:** 19:30 - 22:00.

GALDAKAO

TORREZABAL. **Hercules:** 17:00. **Aun se lo que hicisteis el ultimo verano:** 19:30 - 22:30.

GETXO

LAUREN. **American History X:** 16:30 - 19:15 - 22:15 - 00:30. **Ni en tu casa ni en la mia:** 16:15 - 18:15 - 20:15 - 22:15 - 00:15. **Proxima parada Wonderland:** 16:00 - 18:00 - 20:00 - 22:15 - 00:30. **Todo sobre mi madre:** 16:15 - 18:30 - 20:30 - 22:45 - 00:50. **Aun se lo que hicisteis el ultimo verano:** 16:00 - 18:00 - 20:00 - 22:15 - 00:30. **Comportamiento perturbado:** 16:30 - 18:30 - 20:30 - 22:30 - 00:30. **Ejecucion inminente:** 16:45 - 19:30 - 22:30 - 00:50. **La vida es bella:** 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:40 - 01:00. **Arlintong Road:** 16:45 - 19:30 - 22:15 - 00:45. **La trampa:** 16:15 - 18:30 - 20:40 - 22:45 - 01:00. **El Guru:** 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45 - 01:00. **Las fuerzas de la naturaleza:** 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45 - 01:00.

AREETAKO GRAN CINEMA. **La trampa:** 17:30 - 20:00 - 22:30.

LEIOA

CINESA ARTEA. **Todo sobre mi madre:** 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45. **Mensaje en una botella:** 01:00. **La trampa:** 16:00 - 18:15 - 20:30 - 23:00 - 01:15. **Arlington Road:** 16:30 - 19:30 - 22:30 - 01:00. **Ejecucion inminente:** 16:00 - 19:00 - 22:00 - 00:30. **La vida es bella:** 16:15 - 19:15 - 22:15. **Comportamiento perturbado:** 00:45. **Aprendiendo a vivir:** 16:00 - 19:00 - 22:00 - 00:45. **Las fuerzas de la naturaleza:** 16:00 - 18:15 - 20:30 - 23:00 - 01:15. **Mi gran amigo Joe:** 16:00. **El Guru:** 18:15 - 20:30 - 22:45 - 01:00. **Bichos:** 16:00. **Asesinato en 8 mm.:** 17:50 - 20:15 - 22:45 - 01:15.

MUNGIA

LAUREL & HARDY. **La vida es bella:** 17:30 - 20:00 - 22:30. **Comportamiento perturbado:** 17:30 - 20:00 - 22:30.

ONDARROA

BIDE ONERA. **Mi gran amigo Joe:** 19:00 - 22:30.

PORTUGALETE

COLISEO JAVA. **La novia de Chucky:** 17:30 - 20:00 - 22:15.

SANTURTZI

SERANTES. **La trampa:** 17:15 -19:45 - 22:15. **Las fuerzas de la naturaleza:** 17:15 - 19:45 - 22:15. **Little voice:** 17:30 - 20:00 - 22:30.

SESTAO

AMEZAGA. **The faculty:** 19:30 - 22:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA. **Shakespeare in love:** 22:30.

'Idiotas'

Dogma 95 mugimenduaren zuzendaririk esanguratsuenetakoa da Lars von Trier. Danimarkan sorturiko mugimendu horrek zinemaren garbitasuna aldarrikatzen du, inolako osagarri artifizialik gabe, eta gordintasun hori da nagusia *Idiotas* filmean ere. Euren buruak mozolotzak dituzten gazte batzuen istorioa kontatzen du, eta nola hartzen duten ergeltasuna sistemari aurre egiteko armatzat. Bilboko Coliseo Albian ikus daiteke.

GIPUZKOA

DONOSTIA

ASTORIA. **Todo sobre mi madre:** 16:45 - 19:00 - 21:30 - 23:45. **Aun se lo que hicisteis el ultimo verano:** 16:45 - 19:00. **Shakespeare in love:** 21:15 - 23:45. **La trampa:** 16:15 - 18:45 - 21:30 - 00:00. **Aprendiendo a vivir:** 16:00 - 18:30 - 21:00 - 23:45. **Ejecucion inminente:** 16:00 - 18:30 - 21:15 - 00:00. **Arlington Road:** 16:15 - 18:45 - 21:15 - 23:45. **El super chef:** 16:45 - 18:45 - 21:00 - 23:30.

ANTZOKI ZAHARRA. **El silencio:** 17:30 - 19:45 - 22:30.

TRUEBA. **Celebración:** 16:30 - 18:40 - 20:50 - 23:00. **Winter Sleepers:** 16:15 - 18:30 - 20:50 - 23:10.

PRINCIPE. **Lo opuesto al sexo:** 16:30 - 18:40 - 20:45 - 23:00. **Asediada:** 16:45 - 18:50 - 20:45 - 23:00. **Arlington Road:** 16:20 - 18:40 - 21:00 - 23:20. **La trampa:** 16:20 - 18:40 - 21:00 - 23:20. **Solas:** 16:45 - 18:50 - 20:45 - 23:00. **La vida es bella:** 16:20 - 18:40 - 21:00 - 23:20.

GARBERA. **La trampa:** 16:15 - 18:45 - 21:15 - 23:45. **El Guru:** 16:15 - 18:45 - 21:15 - 23:45. **Arlington Road:** 16:15 - 18:45 - 21:15 - 23:45. **Babe, el cerdito...:** 16:45 - 19:00. **Todo sobre mi madre:** 21:00 - 23:20. **Ni en tu casa ni en la mia:** 16:30 - 18:30 - 21:30 - 23:20. **La vida es bella:** 16:30 - 19:00 - 21:30 - 23:50. **Las fuerzas de la naturaleza:** 16:15 - 18:30 - 21:00 - 23:30.

WARNER LUSOMUNDO. **Comportamiento perturbado:** 12:30 - 16:15 - 18:15. **Aun se lo que hicisteis el último verano:** 20:10 - 22:30 - 00:50. **Bichos:** 12:20 - 16:15. **Phoenix:** 18:10 - 20:30 - 22:50 - 01:10. **Shakespeare in love:** 12:20 - 17:00 - 20:00 - 22:20 - 00:45. **Aprendiendo a vivir:** 12:30 - 16:45 - 19:30 - 22:10 - 00:45. **Fuerzas de la naturaleza:** 12:30 - 16:00 - 18:10 - 20:20 - 22:40 - 01:00. **La trampa:** 12:00 - 15:30 - 18:00 - 20:30 - 23:00 - 01:20. **Ejecucion inminente:** 12:00 - 16:45 - 19:30 - 22:10 - 00:45. **Mi gran amigo Joe:** 12:00 - 16:30. **Asesinato en 8 mm.:** 20:00 - 22:30 - 01:00. **Todo sobre mi madre:** 12:10 - 16:15 - 18:20 - 20:30 - 22:50 - 01:00. **El Guru:** 12:10 - 17:00 - 19:45 - 22:20 - 00:45.

ARRASATE

ALAI. **La vida es bella:** 17:00 - 19:30 - 22:00.

AZPEITIA

SOREASU. **La vida es bella:** 19:30 - 22:00.
ZELAITXO. **Asesinato en 8 mm.:** 22:00.

BERGARA

NOVEDADES. **¿Conoces a Joe Black?:** 22:30.

BILLABONA

GUREA. **The faculty:** 19:30 - 22:30.

DEBA

ZUBELZU. **Aun se lo que hicisteis el ultimo verano:** 19:30 - 22:30.

EIBAR

RIALTO. **Plunkett y MacLaine:** 17:00 - 19:30 - 22:15.
UNZAGA. **La trampa:** 17:00 - 19:30 - 22:15.

ELGOIBAR

HERRIKO ANTZOKIA. **La delgada linea roja:** 19:00 - 22:15.

hiriburuetako filmak

ARLINGTON ROAD. EEBB, 1998. Zuz.:Mark Pellington. 117 m.. Jeff Bridges eta Tim Robbins dira *thriller* honetako protagonista nagusiak. Michael Faradayk (Bridges) bere bizilagun Oliverren (Robbins) semeari lagunduko dio. Lagunak dira Faraday eta Oliver, baina Faradayk uste du Oliver arriskutsua dela eta lehergailuekin negoziotan dabilela. ***Bilbo (Capitol), Donostia (Astoria, Principe, Garbera), Gasteiz (Guridi), Ideales, Multi), Iruñea (Golem-Baiona, Principe de Viana).***

ASEDIADA /SHANDURAI. Italia, 1998. Zuz: Bernardo Bertolucci. 90 m. Istorio multietniko, erromantiko eta sentsuala da hau. Erroman filmatua, Afrikatik iritsitako neska gazte exiliatu baten eta hark lan egiten duen etxeko jabearen arteko maitasun harreman bitxia azaltzen du (Thanie Newton eta Davis Thewlis). ***Bilbo (Multi), Donostia (Principe), Iruñea (Golem-Yamaguchi).***

ASESINATO EN 8 MM.. EEBB, 1999. Zuz: Joel Schumacher. 98 m. Tom Welles (Nicolas Cage) emaztearekin eta alabarekin pozik bizi den detektibe bat da. Haurren pornografia eta *snuff movies*-en auzi bat dela eta, jadanik menperatuta zituela uste zuen hainbat sen berpiztuko zaizkio. ***Bilbo (Multi), Donostia (Warner Lusomundo), Gasteiz (Azul).***

AUN SE LO QUE HICISTEIS EL ULTIMO VERANO. EEBB, 1998. Zuzendakaria: Danny Cannon. 101 m. Julie James beldurrez bizi da orain-dik, bere inguruan erail dituzten lagunen patua gogoan duela. Unibertsitatean egindako lagun berriek bidaia bat proposatuko diote. ***Bilbo (Ideales), Donostia (Warner Lusomundo), Gasteiz (Samaniego).***

AUSSI PROFONDO QUE L'OCEAN. EEBB, 1999. Zuz.: Ulu Grosbard. 107 m. Beth (Michelle Pfeiffer) haurrarekin dela minutu batez despistatu eta semetxoa desagertuko zaio. Bahitu egin ote dute? Bethek eta haren sendiak ez du sekula erantzunik aurkituko euren galderarentzat. Urteek aurrera egingo dute, oso modu zailean, Bethen bihotzak ezingo baitu burutik kendu zorigaitzeko egun hura. Baina, halako batean, ezusteko bat gertatuko da. ***Baiona (Marine).***

CELEBRACION. Zuz: Thomas Vinterberg. Zinemaren garbitasuna aldarrikatzen duten zuzendari danimarkarrek osatutako Dogma 95 mugimenduko kidea dugu film honen zuzendaria, eta, ondorioz, alde batera uzten ditu *Celebración* pelilulan musika edo argi artifiziala bezalako osagarriak. Satiraz betetako istorio honek 60 urte bete dituen etxeko gizonaren omenezko afariaren inguruko gorabeherak kontatzen ditu. ***Donostia (Warner Lusomundo).***

COMPORTAMIENTO PERTURBADO. EEBB, 1998. Zuz: David Nutter. 83 m. Cradle Bay herrira iritsi berri da Steve, bere familiarekin. Gazte hau berehala ohartuko da berak ikasten duen institutuko gainontzeko ikasleek modu berezian jarduten dutela. Ikastetxeko psikiatra (Bruce Greenwood) izango da egoera beldurgarri horren erantzulea. ***Bilbo (Ideales), Donostia (Warner Lusomundo), Gasteiz (Samaniego).***

EJECUCION INMINENTE /JOUGE COUPABLE. EEBB, 1999. Zuz: Clint Eastwood. 126 m. *Thriller*-etik gertu dagoen filma zuzendu eta antzeztu du Eastwoodek. Steve Everett kazetari seduzitzaile eta alkoholikoa heriotzara zigortuta dagoen preso baten errugabetasuna frogatzen saiatuko da. James Woods aktorea ere ikus daiteke film honetan. ***Baiona (Marine), Bilbo (Mikeldi), Donostia (Astoria, Warner Lusomundo), Gasteiz (Guridi), Iruñea (Golem-Baiona).***

EL GURU. EEBB, 1999. Zuz: Stephen Herek. 114 m. Eddie Murphy aktore komikoa da protagonista nagusia. Predikaria dela dioen gizon baten papera du, eta telebistan saio bat egiten duen aurkezleak laguntza eskatuko dio, ikuslerik ia ez duen bere tarte horri emozio handiagoa emateko asmoz ***Bilbo (Ideales), Donostia (Garbera, Warner Lusomundo), Gasteiz (Mikeldi Zinema), Iruñea (Principe de Viana).***

EN GUARDIA. 1998. Zuz.: Philippe de Broca. 120m.. Kapa eta ezpata nagusi diren filma da honako hau, *Le Bossu/El Jorobado* eleberri ezagunean oinarritutakoa. Bertan, Lagardere zaldunak (Daniel Auteil) zin egingo du bere lagun Neverseko Dukearen (Vincent Perez) heriotza mendekatuko duela. Hamasei urte geroago lortuko du bere helburua, Neversen alaba Aurororen laguntzarekin. ***Iruñea (Principe de Viana).***

ILLUMINATA. EEBB, 1998. Zuz: John Turturro. 120 m. Mende hasierako New Yorkeko antzerki munduan kokatutako filma da. Turturro, zuzendari lana egiteaz gain, gidoiaren egilea eta aktorea ere bada lan honetan. Tuccioren papera betetzen du, bere antzerki lan berria, *Illuminata*, oholtza gainera eramateko ahaleginean dagoen dramaturgoarena. ***Bilbo (Multi), Iruñea (Golem-Yamaguchi).***

LAS FUERZAS DE LA NATURALEZA. EEBB, 1998. Zuz.: Bronwen Hughes. 104m. Sandra Bullock eta Ben Affleck dira komedia erromantiko honetako aktore nagusiak. New Yorketik atera den hegazkin batean ezagutuko dute elkar Sarahk (Bullock) eta Ben-ek (Affleck). Mutil gaztea ezkontzekotan da, baina izan duten bidaia nahasiaren eraginez, beste era batean ikusiko du etorkizuna. ***Bilbo (Capitol, Mikeldi), Donostia (Garbera, Warner), Gasteiz (Mikeldi Zinemak), Iruñea (Golem-Baiona, Principe de Viana).***

LE DERRIERE. Frantzia, 1999. Zuz: Valerie Lemercier. 102 m. Ama hil ondoren aitaren bila abiatuko da neska gazte bat. Aita homosexuala duela jakingo du orduan, eta, onartua izan dadin, mutil gazte baten itxura hartzea erabakiko du. Aktore bikainek egindako komedia probokatibo eta paregabea da Lemercierrena. ***Baiona (Vauban).***

LE BARBIER DE SIBERIE. Errusia, 1999. Zuz:Nikita Mikhalkov. 170 m. Epopeia erromantiko eta klasiko ederra dugu hau, galdu ezin diren horietakoa. 1885ean kokatzen da istorioa. Moskun bizi den Ameriketako asmatzaile zahar eta berezi samar batek bere laguna den emakume gazte bati eskatuko dio Duke Handia seduzitzeko, horrela haren laguntza jaso ahal izateko. Bidean, baina, militar batekin maiteminduko da neska gaztea. ***Baiona (Vauban).***

LO OPUESTO AL SEXO. EEBB, 1998. Zuz: Don Roos. 105 m.. Iaz goraipatutako filmetako bat dugu Roosen

zinema

ERRENTERIA
ON BIDE. **Asesinato en 8 mm.:** 19:30 - 22:30.

HERNANI
BITERI. **Mensaje en una botella:** 19:30 - 22:15.

IRUN
TXINGUDI. **La vida es bella:** 17:00 - 19:45 - 22:30 - 01:00. **No mires atras:** 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45 - 01:00. **Comportamiento perturbado:** 16:00 - 18:00. **Asesinato en 8 mm.:** 19:45 - 22:30 - 01:00. **Fuerzas de la naturaleza:** 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45 - 01:00. **El Guru:** 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45 - 01:00. **Arlington Road:** 16:00 - 18:15. **Plunkett y MacLean:** 20:40 - 22:45 - 01:00. **La trampa:** 16:00 - 18:15 - 20:30 - 22:45 - 01:00.

LASARTE-ORIA
MANUEL LEKUONA. **Shakespeare in love:** 22:30.

LEGAZPI
LATXARTEGI. **Aun se lo que hicisteis el ultimo verano:** 19:30 - 22:00.

OÑATI
SANTA ANA. **Mensaje en una botella:** 19:30 - 22:30.

ORDIZIA
HERRI ANTZOKIA. **La vida es bella:** 19:30 - 22:15.

TOLOSA
LEIDOR. **Ejecucion inminente:** 19:30 - 22:30.
IPARRAGIRRE. **Dioses y monstruos:** 22:30.

ZARAUTZ
MODELO. **La vida es bella:** 17:00 - 19:30 - 22:15.

ZUMAIA
AITA MARI. **Payback:** 19:30 - 22:15.

LAPURDI

BAIONA
L'ATALANTE. **Le fils adoptif:** 16:30. **La fille d'un soldat...:** 18:00. **Cookie's fortune:** 20:30. **Vivre au paradis:** 22:45.
VAUBAN. **Le temps retrouve:** 14:30 - 20:30. **Le barbier de Siberie:** 14:30 - 20:30. **Tout sur ma mere:** 14:00 - 16:30 - 19:45 - 22:15. **Le derriere:** 14:00 - 16:30 - 19:45 - 22:15. **American History X:** 14:00 - 22:15. **Pola X:** 16:30 - 19:45. **Les enfants du marais:** 16:30 - 19:45 - 22:15. **Babar, roi des elephants:** 14:00.
MARINE. **Haute voltige:** 14:00 - 16:30 - 19:45 - 22:15. **C'est pas ma faute:** 14:00 - 16:30 - 19:45 - 22:15. **Aussi profondo que l'ocean:** 14:00 - 16:30 - 19:45 - 22:15. **Cube:** 14:00 - 16:30 - 19:45 - 22:15. **Juge coupable:** 14:00 - 16:30 - 19:45 - 22:15. **La vie est belle:** 16:30 - 19:45. **Legionnaire:** 14:00 - 22:15.

DONIBANE LOHIZUNE
REX. **Haute voltige:** 16:00 - 21:15. **Juge coupable:** 16:00 - 21:15. **Urband Legend:** 19:00. **Le ciel, les oiseaux...:** 19:00.

estreinaldiak

Catherine Zeta-Jones da *La trampa / Haute voltige* filmeko protagonista, Sean Conneryrekin batera.

■ **LA TRAMPA / HAUTE VOLTIGE.** EEBB, 1999. Zuz.: Jon Amiel. Munduko arte lapurrik onena eta dotoreena da Robert *Mac* MacDougal. New Yorken Rembrandt bat desagertzen denean, auzi horrekin arduratzen den aseguru etxeak Mac harrapatzea erabakiko du, eta ikertzailerik onena hartuko dute horretarako (Catherine Zeta-Jones). Ginek bere edertasuna erabiliko du Macen laguntzailea izateko inoizko lapurretarik handienean. ***Baiona (Marine), Barakaldo (Max Center), Basauri (Bilbondo), Bilbo (Capitol, Mikeldi, Multi), Donostia (Astorioa, Principe, Garbera, Warner Lusomundo), Eibar (Unzaga), Gasteiz (Guridi, Mikeldi Zinemak), Getxo (Lauren, Areetako Gran Cinema), Leioa (Artea), Miarritze (Royal), Irun (Txingudi), Iruñea (Golem-Baiona, Carlos III.), Santurtzi (Serantes), Tutera (Cinemax).***

Erronkaritik Maulera, espartinen bidetik

Mauleko Victor Hugo karrikan zeuden lantegi garrantzitsuenak.
● ARTXIBOKOA

Garai batean, 1875etik eta 1950era bitartean, Erronkariko neskatxa taldeak Maulera joaten ziren urrian hango espartingintza lantegietan aritzeko. Oinez egiten zuten bide gehiena. Bailarako herrietatik abiatzen ziren, Arrakogoitiko gaina igo, eta Infernuko Leizean zehar Donibane-Garazira jaisten ziren. Kaserna parajera iritsi eta Maulera eramaten zituen kamioia hartzen zuten. Gainbeheran dago gaur egun espartingintza lanbidea, eta garai batean horretan aritzen zirengutxi daude egun Nafarroan. Merezitako omenaldia jasoko dute etzi Izaban ospatuko den Uskararen Egunean.

Lizarra •

Termita izurritea elizan

XII. eta XIII. mendeko San Pedro elizan termita izurritea dago azken urteotan

Eliza barruko ostilamenduari eragin ez diezaion, astebetez itxi eginen dute eliza. Hala, han diren izurriteak sailkatu nahi dira. Tratamenduak hiru milioi pezeta balio du.



San Pedroko elizako termitak desagertarazi nahi lituzkete.
● MIKEL SAIZ

EGA IBAIERTZEKO HIRIAK arte erromanikoaren adibide asko ditu. Hor daude, bertzeak bertze, Nafarroako Erregeen jauregia (Erromaniko zibilaren adibide bakarrenetako bat), San Migel eliza, Hilobi Santua edo Lau Rua karrikako San Pedro eliza. Azken horretan -XII eta XIII. mendeetan egina da-, termita izurrite ikaragarria aurkitu zuten aspaldian. Bertako apezaren hitzetan, betidanik egon izan dira termitak eta bertzelako animalia txikiak elizan; haatik, azkenengo urteetan intsektuok egin duten kaltea arriskutsua da oso, eliz barruko gauzak honda ditzaketeko. «Hemen bertako biztanle zaharrek beti erran didate zomorroak ikusi dituztela han eta hemen, lurrean, eserlekuetan, egurra dagoen leku orotan», esan du Victorio Biurrun apezak.

Termiten izurritea elizaren bi alboetan dauden kaperetan sumatu daiteke batez ere, bi kaperetako oholtzan, hain zuzen.

Bi zoruok 1992. urtean ipini zituzten berri-berriak, eta orain, zazpi urte beranduago, zulo eta hondaketa nabariak ikus daitezke bertan. Halaber, bertze puntu batzuetan ere ageri dira izurritearen kalteak, eta, termitak ez ezik, sits eta kardamu izurriak ere azaldu dira prebisterioan eta sakristian.

Bi tratamendu

Termitak isopteroen klaseko intsektuak dira, hegaldunak edo hegalgabeak, eta egurraren barnean galeriak egiten dituzte. Sitsa aldiz, lepidopteroen klasekoa da, eta gauez agertzen dira batik bat. Horiek, egurra ez ezik, zenbait espezieren larbak, arropak, oihalak eta frutak ere jaten dituzte. Azkenik, kardamuak edo pipiak koleopteroak dira, eta normalean landareez elikatzen badira ere, altzarietako egurra jaten duten hainbat espezie ere ezagutzen dira.

Izurriteak egin dituen kalteak larriagoak izan ez daitezen, ahal bezain laster izurriaren aurkako tratamendua jarriko da martxan Lizarrako elizan. Hala, bada, astebeterako itxi eginen dituzte elizako ateak. Tratamendua hiru milioi pezeta kostako da (120.000 libera), eta hainbat produktu erabiliko dira eraginkorra izan dadin. Hortaz, bi tratamendu egingo dira; bata xiringen bidez, eta bertzea, fumigatzeko tresnen bidez. Tratamendu horiekin uste da intsektuak, neurri handi batean bederen, desagertu eginen direla, eta, era berean, zurezko gauza baliotsuak babestu eginen direla.

→ Kristina Berasain

Araitz-Betelu •

Berrikuntza ugari

BETELUKO JUBILATUEK BAdute hemendik aurrera non bildu. Araxes eskola publikoaren eraikuntza berria estreinatu zenez geroztik, garai batean umeen bilgune izan ohi zen Indianoetxeak aldaketa ugari izan ditu. Beteluko Udalaren egoitza, medikuaren kontsulta, eta kultur taldeen topaleku ez ezik, erretiratuen bilgune ere izango da aurrerantzean. Araizko jubilatuak biltzen zituen Alai Elkarteak arrakasta itzela lortu zuela ikusirik, antzeko bat sortzea erabaki zuten. Indianoetxea zaharreko tokia eta Udalaren onespena, baliatu beharra zutela uste zuten edadetuek. Elkartearen kudeaketaz arduratuko den taldea ere osatu dute. Horko buru Bixente Goikoetxea jarri dute.

Beteluko udaletxean ez ezik, Arribeko elizan ere obrak egitekoak dira. Dagoeneko elizako lur guztia altxatu dute, eta eliz ataria, enbor zaharrez eta porlanaz bete dute. Lau hilabetez meza entzuterik ez da izango eliza horretan, eta, horrenbestez, Atallukoraino joan beharko dute Arribeko eliztarrak. Obretarako sei milioi pezetako aurrekontua du Arribeko elizak. Diru horren zati handi bat duela gutxi hildako eliztar batek elizari utzitako herentziari esker ordaindu ahal izango da.

→ Urko Aristi

xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ

Kontu kontari

EArratsaldeko zazpiak. Herriko plazan. Pello eta Elena:

- Orain EAko ergel horren lagun egin behar omen gaituk.

- Bai, orain hala dun, hiru senide abertzaleak odolezko senide omen ditun, ez adoptatuak.

- Udaleko plenoetako iskanbilak, pintadak... hori dena akabatu duk, orain hitanoz solastu beharko diagu elkarrekin.

- Ohartu hadi, orain Udalean egiten ditinaten hankasartzeak ez dituztela nahita egiten, ez ditun ohartzen. Lehenago, berriz, gu izorratzeko bertzerik ez zitinaten egiten; orain ez, orain errespetuz sartzen dinate hanka.

Arratsaldeko zazpiak. Herriko plazan. Joxe Mari eta Iñaki:

- Zenbat aldiz xuritu diat nire etxeko pareta beren kumeek esaldi original hori spray-z josi zutelako bertan! Iñaki fatxa.

- Orain behinik behin ez duk pinturan hainbertze gastatuko, ez duk ikusten lagunak izan behar garela derrigor?

- Ni bederen ez nauk Arranon sartuko, saludatu bai, baina guti gehiago.

Arratsaldeko zazpiak. Etxeko saloian. Ainhoa eta Mikel:

- Ekainaren 13an erabakiko ditugu, beraz, Herriko Etxean lanean arituko diren ordezkariak.

- Ordezkariak? Hori uste al dun? Sigla batzuk zeuden eta sigla horiek ditun hautagai. Jendeari berdin-berdin zaion nor dagoen zerrendan, herriko inpresentableena bertan egonda ere bere siglak bozkatuko ditun.

- Bai, baina aiderdi guziek zaintzen ditiate beren zerrendak, ez diate edonor paratzen buruan.

- Bai zera! Herrietan, udaleko zerrendetan ez dun hori pasatzen.

- Nire ustez, herriaren alde eta herritarren alde lana egiteko prest dagoen jendea bozkatu behar dun. Erraxa dirudi, baina ez dun hain erraxa.

Leitza •

Nafarron Eguna berreskuratu da

Etzi ospatuko da, gaur hasiko den Kultur Astearen barnean

Ekitaldiek maiatzaren 30a arte iraunen dute. Aurten berrikuntzarik ere izanen da, antolatzaileek, Baigorriko Basaizea Elkartearekin batera, Nafarron Eguna antolatu baitute etziko, Iparraldeko euskaldunekin harremanak sendotzeko asmoz.



Etziko hainbat ekitaldi antolatu dituzte Leitzan. ● ARTXIBOKOA

LEITZAKO KULTUR TALDEAREN eskutik, 21. Kultur Astea hasiko da bihar. Heldu den astean erakusketak, hitzaldiak, musika, bertsolariak eta beste hainbat ekitaldi antolatu dira. Euskal kultura herritarrei zein bertaratzen diren bisitariei ezagutarazteko asmoz egiten da urtero Aste Kulturala. Egitarauari dagokionez, beste urteetako ekitaldi asko mantendu egin dituzte. Dena dela, berrikuntzarik ere badakarte, antolatzaileek, Nafarron Eguna antolatu baitute etziko. Duela hogei urte ere ospatzen zen egun hori, baina eten egin zen. Ildo beretik, zortzi urtetan Iparraldearen Eguna ospatu zen, eta etzikoak, egun horren jarraipena izan nahi du.

Eguna txistulari eta txalapartarien dianekin hasiko da, eta 10:30etan Iparraldetik etorritakoei ongietorria eginen zaie. Ondoren, kalejira eginen da Baigorrigo gaiteroekin, Leitzako txistulariekin eta zanpantzar eta dantzariekin. 12:00etan Baiona eta Lesakako bertsolariak eta Baigorri eta Leitzako dantzariak ariko dira plazan.

Ondoren, herri bazkaria izanen da.Bazkalondoan Aldudeko kantariak, bertsolariak eta gaiteroak ariko dira, eta ingurutxoa, larrain-dantza eta muxikoak dantzatzeko aukera izanen da, besteak beste.

Hainbat ekitaldi

Egun horrekin loturik, maiatzaren 26an Jean Louis D'Avant euskaltzainak Euskal Herriaren bilakaera historikoa Iparraldetik nola ikusten den azalduko du. Ez da hori Kultur Astean izanen den hitzaldi bakarra. Hurrengo egunean Kurdistango Newroz taldea bertan bizi duten egoeraz mintzatuko da.

Musikak ere izanen du tokirik. Bihar Musika Eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute, eta maiatzaren 29 eta 30ean Incansables txaranga herria alaitzen ibiliko da.Horretaz gain, XX. Eskulangintza Erakusketa, antzerkia, koadrilen arteko jokoak eta herri afaria ere izanen dira, beste ekitaldi batzuen artean.

→ Idoia Martinez-Barranco

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Turismoaren gorabeherak

Ipar Euskal Herriko turismo bulegoen elkarteak urteroko biltzar nagusia egin du berriki Baigorrin, eta bilera horren berri dakar **Herria** astekariaren azken zenbakiak: «Geroari buruz, errana izan da bilkura hortan gero eta gehiago aloimendu, ausagailu eta gaineratikoen eskaintzak ordenagailuen bidez eginen direla. Beste xede bat aipatu dena, indar berezi baten aintzina egitea udaberrian eta udazkenean jende gehiago ekarrarazteko asteburuetako. Sail horren kondu, hunki nahi dira gehienik autoa hartuz gero, edo berdin treina, handienetik oren pare batez edo hola aise gutarterat heltzen ahal diren jendeak. Besteak beste Bordele, Tolosa, Donostia eta Bilbo bezalako hirigune horietakoak».

«Frango xeheki aipatu dira ere jazko emaitzak, jaz udatiarrak nun nola ibili diren, gerokoarengatik ere on dela ikertzea urteko mugimendua. Nun kokatzen dira udatiarrak? Badute segur hauta! Orotarat, 96 kanpaleku, 304 hotel, eta etxetan, hirian ala baserrian, kanpotiarrentzat atxikitzen diren hoinbeste bizitegi... Euskal Herri barne hortan baino aise gehiago kostaldean».

«Nun dabila gehienik udatiarra? Ondartz horietan hain segur, eta gero, Larrun kaskoan, Larrungo trena hartu dutenak izan baitira jaz 353.811, sekulan baino gehiago beraz! Oinez igan direnak bestalde... Miarritzeko itsas-erakustegia heldu da ondotik, 229.494 lagun izanik, aintzineko lau urtetan baino gutixago haatik denen buru. Toki arrakastatsuak ere Sarako harpeak, Kanboko Arnaga egoitza, eta Isturitzeko harpeak. Ondotik, Florenia deitu Urruñako lorategia, eta Donibane Garazin apezpikuen presondegia deitzen duten etxea».

urdai aren mintzoa

Xabier Larraburu

Aberatsa niz

Eta zer, e?, eta zer? Nik ez nituen nire aita Constructore famatua ez eta nire ama (Carnicas El Pilar-eko propietario bakarraren alaba) hautatu. Txikitan ere urrez gainezka zegoen marmitan erori nintzela esaten dute, Venezuelako osaba guztiz aberatsa hil baitzen, eta gaztelania arraro bat zerabilkiten bi abokatuk etxera etorri eta ni osabaren gauza guztien jabe nintzela esan baitzidaten. «Heredero bakarra izendatu zintuen»- esan zuten. Eta zer esan behar nuen nik? -»Ez, ez, emaiozue dena Bertsolarien Elkarteari...»?. Ba ez. Nik esan nuen: ba bale! Eta osabaren gorputza Euskalerrira ekarri nuen eta urrezko eta zilarrezko panteoi bat eraiki nion Beritxitosen, eta letrak diamantezkoak ziren (ziren, zeren norbaitek eraman ditu dagoeneko). Eta zer, e? Gero andregaia hartu nuenean, nola jakin behar nuen nik Madrileko bankero baten alaba nagusia zela? Kasualitate pilo batzuen kate bat izan da guzti hau. Hortaz, aberatsa naiz. Eta zer? Huskeria horrengatik nire kontra iseka ari dira? «Xabi, Joseba Jakaren beken lehiaketara aurkeztea ere!». Aibalaostia! A klaro! Dirua! Aberatsa naizelako! «Xabi, zure gurasoak ostia, Venezuela erdia zure osabarena zen!, zure emaztea!... ez al duzu aski?». Bainan-bainan zertaz ari gara, e? Zertaz? Ez al ginen ba literaturaz ari? Nik uste nuen literaturaz ari ginela!, e? Konfunditua nengoen?, e? Zeren ni LITERATURAZ ari nintzen!, eta ni literaturaz ari nintzen moduan zuek DIRUAZ ARI ZARETE!!! Ohartzen zarete ezta?! Di-ru-az ari zarete!, e? Niri bost dirua! Nire nahia eleberri duin bat burutzea da! Edo olerki liburu on bat!, e?, on bat!. Aibalaostia!. Eta klaro... Hortarako eskatu ditut bekak! Aibalaostia! Eta zer? Hala!... mesedez! Dirua baldin bada tori, hala!, tori... hartzazue txeke txuri hau eta jarri nahi duzuen zifra eta hala, pikutara, e?, pikutara. Ale majikos!... Eta utzi ni hemen lasai, e?, liburu xume bat irakurtzen, e?, zoazte zuen diru buruhausteekin literatura izorratzera beste nonbaitera!, e? Ale!

Erronkariko espartin

Joan den mendean eta XX.eko lehenengo erdian Maulera espartinak egitera joandako emakumeak omenduko dituzte gaur Izaban

Urte askoan Maule izan zen espartinaren gune nagusi. Garai oparoak ziren, eta beharginak behar ziren. Bertakoentzat ez ezik, kanpotarrentzat ere bazen non ekin. Hori dela eta, Zuberoako hiriburura hainbat emakume erronkariar joan ziren espartingintza lantegietara beharrera. 1911tik 1956ra 390 neskatxa joan ziren hara.

DIELA TENPRA ANITX. URRIKO ZONAIDEN EGUnetan. 1875etatik 1950era. Erronkarian gazte talde bat Maulerantz abiatu da. Artzainak Bardeetara jaitsi dira. Begiek tristurez diete agur beste negu bat etxez kanpo. Arrakoitiko gainetik esan diote agur ibarrari. Hilabete gogorrak izanen dituzte lanean. Infernuko leizean zehar jaitxierazi ekin baino lehenago gaste batek itxarioenez dio: 'apirila arte, aita'. Noizean behin, gazteek atzerantz begiratzen dute. Gainean bi pertsonek agur eginen diete besoak gora dituztela. Eguna dugu anitx garbi, lantxer gaxtoak ez bitu buria erakutsi». Erronkariko Kebenko euskara taldeak erronkarieraz bildutako pasarte horrek laburbiltzen du hainbat urtetan mendiz mendi Maulera joan ziren neskatxen bizimodua.

Begirada atzera bota

Zuberoako hiriburuan XIX. mendean garatu zen espartingintza eta egun gainbeheran badago ere, oso garai onak ezagutu ditu. Herrialdean laborantza eta espartingintza izan dira jendearen betiko ogibide. Zuberoako Ikherzaileak taldeak *150 ans de'Espadrille à Mauleon* egin ikerketaren arabera espartinaren urrezko aroa 1900etik 1918ra izan zen. Garrantzi handia izanen zuten sei lantegi garatuko zira Maulen: Beguerie, Bidegain, Çarçabal, Bardos, Barraque eta Cherbero. Hori dela eta, urte gutxitan espartingintzak aurrerapauso handiak emanen zituen. Hala, lantegietan 1896an espartinak egiten 537 langile ari ziren, eta 1914an 1.585 lagun ziren. Lana sobran zegoen, eta ez zen aski Maule eta ondoko herrietako jendearekin. Hori dela eta, mugaz bestaldeko bailaretako jendea ekarrarazi zuten lanera, Erronkaritik, hain zuzen. Espantingintzan emakumeak aritzen ziren batik bat, eta haiek joan ziren Maulera. Urrian maleta egin eta ekainéra arte ez ziren etxera itzultzen. Erronkariko edozein herritatik abiatzen ziren sailka. Ikherzaleak liburuan esaten denez, ohiko hitzordua Burgin zuten. Arratsaldean Juan Pito izeneko bordara joaten ziren gaua pasatzera, eta goiza argitzearekin batera Arragoitiko gainera igo eta Infernuko sakanan zehar Casernaraino jaisten ziren, Santa Engrazitik hurbil zegoen tokira. Han Maulera eramanen zituen kamioia zuten zain. Asko Glaria aterpean egoten ziren lan denboraldiak irauten zuen zortzi hilabeteetan. Bigarren Munduko Gerraren ondotik, asko igo zen espartinen salmenta, «1939an produkzio nazionala hamar milioi inguru-koa izan zen», dio Ikherzaileak taldeak. Baina garai oparoak gutxi iraunen zuen. Kontuan izanik oinetakoon %60 meategietako langileak janzteko erabiltzen zirela, gerra ostean hartutako segurtasun erabaki berriak hankaz gora jarriko zuten espartingintza. Jadanik ez ziren ziurrak eta ez zituzten meategietara saldu ahal izan.

Gumersinda Goñi:

«Ez zen lan gogorra izan. Oso polita zen espartinak egitea, baina ordurako ez zegoen lanik. Goizeko zortzietan hasten giren lanean, eguerdian etxera bueltatzen ginen bazkaltzera, eta gero ordu bietatik seiak arte aritzen ginen berriro»

Horretaz gain, makineria gero eta gehiago sartuko zen lantegietan eta lanpostuak sobran izanen ziren. 50eko hamarkadan, krisia dela eta, ohiko espartinaz gain, enpresariek produktua aldatu egin behar izan zuten, beste herrialde batzuen lehiakortasuna gero eta handiagoa zelako. Kordadun espartinaz gain, fantasiazkoak, lanekoak eta kirola egitekoak egiten hasi ziren. Dena dela, ahalegin horiek alferrik izan dira eta espartinaren gainbehera hasi zen.

Gainbehera

Maite Tauzin mauletarrak erronkariar asko ezagutu ditu, haiekin batera urte askoan aritu baitzen lanean espartin lantegietan. Egun, 62 urte ditu. Bere semeak Tauzin 30 laguneko espartin enpresa zuzentzen du. Bera espartingile bezala hasi zen Zuberoako kooperatiba batean. Bost edo sei langilek Espartina Kooperatiba egin zuten eta han bederatzi urte eman zituen. «Zuberoan bazen lana, eta bizi zen lantegi horietatik. Mauleko karrika inportanteenean, Victor Hugo etorbidean, baziren espartingintzako lau lantegi. Trentzak, korda, zolak dena egiten zuten Zuberoa

Azken te

XIX. mendearen azken laurdenetik XX.aren erdialdera bitartean Maulera espartinak egitera joan ziren erronkariarren artetik gutxi bizi dira egun, eta, tamalez, denborak eraman ditu haien oroitzapen eta bizipen gehienak. Hala ere, oraindik bada norekin mintzatu. Egun eta urteekin nahastu egiten bada ere, garai haiek gogoan ditu Gumersinda Goñi amonak; Erronkari herriko Estrada etxean jaio zen bera, 1910ean. Egun, 90 urte ditu. Gor samarra dago, eta makilaz lagunduta dabil, baina burua argi du, eta umore onean igarotzen ditu egunak Iruñean, alaba baten etxean. Zortzi anai-arreba ziren, eta 1930eko urrian bera eta ahizpa Zuberoako hiriburura joan ziren; bide gehiena oinez egin zuten, aurreko urteetan Maulen espartinak egiten egonak ziren beharginen moduan. Orduan 20 urte zituen berak, eta ahizpa gazteagoa zen. «Erronkaritik goizean goiz atera eta, Arrakogoiti igoz, menditik joan ginen. Txango bat izan zen. Herriko mutil gazteek eramaten zizkiguten maletak eta laguntzen ziguten bi-

dean. Mugaz b
nibane-Garaz
hartzen genue
maten gintuzt
eta eguna bid
nuen», gogora

Hurrengo e
ziren lanean.
pe eta Biraben
beharra, urri

Gumersind
Ederrek eta ir
tean bakarrik
rreko belaun
rraikiz egin zu
Espartingintz
eta ez zuten H
harrik. Lan b
ziren arren, b
ostatu hartu
dio. «Ez zen la
lita zen espart
rako ez zegoen
tan hasten gi
etxera buelta
eta gero ordu
tzen ginen be

Gumersind

ileen bide luzea

● Mikel Saiz

osoarentzat», gogoratu du. «Orai lantegi guztietan batzen diren bezainbeste langile bazuten lantegi bakoitzak», gaineratu du pentsakor.

Maitek erronkariarrak Francoren garaian ezagutu zituen. «Gerra Zibilean etorri ziren beste aldetik asko. Mendiz mendi etorri ziren miseria handian, ez zen urruti muga. Errefuxiatuak ziren, ez zuten jantzia besterik ekarri berekin. Jente horiek egin dute beren familia Maule Gainea auzoan, eta kasik denak bizi ziren hor», azaldu du. Eta, nola ez, Maulera etortzen zirenak haiengana joaten ziren, komunitate bat osatzen zutelako. «Orduan bazen guztientzat lana, egiten genuen astean 48 oren lan eta gero etxerat ere eramaten zen lana. Espartinaren marrazkiak egiten aritzen ginen gauetan guretako dirua biltzeko».

Era berean, haien artean ez zuela euskaldunik ezagutu azpimarratu du. «Gu frantsesez aritzen ginen eta haiek espainolez. Euskara ez zen maite lehenago lantegietan».

gantzak

istean, Do-
nioneta bat
eraino era-
ta ginen,
tzen ge-

n hasten
k Appales-
egin zuen
bitartean.
Eufrasia
lia, urte ba-
nulera. Au-
utenari ja-
iko bidea.
an zegoen
ngileen be-
murrak ez
iten etxean
a egon zela
an. Oso po-
boaina ordu-
eko zortzie-
guerdian
zkaltzera,
k arte ari-

n zolaren

inguruan tela jarri eta makinaz josten zituen. Lehortzen zirenean sailkatu egiten zituzten. «Kalamu zuntzazko zola zuten, eta beltzak eta zuriak egiten genituen. Ahizpak zintak pasatzen zituen», gaineratu du. Zuberoarrekin izandako harremanaz ere mintzatu da. Han frantsesa eta gaztelania besterik ez omen zen egiten. «Gehienetan gaztelaniaz hitz egiten genuen. Zaharrek ere ez zuten euskaraz hitz egiten, denak gaztelaniaz».

Gutxirekin bizitzen ohituak, emakume haientzat espartinak egiten irabazitakoa dirua zen. «Behar genuen jantzi guztia egin genuen. Handik ekartzen genituen tretxurako harizko mahai-zapiak, familia osoa janzten genuen, denentzako denetarik ekartzen genuen», dio.

Bi herrialdeen arteko joan-etorriak eta harremanak handiak baziren ere, zekartena mugan pasatu behar zen. «Espartinak eta jantziak ekartzen genituenean, lagunak genituen benta batean gordetzen genituen; Juan Pito benta zen, eta ahal zutenean Izabara jaisten zizkiguten», dio irribarrez.

Erronkariko espartingileen bidea



J. Apeztegia

Mauletarraren irudikoz, espartinaren gainbehera ezinbestekoa zen. Batzuk hasi ziren larruzko zapatak eta beste oinetakoak egiten, Elizabide kasu, baina konkurrentziak gero eta gehaigo ito zuen espartingintza. «Ez ziren oraingo legerik eta enpresariak nahi zuenean bota zezakeen langilea. Orai legeak daude, baina afera kanpoko konkurrrentzia izan da. Lantegi handiak ziren eta gestioneak ez ziren ongi egin», dio.

Egun, Etxandi da dagoen enpresa handiena, ehunen bat langilerekin eta kinka larrian dago, espainiarren eta, batez ere, txinatarren konkurrentzia dela eta. Bestalde, batzen dira sei edo zazpi lantegi txiki, eta bakoitzak bereak egiten ditu. «Gurean badira 30 langile, denetara 100n bat langile batzen dituzte. Lantegi inportateenak denak atzeratuak dira», dio etsiturik. Beraz, etorkizuna ez da batere ona. «Ez da industria erraza, ez da saltzen ahal biziki kario, nahiz eta Txinatik ekarritakoak kalitate txarra izan, eta biharamunean hautsiak diren. Ez dute hemengo berbalioa, baina jendeak erosten duelarik ez dio so egiten kalitateari, so egiten du polita dela. Irudi du bera dela, baina bi egunen buruan ez duzu zapatarik», azaldu du. Tauzinen irudiko, lantegi txipiak jarraituko dute, baina kudeaketa estuki jarraitu beharko dute. «Etxandik hartzen ez duen komanda txikia lantegi ttipi batek har dezake. Ez da behar langile asko», azpimarratu du. Horretan aritua denez badaki zer den espartinak egitea. Berazk dioenez eskuz egunean 14 egiten dira, eta mekanikaz 800 pare sinple. «Fantasia egiten bada, garestiagoa da. Urtero aldatzen da moda. Urte batez behar duzu tresneria aldatu moda bezala eta biziki karioa da. Aldiz, sinple egiten bada mekanikaz egiten da eta tresneria bera da».

Espartingintza beheruntz badoa ere, Kebenko elkarteak erronkariko neskatxa haien ibilerak eta lana goraipatu nahi ditu. Uskararen Eguneko ekitaldira garai hartako lekuko bakarra joanen den arren, Bisi Garces izabarra, desagertutako eta bizi diren bakanei eskainitako omenaldia izanen da. Hitzordua Izabako Museoan da gaur, 12:00etan.

→ Irene Arrizurieta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Harrietaren ekarpen lexikoa

Bi dira euskalgintzan bere arrastoa utzi duten Harriet abizenekoak -zer gisa ere, hegoaldeko Arrieta abizenari lekiokeena hots-, Martin aitatxia eta Maurizio biloba; tartean Pierre aita eta Fabien anaia ere izan ziren, Hiribarrenek izkiriagai izan zituenak...

ESAN BEZALA, HIRIBARRENEK bere *Eskaldunak* 1853.eko olerki erraldoian Harriet aikoaren aipua bazekarren: Haltsuco cen Harriet yuie ohorezco, / Utzi duena ume bera idurico: / Aphez arropa dute biec garraiatzen, / Izpiritu dutela guciec aithortzen. / Ecin ukhatua da, badute mihia / Urrezcoa duena hitzezco yaria; / Bat escola guidari Baïonan higatzen, / Omenic ederrenac duela beztitzen; / Semenarioan da bigarrena nausi, / Bere hegaletaco guti du ikusi, / Hainitz gauzaz burua bethe du gazteric, / Ene ustez guti du bere parecoric, / Yaincoac eman dio gaindiz izpiritu, / Laguntzen ere berac dohainac baditu, / Gose da liburuen, ez huzcur laneco, / Nahi edo ez yakin behar da holaco .

Martin Harrietek, Jean izeneko teila saltzaile baten semeak, erret notari ziharduen Larresoron, 1741.ean eta Baionako Fauvet erregearen inprimadoriak baitan *Gramatica escuaraz eta francesez, composatua francez hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan* izenburuko idazkia argitara eman zuenean. Hagitzez lan zabalagoaren lehenbiziko laurdena baizik ez zatekeen honakoa, haatik bertan iragarri gaztelera-euskara hiztegia edota Lapurdiko foruak zein azturak oraino ezezagun irauten zaizkigu, izkiriatu zituenentz gauza ziurra ez delarik. Larramendik ezagutu zuen Martin Harrieten lana eta gramatikari darraizkion hiztegiez baliatu zen hein batean; hiztegi hauek oixtian eman zituen argitara Joseba Andoni Lakarrak ASJU-ren kaierretan *Harrieten gramatikako hiztegiak*. Aurretikago ere, Bozas Urrutiak Harrieten liburuari hasiera ematen dioten hiru onarpenak berrargitaratu zituen BAP-en, hau da, Milafrangako erretorea zen Robin apezarena, Ziburukoa zen J. Darretxerena, eta Larresoroko apezgaitegiaren zuzendaria zen Dagerrerena, lehenbiziko biak euskaraz eta hirugarrena frantsesez eginak direnak:

Haguitz progrotchossa içanen dela francesa ikhassi nahico duten escualdunençat (...) hemen caussituco dute berce nihon aurkhitcen ez den escuarazco hitcen hedadura, berboen demboren differencia eta batçuec eta bercec francesarequiñ duten aria (...) liburu hunen authorac aguincen darozquigun ondocoec oraiño hobequiago eçagut eracico dute gure hitzcunça çahar beçain ederraren precio gucia (Robin); Gu escualdunac, erresuma berecoac, lagunça horren escasez edo objet handi hequien eçagutçaz gabetuac içan behar guinduen, edo francesaren ikhasteco berriz campoan despendio handien eguitera bortchatuac guiñean. Jaun Harriet Notari errialari diogu esquer, ceren escuara eta francesezco Gramatica huntaz bideac errechtu darozquigun (...) escuarac francesarenganic urruntasun handia duela dirudien arren, haiñ hurbildu du bata bercearenganic non orobat balia baititeque francez escuara ikhasi nahi dutenençat, nola escualdun francesa iaquiñ nahi dutenençat, ecen ez choilqui haiñec hemen aurkhituco dituzte hitcen sensuac eta berboen demborac arrimu errach batean emanac, baiñan oraiño eçagutuco dute escuara berean eguiña den hautu justua. Hortic agueri da ceiñ important den Gramatica hau arguitarat ematea (Darretxe).

Martinen biloba zen Maurizio Harriet Haltsun sortu zen, 1814.eko irailaren 14an. Larresoroko apezgaitegian zein Pasaiako josulagunen ikastetxean ikasi ostean, Parisko San Sulpizio apezgaitegian sartu zen, 1842.ean apeztu zelarik. Baionako apezgaitegi haundian irakasle ihardun ostean Madrilgo Saint-Louis-des-Français eliza, erietxe eta eskolako zuzendari joan zen 1855.etik 1878.era. Urte horretan berean, eri zegoen eta, etxera joan zen eta bertan zendu zen 1904.eko otsailaren 16an. Madrileratu aitzin, Baionaldeko giro euskaltzalean jada ezaguna egin zen Maurizio; bera izan zen D'Abbadieren laguntzailerik hoberena Urruñan 1873.ean egin ziren lehenbiziko lore-jokoetan, eta nahikoa ezaguna da Dassancerekin batera Haranederren testamentu berriaren editorea izan zela 1855.ean -Haranederrena baino Harrieten beraren testua ziruditen lau ebangelioen moldatzailea, bada, ia lerro guztietan ikuturen bat sartu baitzuen-.

Hiztegia bizitzaren azken urteetan moldakatu zuen Mauriziok, Haltsun zegoela; ez zuen argitara eman nahi izan, eta hil ostean, esku-izkribua inprentarako prest bazegoen ere, Larresoroko apezgaitegiaren liburutegian geratu zen. 3.536 orrialdeko lan mardo hau ez zuen Azkuek profitatu, bai ordea Lhandek, askotan hitzez hitz Harrietek dioena kopiatuz. Arras hiztegi aberatsa dugu Mauriziorena; sarrerak euskaraz eta ordainak frantsesez dira, bai eta maiz gazteleraz ere; euskalkia beti ematen da, eta askotan ere egileen adibideak -130 idazleren aipuak darabil Mauriziok- edota etimologiak. Nahiz Harrieten hiztegia orain arte bere berean argitara eman ez den, 1987.ean Henrike Knörrek aurkeztu doktorego tesia badugu, *Para una edición crítica del diccionario de Maurice Harriet*, non Lhandek Harrieti zion morrontza aski agerian utzi baitzuen.

etorri ahalean

Patziku Perurena

Tokatzentzik, astori konpittek!

HAMAIKA ALDIZ ADItua, esanera hori, mutikotan. Bataioren batean bilduta sos pizarrak eskuan hartuta «Xarden Itxera konpittek erostera» joaten hasi nintzenetik, ikasi nuen, berriz, izatez «konpittek» (guk hala esaten genien Goizuetan beti) zer ziren. Behin bixiatu eta gero, hura poza gurea, mezondoren batean, osabaren batek edo, esaten bazigun: «to bi pezta, ta erostzik konpittek; biño denak ez yan e! eraman batzuk itxekori re». Oi, zeinen erñegarria zen pobreza hura!

Konpitte edo beste goxoki klase asko, Erdi Arorako ba omen zen gurean, batez ere errege eta jauntxo aberatsen otorduetan, baina, artean, gutixi garestixkoa diruz urri samar bizi zen jende soilarentzako. Hasiera batean, jende zezakenaren luju apartekoa izan zen, beraz, konpitte kontua; eta giro hartantxe sortuak ditugu, esanera zaharrok ere:

«Ezttuk konpittak, astontzat iñak!

«Bai tokau be, astuai konpittak!

«Tokatzenzkik astori konpittek!

Ez zirela, alegia, jendaje nabar zarpailarentzat eginak, aparteko gauza goxo eta fin haiek; eta hartatik gero esanera, inolatan ere ez datozkion graduak eta jazkerak erakutsi nahi izaten dituenari leporatua.

Egundaino ezagutzen den konfiteriko libururik zaharrena, XV mendekoa omen da, katalan batena:»Libre de totes maners de confits». Eta nere bihotzeko konpitte hitza ere, badirudi, lat. confectus (alea landu) > franc. (catal.) confit delakotik heldu dela.

Liburu zahar horretan, ongi bereizten omen ditu egileak azukrez egindako konpitteak eta eztiz egindakoak, izan ere, ordurako azukrea ezaguna bazen ere, Ameriketatik sartutako kakao edo beste labore asko erabiltzen suelto hasi arte, ez baitzen azukrezko konpitterik bertakotu eta herritartu, han nonbait XVII. mende erdira arte edo.

Erdi Aroan, inolako araudirik ez izatean, espezieroak, botikeroak, herbolarioak, perfumegileak, argizarigileak eta konfiteroak elkarrekin nahaste samar ageri dira, harako Xenpelarren bertso aldrebes sonatu hartan bezala:

Aranon sortu dira
amalau nobiyo;
zortzi konfitero ta
sei botikario...

Baina, Nafarroan, aurreneko ordenantzak 1568an sortu zirenetik, argizarigileak eta konfiteroak zaku berean beti: «gremio de cereros y confiteros» XVI-XIX mendera arteko dokumentuetan. Izanaz ere, erleak sortzen baitzuen, argizaria, kandelak eta beste egiteko ezkoa, eta baita konpitteak egiteko eztia ere, eta horrexegatik argizarigileak eta konfiteroak gremio bereko. Eta horrek erakusten du ederki, konpitteak egiteko eztia erabiltzen zela endemas, hasiera batean behintzat, gero azukrea gailendu bazen ere.

Esan liteke, mende honen erdira arte, herri kozkor gehienetan bazela argizarigile eta konfitero edo txokolateroren bat, erdarazko eskuizkribu zaharretan behintzat, hor agertzen dira «maestro cerero, confitero, alias chocolatero» eta gisakoak noiznahi.

Batez ere, herriko festa haunditan, Eguberritan, Ihautetan, Pazkotan, ezkontzatan, bataiotan eta holakotan ateratzen ziren konpitteak, aparteko gutixi moduan, eta herrian bertan ofiziokorik ez bazen, kanpotik etorko zen konfiteroa. Hanako herrikanta zelebre hark dioen gisan:

Saltzen, saltzen
zaku txiki baten karameluak.
Esta muy bien!
esaten du konfiteruak.
Cuando vamos
a Otxandiano,
a pasar el Carnaval,
mecagoen la mar!
tomaremos chocolate,
oiñal zar zar batian.

Ez dakit zergatik, baina, konpittek, konfiteria, konfiteroa hitzak xalo egiten zaizkit, badirudi, mizka goxo gisan itsatsiak geldidu direla nere gogoan.

Ziria — Motxorrosolo

Foroak

HAUTESKUNDEEN GARAIAN, KALAKA DUGU SASOIKO FRUITUA. Elkarrizketaren beharra inoiz baino gehiago azpimarratuko den honetan, elkar aditu ere ez dute eginen politikari askok eta askok. Nafarroa Garaian, foroen alorrean nozitzen dugun defizita, berriz ere azaleratua, ez dirudi hori guztia zuzentzeko saio eraginkorrik izanen denik.

Igor Ijurra

Etxarri-Aranazko abesbatzako zuzendaria

«Koruaren isla izanen da konpaktua»

Laster 26 urte beteko ditu Etxarri-Aranazko abesbatzak. Kantatzen urte ugari dabiltzan arren, oraindik ez dute kalitatezko lanik kaleratu. Dena dela, denbora honetan hartutako eskarmentua aprobetxatuz, aurki disko konpaktu bat plazaratuko dute. Eliz musikak, profanoak eta euskal kantek osatuko dute lana. Abesbatzaren isla izanen da bilduma, eta lehenengo grabaketak Bakaikuko elizan egin dituzte jadanik.



● Mikel Saiz

MUSIKA ZAINETAN DARAMA Igorrek; musikaren alde guztiak ezagutzeko espanabari zaio.

■ **Zergatik erabaki duzue lehenengo konpaktua orain grabatzea?**

Grabaketa bakarra dago, 1983koa. Orduan abesbatza Tolosako lehiaketara joan zen, eta han abestutakoak grabatu zituen. Atera zen zinta kalitate eskasekoa zen, eta ez zen askorik saldu. Oraingoan, berriz, nahi duguna da serioago lan egin. Batetik, hamasei urte daramagu grabaketarik egin gabe, abesbatzaren soinua aldatu egin da, jende berri asko sartu delako. Horretaz gain, kontzertuetara joaten garenean ea grabaketarik ba dugun galdetzen digute beti. Azkenik, lehiaketa edo jaialdi batera joateko orduan zinta zahar bat bidali beharrean, hobe da grabaketa on bat bidaltzea, konpaktu batean jasoa. Konpaktu bat grabatzeak izen ona ematen du.

■ **Zer jasoko du lanak?**

Hasieran Sakanako konpositoreak sartzea pentsatu genuen, baina oso murritza geldituko zen. Hori dela eta, lehenengo konpaktua izanik abesbatzan abesten ditugun kantak laburbiltzea pentsatu dugu. Hori bai, Sakanako bi konpositore sartu ditugu: Lorenzo Ondarra bakaikuarra, eta Felipe Gorriti uhartearra. Halaber, jasoko ditugu XIX. mendeko musika erromantikoa, eta XX.eko eliz musika eta profanoa. Lorenzo Ondarraren sei *Gabon kantak* izanen dira.

■ **Hamasei urteotan abesbatzaren soinua aldatu dela aipatu duzu. Zer bilakaera izan duzue?**

Tinbrea aldatu da. Badauzkat duela 25 urteko grabaketak, baita neronek koruan hasi nintzenetik gaurdaino grabatutakoak ere. Urtez urte doinua aldatuz doa. Badaude hogei lagun orain hamabost urte zeudenak, baina jende berria ere etorri da, eta azken urteetan ahots teknika landu dugu. Zuzendari bakoitzarekin aldatzen da soinua eta kantatzeko modua. Duela 25 urte Etxarriko koruak oso fuerte abesten zuen, eta jendea liluraturik geratzen zen bolumenagatik. Orain entzuleak ez du bolumena bakarrik eskatzen, besterik ere nahi du. Nire nahia ez da sekulako ahotsak ateratzea bakarrik, beste gauza asko ere landu behar dira, eta horretan koruak aurrerapausoak eman ditu.

■ **Zein izan dira pauso horiek?**

Abesbatzan sartu nintzenetik berehala ikusi nuen ahots teknikan lan egin behar genuela, eta Maria Eugenia Etxarren Iruñeko soprano batekin ikastaroak egin ditugu. Bestalde, jende askok solfeoko eta kantuko klaseak hartu ditu. Jendeak lan egiten du bere kabuz. Irailean ere eginen dugu ikastaro bat. Esperientziak ere laguntzen du, kontzertuetan ariz eta errepertorio berriak sartuz ere, eskarmentua lortu dugu.

«Orain entzuleak ez du bolumena bakarrik eskatzen. Nire nahia ez da sekulako ahotsak ateratzea bakarrik, besterik ere landu behar da, eta horretan koruak aurrerapausoak eman ditu»

■ **Euskal musikak, beraz, lekua izanen du zuen lanean.**

Koruaren isla izanen da konpaktua. Euskaraz hamarren bat kanta sartuko ditugu, diskoaren erdia edo. Ondarraren *Gabon kantak* sartuko ditugu, eta beste pare bat abesti: *Mendigaina*, Alacanteko konpositore batek Xabier Lizardiren olerki baten oinarriturik egina, eta *Aunitz urtez*, Baztango mutil-dantzaren omenez Jon Oñatibiak egindako kanta, besteak beste.

■ **Duela bi aste hasi zineten grabatzen. Falta dena noiz eta non eginen duzue?**

Hasi ginen Bakaikuko elizan. Txikia da, baina oso akustika egokia du, ez dauka oihartzun handirik. Berrogeita hamar lagun gara, eta Iruñera mugitzeko zaila da. Egokia iruditu zitzaidan, eta Ausart Orioko disketxekoak ondo zegoela esan zidan. Gure asmoa da grabaketak irailean eta urrian bukatzea. Ekainean eta uztailean kontzertu ugari dauzkagu, eta abuztuan jai hartzen dugu. Horregatik, irailean eta urrian beste saio pare bat eginen ditugu, Bakaikuko elizan edo Etxarrikoan. Uztailean emanen ditugun kontzertuetan zuzeneko grabaketa batzuk ere eginen ditugu seguruenik. Ahal den material gehiena izatea nahi dugu, eta hortik aukeratu. Beharbada kantu batzuk zuzenean kantatutakoak eta besteak estudioan grabatutakoak sartuko ditugu.

■ **Zu bezain gaztea da abesbatza?**

Ez. Denetarik dugu, hamaisei urtetik hasi eta 62ra arteko abeslariak daude. Nahiko soinu nahiko orekatua dugu. Etxarri 2.300 laguneko herria izanik, ezin da aukeratu, baina oreka polita lortzen dugu.

■ **Nolakoa da Euskal Herriko abesbatzen maila?**

Euskal Herriko mailarik altuena Gipuzkoan dago. Arrazoia zuzendarien prestakuntza da. Nafarroan, zuzendariak, oro har, ez dira prestatzen. Lau edo bost lanean ari gara, baina beste asko ez dira berritzen. Zuzendari bat ez bada prestatzen, nola demonio egingo du gora koru batek? Gainera, hemengo musika hezkuntza oso urria da. Alemanian edo Errumanian, adibidez, haurrak lau urterekin hasten dira musika ikasten.

→ Irene Arrizurieta

soslaia

Igor Ijurra etxarriarrak ekainean 26 urte beteko ditu eta jadanik eskarmentudun zuzendaria da. Gidatzen duen abesbatzan kantari hasi zen, baina aurreko zuzendariak postua utzi zuenean berak hartu zuen taldearen ardura. Orduan, hemeretzi urte besterik ez zituen. Beldurra uxatu eta geroztik taldearen lana hobetzen saiatu da. Astean bitan eta askotan hirutan entsaiatzen dute.

Opuseko Unibertsitatean zuzendaritza ikasi bazuen ere, pianoa, armonia, kantua ikasi ditu, eta aurten solfeoko irakasle tituloa ateratzeko ikasten ari da Pablo Sarasate kontserbatorioan. Majina bat ikastaro ere egin ditu: Euskal Herriko Abesbatzen Elkartean eta Leidan, besteak beste. Orain berriz, Alemaniara doa hamar egunetarako zuzendaritzan gehiago trebatzeko. Zuzendari profesionala izatea oso zaila dela badakienez, aurten musika tituloa ateratzen badu eskolaren batean lana aurkitzen saiatuko da.

Hamahiru urtetan ez omen zuen musika klasikoa ikusi nahi ere, baino azken urteetan ez du koru musika edo folk-a besterik erosi. Hala ere, heavy-a, pop-a edo euskal musika maite ditu. Musikaz landa, dantza eta txistua ditu gustoko, baino aritzeko betarik ez. Bestalde, geografia, historia eta arte liburuak irakurtzea du afizio. Abesbatzak gainera, horiek garatzeko aukera ematen dio, emanaldiak direla medio, bidai franko egiten dituztelako.

Nafarkaria

Egunkaria

• larunbata • 1999ko maiatzaren 22a

ZALDIEROA.komikizopa

Nafar Kronika

Gontzal Agote

Nire erantzukizuna

Artikulu hau idazten ari naizen bitartean milaka tona lehergailu ari dira ondoko eraikin, plaza eta loratzegietan eztanda egiten. Zarata gortzeko modukoa da eta gaua argitzen duten eztandak izugarri politak izango lirateke su artifizialak izango balira. Baina ez, umeen negarrek ez dute miresmenerako tarterik uzten, ezta haien gurasoen izu aurpegiek ere, hurrengo misila noiz eta non eroriko zain ematen dute gau-eguna. Hildakoak pilatzen dira errepideetan, inork ez baitu adorerik bertatik kentzeko eta suntsitutako hiria, ke beltzaren artean ezkutatuta, bere patuaren zergatia galdetzen dio munduari. Belgraden nago eta hurrengo errorea izan naiteke.

Artikulu hau idazten ari naizen bitartean hamaika haur, gazte eta zahar lokatzaren artean pilatzen dira, kanpaina denda moduko baten azpian. Gosetuta gaude, hona ekarri gintuztenetik ez dugu mokadurik jan eta inork ez digu arrazoirik ematen. Aurreko urteetan inondik ere ikusi ez ditugun militarrak baino ez dira ikusten, USA jartzen duen uniformeetan babestuta, ez dute albanieraz hitz egiten eta inork ulertzen ez dituen oihuak botatzen dituzte. Diotenez, gure salbatzaileak dira; gaur etorri da bisitan aktore ezagun bat omen zena eta denok txalotu behar izan diogu kameren aurrean. Gizon-emakume talde batek negar egiten du txoko batean, horietako baten semea mendietan hil dute, bere lurra defendatzera atera zelako. Kosovoarra naiz eta Albaniako errefuxiatu gune honetatik ezagutzen ez dudan herrialde batera eramango naute bihar. Auskalo itzuliko ote naizen.

Artikulu hau idazten ari naizen bitartean telebista piztuta dago. Arrakasta hitza entzuten dut, hiru zubi gutxiago. Errorea hurrena, hogei pertsona gutxiago, berdin dio kosovoar zein serbiar. Ez dut indarrik telebista itzaltzeko, jeneralak eta uniforme gehiago, arma ultramodernoak, politikarien ahalegin saiatuak, batzuen ankerkeria, giza laguntza, nato, nato eta nato. Nire etxean nago eta hiltzaileen laguntzailea naiz.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Iruñea:** Luar Na Lubre taldeak kontzertua emanen du gaur, 21:00etan, Gaiarre antzokian. Sarrerak 2.500 pezeta balio du.
- **Barañain:** Niko Etxart kantariak kontzertua eskainiko du gaur, 20:00etan, Haizea Elkartean.
- **Burlata:** Skalariak, Koma eta Pottor's taldeen emanaldia izanen da bihar, Askatasuna ikastetxean.
- **Aurizberri:** Roberto Casado txirula joleak eta Elisabeth Colard harpa joleak kontzertua eskainiko dute etzi, 18:30etan, elizan.
- **Iruñea:** 321 Sextet jazz taldeak joko du datorren asteazkenean O' Connor's tabernan, 23:00etan.

ERAKUSKETAK

- **Iruñea:** Orain dela ehun urteko nafarren bizimodua islatzen duen erakusketa ikus daiteke Gotorlekuko Arma Aretoan, hilaren bukaera arte.
- **Iruñea:** Maiatzaren 28a arte ikusgai izanen dira Iruñezar euskaltegian 9, 10 eta 11. Korrikako argazkiak.
- **Burlata:** Donejakue Bideko argazki erakusketa ikus daiteke hilaren bukaera arte Kultur Etxean.

ANTZERKIA

- **Barañain:** AZ taldeak *Misterio Bufo* lana antzeztuko du datorren ostegunean, 20:00etan, udaletxeko ekintza anitzetarako aretoan.
- **Burlata:** Truke taldeak *Kontu kontari* lana jokatuko du astelehenean, 15:00etan, frontoian.
- **Zangoza:** Teatro Paraisok *Yo soy un oso* lana eskainiko du bihar, 18:30etan, Karmengo Entzutegian.
- **Zizur Txikia:** Teatro de la Resistencia taldeak *Don Quijote* lana antzeztuko du gaur 19:30etan, frontoian.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** La Pamplonesa musika bandak ondoko postuak bete nahi ditu, lehiaketa bidez: txirula, klarinetea, klarinete baxua, klarinete bostekoa, tronpa eta fagota. Lehiaketan parte hartu nahi duenak ekainaren 15a arte du epea. Eskaerak Iratxe Monasterioa kalea, 6, behea helbidera igorri behar dira. Informazio gehiago nahi duenak dei dezala 948-420576 telefonora.
- **Azkoien:** Nafarroatik kanpo bizi diren nafarren eguna ospatuko da etzi. Goizeko 06:00etatik aurrera hainbat ekitaldi antolatu dira: dianak, meza, kontzertua, herri kirolak, jotak eta bazkaria, besteak beste.
- **Iruñea:** Jose Maria Romerak Ernest Hemingway y nosotros hitzaldia eskainiko du gaur, Iruñeko Kutxan (Armada Etorbidea), 20:00etan.
- **Etxarri-Aranatz:** Ana Karmen Huarte dietetikan adituak mehetzeko dietez mintzatuko da datorren ostegunean, 19:30etan, Kultur Etxean.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



O fracasado da emigración.

Atzerrian frakaso harturik.